# Nokia E52 erabiltzailearen gida

Argitalpena 2

© 2009 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

ONESPEN ADIERAZPENA

CE0434 ⓘ Honen bidez, NOKIA CORPORATIONek adierazten du RM-469 telefonoak 1999/5/EC Zuzentarauko oinarrizko baldintzak eta dagozkion gainerako xedapenak betetzen dituela. Onespen-adierazpen horren kopia bat http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/ helbidean aurki daiteke.

Nokia, Nokia Connecting People, Mail for Exchange, N-Gage, OVI, Eseries eta Nokia E52 Nokia Corporation-en marka erregistratu edo merkataritza-markak dira. Nokia melodia, Nokia Corporationen soinu-marka bat da. Hemen aipatutako gainerako produktu edo enpresen izenak jabeak dituzten marka edo izen komertzialak izan daitezke

Galarazita dago dokumentu honen edukia, zatika nahiz osorik, kopiatzea, igortzea, zabaltzea edo gordetzea, edozein modutan, Nokia konpainiak aldez aurretik idatzizko baimenik ematen ez badu.

symbian This product includes software licensed from Symbian Software Ltd ©1998-2008. Symbian and Symbian OS are trademarks of Symbian Ltd.

Java POWERED Java and all Java-based marks are trademarks or registered trademarks of Sun Microsystems, Inc.

Portions of the Nokia Maps software are ©1996-2008 The FreeType Project. All rights reserved.

This product is licensed under the MPEG-4 Visual Patent Portfolio License (i) for personal and noncommercial use in connection with information which has been encoded in compliance with the MPEG-4 Visual Standard by a consumer engaged in a personal and noncommercial activity and (ii) for use in connection with MPEG-4 video provided by a licensed video provider. No license is granted or shall be implied for any other use. Additional information, including that related to promotional, internal, and commercial uses, may be obtained from MPEG LA, LLC. See http://www.mpegla.com

Produktu honek MPEG- 4 Visual Portfolio License-ek emandako lizentzia du (i) jarduera pertsonal eta ez komertzialetan ari den kontsumitzaile batek MPEG- 4 Visual Standard-en arabera kodetutako informazioarekin erlazionatutako erabilpen pertsonal eta ez komertzialerako eta (ii) lizentziadun bideo hornitzaile batek emandako MPEG-4 bideoarekin erabiltzeko. Lizentzia batik ez da emango edo engaiatuko beste edozein erabilpenerako. Argibide gehigarriak, sustapena, barne edo erabilpen komertzialekin zerikusia dutenak barne, MPEG LA, LLC-tik lortu daitezke. Ikusi http://www.mpegla.com.

Nokia konpainiak etengabeko garapen politika bat du. Nokia konpainiak dokumentu honetan deskribatutako edozein produktutan aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea gordetzen du, aldez aurretik horren berri eman gabe.

LEGEAK ONARTZEN DUEN NEURRIRIK HANDIENEAN, NOKIA EDO BERE BESTE EDOZEIN BAIMEN HORNITZAILEK EZ DU INONDIK INORA ERANTZUKIZUNIK IZANGO, EDOZEIN DATU EDO IRABAZIEN GALERAGATIK EDO EDONOLA SORTUTAKO KALTE BEREZI, USTEKABEKO, ONDORIOZKO EDO ZEHARKAKOENGATIK.

DOKUMENTU HONEN EDUKIAK "BERE HORRETAN" HORNITZEN DIRA. LEGEAK ESKATZEN DUENETIK AT, DOKUMENTU HONEN ZEHAZTASUNARI, FIDAGARRITASUNARI EDO EDUKIARI DAGOKIONEZ EZ DA INOLAKO BERMERIK EMATEN, EZ ESPLIZITU EZ INPLIZITUKI, SALEROSGARRITASUN ETA HELBURU JAKIN

BATERAKO EGOKITASUNARI DAGOZKION BERMEAK BARNE, BAINA HAUETARA MUGATU GABE. NOKIA KONPAINIAK, EDONOIZ ETA AURRETIK OHARTARAZI GABE DOKUMENTU HAU BERRIKUSI EDO ERRETIRATZEKO ESKUBIDEA GORDETZEN DU.

Nokia telefonoaren edozein softwareren alderantzizko ingeniaritza debekatuta dago aplikagarriak diren legeen mugen barruan. Erabiltzailearen gida honetan aipatutako Nokia konpainiaren ordezkaritza, berme, kalte eta erantzukizunei dagokien mugek Nokia konpainiaren baimen hornitzaileen ordezkaritza, berme, kalte eta erantzukizunak ere mugatuko dituzte.

Produktu zehatzak eta produktu horientzako aplikazio eta zerbitzuak eskuratzeko aukera herrialde batetik bestera alda daiteke. Jo ezazu zure Nokia hornitzailearengana dauden produktu eta hizkuntzen aukeren berri izateko.

Esportazio-kontrolak
Telefono honek Amerikako Estatu Batuetako eta beste herri batzuetako esportazio lege eta arauak bete behar dituzten osagai, teknologia edo softwarea izan ditzake. Debekatuta dago legea urratzea.

FCCren eta Kanadako Industria Sailaren oharra
Zure telefonoak irrati eta telebista interferentziak sor ditzake (telefonoa hargailu elektroniko batetik oso gertu erabiltzen denean, adibidez). FCCk edo Kanadako Industria Sailak zure telefonoa erabiltzeari uzteko eska diezazukete, interferentzia horiek ezabatzerik ez balego. Laguntzarik behar izanez gero, zure inguruko zerbitzu-gunera jo. Telefono honek FCC-ko araudiaren 15. atala betetzen du. Telefonoa erabiltzeko bi baldintza hauek bete behar dira: (1) interferentzia kaltegarririk ez eragitea eta (2) jasotako interferentzia guztiak onartzea, nahi ez diren eragiketak sor ditzakeenak barne. Nokia konpainiak argiro onartzen ez duen aldaketarik eginez gero, erabiltzaileak ekipamendu hau erabiltzeko baimena gal lezake.

/Argitalpena 2 EU

# Edukia

**Segurtasuna....7**
Zure telefonoa....7
Sareko zerbitzuak....8

**Hasiera azkarreko gida....10**
SIM txartela, bateria, kargatzea, memoria txartela....10
Hasierako konfigurazioa....12
Teklak eta zatiak....13
Teklak blokeatzea....15
Osagarriak....15
Hasiera pantaila....16
Nokia transferentzia....17
Posta elektronikoa konfiguratzea....18
Antenak....19
Nokia PC Suite....19
Eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak....20
Laguntza....20
Informazio gehiago software eguneratzei buruz....21
Telefonoko laguntza....21

**Nokia E52 – Oinarrizko informazioa ....22**
Telefono konfigurazioa....22
Ezarpen laguntzailea....22
Menua....22
Pantailako adierazleak....23
Testua idaztea....25
Bilaketa....26
Hainbat aplikaziorako ohiko ekintzak....26
Bolumen kontrola....27
Erabili gabeko memoria....27

**Pertsonalizazioa....28**
Profilak ....28
Dei-tonuak aukeratu....28
Profilak pertsonalizatzea....29
Hasiera pantaila pertsonalizatu....29
Pantailaren gaia aldatu....30
Gai bat deskargatzea....30
Audio gaiak aldatu....30
3-D dei-tonuak ....31

**Nokiaren Eseries berria....32**
Oinarrizko funtzioak....32
Hasiera pantaila....33
Ukipen bateko teklak....34
Deiak edo alarmak isilarazteko telefonoari buelta ematea....35
Egutegia....35
Kontaktuak....37
Multiataza....39
Ovi-ko fitxategiak....39

**Mezularitza....40**
Mezularitza karpetak....40
Mezuak antolatu....40
Posta elektronikoa....41
Nokia Messaging....44
Mezu irakurlea....44
Hiztuna....45

Testu eta multimedia mezuak....45
Mezu berezi motak....49
Zelula-difusioa....49
Mezuen ezarpenak....50

**Telefonoa....53**
Ahozko deiak....53
Ahots-postontzia....54
Bideo-deiak....55
Bideoak partekatzen....55
Internet-deiak....58
Ahots funtzioak....59
Markaketa bizkorra....60
Deiak desbideratzea....60
Deiak blokeatzea....61
Sare deiak murriztu....61
DTMF tonuak bidali....62
Hizketa gaia....62
Ahots-komandoak....63
Push to talk (sakatu hizketarako)....64
Erregistroa....68

**Internet....70**
Nabigatzailea....70
Intraneta arakatu....74
Deskargatu!....75
PCa sarera konektatu....76

**Bidaiak....77**
Kokapena (GPS)....77
Mapak....81

**Nokia Bulego Tresnak....90**
Ohar aktiboak....90
Kalkulagailua....91
Fitxategi kudeatzailea....91
Quickoffice....92
Bihurgailua....93
Zip kudeatzailea....93
PDF reader....93
Inprimatu....94
Erlojua....95
Hiztegia....96
Oharrak....97

**Pertsonalizazioa....98**
Profilak....98
Dei-tonuak aukeratu....98
Profilak pertsonalizatzea....99
Hasiera pantaila pertsonalizatu....99
Pantailaren gaia aldatu....100
Gai bat deskargatzea....100
Audio gaiak aldatu....100
3-D dei-tonuak....101

**Multimedia....102**
Kamera....102
Galeria....105
Argazkiak....106
Sarea partekatzea....112
Nokiaren Bideo Zentroa....115
Musika erreproduzitzailea....118
RealPlayer....120
Grabagailua....121
Flash Playerra....122
FM irratia....122
N-Gage....123

**Konektibitatea....................................126**
Pakete datu azkarrak....................................126
Datu kablea....................................126
Bluetooth-a....................................127
SIM sarbide profila....................................130
Hari gabeko LAN....................................131
Konexioaren kudeatzailea....................................133

**Segurtasuna eta datu kudeaketa............134**
Gailua blokeatzea....................................134
Memoria-txartela segurtasuna....................................134
Enkriptazioa....................................135
Markatze finkoa....................................136
Ziurtagiri kudeatzailea....................................136
Segurtasun moduluak ikusi eta editatu....................................138
Urruneko konfigurazioa....................................138
Aplikazio kudeatzailea....................................139
Software eguneraketak ordenagailua erabiliz........141
Sare bidezko software eguneratzeak....................................142
Lizentziak....................................143
Sinkronizazioa....................................144
VPN mugikorra....................................144

**Ezarpenak....................................147**
Ezarpen orokorrak....................................147
Telefonoaren ezarpenak....................................151
Konexiorako ezarpenak....................................152
Aplikazioen ezarpenak....................................161

**Lasterbideak....................................162**
Lasterbide orokorrak....................................162

**Glosarioa....................................163**

**Arazo konponketa....................................167**

**Aholku ekologistak....................................170**
Energia aurreztea....................................170
Birziklatzea....................................170
Papera aurreztea....................................170
Informazio gehiago....................................170

**Osagarriak....................................171**

**Bateria....................................172**
Bateria eta kargagailuaren informazioa....................................172
Nokia baterientzako autentikazio jarraibideak.......173

**Arreta eta mantenimendua....................175**
Birziklatu....................................176

**Segurtasunari buruzko informazio gehigarria....................................177**
Ume txikiak....................................177
Inguru eragilea....................................177
Aparatu medikoak....................................177
Ibilgailuak....................................178
Balizko ingurune leherkorrak....................................178
Larrialdi deiak....................................179
Ziurtagiri informazioa (SAR)....................................179

**Aurkibidea....................................181**

# Segurtasuna

Jarraibide erraz hauek irakurri. Jarraibideok ez betetzea arriskutsua edo legez kanpokoa izan daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, erabiltzailearen gida osoa irakurri.



### MODU SEGURUAN PIZTU

Ez piztu telefonoa haririk gabeko telefonoak erabiltzea debekatuta baldin badago edo interferentziarik edo arriskurik sor baliteke.



### ERREPIDEAN KONTUZ IBILTZEA DA GARRANTZITSUENA

Herri bakoitzeko arau guztiak bete. Gidatzeko orduan, eskuak beti libre eduki autoa gidatzeko. Gidatzen ari zarenean, errepidean kontuz ibiltzea da garrantzitsuena.



### INTERFERENTZIAK

Haririk gabeko telefono guztiek interferentziak jasan ditzakete, eta horrek telefonoaren jarduna kaltetu dezake.



### DEBEKATUTAKO TOKIETAN ITZALI

Telefonoa erabiltzeko murrizketa guztiak bete. Hegazkinetan eta medikuntzako tresneria, erregai, produktu kimiko edo leherketen arriskua duten guneen inguruan telefonoa itzali.



### ZERBITZU HOMOLOGATUA

Langile homologatuek bakarrik instalatu edo konpondu dezakete telefonoa.



### OSAGARRIAK ETA BATERIAK

Osagarri eta bateria homologatuak soilik erabili behar dira. Ez konektatu produktu bateraezinik.



### URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ez du urarekiko erresistentziarik. Lehor manten ezazu.

# Zure telefonoa

Gida honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa UMTS 900 eta 2100 sareak, eta GSM 850, 900, 1800 eta 1900 sareak erabiltzeko homologatuta dago. Sareei buruzko informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoko aukerak erabiltzeko garaian, lege guztiak bete eta tokian tokiko ohiturak eta besteen pribatutasun eta legezko eskubideak errespetatu behar dira, copyright eskubideak barne.

Copyright babesa dela eta, argazkiak, musika eta bestelako edukiak kopiatu, aldatu, igorri edo bidali edo birbidaltzea galarazita egon liteke.

Telefonoak hainbat konektibitate metodo onartzen ditu. Ordenagailuek bezalaxe, telefonoak ere birusak

eta bestelako eduki kaltegarriak jaso ditzake. Mezu, konektibitate eskaera, bilaketa eta deskargekin kontu berezia izan. Software kaltegarrien aurkako babes egokia eskaintzen duten iturri fidagarrietako zerbitzu eta softwareak bakarrik instalatu eta erabili. Hala nola, Symbian Signed ziurtagiria dutenak edo Java Verified™ azterketa gainditu dutenak. Zure telefonoan eta hari konektatutako edozein ordenagailutan birus kontrako edo bestelako segurtasun softwarea instalatzea gomendatzen da.

Zure telefonoak bitartekarien webguneetarako lotura eta laster-markak izan ditzake instalatuta. Zure telefonoaren bitartez beste bitartekarien webguneetara sartzeko aukera izan dezakezu. Bitartekarien webguneak ez daude Nokia konpainiarekin afiliatuta eta Nokia konpainiak ez du hauen inolako ardurarik bere gain hartzen. Webgune hauetara sartzea erabakiz gero, eduki edo segurtasun neurriak hartzea gomendatzen da.

**Abisua:** Iratzargailua ez beste aukerarik erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa, haririk gabeko gailuen erabilerak interferentziarik edo arriskurik sor badezake.

Bulegoko aplikazioek Microsoft Word, PowerPoint, eta Excel-en (Microsoft Office 2000, XP, eta 2003) ezaugarri orokorrak onartzen dituzte. Fitxategi mota guztiak ezin dira ikusi edo aldatu.

Telefonoan gordetako informazio garrantzitsuaren segurtasun-kopiak egin edo informazio hori idatziz gordetzea gomendatzen da.

Beste edozein gailutara konektatu aurretik, gailu horren erabiltzaile-gida irakurri, segurtasunari buruzko xehetasunen berri jasotzeko. Ez konektatu produktu bateraezinik.

Baliteke gidako irudiak zure telefonokoen berdinak ez izatea.

# Sareko zerbitzuak

Telefonoa erabiltzeko haririk gabeko zerbitzu-hornitzaile baten harpidedun izatea beharrezkoa da. Telefonoko aukera askotan sareko aukera bereziak behar dira. Aukera horiek ez daude erabilgarri sare guztietan, zenbait sarek zerbitzu-hornitzaileekin akordio bereziak izatea eska dezakete sareko zerbitzuak erabili aurretik. Sareko zerbitzuak erabiltzean datu-transmisioak gauzatzen dira. Jo zerbitzu-hornitzailera zure hornitzailearen sareko eta roaming sareetako datu-transmisio tarifak ezagutzeko. Zure zerbitzu-hornitzaileak azal diezazuke zerbitzuaren funtzionamendua, baita honen kostua ere. Sare batzuek muga batzuk jartzen dituzte, sareko zerbitzuak erabiltzeko garaian. Esate baterako, sare batzuek ez dituzte hizkuntzei lotutako karaktere eta zerbitzu guztiak onartzen.

Zure zerbitzu-hornitzaileak telefonoko zenbait aukera ezgaitzeko edo ez aktibatzeko eskatu liezazuke. Kasu horretan, aukera horiek ez dira telefonoko menuan agertuko. Era berean, telefonoak konfigurazio berezia izan dezake, menuen izen, hurrenkera edo ikono desberdinak izanik, adibidez. Azalpen gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefono honek TCP/IP protokoloetan dabiltzan WAP 2.0 protokoloak (HTTP eta SSL) onartzen ditu. Halere, telefonoko zenbait aukera erabiltzeko, MMS, arakatzea

eta mezu elektronikoak adibidez, sareak teknologia horiek onartu behar ditu.

**Eskubide digitalen kudeaketa**

Edukien jabe batzuek DRM edo eskubide digitalen kudeaketa (Digital Rights Management) teknologia ezberdinak erabil ditzakete, copyrightak barne, beraien jabetza intelektuala babesteko. Gailu honek DRM software desberdinak erabiltzen ditu DRM-arekin babestutako edukiak atzitzeko. Telefono honekin WMDRM 10 eta OMA DRM 2.0 bidez babestutako edukiak ikus ditzakezu . DRM softwareren batek edukirik babesten ez badu, eduki honen jabeek DRM-en aurka babestutako edukira sartzeko DRM software honek duen gaitasuna baliogabetzeko eskatzeko eskubidea dute. Honek DRM-arekin babestutako eduki hori berriz zure telefonoan berriztea saihes dezake. DRM software hori baliogabetzeak ez du eraginik beste mota batzuetako DRM-arekin babesturiko edo babestu gabeko edukiak erabiltzerakoan.

# Hasiera azkarreko gida

Zure Nokia E52 zure aisialdira egokitzen den laneko gailu bat da.

Irakurri hasierako orri hauek hasteko, eta ondoren erabili gida osoa Nokia E52 zein funtzio berri eskeintzen dizun jakiteko.

## SIM txartela, bateria, kargatzea, memoria txartela

Bildu pieza guztiak eta hasi ezagutzen zure Nokia E52.

### SIM txartela eta bateria sartzea

1. Gailuaren atzekaldeko karkasa irekitzeko, atzekaldea zuri begira dagoela, askatu kisketa eta igo atzekaldeko karkasa.




2. Bateria barruan badago, igo bateria geziaren norantzan ateratzeko.



3. Sartu SIM txartela. Ziurtatu kontaktu eremua gailuaren konektoreei begira dagoela eta igo den eremua gailuaren behekaldeari begira dagoela.



4. Lerrokatu bateriaren kontaktuak bateriaren konpartimentuaren konektoreekin eta sartu bateria geziaren norantzan.



5. Atzekaldeko karkasa berriz jartzeko, eraman goikaldeko kisketak erretenetaruntz, eta sakatu karkasa bere lekuan blokeatu arte.




# Bateria kargatzea

Bateria badator partzialki kargatuta. Gailuak karga baxua adierazten badu, egin hurrengoa:

1. Konektatu kargagailua hormako hartune batera.
2. Konektatu kargagailuaren entxufea gailuaren USB atakara.



3. Gailuak bateria erabat kargatuta dagoela adierazten duenean, deskonektatu kargagailua gailutik eta ondoren hartunetik.

Ez duzu bateria denbora jakin batean zehar kargatu behar, eta kargatzen dagoen bitartean erabil dezakezu. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargatzailearen ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

## USB datu kablea erabiliz kargatzea

USB datu kablea erabiliz kargatzea kargagailua erabiliz kargatzea baino geldoagoa da. Baliteke USB datu kablea erabiliz ezin kargatzea USB hub bat erabiliz gero. Baliteke USB hub-ak USB gailuak kargatzeko bateraezinak izatea.

USB datu kablea konektatuta dagoenean, datuak transferitu ditzakezu bateria kargatzen den bitartean.

1. Konektatu bateragarria den USB gailu bat zure gailuari USB datu kable bateragarri bat erabiliz.

   Kargatzeko erabiltzen den gailu motaren arabera, baliteke karga hasteko denbora gehiago behar izatea.
2. Gailua piztuta badago, hautatu eskuragarri dauden USB moduen artean.

# Memoria txartela sartzea

Erabili memoria txartel bat memoria gailuan gordetzeko. Informazioa gailutik memoria txartelean gorde dezakezu ere bai.

Erabili soilik Nokiak telefono honetan erabiltzeko onartuta dituen microSD eta microSDHC txartelak bateragarriak. Nokiak onartutako sektoreko estandarrak erabiltzen ditu memoria txartelentzako, halere baliteke marka batzuk guztiz bateragarriak ez izatea. Bateraezina den txartel bat erabiliz gero, txartela eta telefonoa kaltetu eta txartelean gordetako datuak honda daitezke.

Memoria txartel guztiak umeen eskuetatik urrun gorde.

Memoria txartela bateragarria den jakiteko, galdetu fabrikatzaileari edo hornitzaileari.

Baliteke paketeak memoria txartel bateragarri bat ekartzea. Baliteke memoria txartela jadanik gailuaren barruan izatea. Hala ez bada, egin hurrengoa:

1. Bateria aske gera ez dadin, kokatu gailua atzekaldeko karkasa goruntz begira dagoelarik.
2. Atzekaldeko karkasa kendu.



3. Sartu memoria txartela erretenean lehenengo kontaktu eremua sartuz. Ziurtatu kontaktu eremua gailuaren konektoreei begira dagoela.
4. Sakatu txartela bere lekuan blokeatu arte.
5. Atzekaldeko karkasa berriz jarri.

## Memoria txartela ateratzea

**Garrantzitsua:** Ez atera txartela eragiketa batean txartela erabiltzen ari zaren bitartean. Eragiketaren baten erdian txartela ateraz gero, memoria-txartela, telefonoa eta txartelean gordetako informazioa honda daitezke.

1. Sakatu itzaltze tekla une batez eta hautatu **Memoria txartela atera**.
2. Bateria aske gera ez dadin, kokatu gailua atzekaldeko karkasa goruntz begira dagoelarik.
3. Atzekaldeko karkasa kendu.
4. Sakatu memoria txartelaren muturra hura erretenetik askatzeko eta atera txartela.
5. Atzekaldeko karkasa berriz jarri.

# Hasierako konfigurazioa



1. Sakatu eta eutsi sakatuta itzaltze tekla gailua bibratu arte.
2. Eskatzen bazaizu, adierazi PIN kodea edo blokeatzeko kodea, eta hautatu **Ados**.
3. Eskatzen zaizunean, adierazi zure uneko herrialdean eta uneko data eta ordua. Zure herrialdea aurkitzeko, idatzi herrialdearen izenaren hasierako hizkiak. Garrantzitsua da herrialde zuzena hautatzea, programatutako egutegi sarrerak ezberdinak izan daitezke eta geroago herrialdez aldatuz gero, herrialde berria beste ordu zona batean kokatuta badago.
4. Telefonoaren konfigurazioa aplikazioa irekiko da. Aplikazio bat konfiguratzeko, hautatu **Hasi**.

Aplikazioen konfigurazioak saltatzeko, hautatu **Saltatu** behin eta berriro. Telefonoaren konfigurazioa aplikazioa geroago irekitzeko, hautatu **Menua** > **Laguntza** > **Tel. konfig.**.

Gailuaren ezarpen ezberdinak konfiguratzeko, erabili hasiera pantailan dauden morroiak eta Ezarpenen morroia aplikazioa. Gailua piztean, baliteke honek SIM txartelaren hornitzailea detektatzea eta hainbat ezarpen automatikoki konfiguratzea. Bestela, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin ezarpen zuzenak galdetzeko.

Gailua SIM txartelarik sartu gabe piztu dezakezu. Gailua Konexiorik gabeko profilean piztuko da, eta ezin izango dituzu sarea behar duten telefonoaren funtzioak erabili.

Gailua itzaltzeko, sakatu eta eutsi sakatuta amaitze tekla.

# Teklak eta zatiak

## Teklak eta zatiak




1 — Itzaltze tekla

2 — Argi sentsorea

3 — Hautatze tekla. Sakatu hautatze tekla haren gainean dagoen funtzioa burutzeko.

4 — Hasiera tekla

5 — Deitze tekla

6 — Egutegi tekla

7 — Mikrofonoa

8 — E-mail tekla

9 — Amaitze tekla

10 — Atzera tekla. Sakatu tekla elementuak ezabatzeko.

11 — Hautatze tekla

12 — Navi™ tekla; hemendik aurrera, korritze tekla deituko diogu. Sakatu korritze tekla hautatzeko, edo pantailan zehar ezkerretara, eskuinetara, gora edo behera joateko. Sakatu eta eutsi sakatuta korritze tekla azkarrago joateko.

13 — Aurikularrak

14 — Bigarren kamera

15 — Aurikularren konektorea




1 — Flash

2 — Kamera nagusia

3 — Bozgorailua

# Teklak eta zatiak (aldeak)




1 — Mikro USB konektorea

2 — Bolumena gora/Gerturatze tekla

3 — Mututze/Push to talk tekla

4 — Bolumena behera/Urruntze tekla

5 — Argazki tekla

bideo de aktibo edo abiadura handiko datu konexioak bezalakoak aplikazioaren eragiketan zehar, telefonoa bero daiteke. Gehienetan hau normala izaten da. Telefonoa ongi ez dabilela irudituko balitzaizu, eraman ezazu zure inguruan dagoen baimendutako zerbitzu gunera.

# Ukipen bateko teklak

Ukipen bateko teklak erabiliz, aplikazio eta atazekiko sarbide azkarra izango duzu.

Esleitutako aplikazioa edo ataza aldatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Ukitu bak. tek.**. Baliteke zure zerbitzu hornitzailea jadanik teklei aplikazioak esleitu izatea; kasu horretan, ezin izango dituzu aldatu.




1 — Hasiera tekla

2 — E-mail tekla

3 — Egutegi tekla

| Tekla | Sakatu azkar | Sakatu eta eutsi sakatuta |
|---|---|---|
| Hasiera tekla (1) | Joan hasiera pantailara | Ikusi aplikazio aktiboen zerrenda |
| E-mail tekla (2) | Ireki postontzi lehenetsia | Sortu mezu elektroniko berria |
| Egutegi tekla (3) | Ireki Egutegia aplikazioa | Sortu bilera sarrera berria |

# Teklak blokeatzea

Telefonoa edo teklatua blokeatuta egonda ere, telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitu ahal izango da.

Gailuaren teklatua automatikoki blokeatzen da nahi ez denean teklak sakatu ez daitezen.

Teklatua blokeatzeko igaro behar den denbora tartea aldatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tekl. autoblokleo tartea**.




Teklak eskuz blokeatzeko hasiera pantailan, sakatu ezkerreko hautatze tekla eta gero eskuineko hautatze tekla.

Teklak eskuz blokeatzeko menuan edo aplikazio ireki batean, sakatu itzaltze tekla une batez, eta hautatu **Blokeatu teklatua**.

Teklak desblokeatzeko, sakatu ezkerreko hautatze tekla eta gero eskuineko hautatze tekla.

# Osagarriak

Zure telefonoa osagarri bateragarri ezberdinekin konekta dezakezu. Egiaztatu onartutako osagarrien eskuragarritasuna hornitzailearekin.

# Aurikularrak konektatu

**Abisua:** Aurikularrak erabiliz gero, kanpotik datozen zaratak entzuteko gaitasuna galdu dezakezu. Ez erabili aurikularrak zure segurtasuna arriskuan jar badezakezu.

Konektatu aurikular bateragarriak telefonoko aurikularren konektorean.




# Uhal bat jarri

Sartu eta estutu uhala irudian azaltzen den bezala.



# Hasiera pantaila

Hasiera pantailan, gehien erabiltzen dituzun aplikazioetara joan zaitezke eta begirada batean dei galduak edo mezuak dituzun ikus dezakezu.

▶ ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerrera.

Hasiera pantaila honetan datza:




1. Aplikazio lasterbideak. Aplikazio batera joateko, aukeratu aplikazioaren lasterbidea.
2. Informazio eremua. Informazio eremuan dagoen elementu bat egiaztatzeko, aukeratu elementua.
3. Jakinarazpen eremua. Jakinarazpenak ikusteko, zoaz eremu batera. Eremua elementuak badaude soilik ikusten da.

Bi hasiera pantaila ezberdin zehatz ditzakezu helburu ezberdinetarako, adibidez, pantaila bat enpresaren kontu elektronikoak eta jakinarazpenak erakusteko eta beste bat mezu elektroniko pertsonalak erakusteko. Honela, ez dituzu laneko mezu elektronikoak lan orduetatik kanpo ikusi beharrik.

Hasiera pantaila batetik bestera aldatzeko, aukeratu ⇄.

Hasiera pantailan zer elementu eta lasterbide egotea nahi duzun zehazteko eta hasiera pantailaren itxura zehazteko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** eta **Moduak**.

# Nokia transferentzia

## Edukia transferitu

Switch aplikazioa erabil dezakezu lehen zeneukan Nokia telefonotik zure telefonora edukia kopiatzeko, adibidez: telefono zenbakiak, helbideak, egutegiko elementuak eta argazkiak.

Gailu igorlearen modeloak transferi daitekeen eduki mota mugatzen du. Gailu horrek sinkronizazioa onartzen badu, gailu batetik bestera datuak ere sinkroniza daitezke. Zure gailuak beste gailua bateragarria ez dela jakinarazten dizu.

Beste gailua SIM txartelik gabe piztu ezin bada, zure SIM txartela sar dezakezu bertan. Zure telefonoa SIM txartelik gabe pizten denean, deskonektatuta profila automatikoki aktibatzen da.

### Edukia lehenengo aldiz transferitu

1. Beste gailutik datuak lehenengo aldiz berreskuratzeko, zure gailuan aukeratu **Datu-transfer.** Ongietorri aplikazioan, edo aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Transferen.**.
2. Aukeratu datuak transferitzeko erabili nahi duzun konexio mota. Bi gailuek aukeratutako konexio mota onartzea beharrezkoa da.
3. Bluetootha konexio mota gisa aukeratzen baduzu, konektatu bi gailuak. Zure gailuak Bluetooth konexioa duten gailuak bilatzea nahi baduzu, aukeratu **Jarraitu**. Aukeratu edukia zein gailutik transferitu nahi duzun. Zure gailuan kode bat sartzea eskatzen zaizu. Kode bat idatzi (1 eta 16 digitu bitarte) eta aukeratu **Ados**. Idatzi kode berbera beste gailuan eta aukeratu **Ados**. Gailuak dagoeneko uztartuta daude.

   Balitek aurreko Nokia telefonoek Switch aplikazioa ez edukitzea. Kasu honetan, Switch aplikazioa beste gailura mezu gisa bidaliko da. Switch aplikazioa beste gailuan instalatzeko, ireki mezua eta jarraitu pantailako argibideak.
4. Zure telefonoan aukeratu beste gailutik transferitu nahi duzun edukia.

   Transferentzia hasi denean, hau ezezta daiteke eta geroago jarraitu.

Edukia beste gailuaren memoriatik zure gailun dagokion lekura transferitzen da. Transferentzia denbora transferitu beharreko datu kopuruaren araberakoa da.

## Edukia sinkronizatu, berreskuratu edo bidali

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Transferen.**.

Lehenengo transferentzia ondoren, transferentzia berria hasteko aukeratu honako hauetatik, modeloaren arabera:

zure gailutik beste gailu batera edukia transferitu, beste gailuak sinkronizazioa onartzen badu.

Sinkronizazioa bi aldetakoa da. Elementu bat gailu batean ezabatzen bada, bestean ere ezabatuko da. Ezabatutako elementuak ezin dira berrezarri sinkronizazioarekin.

beste gailutik zurera edukia berreskuratu. Berreskuratzearekin, edukia beste gailutik zurera transferitzen da. Baliteke beste gailuko jatorrizko edukia mantendu edo ezabatzeko eskatzea, gailuaren modeloaren arabera.

edukia zure gailutik beste batera bidali

Elementuren bat bidaltzerik ez badu, beste gailuaren motaren arabera, elementua Nokia karpetan gehi dezakezu **C:\Nokia**-n edo **E:\Nokia** zure gailuan. Transferitzeko karpeta aukeratzen duzunean, elementuak beste gailuko dagokien karpetan sinkronizatzen dira, eta alderantziz.

## Lasterbideak erabili transferentzia errepikatzeko

Datu transferentzia baten ondoren, pantaila nagusian transferentziaren ezarpenak lasterbide batean gorde daitezke transferentzia berbera geroago errepikatzeko.

Lasterbidea editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Lasterbide ezarpenak**. Adibidez, lasterbidearen izena sortu edo aldatu dezakezu.

Transferentzia bakoitzaren ondoren transferentzia erregistro bat agertzen da. Azken egindako transferentzia baten erregistroa ikusteko, ikusbide nagusian lasterbide bat aukeratu eta **Aukerak** > **Ikusi erregistroa**.

## Transferentzia arazoak konpondu

Transferitu beharreko elementu bat bi gailuetan aldatu bada, gailua aldaketak automatikoki batzen saiatuko da. Posible ez bada, gatazka azalduko da. **Egiaztatu banaka**, **Lehentas. tel. honi eman** edo **Lehent. beste tel. eman** aukeratu arazoa konpontzeko.

# Posta elektronikoa konfiguratzea

Nokia Eseries gailuak zuk beste egiten du lan, eta abiadura berean. Mantendu posta elektronikoa, kontaktuak eta egutegia sinkronizatuta; azkar eta era erosoan abiadura handiko konexioak erabiliz.

Posta eletronikoa konfiguratzean, hurrengo informazioa eskatuko zaizu: erabiltzaile izena, posta elektroniko mota, sarrerako postaren zerbitzaria, sarrerako postaren zerbitzari-ataka, irteerako postaren zerbitzaria, irteerako postaren zerbitzari-ataka, pasahitza edota sarbide puntua.

Posta elektronikoaren morroia erabiliz, laneko kontu elektronikoak konfigura ditzakezu, Microsoft Exchange, esaterako, edo baita Interneteko kontu elektronikoak ere, Google-ren posta zerbitzuak, esaterako. Morroiak POP/IMAP eta ActiveSync protokoloak onartzen ditu.

Laneko posta elektronikoa konfiguratzeko, galdetu enpresako informatika sailean beharrezko xehetasunak. Interneteko posta elektronikoa

konfiguratzeko, begiratu xehetasunak posta zerbitzuaren hornitzailearen webgunean.

Posta elektronikoaren morroia abiarazteko:

1. Hasiera pantailan, joan Posta elektronikoaren morroira.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Morroiak ezin baditu zure postaren ezarpenak automatikoki konfiguratu, hautatu postaren kontu mota eta adierazi harekin lotutako ezarpenak.

**Aholkua:** Ez baduzu zure postontzia konfiguratu, sakatu posta elektronikoaren tekla Posta elektronikoaren morroia irekitzeko.

Gailuak posta elektronikoko beste bezero batzuk baditu, haiek ere eskainiko zaizkizu Posta elektronikoaren morroia irekitzean.

# Antenak

Baliteke zure telefonoak antena barruan eta kanpoan izatea. Edozein irrati transmisoreren moduan, antena datuak bidaltzen edo jasotzean ari den bitartean ez ezazu ukitu antenaldea beharrezko ez bada. Antena ukitzeak komunikazioaren kalitatean eragina du, gainera, telefonoak beharrezkoa baino bateria gehiago gasta lezake eta, ondorioz, bateriaren iraupena murritz liteke.



# Nokia PC Suite

Nokia PC Suite ordenagailu bateragarri batean instala dezakezun aplikazio-joko bat da. Nokia PC Suite aplikazioak eskuragarri dauden aplikazio guztiak leiho batean sailkatzen ditu eta bertatik aplikazioak ireki ditzakezu. Baliteke Nokia PC Suite memoria txartel batean egotea, gailuak memoria txartela baldin bazekarren.

Nokia PC Suite aplikazioa erabil dezakezu kontaktuak, egutegia, atazak eta bestelako oharrak gailuaren eta ordenagailuaren aplikazio bateragarri baten artean sinkronizatzeko, Microsoft Outlook edo Lotus Notes, esaterako. Nokia PC Suite erabil dezakezu ere laster-markak gailuaren eta nabigatzaile bateragarrien artean tranferitzeko eta irudiak eta bideoklipak gailuren eta ordenagailu bateragarrien artean transferitzeko.

**Oharra:** Kontuan izan sinkronizazio ezarpenak. Aukeratutako ezarpenek ohiko sinkronizazio prozesuan datuak ezabatuko diren ala ez zehazten dute.

Nokia PC Suite erabiltzeko, Microsoft Windows XP (SP2) edo Windows Vista duen ordenagailua behar duzu, USB datu kable bat edo Bluetooth bidezko konexioa onartzen duena.

Nokia PC Suite aplikazioak ez du Macintosh inguruan lan egitea onartzen.

Nokia PC Suite buruzko informazio gehiago lortzeko, laguntza funtziora edo Nokia web-era jo ezazu.

### Nokia PC Suite instalatzeko:

1. Ziurtatu memoria-txartela zure Nokia E52 telefonoan dagoela.
2. Konektatu USB kablea. PCak gailu berria hautemango du eta kontrolatzaileak instalatuko ditu. Honek zenbait minutu iraun dezake.
3. Aukeratu **Masa biltegia** USB konexio gisa. Zure telefonoa Windows fitxategi arakatzailean disko aldagarri gisa agertzen da.
4. Ireki memoria-txartelaren kontrolatzailearen erroa Windowsen fitxategi arakatzailearekin eta aukeratu PC Suite instalazioa.
5. Instalazioa hasi egin da. Jarraitu pantailan agertzen diren argibideak.

**Aholkua:** Nokia PC Suite eguneratzeko edo Nokia PC Suite memoria txarteletik instalatzeko arazorik izanez gero, kopiatu instalazio fitxategia ordenagailuan eta hasi ordenagailutik instalatzen.

# Eraginkortasunez erabiltzeko aholkuak

Profilen artean aldatzeko, sakatu labur pizteko/itzaltzeko tekla.

Profil Isilera itzultzeko, eduki sakatuta **#**.

Telefonoan edo Interneten elementuak bilatzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bilaketa**.

Web arakatzaile aplikazioarekin web orriak edo mapak Mapak aplikazioan arakatzerakoan, sakatu ***** hurbiltzeko eta **#** urruntzeko.

# Laguntza

Produktuaren erabilerari buruzko informazio gehiago jasotzeko, edo zalantzarik baduzu, ikus laguntza orriak hemen: www.nokia.com/support edo Nokia tokiko webgunean, www.nokia.mobi/support, gailuaren Laguntza aplikazioan, edo erabiltzailearen gidan.

Zure zalantzak argitzen ez badira, egin hurrengoa:

- Berrezarri gailua: itzali gailua eta atera bateria. Minutu bat igaro ondoren, jarri berriz bateria eta piztu gailua.
- Nokia Software Updater aplikazioa erabiliz, eguneratu noizbehinka gailuaren softwarea hobeto ibil dadin eta funtzio berriak eskuratu ditzan. Ikus www.nokia.com/softwareupdate edo zure tokiko Nokia webgunea. Softwarea eguneratu baino lehen, egin zure datuen segurtasun kopia bat.

- Berrezarri jatorrizko ezarpenak erabiltzailearen gidaren argibideak jarraituz. Berrezartzerakoan, ez dira zure dokumentuak eta fitxategiak ezabatuko.

Arazoak konpontzen ez badira, jarri harremanetan Nokiarekin konponketari buruz informazioa jasotzeko. Ikus www.nokia.com/repair. Gailua konpontzera bidali baino lehen, egin beti gailuaren datuen segurtasun kopia bat.

# Informazio gehiago software eguneratzei buruz

Ikus "Software eguneraketak ordenagailua erabiliz"141.

Zure sareak hari gabeko software eguneratzeak onartzen baldin baditu, hauek gailuaren bidez ere eska ditzakezu.

Ikus "Urruneko konfigurazioa"138.

Baliteke aplikazio ezberdinak eguneratzeko gai izatea eta gailuaren software berria eskuragarri dagoen jakiteko aukera izatea Software eguneratzea erabiliz. Ikus "Sare bidezko software eguneratzeak"142.

# Telefonoko laguntza

Telefonoak aplikazioak erabiltzen laguntzeko argibideak dauzka.

Menu nagusitik laguntza irekitzeko, aukeratu **Menua** > **Laguntza** > **Laguntza** eta argibideak behar dituen aplikazioa.

Aplikazio bat irekita dagoela, uneko ikuspegiaren laguntzara sartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Laguntza**.

Argibideak irakurtzen ari zarenean, laguntza testuaren tamaina aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Letra tamaina txikitu** edo **Letra tamaina handitu**.

Baliteke laguntza testuaren amaieran lotutako gaietarako estekak aurkitzea. Azpimarratutako hitz bat aukeratzen baduzu, azalpen labur bat azalduko da. Laguntzak ondorengo adierazleak erabiltzen ditu: Lotutako laguntza gai baterako esteka. Dagokion aplikaziorako esteka.

Jarraibideak irakurtzerakoan, laguntza testuen eta hondoan irekita dagoen aplikazioaren artean aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi irekit. aplik.** eta nahi duzun aplikazioa.

# Nokia E52 – Oinarrizko informazioa

## Telefono konfigurazioa

Gailua lehen aldiz pizterakoan, Telefono konfigurazioa aplikazioa irekiko da.

Telefonoa konfigurazioa aplikazioa geroago irekitzeko, hautatu **Menua** > **Laguntza** > **Tel. konfig.**.

Gailuaren konexioak konfiguratzeko, hautatu **Ezarp. laguntza**.

Nokia gailu bateragarri batetik zure gailura datuak transferitzeko, hautatu **Datu-transfer.**.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

## Ezarpen laguntzailea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpen lag.**.

Ezarpen laguntzailea erabili e-mail eta konexio ezarpenak zehazteko. Ezarpen laguntzailearen elementuen eskuragarritasuna gailuaren ezaugarrien, SIM txartelaren, zerbitzu-hornitzailearen eta Ezarpen laguntzailearen datu basearen datuen araberakoa da.

Ezarpen laguntzailea abiatzeko, aukeratu **Hasi**.

Ezarpen laguntzailea erabiltzerakoan emaitza hoberenak lortzeko, SIM txartela gailu barruan mantendu. SIM txartela barruan ez badago, pantailan agertzen diren argibideak jarraitu.

Hautatu hurrengoen artetik:

- **Operadorea** — Operadorearen ezarpen zehatzak zehazteko, esaterako, MMS, Interneta, WAPa eta zuzeneko transmisioaren ezarpenak.
- **Posta el. konfig.** — Konfiguratu POP, IMAP edo Mail for Exchange kontu bat.
- **PTT** — Sakatu hizketarako ezarpenak konfiguratu.
- **Bideo partek.** — Bideo partekatze ezarpenak konfiguratu.

Editatzeko eskuragarri dauden ezarpenak alda daitezke.

## Menua

Aukeratu **Menua**.




Menua telefonoan edo memoria-txartelean dauden aplikazio guztiak irekitzeko abiapuntua da.

Menuak aplikazioak eta karpetak dauzka eta hauek antzeko aplikazioen taldeak dira. Telefonoan instalatzen dituzun aplikazio guztiak Aplikazioak karpetan gordetzen dira.

Aplikazio bat irekitzeko, aukeratu aplikazioa, hau da, zoaz aplikaziora eta sakatu gurpila.

Irekitako aplikazioen artean aldatzeko, eduki sakatuta hasiera-tekla eta aukeratu aplikazioa. Aukera bat erabiltzen ari zaren bitartean beste aplikazio bat martxan izateak bateria kontsumo handiago suposatzen du, eta beraz, bateriaren iraupena murriztu egiten da.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Menuaren ikusp. aldatu** — Aplikazioak zerrendan edo saretan ikusi.
- **Memoria. xehetasunak** — Ikusi telefonoan edo memoria-txartelean gordetako aplikazio eta datu ezberdinek erabiltzen duten memoria libre dagoen memoria kopurua egiaztatzeko.
- **Karpeta berria** — Karpeta berri bat sortu.
- **Berrizendatu** — Karpeta berri bati izena aldatu.
- **Mugitu** — Karpeta berriro antolatu. Zoaz mugitu nahi duzun aplikaziora eta aukeratu **Mugitu**. Aplikazioaren ondoan hautamarka dago. Mugitu kokapen berrira eta aukeratu **Ados**.
- **Mugitu karpetara** — Aplikazioa beste karpeta batera mugitu. Zoaz mugitu nahi duzun aplikaziora eta aukeratu **Mugitu karpetara**, karpeta berria eta **Ados**.
- **Aplikazioak deskargatu** — Webetik aplikazioak deskargatu.

# Pantailako adierazleak

**3G** Gailua UMTS sare batean dago erabileran (sare zerbitzua).

Bateriaren karga maila. Zenbat eta barra altuagoa izan, are eta indartsuagoa izango da bateriaren karga.

Irakurri gabeko mezu bat edo gehiago daukazu Mezularitza postontzian.

Posta elektroniko berria jaso duzu urruneko postontzian.

Bidaltzeke dauden mezuak daude Mezularitzaren irteera postontzian.

Galdutako dei bat edo gehiago daukazu.

Gailuaren kodeak blokeatuta daude.

Alarma bat aktibo dago.

Isileko profila aktibatu duzu, eta gailuak ez du soinurik egiten deiak edo mezuak jasotzean.

Bluetooth konektibitatea aktibatuta dago.

Blietooth konexio bat ezarrita dago. Adierazlea kliska egiten dagoenean, gailua beste gailu bati konektatzen saiatzen ari da.

GPRS pakete datu konexio bat eskuragarri dago (sare zerbitzua). konexioa aktibo dagoela esan nahi du. konexioa zain dagoela adierazten du.

EGPRS pakete datu konexio bat eskuragarri dago (sare zerbitzua). konexioa aktibo dagoela esan nahi du. konexioa zain dagoela adierazten du.

UMTS pakete datu konexio bat eskuragarri dago (sare zerbitzua). konexioa aktibo dagoela esan nahi du. konexioa zain dagoela adierazten du.

Abiadura handiko pakete sarbide (HSPA) onartzen da eta eskuragarri dago (sare zerbitzua). Baliteke ikonoa ezberdina izatea lurraldearen arabera. konexioa aktibo dagoela esan nahi du. konexioa zain dagoela esan nahi du.

Gailua hari gabeko LAN (WLAN) sareak bilatzeko ezarri duzu, eta WLAN bat eskuragarri dago.

WLAN konexio bat aktibo dago kodeketarik ez duen sare batean.

WLAN konexio bat aktibo dago kodeketa duen sare batean.

Gailua ordenagailu bati konektatuta dago USB datu kable baten bidez.

2 Bigarren telefono linea erabileran dago (sare zerbitzua).

Dei guztiak beste zenbaki batera bidaliko dira. Bi telefono linea izanez gero, zenbaki batek linea aktiboa zein den adierazten du.

Aurikularrak daude gailuari konektatuta.

Autorako gailu bat dago gailuari konektatuta.

Begizta-joko bat dago gailuari konektatuta.

Testu-telefono bat dago gailuari konektatuta.

Gailua sinkronizatzen ari da.

Push to talk (PTT) konexio bat aktibo dago.

Push to talk konexioa ez molestatzeko moduan dago, gailuaren tonu mota **Behin bip egin** edo **Isilik** moduetara ezarrita dagoelako, edo dei bat egiten edo jasotzen zaudelako. Modu honetan, ezin duzu PTT deirik egin.

# Testua idaztea

Baliteke gailuak eskeinitako input metodoak ezberdinak izatean merkatuen arabera.

## Testu input tradizionala

**Abc** testu input tradizionala adierazten du. **ABC** eta **abc** maiuskulak eta minuskulak adierazten dituzte. **Abc** esaldiaren modua adierazten du; hau da, lehen hizkia maiuskula izango da eta hurrengo guztiak automatikoki minuskulaz idatziko dira. **123** zenbaki modua adierazten du.

Teklatua erabiliz testua idazteko, sakatu zenbaki tekla bat, 2-9. behin eta berriz nahi duzun karakterea agertu arte. Zenbaki tekla bakoitzak teklan bertan agertzen den baino karaktere gehiago dauka. Nahi duzun hurrengo letra erabiltzen ari zaren tekla berean badago, itxaron kurtsorea agertu arte eta sartu letra.

Zenbaki bat gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta nahi duzun zenbakiaren tekla.

Maiuskula eta minuskularen artean eta modu ezberdinen artean aldatzeko, sakatu **#** tekla.

Karaktere bat ezabatzeko, sakatu atzera tekla. Sakatu eta eutsi sakatuta atzera tekla karaktere bat baino gehiago ezabatzeko.

Ohiko puntuazio markak erabiltzeko, sakatu **1** behin eta berriz nahi duzun puntuazio marka agertu arte.

Karaketere bereziak gehitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta ***** tekla.

Tarte bat sartzeko, **0** sakatu. Lerro aldaketa bat gehitzeko, sakatu **0** tekla hiru aldiz.

## Testu input aurresalea

Testu input aurresaleari esker, edozein hizki sar dezakezu teklak behin bakarrik sakatuta. Testu input aurresalea barne hiztegi batean oinarrituta dago.

Testu input aurresalea gaitzeko eta desgaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sarrerako aukerak**. adierazlea agertuko da. Hitz bat idazten hastean, gailuak hitz posibleak proposatuko ditu. Hitz zuzena aurkitzean, sakatu hutsune tekla (**0**) berresteko eta hutsune bat gehitzeko. Idazten zauden bitartean, behera joan zaitezke proposatutako hitzen zerrenda bat ikusteko. Nahi duzun hitza zerrendan badago, hautatu hitza. Hitzaren atzetik ? karakterea ikusten bada, idazten saiatzen ari zaren hitza hiztegian ez dagoela adierazten du horrek. Hitz bat hiztegiari gehitzeko, hautatu **Letreiatu**, sartu hitza ohiko testu-

sarrera erabiliz eta hautatu **Ados**. Hiztegia beteta dagoenean, hitz berriak hitz zaharra ordezkatuko du.

Hitzak automatikoki betetzeko funtzioa desgaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sarrerako aukerak** > **Ezarpenak**.

Idazteko hizkuntza aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sarrerako aukerak** > **Idazteko hizkuntza**.

# Bilaketa

## Bilatu zerbitzuari buruz

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bilaketa**.

Bilatu aplikazioarekin Interneten oinarritzen diren zenbait zerbitzu erabil ditzakezu, adibidez, webguneak eta irudiak bilatzeko. Zerbitzuen edukia eta eskuragarritasuna alda daiteke.

## Bilaketa bat hastea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Bilaketa**.

Gailu mugikorraren edukia bilatzeko, sartu bilaketa terminoak bilaketa eremuan edo nabigatu eduki kategorietan zehar. Bilaketa terminoak sartzen dituzun bitartean, emaitzak kategorien arabera sailkatuko dira.

Interneten webguneak bilatzeko, hautatu **Bilatu Interneten** edo bilaketa-hornitzaile bat eta idatzi aurkitzeko terminoak bilaketa eremuan. Hautatutako bilaketa-hornitzailea zure interneteko bilaketa hornitzaile lehenetsi gisa ezarriko da.

Lehenetsitako bilaketa-hornitzaile aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bilak. zerbitzuak**.

Bilaketa hornitzaile gehiago bilatzeko asmoz, herrialde edo lurralde ezarpena aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Herrialdea edo eskuald.**.

# Hainbat aplikaziorako ohiko ekintzak

Hurrengo ekintzak hainbat aplikaziotan aurki ditzakezu:

Profila aldatzeko edo gailua itzaltzeko edo blokeatzeko, sakatu piztu eta itzaltzeko tekla.

Aplikazio bat fitxa ezberdinez osatuta badago (ikus irudia), ireki fitxaren bat ezkerrera edo eskuinera mugituz.




Aplikazio batean konfiguratu dituzun ezarpenak gordetzeko, aukeratu **Atzera**.

Fitxategi bat gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gorde**. Gordetzeko aukera ezberdinak daude erabiltzen ari zaren aplikazioaren arabera.

Fitxategi bat bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bidali**. Fitxategiak bidal ditzakezu mezu elektroniko batean edo multimedia mezu batean, edo konexio metodo ezberdinak erabiliz.

Elementu ezberdinak aukeratzeko, adibidez, mezuak, fitxategiak edo kontaktuak, zoaz aukeratu nahi duzun elementura. Aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu** elementu bat aukeratzeko edo **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu guztiak** elementu guztiak aukeratzeko.

**Aholkua:** ia elementu guztiak aukeratzeko, aurrena aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu guztiak**, aukeratu nahi ez dituzun elementuak eta **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Marka kendu**.

Objektu bat aukeratzeko (adibidez, dokumentu baten eranskina), zoaz objektura marka karratuak objektuaren alde bakoitzean ager daitezen.

# Bolumen kontrola

Dei batean zehar aurikularraren bolumena edo multimedia aplikazioen bolumena doitzeko, erabili bolumen teklak.

# Erabili gabeko memoria

Datu mota desberdinetarako zenbat memoria libre dagoen ikusteko, aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Telefonoko funtzio askok memoria erabiltzen dute datuak gordetzeko. Telefonoak memoria gutxi geratzen dela jakinarazten du.

Memoria libre uzteko, transferitu datuak beste memoria batera (ahal bada) edo ordenagailu bateragarri batera.

Behar ez dituzun datuak ezabatzeko, erabili Fitxategi kudeatzailea edo dagokion aplikazioa. Elementu hauek ezaba daitezke:

- Mezularitza karpetan dauden mezuak eta postontzitik jaitsitako mezu elektronikoak.
- Gordetako webguneak
- Kontaktuen informazioa
- Egutegiko oharrak
- Aplikazio kudeatzailean agertzen diren baina erabiltzen ez diren aplikazioak
- Instalatutako aplikazioen instalazio fitxategiak (.sis edo .sisx fitxategi luzapenekin). Instalazio fitxategien babeskopia egin ordenagailu bateragarri batean.
- Irudiak karpetan dauden irudiak eta bideoak. Egin fitxategien babeskopiak ordenagailu bateragarri batean Nokia PC Suite aplikazioaren bidez.

# Pertsonalizazioa

Gailua pertsonaliza dezakezu tonu ezberdinak, hondoko irudiak edota pantaila-babesleak ezarriz, esaterako.

## Profilak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Profilak**.

Tonuak doitu eta pertsonalizatu egin daitezke, deientzako, abisu tonuentzeko, eta gailuaren tonuak gertaera edo dei egile talde desberdinetarako. Profil aktiboa pantailaren goialdean agertzen da hasiera pantailan. Izan ere, profil aktiboa Orokorra bada, gaurko data bakarrik agertuko da.

Profil berri bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berria sortu** eta ezarpenak zehaztu.

Profila pertsonalizatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

Profila aldatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Aktibatu**. Lineaz kanpoko profilak gailua piztea, mezuak jaso edo bidali, edo haririk gabeko LANa, Bluetooth konektibitatea, GPSa edo FM irratia ustekazbez erabiltzea saihesten du; honek profila aukeratzen denean aktibo dauden internet konexioak amaitzen ditu. Lineaz kanpoko profilak ez du geroago haririk gabeko LAN edo Bluetooth konexio bat ezartzea edo GPS edo FM irratia erabiltzea saihesten, horregatik erabili daitezkeen segurtasun neurriak bete hauetako ezaugarriren bat erabiltzerakoan.

Hurrengo 24 orduetako epe bat arte, profil bat aktibo izateko, profilera joan, aukeratu **Aukerak** > **Epea ezarrita** eta ordua zehaztu. Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilera itzultzen da. Profilak epe bat duenean, agertuko da hasiera pantailan. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Sortu duzun profil bat ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu profila**. Aurretik zehaztutako profilak ezin dira ezabatu.

# Dei-tonuak aukeratu

Profil batentzako dei-tonua ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Dei tonua**. Zerrendatik tonua aukeratu edo aukeratu **Soinuak deskargatu** arakatzailea erabiltzen dituen tonuak deskargatzeko laster-marka zerrenda bat duen lastermarka karpeta bat irekitzeko. Deskargatutako tonu guztiak Galerian gordetzen dira.

Aukeratutako kontaktu talde batentzako bakarrik dei-tonu bat aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Honakoa ohartarazi:**, eta nahi duzun taldea aukeratu. Talde honetan ez dauden kontaktuen deiak jakinarazpen isil bat izango dute.

Mezu tonua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Mezuen abisu-tonua**.

# Profilak pertsonalizatzea

Hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu**, eta definitu hurrengoa:

- **Dei tonua** — Hautatu dei-tonu bat zerrendatik, edo hautatu **Soinuak deskargatu** nabigatzailea erabiliz tonuak deskargatzeko liburu-marka zerrenda bat duen karpeta bat irekitzeko. Bi telefono linea ezberdin badituzu erabileran, bakoitzari dei-tonu ezberdin bat esleitu diezaiokezu.
- **Bideo-deiaren tonua** — Hautatu dei-tonu bat bideo deientzat.
- **Dei-egilearen izena esan** — Aukera hau hautatzean eta zure kontaktuetako batek deitzen dizunean, kontaktuaren izenaren eta hautatutako die-tonuaren konbinazioa den tonu bat entzungo da.
- **Dei tonu mota** — Hautatu nola nahi duzun dei-tonua entzutea.
- **Deiaren bolumena** — Hautatu dei-tonuaren bolumena.
- **Mezuen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat testu mezuentzat.
- **E-mailen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat jasotako mezu elektronikoentzat.
- **Bibrazio abisua** — Ezarri bibrazioa dei bat jasotzerakoan.
- **Teklatuaren tonuak** — Doitu gailuaren teklatuaren tonuen bolumena.
- **Abisu tonuak** — Piztu edo itzali abisu tonuak. Ezarpen honek eragina du hainbat joko eta Java aplikazioren tonuen gainean.
- **Honakoa ohartarazi:** — Ezarri gailua tonua emititzeko hautatutako kontaktu talde bateko telefono zenbakien deiak soilik jasotzerakoan. Talde horretan ez dauden zenbakien deiek alerta mutua izango dute.
- **Profilaren izena** — Profil berri bati izena eman diezaiokezu eta jadanik dagoen profil bati izena aldatu diezaiokezu ere bai. Orokorra eta Konexiorik gabe profilei ezin zaie izena aldatu.

# Hasiera pantaila pertsonalizatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Moduak**.

Uneko hasiera pantailako izena aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Modua berrizendatu**.

Hasiera pantailan ikusi nahi dituzun aplikazioak eta jakinarazpenak aukeratzeko, aukeratu **Hasiera pant. aplikazioak**.

Unean erabiltzen den hasiera pantailako gaia aldatzeko, aukeratu **Gai orokorra**.

Unean erabiltzen den atzealdeko irudia aldatzeko, aukeratu **Horma papera**.

Hasiera pantailatik beste batera aldatzeko, zoaz **Uneko modua** aukerara eta aukeratu **Aukerak** > **Aldatu**.

# Pantailaren gaia aldatu 

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak**.

Aplikazioetan erabiltzen den gaia aldatzeko, aukeratu **Orokorra**.

Menu nagusiaren gaia aldatzeko, aukeratu **Menu-ikusp.**.

Aplikazio baten gaia aldatzeko, aplikazioaren karpeta aukeratu.

Momentuko atzealdeko irudia aldatzeko, aukeratu **Horma-papera**.

Pantaila babeslearentzako irudi bat aukeratzeko, aukeratu **Bater. aurrezl.**.

Efektuak pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Orokorra** > **Aukerak** > **Gaiaren efektuak**.

# Gai bat deskargatzea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak**.

Gai bat deskargatzeko, hautatu **Orokorra** > **Deskargatu gaiak** > **Aukerak** > **Joan web helbidera**. Idatzi nahi duzun helbide elektronikoa, bertatik gaia deskargatzeko. Behin gaia deskargatuta, hura aurreikusi edo aktibatu dezakezu.

Gai bat aurreikusteko, hautatu **Aukerak** > **Aurrebista**.

Gai bat aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri**.

# Audio gaiak aldatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak** eta **Audio-gaiak**.

Telefonoaren gertaera ezberdinetarako soinuak ezar ditzakezu. Soinuak tonuak zein ahotsa izan daitezke, edo bien konbinaketa bat.

Uneko audio-gaia aldatzeko, aukeratu **Aktibatu audio-gaia**.

Gertaera baten soinua ezartzeko, aukeratu gertaera talde bat, hala nola dei-tonuak, eta nahi duzun gertaera.

Gertaera-talde batean aurrez ezarritako soinuak erabiltzeko, hautatu taldea eta **Aukerak** > **Aktibatu soinuak**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Erreproduzitu ahotsa** — Erreproduzitu soinua aktibatu aurretik.
- **Gaia gorde** — Sortu audio-gai berriak.
- **3-D dei-tonuak** — Gehitu 3-D efektuak audio-gaiean.
- **Hizketa** — Aukeratu **Hizketa** hizketa gertaera baten soinu gisa ezartzeko. Idatzi nahi duzun testua testu eremuan. **Hizketa** aukera ez dago eskuragarri **Dei-egilearen izena esan** aukera uneko profilean aktibatu baduzu.
- **Desaktibatu soinuak** — Isilarazi gertaera talde baten soinu guztiak.

# 3-D dei-tonuak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **3-D tonuak**.

Dei-tonuetan hiru dimentsiotako (3-D) soinu efektuak gaitzeko, aukeratu **3-D dei-tonuen efektuak** > **Aktibatu**. Dei-tonu guztiek ez dituzte 3-D efektuak onartzen.

Dei tonuari ezarritako 3–D efektua aldatzeko, aukeratu **Soinuaren ibilbidea** eta nahi duzun efektua.

3–D efektua aldatzeko, aukeratu hurrengoetatik:

- **Ibilbide-abiadura** — Aukeratu soinuak zer abiaduratan mugitu behar duen alde batetik bestera. Ezarpen hau ez dago eskuragarri efektu guztietan.
- **Erreberberazioa** — Aukeratu oihartzun kantitatea egokitzeko nahi duzun efektua.
- **Doppler efektua** — Aukeratu **Aktibatu** dei-tonua ozenkiago entzun dadin ezartzeko gailutik gertu zaudenean eta baxuago entzun dadin urrunago zaudenean. Ezarpen hau ez dago eskuragarri efektu guztietan.

Tonua 3–D efektuarekin entzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Tonua erreproduzitu**.

Dei-tonuaren bolumena doitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Profilak** eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Deiaren bolumena**.

# Nokiaren Eseries berria

Zure Nokia Eseries gailu berriak Egutegia, Kontaktuak eta Posta elektronikoa aplikazioen bertsio berriak eta hasiera pantaila berria dauzka.

## Oinarrizko funtzioak

Zure Nokia E52 berriari esker, zure laneko informazioa eta informazio pertsonala kudea dezakezu. Hauek dira oinarrizko funtzioetariko batzuk:

Posta elektronikoa irakurri eta erantzun mugimenduan zaudenean.

Informazio berriena jaso eta bilerak planifikatu Egutegia aplikazioaren bidez.

Kudeatu zure lankideak eta zure lagunak Kontaktuak aplikazioaren bidez.

Konektatu hari gabeko LAN (WLAN) sareari WLAN morroia aplikazioaren bidez.

Dokumentu, kalkulu-orri eta aurkezpenekin lan egin Quickoffice aplikazioari esker.

Gehitu laneko aplikazio berriak zure Nokia E52 gailuari Deskargatu! aplikazioa erabiliz.

Aurkitu toki interesgarriak Mapak aplikazioa erabiliz.

Aldatu laneko modu eta modu pertsonalaren artean.

Editatu hasiera pantailaren itxura eta konfigurazioa Moduak aplikazioa erabiliz.

Nabigatu zure enpresako intranetean Intranet aplikazioa erabiliz.

Mugitu kontaktuen eta egutegiaren informazioa aurretik zeneukan gailu batetik zure Nokia E52 berrira Aldatu aplikazioa erabiliz.

Bilatu eta deskargatu aplikazioen eguneratze eskuragarriak zure gailuan Software eguneratzea aplikazioa erabiliz.

Kodetu gailua edo memoria txartela besteek informazio garrantzitsuarekiko sarbidea izan ez dezaten.

# Hasiera pantaila

Hasiera pantailan, gehien erabiltzen dituzun funtzio era aplikazioetan azkar sar zaitezke, eta erraz ikus dezakezu galdutako deirik edo mezu berririk duzun.

## Hasiera pantaila

Hasiera pantailan, gehien erabiltzen dituzun aplikazioetara joan zaitezke eta begirada batean dei galduak edo mezuak dituzun ikus dezakezu.

▶ ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerrera.




Hasiera pantaila honetan datza:

1. Aplikazio lasterbideak. Aplikazio batera joateko, aukeratu aplikazioaren lasterbidea.
2. Informazio eremua. Informazio eremuan dagoen elementu bat egiaztatzeko, aukeratu elementua.
3. Jakinarazpen eremua. Jakinarazpenak ikusteko, zoaz eremu batera. Eremua elementuak badaude soilik ikusten da.

Bi hasiera pantaila ezberdin zehatz ditzakezu helburu ezberdinetarako, adibidez, pantaila bat enpresaren kontu elektronikoak eta jakinarazpenak erakusteko eta beste bat mezu elektroniko pertsonalak erakusteko. Honela, ez dituzu laneko mezu elektronikoak lan orduetatik kanpo ikusi beharrik.

Hasiera pantaila batetik bestera aldatzeko, aukeratu ⇄.

Hasiera pantailan zer elementu eta lasterbide egotea nahi duzun zehazteko eta hasiera pantailaren itxura zehazteko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** eta **Moduak**.

## Hasiera pantailan lan egitea

Hasiera pnatailan kontaktuak bilatzeko, hasi idazten kontaktuaren izena. Karaktereak idazterakoan, sakatu behin tekla bakoitza. Adibidez, "Eric" idazteko, sakatu **3742**. Gailuak bat datozen aukerak proposatuko ditu. Alfabeto eta zenbaki moduen artean aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Alpha modua** edo **Zenbaki modua**. Hautatu nahi duzun kontaktua proposatutako aukeren zerrendan. Baliteke funtzio hau hizkuntza guztietan eskuragarri ez egotea.

Kontaktuari deitzeko, sakatu deitze tekla.

Kontaktuen bilaketa desgaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Kont. bilaketa desakt.**.

Jasotako mezuak ikusteko, hautatu mezuen laukia jakinarazpen gunean. Mezu bat irakurtzeko, hautatu mezua. Beste atazetan sartzeko, joan eskuinetara.

Galdutako deiak ikusteko, hautatu deien laukia jakinarazpen gunean. Dei bat itzultzeko, hautatu deia eta sakatu deitze tekla. Dei baten egileari testu-mezu bat bidaltzeko, hautatu dei bat, joan eskuinetara eta

hautatu **Bidali testu mez.** ekintza eskuragarrien zerrendan.

Ahots posta entzuteko, hautatu ahots postaren laukia jakinarazpen gunean. Hautatu nahi duzun postontzia eta sakatu deitze tekla.

# Ukipen bateko teklak

Ukipen bateko teklak erabiliz, aplikazio eta atazekiko sarbide azkarra izango duzu. Tekla bakoitzak aplikazio bat edo ataza bat esleituta dauka. Haiek aldatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Ukitu bak. tek.**. Baliteke zure zerbitzu hornitzailea jadanik teklei aplikazioak esleitu izatea; kasu horretan, ezin izango dituzu aldatu.




1 — Hasiera tekla

2 — E-mail tekla

3 — Egutegi tekla

## Hasiera-tekla

Hasiera pantailara joateko, sakatu labur hasiera-tekla. Sakatu berriro labur hasiera-tekla menura joateko.

Aplikazio aktiboen zerrenda ikusteko, sakatu hasiera-tekla segundo batzuetan zehar. Zerrenda irekitzen denean, sakatu labur hasiera-tekla zerrendan zehar mugitzeko. Aukeratutako aplikazioa irekitzeko, sakatu hasiera-tekla segundo batzuetan zehar edo sakatu gurpila. Aukeratutako aplikazioa ixteko, sakatu atzera egiteko tekla.

Aukera bat erabiltzen ari zaren bitartean beste aplikazio bat martxan izateak bateria kontsumo handiago suposatzen du, eta beraz, bateriaren iraupena murriztu egiten da.

## Egutegi-tekla

Egutegi aplikazioa irekitzeko, sakatu labur egutegi-tekla.

Bilera sarrera berri bat sortzeko, sakatu egutegi-tekla segundo batzuetan zehar.

## Posta elektronikorako tekla

Lehenetsitako postontzia irekitzeko, sakatu labur posta elektronikorako tekla.

Mezu elektroniko berri bat sortzeko, sakatu posta elektronikorako tekla segundo batzuetan zehar.

# Deiak edo alarmak isilarazteko telefonoari buelta ematea

Zure telefonoko sentsorea aktibatzen duzunean, hainbat funtzio kontrola ditzakezu telefonoari buelta emanda.

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Sentsore-ezarpenak**.

Hautatu hauetariko bat:

- **Bistaratzearen biraketa** — Gailuaren orientazioaren arabera pantaila automatikoki biratzeko ezartzea.
- **Biratze kontrola** — Telefonoa buruz behera jarritakoan, jasotako deiak isilarazteko edo alarmak errepikatzeko ezartzea. Funtzio horiek gaituta, pantaila biratzea aktibatu egin behar da.

# Egutegia

Aukeratu **Menua** > **Egutegia**.

## Egutegiari buruz

Aukeratu **Menua** > **Egutegia**.

Egutegiarekin, antolatutako gertaerak sor eta ikus ditzakezu eta egutegi ikuspegi ezberdinen artean alda dezakezu.

Hilabete ikuspegian, egutegi sarrerak hiruki batekin adierazten dira. Urteurren sarrerak harridura ikur batekin adierazten dira. Aukeratzen duzun egunaren sarrerak zerrenda batean agertzen dira.

Egutegi sarrerak irekitzeko, aukeratu egutegi ikuspegi bat eta sarrera bat.

▶ ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerrera.

## Egutegi sarrerak sortzea

Hautatu **Menua** > **Egutegia**.

Mota hauetako egutegi sarrerak sor ditzakezu:

- Bilera sarrerek data eta ordu jakina ezarrita duten gertaerak gogorarazten dizkizute.
- Bilera eskaerak parte hartzaileei bidal diezaiekezun gonbidapenak dira. Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguratuta izan behar duzu.
- Memo sarrerak egun osoari lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati.
- Urtemuga sarrerek urtebetetzeak eta data bereziak gogorarazten dizkizute. Egun jakin bati lotuta daude, baina ez egunaren ordu jakin bati. Urtemuga sarrerak urtero errepikatzen dira.

- Egiteko sarrerek epe bat duten ataza bat gogorarazten dizute, baina egunaren ordu jakin bati lotuta ez dagoena.

Egutegi sarrera bat sortzeko, hautatu data bat, **Aukerak** > **Sarrera berria**, eta sarrera mota.

Bilera sarreren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Lehentasuna**.

Sinkronizatzean sarrera nola kudeatu behar den definitzeko, hautatu **Pribatua** sarrera ezkutatzeko egutegia konektatuta daudenek ikusi ahal badute, **Publikoa** sarrera ikus dezaten, edo **Bat ere ez** sarrera zure ordenagailuan kopiatu ez dadin.

Sarrera gailu bateragarri bati bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Bilera sarrera baten bilera eskaera burutzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu partaideak**.

# Bilera eskaerak sortzea

Hautatu **Menua** > **Egutegia**.

Bilera eskaerak sortu ahal izan baino lehen, gailuan sarrera ontzi bateragarri bat konfiguratuta izan behar duzu.

Bilera eskaera bat sortzeko:

1. Bilera sarrera bat sortzeko, hautatu egun bat eta **Aukerak** > **Sarrera berria** > **Bilera eskaera**.
2. Idatzi parte hartzaileen izenak. Kontaktu zerrenda batetik izenak gehitzeko, idatzi hasierako karaktereak eta hautatu bat datozen aukeren artean. Hautazko parte hartzaileak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu partaideak**.
3. Idatzi gaia.
4. Idatzi hasiera eta amaiera orduak, edo hautatu **Egun osoa**.
5. Idatzi kokalekua.
6. Ezarri alarma bat sarrerarentzat, beharrezkoa bada.
7. Bilera errepikatu behar bada, ezarri errepikapen-epea eta idatzi amaiera data.
8. Adierazi deskribapena.

Bilera eskaeraren lehentasuna ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Lehentasuna**.

Bilera eskaera bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

# Egutegiaren ikuspegiak

Aukeratu **Menua** > **Egutegia**.

Hurrengo ikuspegien artean alda dezakezu:

- Hilabete ikuspegiak uneko hilabetea eta aukeratutako egunaren sarrerak zerrenda batean erakusten ditu.
- aste ikuspegiak gertaerak zazpi egunetako kutxetan erakusten ditu.
- Egun ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaerak hasiera dataren arabera sailkatuta erakusten ditu.
- Egitekoen ikuspegiak egiteko elementu guztiak erakusten ditu.
- Agenda ikuspegiak aukeratutako eguneko gertaera guztiak erakusten ditu.

**Aholkua:** ikuspegi batetik bestera aldatzeko, sakatu *.

Ikuspegia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu ikuspegia** eta nahi duzun ikuspegia.

**Aholkua:** aste ikuspegia irekitzeko, aukeratu aste zenbakia.

Hurrengo edo aurreko hilabeteko egunera, astera, egunera eta agenda ikuspegira mugitzeko, aukeratu nahi duzun eguna.

Ikuspegi lehenetsia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Ikuspegi lehenetsia**.

# Kontaktuak

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

## Kontaktuei buruz

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktuekin kontaktuen informazioa gorde eta egunera dezakezu, adibidez, telefono zenbakiak, helbideak eta helbide elektronikoak. Kontaktuari tonu pertsonal bat edo argazki bat gehi diezaiokezu. Kontaktu taldeak ere sor ditzakezu, honela aldi berean hainbat kontakturekin komunikatu ahal izango duzu eta kontaktu informazioa gailu bateragarrietara bidal dezakezu.

▶ ikonoa ikusten duzun bakoitzean, zoaz eskuinera eskuragarri dauden aukerak ikusteko. Zerrenda ixteko, mugitu ezkerrera.

## Kontaktuekin lan egin

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktu bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kontaktu berria** eta idatzi kontaktuaren xehetasunak.

Memoria txarteletik kontaktuak kopiatzeko, betiere eskuragarri badago, hautatu **Aukerak** > **Segurtasun kopia egin** > **Mem. txartelatik telef.**.

Kontaktuak bilatzeko, hasi kontaktuaren izena bilaketa eremuan sartuz.

Bilaketa iragarle modura aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktib. bil. aurresalea**.

Kontaktuak bilatzeko bilaketa iragarle moduan, hasi kontaktuaren izena bilaketa eremuan sartuz. Proposatutako hurrengo elementura mugitzeko, sakatu *.

## Kontaktuen taldeak sortu

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

1. Kontaktu talde bat sortzeko, zoaz taldean gehitu nahi duzun kontaktu bakoitzera eta aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu**.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Taldea** > **Taldean gehitu** > **Sortu talde berria** eta idatzi zure taldearentzako izen bat.

Konferentzia zerbitzua erabiliz taldera konferentzia deiak egin nahi badituzu, zehaztu hurrengoak:

- **Konf. zerbitzuaren zk.** — Idatzi konferentzia deierako zerbitzuaren zenbakia.

- **Konf. zerbitzuaren ID** — Idatzi konferentzia deiaren IDa.
- **Konf. zerbitzuaren PIN** — Idatzi konferentzia dei zerbitzuaren PIN kodea.

Konferentzia zerbitzua erabiliz taldeari konferentzia dei bat egiteko, aukeratu taldea, zoaz eskuinera eta aukeratu **Deitu konf. zerb.**.

# Urruneko datu-base batean kontaktuak bilatu

Urruneko kontaktuen bilaketa aktibatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Kontaktuak** > **Bilatu urrunetik**. Urruneko datu-base batean kontaktuak bilatzeko, aukeratu **Kontaktuak** > **Aukerak** > **Bilatu urrunetik**. Idatzi bilatu nahi duzun kontaktuaren izena eta aukeratu **Bilatu**. Telefonoak urruneko datu basearekin datu konexio bat ezartzen du.

Hasiera pantailan kontaktuak bilatzeko, hasi idazten hasiera pantailan letrak edo zenbakiak eta aukeratu proposatzen diren emaitzen datu-baseak.

Urruneko kontaktuen datu-basea aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Kontaktuak** > **Urruneko bil. zerbitzaria**. Ezarpen honek Kontaktu eta Egutegi aplikazioek erabiltzen dituen datu-basean eta hasiera pantailan eragina du, baina ez posta elektronikoak erabiltzen duen datu basea.

# Kontaktuei tonuak esleitu

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktu bati dei-tonu bat gehitzeko, aukeratu kontaktua, **Aukerak** > **Dei tonua** eta dei-tonua. Kontaktua deitzen zaituenean dei-tonua entzungo duzu.

Kontaktu talde bati dei-tonu bat esleitzeko, aukeratu kontaktu taldea, **Aukerak** > **Taldea** > **Dei tonua** eta dei-tonua.

Tonua ezabatzeko, **Lehenetsitako tonua** aukeratu tonuen zerrendan.

# Kontaktu ezarpenak aldatu

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.

Kontaktu aplikazioaren ezarpenak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetatik:

- **Erakutsiko diren kontak.** — Aukeratu kontaktuak erakusten dituen memoria.
- **Lehenetsitako memoria** — Aukeratu kontaktuak gordetzeko memoria lehenetsia.
- **Izen ikuspegia** — Aldatu kontaktuen izenak agertzen diren modua.
- **Kont. zerren. lehenetsia** — Aukeratu zer kontaktu direktorio irekiko den kontaktu aplikazioa irekitzen duzunean.
- **Urruneko bil. zerbitzaria** — Aldatu urruneko kontaktuen datu-basea. Aukera hau eskuragarri dago soilik urruneko kontaktuen datu-basea zure zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu.

# Multiataza

Hainbat aplikazio aldi berean irekita egon daitezke. Aplikazio aktiboen artean aldatzeko, hasiera-tekla luze sakatu, aplikaziora joan eta gurpila sakatu. Aukeratutako aplikazioa ixteko, atzera egiteko tekla sakatu.

**Adibidea:** Telefono dei aktibo bat daukazunean eta egutegia ikusi nahi duzunean, hasiera-tekla sakatu menura joateko eta Egutegi aplikazioa ireki. Telefono deia aktibo mantentzen da atzealdean.

**Adibidea:** Mezu bat idazten ari zarenean eta web gune bat ikus nahi duzunean, hasiera-tekla sakatu menura joateko eta ireki Web aplikazioa. Laste-rmarka bat aukeratu edo eskuz sartu web helbidea eta aukeratu **Hona joan**. Mezura bueltatzeko, hasiera-tekla luze sakatu, mezura joan eta gurpila sakatu.

# Ovi-ko fitxategiak

Ovi-ko fitxategiak zerbitzuarekin Nokia E52 erabil dezakezu zure ordenagailuaren edukian sartzeko piztuta eta Internetera konektatuta badago. Ovi-ko fitxategiak instalatu behar duzu Ovi-ko fitxategiak aplikazioaren bidez sartu nahi duzun ordenagailu bakoitzean.

Ovi-ko fitxategiak aplikazioa epe batean zehar froga dezakezu.

Ovi-ko fitxategiak aplikazioarekin, honakoa egin dezakezu:

- Zure irudiak arakatu, bilatu eta ikusi. Ez dituzu irudiak webgunera kargatu behar, aldiz, ordenagailuaren edukian sar zaitezke telefonoaren bidez.
- Arakatu, bilatu eta ikusi fitxategiak eta dokumentuak.
- Abestiak ordenagailutik telefonora transferitu.
- Bidali fitxategiak eta karpetak ordenagailutik hauek telefonora edo telefonotik mugitu gabe.
- Sartu ordenagailuaren fitxategietan, nahiz eta ordenagailua itzalita egon. Hautatu zein karpeta eta fitxategi eskuragarri egotea nahi duzun, eta Ovi-ko fitxategiak aplikazioak automatikoki eguneratutako kopia bat lineako memoria batean gordetzen eta babesten du. Memoria honetara ordenagailua itzalita dagoenean ere sar zaitezke.

## Ovi-ko fitxategiak aplikazioa instalatzeko:

1. Hautatu **Menua** > **Bulegoa** eta **Ovi-ko fitxategiak**
2. Irakurri pantailan agertzen den informazioa eta hautatu **Jarraitu**.
3. Hautatu posta elektronikoko eremua, sartu zure posta elektronikoko helbidea eta hautatu **Eginda** eta **Bidali**.

   Ovi-ko fitxategiak zerbitzuak informazioa daukan mezu elektroniko bat bidaltzen dizu erabiltzen hasteko.

Laguntza lortzeko, zoaz files.ovi.com/support helbidera.

# Mezularitza

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

Mezularitza aplikazioan (sare zerbitzua), mezuak, multimedia mezuak, audio mezuak eta mezu elektronikoak jaso eta bidal ditzakezu. Web zerbitzu mezuak, zelula-difusio mezuak eta datuak dituzten mezu bereziak jaso ditzakezu ere bai, eta zerbitzu komandoak bidali.

Mezuak bidali edo jaso baino lehen, baliteke beharrezkoa izatea:

- Gailuan SIM txartel baliodun bat sartzea eta sare zelular baten zerbitzu gunean kokatzea.
- Sareak erabili nahi dituzun mezularitza funtzioak onartzen dituela eta hauek Sim txartelan aktibatuta daudela ziurtatzea.
- Gailuan internet sarbide puntuaren ezarpenak definitzea.
- Gailuan posta elektroniko kontuaren ezarpenak definitzea.
- Gailuan testu mezu ezarpenak definitzea.
- Gailuan multimedia mezu ezarpenak definitzea.

Baliteke gailuak SIM txartelaren hornitzailea detektatzea eta automatikoki mezu ezarpenetariko batzuk konfiguratzea. Hala ez bada, baliteke ezarpenak eskuz konfiguratzea behar izatea; bestela, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin ezarpenak konfiguratzeko.

# Mezularitza karpetak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

Bluetooth konexioa erabiliz jasotako mezuak eta datuak Sarrera ontzian gordetzen dira. Mezu elektronikoak Postontzian gordetzen dira. Idatzi dituzun mezuak Zirriborroen karpetan gorde daitezke. Bidaltzeko zain dauden mezuak Irteera ontzian gordetzen dira, eta bidali diren mezuak, Bluetooth mezuak kanpo, Bidalita karpetan gordetzen dira.

**Aholkua:** Zure gailua estaldurarik gabe dagoenean, esaterako, Irteerako ontzian biltzen dira mezuak.

**Oharra:** Mezua bidali dela dioen testu edo ikonoa pantailan agertzeak ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik.

Sareak bidalitako testu eta multimedia mezuen bidalketa txosten bat bidaltzea eskatzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Testu mezua** > **Txostena jaso** edo **Multimedia mezua** > **Txostenak jaso**. Txostenak Txostenak karpetan gordetzen dira.

# Mezuak antolatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Nire karpetak**.

Karpeta berri bat sortzeko bertan mezuak antolatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Karpeta berria**.

Karpeta baten izena aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berrizendatu karpeta**. Zuk sortu dituzun karpeten izenak soilik alda ditzakezu.

Mezu bat beste karpeta batera mugitzeko, aukeratu mezua, **Aukerak** > **Mugitu karpetara**, karpeta eta **Ados**.

Mezuak ordena zehatz batean sailkatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sailkapen irizpidea:**.

Mezu baten ezaugarriak ikusteko, aukeratu mezua eta **Aukerak** > **Mezuaren xehetasunak**.

# Posta elektronikoa

## Posta elektronikoa konfiguratu

Nokiaren posta elektronikorako laguntzailearekin, zure enpresaren kontu elektronikoa konfigura dezakezu, adibidez Microsoft Outlook, Mail for Exchange edo Intellisync, hala nola zure Interneteko kontu elektronikoa.

Enpresako posta elektronikoa konfiguratzen duzunean, baliteke zure helbide elektronikoarekin lotuta dagoen zerbitzariaren izena galdetzea. Eskatu xehetasunak zure enpresaren TI sailari.

1. Laguntzailea abiarazteko, zoaz hasiera pantailara, zoaz posta elektronikorako laguntzailera eta sakatu gurpila.
2. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza. Laguntzaileak ezarpenak automatikoki konfiguratu ezin baditu, kontu elektorniko mota eta lotutako kontuaren ezarpenak sartu behar dituzu.

Telefonoak posta elektornikorako bezero gehiago baditu, posta elektronikorako laguntzailea abiaratzen duzunean eskainiko zaizkizu.

## Posta elektronikoa bidali

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

1. Aukeratu zure postontzia eta **Aukerak** > **Sortu mezu elektr.**.
2. Nori eremuan, idatzi hartzailearen helbide elektronikoa. Hartzailearen helbide elektronikoa Kontaktuetan badago, hasi idazten hartzailearen izena eta aukeratu hartzailea proposamenetatik. Hartzaile bat baino gehiago gehitzen badituzu, idatzi **;** helbide elektronikoak banatzeko. Erabili Cc eremua kopia bat beste hartzaileei bidaltzeko, edo Bcc eremua hartzaileei kopia itsu bat bidaltzeko. Bcc ez badago ikusgai, aukeratu **Aukerak** > **Gehiago** > **Erakutsi Bcc eremua**.
3. Gaia eremuan, mezuaren gaia idatzi.
4. Idatzi mezua testu eremuan.
5. Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:
   - **Gehitu eranskina** — Gehitu mezuan eranskin bat.
   - **Lehentasuna** — Zehaztu mezuaren lehentasuna.

- **Bandera** — Ezarri mezuari bandera jarraipena egiteko.
- **Txertatu txantiloia** — Txertatu testua txantiloietatik.
- **Gehitu hartzailea** — Gehitu hartzaileak mezuan Kontaktuetatik.
- **Editatze aukerak** — Moztu, kopiatu edo itsatsi aukeratutako testua.
- **Sarrera-aukerak** — Aktibatu edo desaktibatu testu iragarlea edo hautatu idazteko hizkuntza.

6. **Aukerak** > **Bidali** aukeratu.

# Eranskinak gehitu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

Mezu elektroniko bat idazteko, aukeratu zure postontzia eta **Aukerak** > **Sortu mezu elektr.**.

Mezu elektronikoan eranskin bat gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu eranskina**.

Aukeratutako eranskina ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kendu eranskina**.

# Posta elektronikoa irakurri

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Jasotako mezu elektronikoa irakurtzeko, aukeratu postontzia eta zerrendako mezu bat.

Mezuaren bidaltzaileari erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun**. Mezuaren bidaltzaileari eta beste hartzaile guztiei erantzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Erantzun denei:**.

Mezua berriro bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berbidali**.

# Eranskinak deskargatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Jasotako mezu elektroniko baten eranskinak ikusteko, zoaz eranskinera eta aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ireki**. Mezuan eranskin ezberdinak badaude, deskargatutako eta deskargatu gabeko mezuak agertzen diren zerenda bat irekiko da.

Aukeratutako eranskina edo zerrendako eranskin guztiak telefonora deskargatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargatu** edo **Deskargatu guztiak**. Eranskinak ez dira telefonoan gordetzen, eta mezua ezabatzen duzunean ezabatzen dira.

Aukeraturako eranskina edo deskargatutako eranskin guztiak telefonoan gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gorde** edo **Gorde guztiak**.

Aukeratutako eta deskargatutako eranskina ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ireki**.

# Bilera eskaera bati erantzun

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Aukeratu jasotako bilera eskaera bat, **Aukerak** eta aukera hauetatik:

- **Onartu** — Onartu bilera eskaera.
- **Ezetsi** — Ukatu bilera eskaera.
- **Berbidali** — Bidali berriro bilera eskaera beste hartzaile bati.
- **Kendu egutegitik** — Ezabatu egutegitik bertan behera utzitako bilera bat.

# Mezu elektronikoak bilatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Postontziko mezu elektronikoen hartzaile, gai eta testu gorputzetan elementuak bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu**.

Bilaketa gelditzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gelditu bilaketa**.

Bilaketa berri bat hasteko, aukeratu **Aukerak** > **Bilaketa berria**.

# Mezu elektronikoak ezabatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Aukeratutako mezu elektronikoa ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ekintzak** > **Ezabatu**. Mezua Ezabatutako elementuen karpetan jarriko da, eskuragarri badago.

Ezabatutako elementuen karpeta husteko, aukeratu karpeta eta **Aukerak** > **Ezabat. elem. hutsik**.

# Posta elektronikorako karpeta batetik bestera aldatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Beste posta elektronikoaren karpeta edo postontzi bat irekitzeko, aukeratu **Sarrera ontzia** pantailaren goialdean. Aukeratu zerrendatik posta elektronikoaren karpeta edo postontzia.

# Postontzitik deskonektatu

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta postontzi bat.

Telefonoa eta posta elektronikoko zerbitzariaren tarteko sinkronizazioa eteteko, eta posta elektronikoarekin hari gabeko konexiorik gabe lan egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**. Postontziak **Deskonektatu** aukera ez badauka, aukeratu **Aukerak** > **Irten** postontzitik deskonektatzeko.

Sinkronizazioa berriz abiarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Konektatu**.

# Zehaztu bulegotik kanpo zaudenerako erantzun bat.

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

Bulegotik kanpo zaudenerako erantzun bat zehazteko, aukeratu postontzia eta postontzi motaren arabera, aukeratu **Aukerak** > **Ezarp.** > **Postontz. ezarp.** >

**Bulegotik kanpo** > **Aktibatu** edo **Aukerak** > **Ezarp.** > **Intellisync** > **Postontz. ezarp.** > **Bulegotik kanpo** > **Aktibatu**.

Erantzunaren testua sartzeko, aukeratu **Bul. kanpoko erantzuna**.

## Posta elektronikoaren ezarpen orokorrak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**, postontzia eta **Aukerak** > **Ezarp.** > **Ezarpen globalak** eta hurrengoetatik:

- **Zerrendaren diseinua** — Aukeratu sarrera ontzian dauden mezu elektronikoak testuaren linea bat edo bi erakustea nahi duzun.
- **Testuaren aurrebista** — Aukeratu sarrera ontziko mezuen zerrendan zehar mugitzen zarenean mezuak aurreikustea nahi duzun ala ez.
- **Titulu bereizleak** — Aukeratu **Aktibatu** mezu elektronikoen zerrenda zabaltzeko eta tolesteko.
- **Deskargatu jakinaraz.** — Aukeratu mezu elektronikoen eranskin bat deskargatu denean jakinarazpen bat agertzea nahi duzun ala ez.
- **Hasierako pantaila** — Zehaztu hasiera pantailako informazio gunean mezu elektronikoen zenbat lerro agertu behar diren.

# Nokia Messaging

Nokia Messaging zerbitzuak automatikoki eramaten du zure helbide elektronikoko posta zure Nokia E52 gailura. Mezu elektronikoak edonon irakurri, erantzun eta antola ditzakezu. Nokia Messaging zerbitzua posta elektroniko pertsonal gisa erabiltzen diren hainbat hornitzailerekin dabil, Google-en e-mail zerbitzuak esaterako.

Baliteke Nokia Messaging zerbitzuak tarifa ezberdinak izatea. Kostu posibleei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zerbitzu hornitzailearekin edo Nokia Messaging zerbitzuarekin.

Nokia Messaging zure gailuarekin bateragarria izan behar da eta baliteke herrialde guztietan eskuragarri ez izatea.

### Nokia Messaging aplikazioa instalatzea

1. Hautatu **Menua** > **E-mail** > **Berria**.
2. Irakurri pantailan agertzen den informazioa eta hautatu **Hasi**.
3. Hautatu **Konektatu** gailua sarean sartzeko aukera izan dezan.
4. Idatzi zure helbide elektronikoa eta pasahitza.

Nokia Messaging zerbitzuak zure gailuan ibil daiteke bestelako e-mail aplikazioak instalatu badituzu ere, Mail for Exchange, esaterako.

# Mezu irakurlea

Mezu irakurlea erabiliz, testu mezuak, multimedia mezuak, audio mezuak eta mezu elektronikoak entzun ditzakezu.

Mezuak edo posta elektronikoa entzuteko, hasiera pantailan, sakatu eta eutsi sakatuta ezkerreko hautatze tekla Mezu irakurlea ireki arte.

Sarrera ontziko mezuak edo postontziko mezu elektronikoak entzuteko, joan mezura eta hautatu **Aukerak** > **Entzun**. Irakurtzeari uzteko, sakatu amaitze tekla.

Irakurtzea eten eta berrabiarrazteko, sakatu korritze tekla. Hurrengo mezura saltatzeko, joan eskuinetara. Uneko mezua edo mezu elektronikoa berriz erreproduditzeko, joan ezkerretara. Aurreko mezura saltatzeko, joan ezkerretara mezuaren hasierara.

Uneko mezua edo mezu elektronikoa testu formatuan eta soinurik gabe entzuteko, hautatu **Aukerak** > **Ikusi**.

# Hiztuna

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Hiztuna**.

Hiztuna aplikazioarekin mezu irakurtzailearen hizkuntza, ahotsa eta ahots funtzioak ezar ditzakezu.

Mezu irakurtzailearen hizkuntza ezartzeko, aukeratu **Hizkuntza**. Zure telefonoarentzako hizkuntza gehigarriak jaisteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargatu hizkuntzak**.

**Aholkua:** Hizkuntza berri bat jaisten baduzu, gutxienez ahots bat jaitsi behar duzu hizkuntza horrentzako.

Ahots hiztuna ezartzeko, aukeratu **Ahotsa**. Ahotsa hizkuntzaren araberakoa izango da.

Hiztunaren abiadura ezartzeko, aukeratu **Abiadura**.

Hiztunaren bolumena ezartzeko, aukeratu **Bolumena**.

Ahots baten xehetasunak ikusteko, ireki ahots fitxa eta hautatu ahotsa eta **Aukerak** > **Ahotsaren xehetasunak**. Ahotsa entzuteko, hautatu ahotsa eta ondoren hautatu **Aukerak** > **Erreproduzitu ahotsa**.

Hizkuntzak edo ahotsak ezabatzeko, hautatu elementu bat eta **Aukerak** > **Ezabatu**.

## Mezu irakurtzailearen ezarpenak

Mezu irakurtzailearen ezarpenak aldatzeko, ireki Ezarpenak fitxa eta zehaztu ondorengoa:

- **Hizkuntza antzematea** — Aktibatu irakurketa hizkuntz antzemate automatikoa.
- **Etengabeko irakurketa** — Aktibatu hautatutako mezu guztien irakurketa jarraitua.
- **Hiztunaren pasahitzak** — Ezarri mezu irakurtzailea mezuetan eskaerak sartu ditzan.
- **Audio iturria** — Entzun mezuak aurikularren edo bozgorailuaren bidez.

# Testu eta multimedia mezuak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

Aukera bateragarriak dituzten telefonoek soilik jaso eta bistara ditzakete multimedia-mezuak. Mezuen itxura aldatu egiten daiteke mezua jasotzeko erabilitako telefonoaren arabera.

Multimedia mezu batek (MMS) testua eta objektuak izan ditzake, adibidez, irudiak, soinuklipak edo

bideoklipak. Telefonoan multimedia mezuak bidali edo jaso ahal izan aurretik, multimedia mezuen ezarpenak zehaztu behar dituzu. Telefonoak SIM txartel hornitzailea ezagutu lezake eta multimedia mezua ezarpenak automatikoki konfigura litzake. Honela ez bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin ezarpen egokiak lortzeko, eskatu zerbitzu-hornitzaileari ezarpenak konfigurazio mezu batean bidaltzeko edo erabili Ezarpenen laguntzaile aplikazioa.

# Mezuak idatzi eta bidaltzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

Multimedia mezu bat sortu baino lehen edo mezu elektroniko bat idatzi baino lehen, konexio ezarpen zuzenak izan behar dituzu konfiguratuta.

Haririk gabeko sareak MMS mezuen neurria muga dezake. Txertatutako argazkiak muga gainditzuz gero, telefonoak argazkia txikiagotu dezake MMS bidez bidali ahal izateko.

Galdetu zure zerbitzu hornitzaileari mezu elektronikoen gehienezko tamaina. E-mail zerbitzariaren tamaina muga gainditzen duten mezu elektroniko bat bidaltzen saiatzen bazara, mezua Irteera postontzian geldituko da eta gailua berriro ere bidaltzen saiatuko da noizbehinka. Mezu elektronikoak bidaltzeko datu konexioa behar da eta mezuak berriz bidaltzeko saiakera jarraiek telefono faktura igo dezakete. Irteera postontzian, halako mezuak ezaba ditzakezu, edo Zirriborroak karpetara mugitu.

1. Hautatu **Mezu berria** > **Mezua** testu edo multimedia mezu (MMS) bat bidaltzeko, **Audio mezua** soinu klip bat duen multimedia mezu bat bidaltzeko, edo **E-maila** mezu elektroniko bat bidaltzeko.
2. Nori eremuan, sakatu korritze tekla kontaktu zerrendako hartzaileak edo taldeak hautatzeko, edo idatzi hartzailearen telefono zenbakia edo helbide elektronikoa. Hartzaileen arteko puntu eta koma (;) bat gehitzeko, sakatu *****. Zenbakia edo helbidea arbeletik kopia dezakezu ere bai.
3. Gaia eremuan, idatzi mezu elektronikoaren gaia. Ikus daitezkeen eremuak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mezuaren goiburuak**.
4. Mezua eremuan, idatzi mezua. Txantiloi bat edo ohar bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Testua gehitu** > **Txantiloia** edo **Oharra**.
5. Multimedia mezu bati media fitxategi bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia**, fitxategi mota edo jatorria, eta nahi duzun fitxategia. Bisita-txartel bat, diapositiba bat, ohar bat edo bestelako fitxategi bat mezuari gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Besteren bat gehitu**.
6. Multimedia mezu batentzako argazki bat ateratzeko edo soinu klip bat grabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Irudia gehitu** >

**Berria**, **Bideoklipa gehitu** > **Berria**, edo **Gehitu soinu-klipa** > **Berria**.

7. Mezu elektroniko bati eranskin bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** eta eranskin mota. E-mail eranskinak honela adierazita daude: .
8. Mezua bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**, edo sakatu deitze tekla.

**Oharra:** Mezua bidali dela dioen testu edo ikonoa pantailan agertzeak ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik.

Zure telefonoak mezu bakarreko muga gainditzen duten mezuak onartzen ditu. Mezu luzeagoak bi mezu edo gehiagotan banatuta bidaltzen dira. Zerbitzu-hornitzaileek bidalitako mezu kopuruen arabera kobratu ohi dute. Azentu-markak eta bestelako ikurrak dituzten karaktereek eta hizkuntza jakin batzuetako karaktereek leku gehiago hartzen dute, eta mezu batean bidal daitekeen karaktere kopurua murriztu egiten da.

Baliteke MP4 formatuan gordeta dauden edo multimedia mezuen hari gabeko sarearen tamaina muga gainditzen duten bideo klipak ezin bidaltzea.

# SIM txarteleko testu-mezuak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **SIM mezuak**.

Testu-mezuak SIM txartelean gorde daitezke. SIMeko mezuak ikusi aurretik, telefonoko karpeta batean kopiatu behar dituzu. Mezuak karpeta batean kopiatu ondoren, karpetan ikus ditzakezu edo SIM txarteletik ezaba ditzakezu.

1. Mezuak markatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu** edo **Markatu guztiak**.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Kopiatu**.
3. Aukeratu karpeta eta **Ados** kopiatzen hasteko.

SIM txarteleko mezuak ikusteko, ireki mezuak kopiatu dituzun karpeta eta ireki mezua.

# Multimedia mezuak jaso eta erantzun

**Garrantzitsua:** Kontuz ibili mezuak irekitzean. Mezuek asmo txarreko softwarea eduki dezakete edo, edonola ere, zure telefono edo ordenagailua kalte dezakete.

**Aholkua:** Zure telefonoak onartu gabeko objektudun multimedia mezuak jasotzen badituzu, ezin dituzu ireki. Saiatu objektu horiek beste gailu batera bidaltzen, ordenagailura, esaterako, eta ireki bertan.

1. Multimedia mezu bati erantzuteko, ireki mezua eta hautatu **Aukerak** > **Erantzun**.
2. Hautatu **Igorleari** igorleari erantzuteko, **Denei** jasotako mezuko guztiei erantzuteko, **Audio mezu bidez** audio mezu batekin erantzuteko edo **Mezu elektr. bidez** mezu elektroniko batekin erantzuteko. Postontzia konfiguratuta badago eta

mezua helbide elektroniko batetik bidaltzen bada bakarrik dago eskuragarria mezu elektronikoa.

**Aholkua:** Zure erantzunari hartzaileak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Hartzailea gehitu** Kontaktuak ataletik mezuaren hartzaileak hautatzeko edo idatzi hartzailearen telefono zenbakia edo helbide elektronikoa eskuz **Nori** eremuan.

3. Idatzi mezuaren testua eta aukeratu **Aukerak** > **Bidali**.

# Aurkezpenak sortzea

Hautatu **Menua** > **Mezularitza**.

Ezin da multimedia aurkezpenik sortu **MMS sortze-modua** gailua **Murriztua** aukerara ezarrita badago. Ezarpena aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua** > **MMS sortze-modua** > **Librea** edo **Gidatua**.

1. Aurkezpen bat sortzeko, hautatu **Mezu berria** > **Mezua**. Mezu mota multimedia mezura aldatuko da gehitutako edukiaren arabera.
2. Nori eremuan, idatzi hartzaile baten zenbakia edo helbide elektronikoa, edo sakatu korritze tekla kontaktu zerrendako hartzaile bat gehitzeko. Zenbaki edo helbide elektroniko bat baino gehiago sartzen baduzu, banandu puntu eta koma erabiliz.
3. Hautatu **Aukerak** > **Sartu edukia** > **Aurkezpena gehitu** eta aurkezpen txantiloi bat. Txantiloi batek aurkezpenean sar ditzakezun objektuak defini ditzake, non agertuko diren eta zein efektu agertzen diren irudi eta diapositiben artean.
4. Joan testu eremura eta idatzi testua.
5. Irudiak, soinua edo bideo klipak aurkezpenari gehitzeko, joan dagokion objektuaren eremura eta hautatu **Aukerak** > **Gehitu**.
6. Diapositibak gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu** > **Diapositiba berria**.

Aurkezpenaren atzeko kolorea eta diapositiba ezberdinen irudiak hautatzeko, hautatu **Aukerak** > **Atzeko planoko ezarp.**.

Irudi edo diapositiben arteko efektuak ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Efektuen ezarpenak**.

Aurkezpena aurreikusteko, hautatu **Aukerak** > **Aurrebista**. Multimedia aurkezpenak, aurkezpenak onartzen dituzten gailu bateragarrietan ikus daitezke soilik. Itxura ezberdina izan dezakete gailuaren arabera.

# Aurkezpenak ikusi

Aurkezpen bat ikusteko, ireki multimedia mezua Sarrera ontzitik. Zoaz aurkezpenera eta sakatu gurpila.

Aurkezpena eteteko, sakatu edozein aukeraketa-tekla.

Aurkezpena erreproduzitzeari berrekiteko, aukeratu **Aukerak** > **Jarraitu**.

Testua edo irudiak telefonoan sartzeko handiegiak badira, aukeratu **Aukerak** > **Desplazamendua aktib.** eta mugitu aurkezpen osoa ikusteko.

Aurkezpenean telefono zenbakiak eta weben helbideak bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu**. Zenbaki eta helbide hauek erabil ditzakezu, besteak

beste, deiak egiteko, mezuak bidaltzeko edo liburu-markak sortzeko.

## Multimedia eranskinak ikusi eta gorde

Multimedia mezuak aurkezpen oso gisa ikusteko, ireki mezua eta aukeratu **Aukerak** > **Erreproduzitu aurkezp.**.

**Aholkua:** Multimedia mezu batean multimedia objektu bat ikusteko edo erreproduzitzeko, aukeratu **Irudia ikusi**, **Soinu klipa erreproduz.** edo **Erreproduzitu bideoklipa**.

Eranskinaren izena eta tamaina ikusteko, aukeratu mezua eta **Aukerak** > **Objektuak**.

Multimedia objektu bat gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Objektuak**, objektua eta **Aukerak** > **Gorde**.

# Mezu berezi motak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza**.

Datuak daukaten mezu bereziak jazo ditzakezu, hala nola, operadore logoak, dei tonuak, laster-markak edo internet sarrera edo e-mail kontu ezarpenak.

Mezu hauen edukia gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gorde**.

## Zerbitzu-mezuak

Zerbitzu-mezuak zerbitzu-hornitzaileek bidaltzen dituzte. Zerbitzu-mezuek jakinarazpenak eduki ditzakete, adibidez, berrien goiburuak, zerbitzuak edo edukia deskargatzeko estekak.

Zerbitzu-mezuen ezarpenak zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zerbitzu mezua**.

Zerbitzuaren edo mezuaren edukia deskargatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Deskargatu mezua**.

Mezua deskargatu aurretik honen xehetasunak ikusi nahi badituzu, besteak beste igorlea, web helbidea, iraungitze-data eta abar, aukeratu **Aukerak** > **Mezuaren xehetasunak**.

## Zerbitzu-komandoak bidali

Zerbitzu eskaera mezu bat (USSD komando bezala ezagutua ere) bidal diezaiokezu zure zerbitzu-hornitzaileari eta zenbait sare zerbitzuen aktibazioa eskatu. Zerbitzu eskaera testua eskuratzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zerbitzu eskaera mezua bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zerbitzu-komandoak**. Idatzi zerbitzu eskaera testua eta aukeratu **Aukerak** > **Bidali**.

# Zelula-difusioa

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Zelula-difusioa**.

Zelula-difusio sare zerbitzuaren bidez, hainbat gairen inguruko mezuak jaso ditzakezu, besteak beste, toki jakin bateko eguraldia edo trafikoari buruzkoak. Eskuragarri dauden gaiak eta gaien zenbaki aipagarrienak ezagutzeko, jo zerbitzu-hornitzailearengana. Zelula-difusio mezuak ezin dira jaso telefonoa urruneko SIM moduan dagoenean. Datu-paketeen (GPRS) konexioak zelula-difusioa jasotzea eragotz dezake.

Zelula-difusioari buruzko mezuak ezin dira UMTS (3G) sareetan jaso.

Zelula-difusio mezuak jasotzeko, baliteke zelula-difusio harrera gaitu behar izatea. Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Harrera** > **Aktibatu**.

Gai bati buruzko mezuak ikusteko, aukeratu gaia.

Gai bati buruzko mezuak jasotzeko, aukeratu **Aukerak** > **Harpidetu**.

**Aholkua:** Gai garrantzitsuak gai bero bezala sailka ditzakezu. Hasiera pantailan jakinaraziko zaizu gai bati buruzko mezu bat jasotzerakoan. Aukeratu gai bat eta **Aukerak** > **Markatu**.

Gaiak gehitzeko, editatzeko edo ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gaia**.

# Mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Ireki delako mezua eta definitu **Nahitaez zehaztu** gisa markatutako eremu guztiak edo izar gorritxoa duten eremu guztiak.

Telefonoak SIM txartel hornitzailea ezagutu lezake eta testu-mezua, multimedia mezua eta GPRS ezarpenak automatikoki konfigura litzake. Honela ez bada, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin ezarpen egokiak lortzeko, eskatu zerbitzu-hornitzaileari ezarpenak konfigurazio mezu batean bidaltzeko edo erabili Ezarpenen laguntzaile aplikazioa.

## Testu-mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Testu mezua**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Mezu zentroak** — Ikusi telefonoaren eskuragarri dauden mezu zentroak edo gehitu berri bat.
- **Erabil. ari den mezu zent.** — Aukeratu mezua bidaltzeko mezu zentro bat.
- **Karaktere kodeketa** — Aukeratu **Euskarri mugatua** karaktereak beste kodeketa sistema batera automatikoki bihurtzeko aukera eskuragarri dagoenean.
- **Txostena jaso** — Aukeratu **Bai** sareak zure mezuei buruzko bidalketa txostenak igortzea nahi baduzu (sare zerbitzua).
- **Mezuaren baliotasuna** — Aukeratu mezu zentroak zenbat denboran saiatu behar duen mezua bidaltzen, lehenengo saiakerak huts egingo balu (sare zerbitzua). Zehaztutako baliozkotasun epean mezua ez bada jaso, mezuen zentrotik ezabatuko da.
- **Mez. formatu hon. bidali** — Bihurtu mezuaren formatua beste formatu, adibidez, faxa edo mezu elektronikoa. Aldatu aukera hau zure mezu zentroak mezuak beste formatu hauetara bihur

ditzakeela ziur bazaude. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

- **Konexiorik gogokoena** — Aukeratu mezuak zure telefonotik bidaltzerakoan gogoko duzun konexio metodoa.
- **Zentro beretik erantzun** — Aukeratu erantzun testu-mezuen zentroko zenbaki berdina erabiliz bidali nahi duzun ala ez (sare zerbitzua).

## Multimedia mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Irudiaren neurria** — Aldatu multimedia mezuen irudien tamaina.
- **MMS sortze-modua** — Aukeratu **Murriztua** zure telefonoak hartzailearen sareak edo gailuak onartzen ez duen multimedia mezuen edukia erabili ez dezan. Eduki hori gehitzeari buruzko abisuak jasotzeko, aukeratu **Gidatua**. Eranskin murrizketarik gabeko multimedia mezu bat sortzeko, aukeratu **Librea**. **Murriztua** aukeratuz gero, ezin da multimedia aurkezpenik sortu.
- **Erabilt. ari den sarbidea** — Aukeratu multimedia mezuen zentrora konektatzeko erabiltzen duzun sargune lehenetsia. Baliteke sargune lehenetsia ezin aldatu izatea zerbitzu-hornitzaileak aurrezarri badu.
- **Multimedia berreskuratz.** — Aukeratu **Automatikoa beti** multimedia mezuak beti automatikoki jasotzeko, **Autom. etxeko sarean** mezu zentrotik (adibidez, atzerrian bidaiatzen ari zarenean edo beste sare batean bazaude) berreskuratu dezakezun multimedia mezu bat dagoenean jakinarazteko, **Eskuzkoa** eskuz mezu zentroko multimedia mezuak berreskuratzeko, edo **Desaktibatu** edozein multimedia mezu jasotzea saihesteko.
- **Izengab. mezuak onartu** — Aukeratu igorle ezezagunen mezuak jaso nahi dituzun ala ez.
- **Publizitatea jaso** — Aukeratu iragarki gisa zehaztuta dauden mezuak jaso nahi dituzun ala ez.
- **Txostenak jaso** — Eskatu bidalitako mezuen bidaltze eta irakurtze txostenak (sare zerbitzua). Baliteke helbide elektroniko batera bidalitako multimedia-mezuaren bidaltze txostena ezin jasotzea.
- **Ukatu txosten-bidalketa** — Aukeratu **Bai** jasotako multimedia mezuen bidalketa txostenak ez bidaltzeko.
- **Mezuaren baliotasuna** — Aukeratu zenbat denboran zehar mezu zentroak mezu bat bidaltzen saiatu behar duen (sare zerbitzua). Mezu baten hartzailea eskuragarri ez badago baliotasun aldian, mezua multimedia mezularitza zentrotik ezabatzen da. **Gehienezko denbora** sareak onartzen duen gehienezko denbora da.

Bidalitako mezua jaso edo irakurri dela adierazteko, sarearen babesa behar du telefonoak. Sarearen edo beste gorabehera batzuen arabera, baliteke informazio hori beti fidagarria ez izatea.

# Zerbitzu-mezuen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zerbitzu mezua**.

Telefonoak zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-mezuak jaso ditzan, aukeratu **Zerbitzu mezuak** > **Aktibatu**.

Zerbitzuak eta zerbitzu-mezuen edukia nola deskargatu nahi duzun aukeratzeko, aukeratu **Deskargatu mezuak** > **Automatikoki** edo **Eskuz**. **Automatikoki** aukeratzen baduzu, oraindik ere deskarga batzuk baieztatu beharko dituzu agian, zerbitzu guztiak ezin baitira automatikoki deskargatu.

# Zelula-difusioaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zelula-difusioa**.

Zelula-difusio mezuak jasotzeko, aukeratu **Harrera** > **Aktibatu**.

Zelula-difusio mezuak zer hizkuntzatan jaso nahi dituzun aukeratzeko, aukeratu **Hizkuntza**.

Zelula-difusioaren gaien zerrendan gai berriak ikusteko, aukeratu **Gaien detekzioa** > **Aktibatu**.

# Bestelako ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bestelakoak**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Gorde bidalitako mezuak** — Aukeratu bidalitako mezuak Bidalita karpetan gorde nahi dituzun ala ez.
- **Gordetako mezu kopurua** — Idatzi bidalitako zenbat mezu gordetzea nahi duzun. Muga gainditzen denean, mezurik zaharrena ezabatzen da.
- **Erabiltzen ari den memo.** — Aukeratu zezuen kokapena. Mezuak memoria-txartelean gorde daitezke bakarrik memoria-txartela sartuta badago.

# Telefonoa

Deiak egiteko eta jasotzeko, gailua piztuta egon behar da, SIM txartel baliodun bat instalatuta izan behar du eta sare zelular baten zerbitzu gunean kokatu behar zara.

Sareko dei bat egiteko edo jasotzeko, gailua sareko dei zerbitzu bati konektatuta egon behar da. Sareko dei zerbitzu bati konektatzeko, gailua sare konexio baten estaldura behar du, hari gabeko LAN (WLAN) sarbide puntu bat esaterako.

## Ahozko deiak

**Oharra:** Zerbitzu-hornitzaileak igortzen dizun dei eta zerbitzuen faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturen biribilketen, zergen eta abarren arabera.

### Zarata ezabatzea

Inguru-zarata zure hizketatik ezabatzen da mikrofono duala duen zarata ezabatze teknologia erabiliz.

Bigarren mikrofono batek jasotako zarata zure hizketa jasotzen duen oinarrizko mikrofonoaren seinaletik ezabatzen da. Honek hizketaren transmizioa hobetzen du inguru zaratatsuetan.

Zarata ezabatzea ez dago eskuragarri bozgorailua edo aurikularrak erabiltzen diren bitartean.

Emaitza hobeak lortzeko, hartu gailua oinarrizko mikrofonoa ahoari begira dagoelarik.



### Deiak erantzun

Dei bat erantzuteko, sakatu deitzeko tekla.

Dei bati uko egiteko, sakatu bukatzeko tekla.

Deia erantzun ordez tonua isilarazi nahi baduzu, aukeratu **Isilarazi**.

Dei aktibo bat daukazunean eta deia zain funtzioa (sare zerbitzua) aktibatuta dagoenean, sakatu deitzeko tekla dei berri bat erantzuteko. Lehen deia itxaroten jartzen da. Dei aktiboa amaitzeko, Bukatu tekla sakatu.

### Deiak egin

**Garrantzitsua:** Telefonoa blokeatuta egonez gero, blokeatzeko kodea sartu beharko da dei funtzioa gaitu ahal izateko.

Telefonoa blokeatuta egonda ere, larrialdiko zenbaki ofizialera dei daiteke. Konexiorik gabeko moduan edo

telefonoa blokeatuta baldin badago, larrialdiko dei bat egin ahal izateko telefonoak larrialdiko zenbaki hori zenbaki ofizialtzat ezagutu behar du. Larrialdiko dei bat egin aurretik, telefonoaren profila aldatzea edo telefonoa desblokeatzea komeni da, blokeatzeko kodea sartuz.

Dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia, eskualde kodea barne, eta sakatu dei tekla.

**Aholkua:** nazioarteko deietan, gehitu nazioarteko aurrezenbakia ordezkatzen duen + ikurra, herrialdearen aurrezenbakia, lurraldearen aurrezenbakia (beharrezkoa izanez gero, hasierako 0 kendu) eta idatzi telefono zenbakia.

Deia amaitzeko edo dei saiakera ezeztatzeko, sakatu bukatzeko tekla.

Gordetako kontaktuak erabiliz dei bat egiteko, ireki kontaktuak. Idatzi izenaren lehenengo hizkiak, zoaz izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Erregistroa erabiliz dei bat egiteko, sakatu deitzeko tekla deitzen saiatu zaren edo deitu dituzun azken 20 zenbakiak ikusteko. Zoaz nahi duzun zenbakira edo izenera eta sakatu deitzeko tekla.

Dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen teklak.

Ahots-dei batetik bideo-dei batera aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aldatu bideo-deira**. Telefonoak ahots-deia bukatzen du eta hartzaileari bideo-dei bat egiten dio.

# Konferentzia-dei bat egitea

1. Konferentzia dei bat egiteko, sartu parte hartzaile baten telefono zenbakia eta sakatu deitze tekla.
2. Parte hartzaileak erantzutean, hautatu **Aukerak** > **Dei berria**.
3. Parte hartzaile guztientzako dei bat egitean, hautatu **Aukerak** > **Telekonferentzia** deiak konferentzia-dei batean batzeko.

Deian zehar mikrofonoa isiltzeko, sakatu mututze tekla.

Parte hartzaile bat konferentzi-deitik ateratzeko, hautatu **Aukerak** > **Telekonferentzia** > **Baztertu parte-hartzail.** eta parte hartzailea.

Konferentzia-deiaren parte hartzaile batekin pribatuan hitz egiteko, hautatu **Aukerak** > **Telekonferentzia** > **Pribatua** eta parte hartzailea.

# Ahots-postontzia

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Dei-poston.**.

Ahots-postontzia lehenengo aldiz irekitzen duzunean, zure ahots-postontziaren zenbakia sartzeko eskatuko zaizu.

Zure ahots-postontzira deitzeko, zoaz ahots-postontzira eta aukeratu **Aukerak** > **Deitu ahots-postontzira**.

Telefonoan sare deien xehetasunak konfiguratu badituzu eta Internet-deien postontzi bat badaukazu,

postontzira deitzeko, zoaz postontzira eta aukeratu **Aukerak** > **Deitu Intern. deien post.**.

Hasiera pantailan postontzira deitzeko, eduki sakatuta **1**, edo sakatu **1** eta ondoren deitzeko tekla. Aukeratu deitu nahi duzun postontzia.

Postontziaren zenbakia aldatzeko, aukeratu postontzia eta **Aukerak** > **Zenbakia aldatu**.

# Bideo-deiak

## Bideo-deiei buruz

Bideo-dei bat egin ahal izateko, UMTS sarearen estalduran egotea beharrezkoa da. Bideo-dei zerbitzuen eskuragarritasunari eta harpidetzari buruz gehiago jakiteko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. Hitz egiten duzun bitartean, denbora errealean, zure eta hartzailearen arteko bi noranzkoko bideoa ikus dezakezu, hartzaileak gailu bateragarri bat badauka. Telefonoko kamerak grabatzen duen bideoa bideo-deiaren hartzaileari erakusten zaio. Bideo-dei batean bi parte-hartzaile egon daitezke soilik.

## Bideo-dei bat egin

**Abisua:** Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

Bideo-dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia edo aukeratu hartzailea kontaktu zerrendan eta **Aukerak** > **Deitu** > **Bideo-deia**. Bideo-deia hasten denean, telefonoaren kamera aktibatzen da. Kamera jadanik erabiltzen ari bazara, bideo bidalketa desgaitzen da. Deiaren hartzaileak bideoa bidali nahi ez badu, irudi geldo bat agertuko da. Zure telefonoak bideoaren ordez bidaliko duen irudia ezartzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Irudia bideo-deian**.

Audio, bideo edo bideo eta audio bidalketa desgaitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezgaitu** > **Audioa bidaltzea**, **Bideoa bidaltzea** edo **Aud. eta bid. bidaltzea**.

Bideo-dei aktibo baten bolumena egokitzeko, erabili bolumen teklak.

Bozgorailua erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu bozgorailua**. Bozgorailua isilarazteko eta aurikularrak erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aktibatu telefonoa**.

Irudien lekua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Trukatu irudiak**.

Pantailako irudia gerturatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zooma** edo mugitu gora edo behera.

Bideo-deia amaitzeko eta ahots-dei berri bat hartzaile berari egiteko, aukeratu **Aukerak** > **Ahots deira aldatu**.

# Bideoak partekatzen

Bideo partekatzea (sare zerbitzua) erabili zuzeneko bideo edo bideo bat ahots-dei batean zure telefono

mugikorretik beste telefono mugikor bateragarri batera bidaltzeko.

Bozgorailua aktibatuta dago bideo partekatzea aktibatzen duzunean. Bideoak partekatzen dituzunean ahots-deietan bozgorailua ez baduzu erabili nahi, aurikular bateragarriak erabili ditzakezu.

**Abisua:** Musika neurrian entzun. Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake.

## Bideoak partekatzeko eskakizunak

Bideoak partekatzeko UMTS konexio bat beharrezkoa da. Zerbitzuaren, UMTS sare eskuragarritasunaren eta zerbitzua erabiltzeagatik aplikatutako tarifen inguruko informazio gehiagorako, jar zaitez zure zerbitzu hornitzailearekin harremanetan.

Bideoa partekatzea erabiltzeko egin beharreko pausoak:

- Telefonoa pertsonarteko konexiorako ezarria dagoela ziurtatu.
- UMTS konexio aktibo bat daukazula eta UMTS sarearen estalduran zaudela ziurtatu. UMTS sarea bideoa partekatu bitartean uzten baduzu, partekatzea amaitu egingo da baina ahots-deiarekin jarraitu ahal izango duzu.
- Igorlea eta hartzailea UMTS sarean erregistratuta daudela ziurtatu. Norbait partekatze saio batera gonbidatzen baduzu eta hartzailearen telefonoa UMTS sarearen estalduran ez badago, bideo partekatzea instalatua ez badauka edo pertsonarteko konexioa ezarria ez badu, hartzaileak ez du gonbidapenik jasoko. Hartzaileak gonbidapena ezin duela onartu adierazten duen errore mezu bat jasoko duzu.

## Bideoi partekatze ezarpenak

Bideo partekatze ezarpenak doitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Bideo partek.**.

Bideo partekatzea ezartzeko, pertsonarteko eta UMTS konexio ezarpenak beharrezkoak dira.

### Pertsonarteko konexio ezarpenak

Pertsonarteko konexioa session initiation protocol (SIP) bezala ere ezagutzen da. Bideo partekatzea erabiltzen hasi baino lehen SIP profilaren ezarpenak telefonoan konfiguratu behar dira. Zure zerbitzu-hornitzaileari SIP profil ezarpenak eskatu eta telefonoan gorde itzazu. Zerbitzu-hornitzaileak ezarpenak bidali edo beharrezko parametroen zerrenda bat eman diezazuke.

Kontaktu bati SIP helbide bat gehitzeko:

1. Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**.
2. Kontaktua aukeratu edo kontaktu berri bat sortu.
3. **Aukerak** > **Editatu** aukeratu.
4. **Aukerak** > **Xehetasuna gehitu** > **Partekatu bideoa** aukeratu.
5. SIP helbidea erabiltzaileizena@domeinuarenizena formatuan idatzi (IP helbide bat erabili dezakezu domeinu baten izena ordez).

Kontaktuaren SIP helbidea ez badakizu, hartzailearen telefono zenbakia sartzen saia zaitezke herrialdeko aurrezenbakiarekin bideoa partekatzeko (sarearen zerbitzu-hornitzaileak onartzen badu).

### UMTS konexioaren ezarpenak

Zure UMTS konexioa konfiguratzeko:

- UMTS sare bat erabiltzeko akordio bat ezartzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.
- Zure gailuko UMTS sarguneko konexioaren ezarpenak zuzenki konfiguratuta daudela ziurtatu. Ezarpenei buruzko Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

## Zuzeneko bideoak partekatu

Ahots-dei batean zehar, aukeratu **Aukerak** > **Partekatu bideoa**.

1. Bideoa deian zehar partekatzeko, aukeratu **Zuzeneko bideoa**.

   Bideoklip bat partekatzeko, **Bideoklipa** eta ikusi nahi duzun bideoklipa aukeratu.

   Baliteke bideoa formatu egoki batetara aldatu behar izatea partekatu ahala izateko. Gailuak bideoklipa bihurtu behar dela esaten badu, aukeratu **Ados**. Bihurketarako gailuak bideo editore bat izan behar du.

2. Hartzaileak SIP helbide edo telefono zenbaki bat baino gehiago baditu Kontaktuak zerrendan gordeta, lurralde kode eta guzti, aukeratu nahi duzun helbidea edo zenbakia. SIP helbidea edo telefono zenbakia eskuragarri ez badaude, idatzi hartzailearen helbidea edo telefono zenbakia lurralde kode eta guzti eta aukeratu **Ados** gonbitea bidaltzeko. Zure gailuak gonbidapena SIP helbidera bidaltzen du.

   Hartzaileak gonbitea onartzean automatikoki hasten da partekatzen.

   ### Partekatzean zeharreko aukerak

   Bideoa handitu (igorleak soilik).

   Bideoaren distira doitu (igorleak soilik).

   edo Mikrofonoa aktibatu edo desaktibatu.

   edo Bozgorailua piztu edo itzali.

   edo Bideo partekatzea eten eta berrekin.

   Pantaila osora aldatu (hartzaileak soilik).

3. Partekatzea amaitzeko, **Gelditu** aukeratu. Deia amaitzeko, amaitu tekla sakatu. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

Partekatutako zuzeneko bideoa gordetzeko, aukeratu **Bai** galdetutakoan. Gailuak partekatutako bideoaren kokapena jakinarazten dizu.

Bideo bat partekatzen ari zarela beste aplikazio batera joanez gero, partekatzea eten egiten da. Partekatzen jarraitzeko, hasiera pantailan, aukeratu **Aukerak** > **Jarraitu**.

## Gonbidapen bat onartu

Norbaitek bideoa partekatzeko gonbidapen bat bidaltzen dizunean, gonbidapen mezuan igorleareen izena eta SIP helbidea agertzen dira. Zure telefonoa

isilean ezarrita ez badago, gonbidapen bat jasotzen duzunean soinua egingo du.

Norbaitek gonbidapen partekatu bat bidaltzen badizu eta UMTS sarearen estalduran ez bazaude, ez duzu gonbidapen bat jaso duzula jakingo.

Gonbidapen bat jasotzen duzunean, honako hauetatik aukeratu:

- **Bai** — Gonbidapena onartu eta partekatze sesioa aktibatu.
- **Ez** — Gonbidapena errefusatu. Igorleak mezu bat jasotzen du zuk gonbidapena ukatu duzula esanez. Bukatzeko tekla sakatu dezakezu ere gonbidapena errefusatzeko eta ahots deia bukatzeko.

Gailuaren bideoa mututzeko, aukeratu **Aukerak** > **Mututu**.

Bideoa jatorrizko bolumenean erreproduzitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Jatorrizko bolumena**. Honek ez du telefono deien audio erreprodukzioan eragina.

Partekatzea amaitzeko, **Gelditu** aukeratu. Deia amaitzeko, amaitu tekla sakatu. Deia amaitutakoan partekatzea ere amaitu egiten da.

# Internet-deiak

## Internet deien inguruan

Internet bidezko dei zerbitzuarekin (sare zerbitzua), Internet bidezko deiak egin eta jaso ditzakezu. Internet bidezko deiak ordenagailuen, telefono mugikorren eta VoIP gailu baten eta ohiko telefono baten artean ezar daitezke.

Zerbitzua erabili ahal izateko, zerbitzuan harpidetu eta erabiltzaile kontua izan behar duzu.

Internet bidezko deia egin edo jasotzeko, WLAN sareko zerbitzu eremuan izan eta Internet bidezko dei zerbitzu batetara konektatuta egon behar duzu.

## Internet bidezko deiak aktibatu

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**. Joan ezkerretara eta hautatu internet deien zerbitzua zerrendan.

Internet deiak egiteko edo jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin internet deien konexioaren ezarpenak jasotzeko. Internet dei zerbitzu bati konektatzeko, gailua sare zerbitzu gune batean egon behar da.

Zure internet deien zerbitzua aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Aktibatu zerbitzua**.

Eskuragarri dauden hari gabeko LAN (WLAN) konexioak bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu WLANa**.

## Internet bidezko deiak egin

Internet bidezko deien funtzioa aktibatu duzunean, ahots dei arrunta egin dezakezun edozein aplikaziotik egin dezakezu Internet bidezko deia, adibidez, kontaktu zerrendatik edo erregistrotik. Adibidez, kontaktuen zerrendan, zoaz nahi duzun kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Deitu** > **Interneteko deia**.

Hasiera pantailatik Internet bidezko dei bat egiteko, idatzi telefono zenbakia edo Interneteko helbidea eta aukeratu **Sareko deia**.

1. Digitu batekin hasten ez den Interneteko helbide batetara Interneteko deia egiteko, sakatu edozein zenbaki tekla telefonoa egoneko moduan dagoenean eta jarraian sakatu # segundo batzuetan pantaila ezabatzeko eta zenbaki modutik hizki modura aldatzeko.
2. Internet helbidea sartu eta deitu tekla sakatu.

## Blokeatutako kontaktuak

Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**. Mugitu ezkerrera eta aukeratu zerrendan Internet-deien zerbitzua.

Blokeatutako kontaktuek ezin izango dute zure sareko egoera ikusi.

Blokeatutako kontaktuak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ikusi blokeat. zerrenda**.

Kontaktu bat blokeatutako kontaktuen zerrendan gehitzeko, zoaz kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Blokeatu kontaktuak**.

Kontaktua desblokeatzeko, zoaz kontaktura eta aukeratu **Aukerak** > **Desblokeatu**. Kontaktu bat desblokeatzean, online zaudenean ikusi egingo zaitu.

## Internet bidezko dei zerbitzuak kudeatu

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Sare-ezarp.**.

Internet dei zerbitzu berri bat gehitzeko, hautatu **Deskargatu**.

## Internet bidezko deien ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**. Joan ezkerretara eta hautatu internet deien zerbitzua zerrendan.

Internet deien ezarpenak ikusteko edo aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengo aukeren artean:

- **Zerbitzu-konektagarrit.** — Internet bidezko deien konexio ezarpenen helmuga aukeratu eta helmuga xehetasunak editatu.

  Helmuga aldatzeko, zerbitzura joan eta **Aldatu** aukeratu.
- **Erabilgarrit.-eskaerak** — Sarrerako presentzia eskaera guztiak baieztapen kontsultarik gabe automatikoki onartzeko edo ez aukeratu.
- **Zerbitz. buruzko inform.** — Ikusi hautatutako zerbitzuari buruzko informazio teknikoa.

# Ahots funtzioak

## Ahots funtzioak

Ahots funtzioak aplikazioa erabiliz, zure ahotsa erabil dezakezu funtsezko atazak burutzeko. Kontaktuei deitu edo audio mezuak bidal diezaiekezu, deiei erantzun eta zure mezuak entzun. Aurretik esnatze komando pertsonal bat grabatu behar duzu ataza hauek burutu ahal izateko. Ahots funtzioak aplikazioa

aktibatuta dagoenean, gailua zure esnatze komandoa entzungo du. Esnatze komandoa ematean, atazak burutu ahal izango dira.

# Ahots funtzioak aktibatzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Ahots-fun.**.

Aplikazioa aktibatzeko, egin hurrengoa:

1. Hautatu **Grabatu** > **Aktibazio-komandoa** esnatze komandoa grabatzeko.
2. Oinarrizko bistan, hautatu **Ahots-funtzioak**.
3. Esan esnatzeko komandoa

Hautatu hauetariko bat:

- **Grabatu** — Komandoak grabatzea.
- **Ezarpenak** — Ezarpenak aldatzea.
- **Zer da hau?** — Aplikazioari buruzko informazioa irakurtzea.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

# Markaketa bizkorra

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak** > **Markaketa bizkorra**.

Markaketa bizkorrarekin, zenbaki tekla bat sakatuta edukiz hasiera pantailan zaudenean dei bat egin dezakezu.

Markaketa bizkorra aktibatzeko, aukeratu **Aktibatu**.

Zenbaki tekla bat telefono zenbaki bati esleitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Marka. bizk.**. Zoaz pantailako zenbaki teklara (2 - 9) eta aukeratu **Aukerak** > **Esleitu**. Aukeratu kontaktuetatik nahi duzun zenbakia.

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia ezabatzeko, zoaz markaketa bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

Zenbaki tekla batera esleitutako telefono zenbakia aldatzeko, zoaz markaketa bizkorreko teklara eta aukeratu **Aukerak** > **Aldatu**.

# Deiak desbideratzea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Dei-desbiderak.**.

Desbideratu sartzen diren deiak zure ahots postontzira edo beste telefono zenbaki batera. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu desbideratu nahi duzun dei mota eta hurrengoetatik:

- **Ahots dei guztiak** edo **Fax dei guztiak** — Desbideratu sartzen diren ahots edo fax dei guztiak. Ezin dituzu deiak erantzun, deiak beste zenbaki bati desbideratu bakarrik.
- **Okupatua badago** — Desbideratu sartzen diren deiak dei aktibo bat duzunean.
- **Erantzun ezean** — Desbideratu sartzen diren deiak gailuak denbora jakin batean zehar soinua egin ondoren. Hautatu deia desbideratu baino lehen gailuak soinu egin behar duen denbora tartea.

- **Estalduratik at badago** — Desbideratu deiak gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.
- **Eskuragarri ez bada** — Desbideratu deiak dei aktibo bat duzunean, ez erantzun, edota gailua itzalita dagoenean edo sare estaldurarik ez duenean.

Deia zure ahots postontzira desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta**Aukerak** > **Aktibatu** > **Ahots-postontzira**.

Deia beste telefono zenbaki batera desbideratzeko, hautatu dei mota bat, desbideratze aukera bat, eta**Aukerak** > **Aktibatu** > **Beste zenbaki batera**. Sartu zenbakia edo hautatu **Aurkitu** Kontaktuak atalean gordetako zenbaki bat berreskuratzeko.

Uneko desbideratze egoera ikusteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Egoera egiaztatu**.

Deiak desbideratzeari uzteko, joan desbideratze aukerara eta hautatu **Aukerak** > **Desaktibatu**.

# Deiak blokeatzea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Dei-murrizketa**.

Gailua erabiliz egin edo jaso daitezkeen deiak blokea ditzakezu (sareko zerbitzua). Ezarpenak aldatzeko, zerbitzu hornitzaileak emandako blokeatze pasahitza behar duzu. Deiak blokeatzeak dei mota guztien gainean du eragina.

Deiak blokeatzeko eta deiak desbideratzeko moduak ezin dira aldi berean gaituta eduki.

Deiak blokeatuta egonda ere, larrialdiko zenbaki ofizial batzuetara deitzea dago.

Hautatu hauetariko bat:

- **Irteerako deiak** — Gailua erabiliz ahots deiak egitea eragoztea.
- **Nazioarteko deiak** — Atzerrirako deiak egitea eragoztea.
- **Nazioartekoak, norbere herrialdera izan ezik** — Atzerrirako deiak egitea eragoztea, baina norbere herrialderako deiak baimentzea.
- **Sarrerako deiak** — Sartzen diren deiak eragoztea.
- **Sarrerako deiak roaming egitean** — Atzerrian zaudenean sartzen diren deiak eragoztea.

Ahots deien blokeoen egoera ikusteko, hautatu blokeo aukera eta **Aukerak** > **Egoera egiaztatu**.

Ahots deien blokeo guztiei uzteko, hautatu blokeo aukera bat eta **Aukerak** > **Murrizketa guzt. desak.**.

Ahots eta fax deiak blokeatzeko erabilitako pasahitza aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu murrizk.-pasah.**. Sartu uneko kodea, eta ondoren sartu berria bi aldiz. Blokeatze pasahitzak lau digitu izan behar du. Informazio gehiago jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

# Sare deiak murriztu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Dei-murrizketa** > **Interneteko deien murrizketa**.

Dei-egile ezezagunen sare deiak ez onartzeko, aukeratu **Dei anonimoak ukatu** > **Aktibatu**.

# DTMF tonuak bidali

Dual-tonu multifrekuentzia (DTMF) tonuak dei batean zehar bidal ditzakezu erantzungailua eta beste telefono zerbitzu automatikoak kontrolatzeko.

## DTMF tonu sekuentzia bat bidali

1. Dei bat egin eta hartzaileak erantzun arte itxaron.
2. Aukeratu **Aukerak** > **DTMFa bidali**.
3. Idatzi DTMF tonu sekuentzia edo aukeratu aurrez zehaztutako sekuentzia bat.

## Gehitu DMTF tonu sekuentzia bat kontaktu txartel batean

1. Aukeratu **Menua** > **Kontaktuak**. Aukeratu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Editatu** > **Aukerak** > **Xehetasuna gehitu** > **DTMF**.
2. Idatzi tonu sekuentzia. 2 segundotako eten bat sartzeko DTMF tonu bat baino lehen edo tartean, idatzi **p**. Telefonoak DTMF tonuak deian zehar zuk **DTMFa bidali** aukeratu ondoren bidal ditzan ezartzeko, idatzi **w**. Teklatuarekin **p** eta **w** idazteko, sakatu ***** behin eta berriz.
3. Aukeratu **Eginda**.

# Hizketa gaia

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak** eta **Hasierako gaia** > **Gai hizlaria**

Hizketa gaia aktibatzen denean, hizketa gaia onartzen dituen funtzio zerrenda agertuko da hasiera pantailan. Funtzioetan zehar mugitu eta aldi berean gailuak funtzioak ozenki irakurtzen ditu. Nahi duzun funtzioa aukeratu.

Kontaktu zerrendako sarrerak ikusteko, aukeratu **Deiaren ezaugarr.** > **Kontaktuak**.

Galdutako deiei, markatutako zenbakiei eta maiz egindako deiei buruzko informazioa entzuteko, aukeratu **Deiaren ezaugarr.** > **Azkeneko deiak**.

Telefono zenbakia sartuz dei bat egiteko, aukeratu **Deiaren ezaugarr.** > **Markagailua** eta nahi dituzun zenbakiak.

Ahots-postontzira deitzeko, aukeratu **Deiaren ezaugarr.** > **Ahots-postontz.**.

Dei bat egiteko ahots-komandoak erabiltzeko, aukeratu **Ahots-komandoak**.

Jasotako mezuak ozenki irakurri ditzan, aukeratu **Mezu-irakurgailua**.

Momentuko ordua entzuteko, aukeratu **Erlojua**. Momentuko data entzuteko, behera joan.

Ahots laguntza erabiltzen ari zaren bitartean egutegi alarma iraungitzen bada, aplikazioak egutegiaren edukia ozenki irakurtzen du.

Eskuragarri dauden aukerak entzuteko, aukeratu **Aukerak**.

# Ahots-komandoak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Ahots-komd.**.

Ahots-komandoak erabili telefono deiak egiteko eta aplikazioak, profilak edo gailuko beste funtzioak irekitzeko. Ahots-egiaztapena abiatzeko, eduki sakatuta isilarazteko tekla.

Telefonoak Kontaktuetan dauden sarrerentzako eta Ahots-komando aplikazioan dauden sarreretarako ahots-etiketak sortzen ditu. Ahots-komando bat esaten denean gailuak esandako hitzak gailuan gordetako ahots-etiketarekin konparatu egiten ditu. Ahots-komandoak ez dira hiztunaren araberakoak; izan ere gailuko ahots-egiaztapena erabiltzaile nagusiaren ahotsera egokitzen da ahots-komandoak hobeto igartzeko.

## Dei bat egitea

Kontaktu baten ahots etiketa kontaktuen zerrendako kontaktuarentzat gordetzen den izena edo goitizena da.

**Oharra:** Ahots identifikadoreak erabiltzea zaila izan daiteke ingurune zaratatsu batean edo larrialdi batean; beraz, egoera guztietan ez da gomendatzen ahotsez markatutako deietan fidatzea.

Ahots etiketa bat entzuteko, hautatu kontaktu bat eta **Aukerak** > **Ahots-etiketaren xehet.** > **Erreprod. ahots-etiketa**.

1. Dei bat egiteko ahots komando bat erabiliz, sakatu eta eutsi sakatuta mututze tekla.
2. Tonua entzutean edo adierazle bisuala ikustean, esan argi kontaktuarentzat gordetako izena.
3. Gailuak detektatutako kontaktuarentzako ahots etiketa sintetizatu bat erreproduzitzen du hautatutako gailuaren hizkuntzan eta izena erakusten du. 1,5 segunduko tartea igaro ondoren, gailuak zenbakia markatzen du. Detektatutako kontaktua zuzena ez bada, hautatu beste kontaktu bat bat datozen aukeren artean, edo hautatu **Irten** markatzea ezeztatzeko.

   Kontaktuarentzako zenbaki bat naino gehiago gordeta badago, hautatu kontaktua eta nahi duzun zenbakia.

## Aplikazio bat irekitzea

Gailuak ahots etiketak sortzen ditu Ahots komandoak aplikazioaren zerrendan agertzen diren aplikazioentzat.

Aplikazio bat ahots komando bat erabiliz irekitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta mututze tekla, eta esan argi aplikazioaren izena. Detektatutako aplikazioa zuzena ez bada, hautatu beste aplikazio bat bat datozen aukeren artean, edo hautatu **Irten** ezeztatzeko.

Aplikazio baten ahots komandoa aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Komandoa aldatu** eta sartu komando berria.

## Profilak aldatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Ahots-komd.**.

Gailuak ahots-etiketa bat sortzen du profil bakoitzerako. Profilak ahots-komandoa erabiltzeko aktibatzeko, eduki sakatuta isilarazteko tekla hasiera pantailan eta esan profilaren izena.

Ahots-komandoa aldatzeko, aukeratu **Profilak** > **Aukerak** > **Komandoa aldatu**.

## Ahots komandoen ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Ahots-komd.**.

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hurrengoetatik:

- **Sintetizadorea** — Detektatutako ahots komandoak erreproduzitzen dituen sintetizadorea aktibatzea.
- **Erreprodukz. bolumena** — Hizketaren bolumena doitzea.
- **Ezagutze-sentsibilitatea** — Ahots komandoaren detektatze sentsibilitatea doitzea.
- **Komando-egiaztapena** — Ahots komandoak automatikoki, eskuz edo ahots-egiaztepenaren bidez onartu behar diren hautatzea.
- **Ahots-moldaketak ezab.** — Ahots detekzioa berrezartzea gailuaren oinarrizko erabiltzailea aldatzerakoan.

# Push to talk (sakatu hizketarako)

Baliteke ezaugarri batzuk zure eskualdean eskuragarri ez izatea. Eskuragarritasuna tokiko operadorearekin egiaztatu.

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **SH**.

## Sakatu hizketarako-ri buruz

Push to talk (PTT) (sareko zerbitzua) denbora errealeko IP sare bidezko ahots zerbitzu bat da, sare zelularra erabiltzen duena. PTT ahots komunikazio zuzena hornitzen du, tekla bakar bat sakatuz. Erabili PTT pertsona batekin edo talde batekin hitz egiteko.

PTT erabiltzeko, aurretik PTT ezarpenak zehaztu behar dituzu (sargunea, PTT, SIP, XDM eta Presentzia). Baliteke PTT zerbitzua eskaintzen duen zerbitzu hornitzaileak ezarpenak testu mezu berezi batean bidaltzea. Bestela, erabili Ezarpenen morroia aplikazioa PTT konfiguratzeko, zerbitzu hornitzaileak onartzen badu. PTT aplikazioari buruz informazio gehiago jasotzeko, ikus gailuaren erabiltzailearen gida edo Nokia tokiko webgunea.

SH komunikazioan, pertsona batek hitz egiten du besteek bozgorailu txertatuarean bidez entzuten duten bitartean.

**Abisua:** Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

Hiztunek txandaka hitz egiten dute batak besteari erantzuteko. Taldeko pertsonek banaka bakarrik hitz egin dezakete, horregatik hizketa txandaren gehienezko iraupena mugaturik dago. Gehienezko iraupena 30 segundutakoa izan ohi da. Zure sarearentzako hizketa txandei buruzko xehetasunak ikusteko, zure zerbitzu hornitzailearekin harremanetan jar zaitez.

Telefono deiak sakatu hizketarako jardueren gaineko lehentasuna dute.

# SH saioa hasi eta SH-tik irten

Sakatu hizketarako (SH) zerbitzua abiatzen duzunean, automatikoki aplikazioa azkenengoz itxi zenuenean aktibo zeuden kanaletan saioa hasi eta konektatzen da. Konexioa huts egiten badu, berriz hasten saiatzeko, **Aukerak** > **SH saioa hasi** aukeratu.

SH-tik irteteko, **Aukerak** > **Irten** aukeratu.

Irekita dagoen beste aplikazio batera joateko, menu tekla sakatu eta mantendu.

# SH dei bat egin eta jaso

**Abisua:** Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

SH dei bat egiteko, dei tekla sakatu eta mantendu hitz egiten duzun bitartean. Erantzuna entzuteko, dei tekla askatu.

Zure kontaktuen saio-hasierako egoera ikusteko, SH-n, **Aukerak** > **SH kontaktuak** > **Kontaktuak** aukeratu eta hurrengokoetatik:

- — eskuragarri dauden pertsonak
- — pertsona ezezaguna
- — pertsona ez molestatu, baina atzeradei eskaera jaso dezake.
- — pertsonak SH itzalita dauka

Zerbitzua zure sare hornitzailean oinarriturik dago eta eskuragarri dago harpideturik dauden kontatuentzat bakarrik. Kontaktu bat harpidetzeko, **Aukerak** > **Erakutsi saio-has. egoera** aukeratu.

## Banakako dei bat egin

Aukeratu **Aukerak** > **SH kontaktuak** > **Kontaktuak**. Deitu nahi duzun kontaktua eta **Aukerak** > **Bakarka hitz egin** aukeratu. Hitz egiten ari zaren bitartean SH tekla sakatuta eduki. Bukatzen duzunean, tekla askatu.

Kontaktu batekin hitz egiteko, SH tekla sakatu eta mantendu SH aplikazioaren beste ikuspegietan, adibidez, Kontaktuen ikuspegian.

Telefono dei berri bat egiteko, lehenengo banakako deia bukatu. Aukeratu **Deskonek.**.

**Aholkua:** Gailua zure aurrean izan behar duzu SH dei baten bitartean pantaila ikusi ahal izateko. Mikrofonorantz hitz egin, eta eskuekin bozgorailua ez ezazu estali.

## Talde dei bat egin

Talde bati dei egiteko, **Aukerak** > **SH kontaktuak** > **Kontaktuak** aukeratu, dei nahi dituzun kontaktuak

markatu, eta **Aukerak** > **Hainbatekin hitz egin** aukeratu.

### SH dei bat erantzun

Banakako dei bat erantzuteko, dei tekla sakatu. Deia amaitzeko, bukatzeko tekla sakatu.

**Aholkua:** Kontaktuetatik ere banakako edo talde dei bat egin dezakezu. **Aukerak** > **SH** > **Bakarka hitz egin** edo **Hainbatekin hitz egin** aukeratu.

## Atzeradeiaren eskariak

Atzeradei eskaera bidaltzeko:

Kontaktu zerrendan, nahi duzun izenera joan eta aukeratu **Aukerak** > **Atzeradei eskaera bidali**.

Norbaitek atzeradei eskaera bat bidaltzen dizunean, **1 atzeradei esk. berri** agertuko da hasiera pantailan.

Atzeradei eskaerari erantzuteko:

Aukeratu **Erakutsi**, kontaktu bat eta **Aukerak** > **Bakarka hitz egin**banakako dei bat hasteko.

## SH taldeak

### Kanalak

SH kanal bat gonbidatuak izan eta gero kanal batetan sartu diren pertsona talde batetan (adibidez, lagunak edo lan talde bat) oinarritzen da. Kanal batetara deitzen duzunean, kanaleko kide guztiek deia aldi berean entzungo dute.

Aldez aurretik konfiguratutako kanaletan sartu zaitezke. Kanal publikoak URL-a dakien edozein pertsonarentzako irekirik daude.

Kanal batetan zaudenean eta hitz egiten duzunean, kanaleko kide guztiek entzungo zaituzte. Gehienez bost talde aktibo egon daitezke aldi berean.

**Aukerak** > **SH kontaktuak** > **Sare-taldeak/ kanalak** aukeratu.

Aldez aurretik konfiguraturiko sare talde edo kanal publiko batera lehenengo aldiz konektatzeko, lehenago taldea edo kanala sortu behar duzu. **Aukerak** > **Dagoena gehitu** aukeratu, eta beharrezko informazioa sartu. Taldearentzako estaketa sortu eta gero, taldean sartzen saiatu zaitezke.

### Sareko taldeak

Sare-taldeak zerbitzarian gordetzen diren aurretik konfiguratutako kide zerrendetan oinarritzen da. Kideak zehaztu ditzakezu kide zerrendara gehitzen badituzu. Sare-talde batekin hitz egin nahi duzunean, taldea aukeratu dezakezu eta deitu. Zerbitzariak taldeko kide guztiei dei egiten du, eta deia prest dago lehenengo kidea erantzuten duenean.

Dei bat egiteko, aukeratu **Aukerak** > **SH kontaktuak** > **Sare-taldeak/ kanalak**, SH taldeen etiketa ireki, talde bat aukeratu, eta SH sakatu.

### Kanal talde bat sortu

Sare talde edo kanal konfiguratu berri bat sortzeko, **Aukerak** > **Berria sortu**, **SH sare-taldea**, edo **SH kanala** aukeratu.

Zure kanal publikoak sortu, zure kanalaren izena aukeratu, eta kideak gonbidatu ditzakezu. Kide hauek kide gahiago gonbidatu ditzakete kanal publikora.

Kanal pribatuak ere sortu ditzakezu. Bakarrik hostalariak gonbidaturiko kideek kanal pribatuetan sartu eta erabili ditzakete.

Kanal bakoitzerako, **Sare-taldearen izena**, **Ezizena**, eta **Koadro txikia** (aukerakoa) zehaztu.

Kanal bat ongi sortu eta gero, kanal gonbidapenak bidali nahi duzun galdetuko zaituzte. Kanal gonbidapenak testu mezuak dira.

## Kanal edo talde batekin hitz egin

SH zerbitzura sartu eta gero kanal batekin hitz egiteko, SH tekla sakatu. Sarbidea eman dutela adierazteko soinu bat entzungo duzu. Jarraitu SH tekla sakatzen eta mantentzen hitz egiten duzun bitartean. Hitz egiten bukatzen duzunean, tekla askatu.

Kanal bati erantzuten saiatzen bazara SH tekla sakatuz beste kide bat hitz egiten duen bitartean, **Itxaron** agertuko da. SH tekla askatu, beste pertsona hitz egiten bukatu arte itxaron eta SH tekla berriz sakatu. Bestela, SH tekla luze sakatu eta **Hitz egin** agertu arte itxaron.

Kanal batean hitz egiten hari zarenean, norbait hitz egiten bukatzen duenean SH tekla sakatzen duen lehenengo pertsona hitz egiten hurrengoa izango da.

Kanal batean dei aktibo batean zehar kanalean aktibo dauden kideak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Kide aktiboak**.

SH deia bukatzen duzunean, aukeratu **Deskonek.**.

Dei aktibo batera kide berriak gonbidatzeko, kanala aukeratu kanalera konektaturik zauden bitartean. **Aukerak** > **Gonbidapena bidali** Aukeratu gonbidapen ikuspegia irekitzeko. Kide berriak gonbida ditzakezu kanal pribatu baten ostalaria baldin bazada, edo kanala publikoa denean bakarrik. Kanal gonbidapenak testu-mezuak dira.

Zure kanalaren publizitatea egin dezakezu, modu honetan besteek zure taldea ezagutu dezakete eta taldean sartu daitezke. **Aukerak** > **Gonbidapena bidali** aukeratu, eta beharrezko informazioa sartu.

## Kanal gonbidapen bati erantzun

Jasotako kanal gonbidapen bat gordetzeko, **Aukerak** > **Kanala gorde** aukeratu. Kanala sure SH kontaktuetara gehituko da, kanalen ikuspegia.

Kanal gonbidapena gorde eta gero, kanalera konektatu nahi zaitezen galdetuko zaituzte. **Bai** Aukeratu SH saio ikuspegia irekitzeko. Zure gailua zerbitzura konektatzen da, konektaturik ez baldin bazaude.

Gonbidapena ukatu edo ezabatzen baldin baduzu, gonbidapena zure mezu sarrera ontzian gordeko da. Geroago kanalean sartzeko, gonbidapen mezua ireki, eta gonbidapena gorde. **Bai** aukeratu kanalera konektatzeko elkarrizketatik.

# SH erregistroa ikusi

**Aukerak** > **SH erregistroa**, eta **Galdutako SH deiak**, **Jasotako SH deiak**, edo **Egindako SH deiak** aukeratu.

Banakako dei bat SH erregistrotik egiteko, kontaktu bat aukeratu, eta SH tekla sakatu.

## SH ezarpenak

Push to talk (PTT) erabiltzailearen ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erabiltzailearen ezarp.** eta hurrengoetatik:

- **Sarrerako deiak** — Baimendu edo blokeatu PTT deiak.
- **Sarrerako atzeradei esk.** — Jaso edo blokeatu sartzen diren deiak bueltatzeko eskaerak.
- **Onart. zerrendako deiak** — Ezarri gailua sartzen diren PTT deien berri eman dezan, edo erantzun deiak automatikoki.
- **Atzeradei-eskaer. Tonua** — Atzeradei eskaerentzako dei-tonu bat aukeratu.
- **Aplikazioaren hasiera** — Gailua piztean SH saioa hasi nahi duzun aukeratu.
- **Lehenetsitako ezizena** — Beste erabiltzaileek ikusiko duten lehenetsitako ezizena sartu. Izan liteke ezarpen hau ezin editatzea.
- **Nire SH helbidea erak.** — Zure SH helbidea deiko beste pertsonei noiz erakutsi aukeratu. Baliteke aukera batzuk aukeratu ezin izatea.

# Erregistroa

Aukeratu **Menua** > **Erregistroa**.

Erregistro aplikazioak telefonoaren komunikazioei buruzko informazioa gordetzen du. Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, sareak funtzio hauek onartzen baditu eta telefonoa piztua badago eta sareko estaldura eremuan badago.

## Deien eta datuen erregistroak

Aukeratu **Menua** > **Erregistroa**.

Duela gutxi galdutako, jasotako eta egindako deiak ikusteko, aukeratu **Azken deiak**.

**Aholkua:** Hasiera pantailan zaudenean markatutako zenbakiak ikusteko, sakatu deitzeko tekla.

Jasotako eta egindako deien iraupena ikusteko, aukeratu **Deien iraupena**.

Datu-pakete konexioetan transferitutako datu kopurua ikusteko, aukeratu **Pakete-datuak**.

## Komunikazio guztiak kontrolatu

Aukeratu **Menua** > **Erregistroa**.

Telefonoak erregistratu dituen ahots-dei, testu-mezu edo datu konexio guztiak kontrolatzeko, ireki erregistro orokorraren fitxa.

Komunikazio gertaera baten informazio xehea ikusteko, aukeratu gertaera mota.

**Aholkua:** Azpigertaerak, testu-mezuak zatituta bidaltzea edo datu-pakete konexio bat irekitzea, esaterako, komunikazio gertaera gisa

erregistratzen dira. Postontzia, multimedia mezuen zentroa edo web orriak datu-pakete konexio gisa agertzen dira.

Komunikazio gertaera baten telefono zenbakia Kontaktuetan gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kontaktuetan gorde** eta sortu kontaktu berri bat edo gehitu telefono zenbakia dagoeneko dagoen kontaktu batean.

Zenbakia kopiatzeko, adibidez mezu batean kopiatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zenbakia erabili** > **Kopiatu**.

Komunikazio mota bakarra edo alde bat baino gehiago duten komunikazioak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Iragazi** eta nahi duzun iragazkia.

Erregistroko edukia, azken deien erregistroa eta bidalketa txostenak ezabatzeko, **Aukerak** > **Erregistroa ezabatu** aukeratu.

## Erregistrotik deitu eta mezuak bidali

Aukeratu **Menua** > **Erregistroa**.

Dei egile bati deia itzultzeko, aukeratu **Azken deiak** > **Galdutako deiak**, **Jasotako deiak** edo **Markatutako zk.**. Aukeratu dei egilea eta **Aukerak** > **Deitu**.

Dei egile bati mezu batekin erantzuteko, aukeratu **Azken deiak** > **Galdutako deiak**, **Jasotako deiak** edo **Markatutako zk.**. Aukeratu dei egilea eta **Aukerak** > **Mezua sortu** eta bidali mezu bat.

## Logaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Erregistroa**.

Komunikazio guztiak erregistroan mantentzeko denbora zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Erregistroaren iraupena** eta denbora. **Ez erregistratu** aukeratzen baduzu, eduki guztia betiko ezabatuko da.

# Internet

Zure Nokia E52 erabiliz, Interneten eta zure enpresako intranetean nabigatu dezakezu, eta aplikazio berriak deskargatu eta gailuan instalatu ere bai. Gailua modem gisa erabil dezakezu ere bai, ordenagailua interneten konektatzeko.

## Nabigatzailea

### Arakatzaileari buruz

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Webgunea**.

Arakatzailea aplikazioa erabiliz, Interneteko HTML web orriak jatorrizko egiturarekin ikusi ahal izango dituzu. Halaber, bereziki gailu mugikorrentzat diseinatuta dauden webguneak ikus ditzakezu, HTML erabili, edo WML ere bai.

Interneten nabigatzeko, gailuak internet sarbide puntu bat konfiguratuta izan behar du.

### Sarea arakatu

Aukeratu **Menua** > **Internet** > **Webgunea**.

**Lasterbidea:** Arakatzailea irekitzeko, eduki sakatuta **0** hasierako pantailan.

Sarea arakatzeko, laster marken ikuspegian, aukeratu laster marka bat edo hasi web helbidea idazten ( eremua automatikoki irekitzen da) eta aukeratu **Hona joan**.

Baliteke web orri batzuk ikusteko memoria kopuru handia behar duten materiala edukitzea, adibidez grafikoak eta soinuak. Horrelako orri bat kargatzen ari den bitartean zure telefonoa memoriarik gabe geratzen bada, orrialdeko grafikoak ez dira ikusiko.

Grafikoak desgaitutako web orriak arakatzeko, memoria aurrezteko eta orrialdea kargatzeko abiadura handitzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orria** > **Edukia kargatu** > **Testua soilik**.

Web helbide bat idazteko, sakatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Web-orri berria**.

Webgunearen edukia eguneratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Birkargatu**.

Uneko webgunea laster marka gisaa gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Laster-marka gisa gorde**.

Uneko arakatze-saioan ikusi dituzun orrien argazkiak ikusteko, aukeratu **Atzera** (eskuragarri dago **Historia-zerrenda** arakatzaile ezarpenetan aktibatuta badago eta uneko web orria ez bada bisitatzen duzun lehenengoa).

Leiho askoren irekitze automatikoa baimendu edo galarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Web-orriaren aukerak** > **Blokeatu popup-ak** edo **Pop up-ak baimendu**.

Lasterbide teklen mapa ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Tekl. lasterb.**. Lasterbide teklak editatzeko, hautatu **Editatu**.

**Aholkua:** Aplikaziotik edo konexiotik irten gabe arakatzailea minimizatzeko, sakatu amaiera-tekla behin.

# Nabigatzailearen tresna barra

Nabigatzailearen trena barrak nabigatzailean gehien erabilitako funtzioak hautatzen lagunduko dizu.

Tresna barra irekitzeko, sakatu eta eutsi sakatuta korritze tekla webgune baten kokapen huts batean.

Tresna barran zehar mugitzeko, joan ezkerretara edo eskuinetara.

Funtzio bat hautatzeko, sakatu korritze tekla.

Tresna barraren ikono baten funtzioaren deskribapena ikusteko, joan tresna barraren ikonora.

# Orrietan nabigatu

Minimapa eta Orrialdearen ikuspegiak informazio kopuru handia duten web orrialdeetan nabigatzen laguntzen dute.

Minimapa aktibatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Orokorra** > **Mapa txikia** > **Aktibatu**. Web orria handi batean zehar zoazenean, Minimapa irekitzen da eta orrialdearen ikuspegi orokorra erakusten du.

Minimapan mugitzeko, mugitu ezkerretara, eskuinetara, gora edo behera. Nahi duzun kokapena aurkitzen duzunean, utzi mugitzeari. Minimapa desagertu egiten da eta aukeratutako kokapenean uzten zaitu.

Informazio kopuru handi bat duen web orri bat arakatzen duzunean, Orria ikuspegi orokorra erabili dezakezu web orrialdeak daukan informazio mota ikusteko.

Sakatu **8** uneko web orriaren ikuspegi orokorra ikusteko. Web orriko nahi den lekua aurkitzeko, mugitu gora, behera, ezkerretara edo eskuinetara. Sakatu **8** zooma berriz hurbildu eta web orriaren zati zehatz bat ikusteko.

# Web jarioak eta blogak

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Webgunea**.

Web jarioak web orrietan dauden eta partekatzeko erabiltzen diren XML fitxategiak dira, adibidez, azken berriak edo blogen izenburuak. Normala da web jarioak weban, blogetan eta wiki orrietan aurkitzea.

Arakatzaile aplikazioak automatikoki antzematen du web orri batek web jarioak dituen.

Web jarioak eskuragarri badaude, web jario batera harpidetzeko, hautatu **Aukerak** > **Sareko jarioetara harp.**.

Web jario bat eguneratzeko, web jario ikuspegian, hautatu jario bat eta **Aukerak** > **Web-jarioaren aukerak** > **Eguneratu**.

Web jarioak automatikoki eguneratzen diren zehazteko, web jario ikuspegian, hautatu **Aukerak** >

**Editatu** > **Editatu**. Aukera hau ez dago eskuragarri jario bat edo gehiago markatuta badaude.

# Widgetak

Zure telefonoa widgetekin bateragarria da. Widgetak deskarga daitezkeen web aplikazio txikiak dira eta multimedia fitxategiak, albiste jarioak, eguraldi iragarpenak etab. telefonora bidaltzen dituzte. Instalatutako widgetak bereizita ageri dira Aplikazioak karpetan.

Deskargatu! aplikazioa erabil dezakezu widgetak saretik deskargatzeko.

Widgetak bateragarriak diren memoria txartel batean ere instala daitezke (eskuragarri badago).

Widgeten sargune lehenetsia arakatzailearen berdina da. Hondoan irekita daudenean, widget batzuek telefonoko datuak automatikoki egunera ditzakete.

Widgetak erabiltzerakoan, datu kopuru handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datu transmisioen kostuei buruzko informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

# Eduki bilaketa

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Webgunea**.

Uneko web orrian testuak, telefono zenbakiak edo helbide elektronikoak bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu gako-hitza** eta nahi duzun aukera.

Joan hurrengo emaitzara, jaitsi.

Joan aurreko emaitzara, igo.

**Aholkua:** Testua momentuko webgunean bilatzeko, sakatu **2**.

# Laster markak

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Webgunea**.

Hautatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Laster markak**. Web helbideak zerrenda batetik edo laster-marken bilduma batetik aukera ditzakezu Berriki bisitatur. orriak karpetan.

Web helbide bat sartzen hasten bazara, eremua automatikoki irekitzen da.

ikurrak sarbiderako zehaztutako hasierako pantaila lehenetsia adierazten du.

Web orri berri batera joateko, hautatu **Aukerak** > **Joan hona:** > **Web-orri berria**.

Laster-markak bidaltzeko edo laster-marka bat hasierako orri gisa ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Laster-mark. aukerak**.

Laster-markak editatu, mugitu edo ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Las.-mark. kudeatzail.**.

# Cachea ezabatu

Atzitutako informazioa edo zerbitzuak telefonoaren cache memorian gordetzen dira.

Cachea datuak denbora batez gordetzeko erabiltzen den memoriaren kokaleku bat da. Pasahitzak erabiliz ezkutuko informaziorik sartu edo sartzen saiatuz gero, hustu beti gordailua erabili ondoren.

Cachea husteko, aukeratu **Aukerak** > **Garbitu datu pribatuak** > **Cachea**.

# Konexioa amaitu

Konexioa bukatzeko eta arakatzailea ixteko, hautatu **Aukerak** > **Irten**.

Sareko zerbitzariak gorde ohi duen web orrietako zure bisiten informazioa ezabatzeko, hautatu **Aukerak** > **Pribat. datuak ezabatu** > **Cookieak**.

# Konexio seguruak

Segurtasun adierazlea ( ) konexioa dagoen bitartean bistaratzen bada, telefonoa eta Interneteko atebide edo zerbitzariaren arteko datu transmisioa kodifikatuta egongo da.

Ziurtasun ikonoak ez du adierazten pasagunea eta edukien zerbitzariaren (edo eskatutako baliabidea gordetzen den tokiaren) arteko datu igorpena segurua denik. Zerbitzu-hornitzaileak pasagunea eta edukien zerbitzariaren arteko datu igorpena ziurtatzen du.

Segurtasun ziurtagiriak zerbitzu batzuentzat beharrezkoak izan daitezke, adibidez bankuen zerbitzuak. Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan segurtasun ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu. Informazio gehiago jasotzeko, jo zure zerbitzu hornitzailearengana.

**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagirien administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiriek bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

# Web ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Internet** > **Webgunea** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetako bat:

## Ezarpen orokorrak

- **Sarbidea** — Lehenetsitako sarbide puntua hautatzea. Baliteke zure gailuko sarbide guztiak zure zerbitzu-hornitzaileak aurrez zehaztu izana. Baliteke ezin aldatzea, sortzea, editatzea edo ezabatzea.
- **Hasierako orria** — Hasiera orria zehaztea.
- **Mapa txikia** — Mapa txikia aktibatzea edo desaktibatzea. Webgunean nabigatzen laguntzen dizu mapa txikiak.
- **Historia-zerrenda** — Arakatzen ari zarenean, **Aktibatu** hautatzen baduzu, uneko saioan

bisitatutako webguneen zerrenda ikusteko, hautatu **Atzera**.

- **Segurtasun-abisuak** — Segurtasun jakinarazpenak ezkutatu edo erakutsi.
- **Java/ECMA skripta** — Scripten erabilera gaitu edo ezgaitu.
- **Java/ECMA script erroreak** — Hautatu script jakinarazpenak jaso nahi dituzun ala ez.
- **Deskargatu artean ireki** — Hautatu deskargatzen ari den bitartean fitxategia irekitzeko gai izan nahi duzun ala ez.

### Orrialdearen ezarpenak

- **Edukia kargatu** — Hautatu irudiak eta bestelako objektuak kargatu nahi dituzun arakatzen ari zaren bitartean. Arakatzen ari zaren bitartean, **Testua soilik** hautatu baduzu, irudiak geroago kargatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bistaratu aukerak** > **Kargatu irudiak**.
- **Lehenetsitako kodeketa** — Testu-karaktereak behar bezala agertzen ez badira, zure uneko orrialdearen hizkuntzarentzako kodeketa hauta dezakezu.
- **Blokeatu popup-ak** — Arakatzean pop-up desberdinen irekitze automatikoa baimendu edo blokeatu.
- **Birkargatze automatikoa** — Hautatu arakatzen ari zaren bitartean webguneak automatikoki freskatzea nahi duzun ala ez.
- **Letra-tamaina** — Web orrialdeetan erabiliko den letraren tamaina zehaztu.

### Pribatutasun ezarpenak

- **Berriki bisitatur. orriak** — Laster-marken biltze automatikoa gaitu edo ezgaitu. **Berriki bisitatur. orriak** karpetan bisitatutako web orrialdeen helbideak gordetzen jarraitu nahi baduzu, baina aldi berean karpeta laster-marken ikuspegitik gorde nahi baduzu, **Ezkutatu karpeta** aukeratu.
- **Inprim. dat. gordetzen** — Hautatu, orrialdea hurrengo aldian irekitzen duzunean, webguneko pasahitzak edo webguneko bestelako datuak gorde nahi dituzun ala ez.
- **Cookieak** — Cookieen jasotzea eta bidalketa gaitu edo ezgaitu.

### Web iturrien ezarpenak

- **Aut. eguneratzeko sarbid.** — Hautatu eguneratu nahi duzun sarbide puntua. **Eguneratze automatik.** aktibatuta dagonean, soilik dago eskuragarri aukera hori.
- **Ibiltaritzan eguneratu** — Hautatu ibiltaritzan zaudenean web jarioak automatikoki eguneratzea nahi duzun ala ez.

## Intraneta arakatu

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Intraneta**.

Intranet batera konektatzeko, ireki Intranet aplikazioa eta aukeratu **Aukerak** > **Konektatu**. Konexio ezarpenetan Intranet ezberdinak zehaztu badituzu, aukeratu **Aldatu helburua** arakatu nahi duzun Intraneta aukeratzeko.

Intranet konexioaren ezarpenak zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

# Deskargatu!

Hautatu **Menua** > **Deskargatu!**.

Deskargatu! funtzioari esker (sare zerbitzua), elementuak ikus, deskarga eta instala ditzakezu Internetetik gailura, aplikazio berrienak eta lotutako dokumentuak, esaterako.

Elementuak katalogo eta karpeta ezberdinetan sailkatuta daude, Nokiak edo bestelako zerbitzu hornitzaile independienteek eskeinita. Baliteke elementuek tarifa ezberdinak izatea, baina normalean dohainik aurreikusteko aukera izango duzu.

Deskargatu! sare konexio eskuragarriak erabiltzen ditu eduki berrituenetan sartzeko. Deskargatu! funtzioaren bidez eskuragarri dauden bestelako elementuei buruzko informazioa jasotzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin, edo elementuaren hornitzaile edo ekoizlearekin.

# Elementuak kudeatu

Aukeratu **Menua** > **Deskargatu!**.

Elementu bat irekitzeko edo karpeta edo katalogo baten edukia ikusteko, aukeratu lementua, karpeta edo katalogoa.

Aukeratutako elementua erosteko, aukeratu **Aukerak** > **Erosi**.

Doako elementu bat deskargatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Eskuratu**.

Beste elementu bat bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu**.

Ezarpenak egokitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aplikazioak** > **Ezarpenak**.

Deskargatutako elementuen zerrenda bat ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Nire elementuak**.

# Harpidetzak

Aukeratu **Menua** > **Deskargatu!** eta **Aukerak** > **Nire elementuak** > **Nire harpidetzak**.

Aukeratutako elementuaren fitxategi xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ireki**.

Harpidetza berritzeko edo ezeztatzeko, aukeratu **Aukerak** eta dagokion aukera.

# Deskargatu! bilaketa

Aukeratu **Menua** > **Deskargatu!** eta **Aukerak** > **Bilatu**.

Zoaz elementuak bilatu nahi dituzun katalogoetara, aukeratu **Markatu** eta idatzi bilaketa gako-hitzak.

Bilaketa hasteko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu**.

# Erosketen historia

Aukeratu **Menua** > **Deskargatu!** eta **Nire elementuak** > **Nire deskargak**.

Aukeratutako elementua dagokion aplikazioarekin irekitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ireki**.

Aukeratutako elementuaren fitxategi xehetasunak, aukeratu **Aukerak** > **Ikusi xehetasunak**.

Aukeratutako elementuaren deskarga hasteko, eteteko, berriz hasteko edo uzteko, aukeratu **Aukerak** eta nahi duzuna.

## Deskargatu! zerbitzuaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Deskargatu!**.

Deskargatu! zerbitzuaren ezarpenak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aplikazioak** > **Ezarpenak** eta hauetatik:

- **Sare konexioa** — Aukeratu sare konexiorako erabilitako helmuga sarea.
- **Abiarazte automatikoa** — Aukeratu deskarga osoa egin ondoren elementua edo aplikazioa automatikoki irekitzea nahi duzun ala ez.
- **Aurrebista berrestea** — Aukeratu elementu bat aurreikusi aurretik berrespena eskatzea nahi duzun ala ez.
- **Erosketa berrestea** — Aukeratu elementu bat erosi aurretik berrespena eskatzea nahi duzun ala ez.
- **Harpidetza berrestea** — Aukeratu elementu batera harpidetu aurretik berrespena eskatzea nahi duzun ala ez.

# PCa sarera konektatu

Zure telefonoa PC bat sarera konektatzeko erabil dezakezu.

1. Konektatu datu kablea zure telefonoa eta PCaren USB konektoreetara.
2. Aukeratu **Konek. ord. web-era**. Beharrezkoa den softwarea automatikoki gailutik PCan instalatzen da.
3. Instalazioa onartu PCan. Onartu konexioa ere, galdetzen bazaizu. Web konexioa ezartzen denean, PCaren web arakatzailea irekitzen da.

PCaren administratzailearen eskubideak eta PCan autorun aukera gaituta eduki behar dituzu.

# Bidaiak

Jarraibiderik behar? Jatetxe baten bila ari zara? Zure gailuak dituen tresnek nahi duzun lekura eramango zaituzte.

# Kokapena (GPS)

GPS datuak bezalako aplikazioak erabil ditzakezu zure kokapena zehazteko edo distantziak eta koordenatuak kalkulatzeko. Aplikazio hauek GPS konexioa behar dute.

## GPS zerbitzuari buruz

GPSan adierazitako koordenatuak nazioateko WGS-84 koordenatu-sistemakoak dira. Koordenatu horien eskuragarritasuna herrialdearen arabera alda daiteke.

Posizionamendu Globaleko Sistema (GPS) Amerikako Estatu Batuetako gobernuak zuzendutakoa da, hau izanik sistema honen zehaztasunaren eta mantentze lanen erantzule bakarra. Estatu Batuetako gobernuak GPS sateliteetan egiten dituen doikuntzek eragina izan dezakete kokapenari buruzko datuen zehaztasunean, eta hau Irrati-Nabigazio Plan Federalaren eta Estatu Batuetako Defentsa Zibilaren Sailean GPS politikari buruz sortu daitezkeen aldaketen menpe dago. Sateliteen geometria eskasak ere zehaztasunari eragin diezaioke. Zure kokapenak, eraikinek, oztopo naturalek eta eguraldiaren baldintzek, GPS seinaleen erabilgarritasun eta kalitatean eragina izan dezakete. GPS seinaleak jaso ahal izateko, GPS hargailua kanpoan soilik erabili behar da.

GPSa ez da erabili behar neurketa zehatz bat egiteko, ez eta GPS hargailuak eta irrati zelularren sareek adierazten dituzten datuetan soilik oinarritzea kokatu edo nabigatzeko.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Posizionamendu metodo ezberdinak gai edo desgai daitezke kokapen ezarpenetan.

## Lagunduriko GPSa

Telefonoa Lagunduriko GPSa (A-GPS) zerbitzuarekin bateragarria da.

A-GPS sare zerbitzu bat da.

Assisted GPS (A-GPS) datu pakete konexio baten bidez laguntzarako datuak lortzeko erabiltzen da, zure telefonoak sateliteen seinalea jasotzen duen zure uneko kokapenaren koordenatuak kalkulatuz.

A-GPS zerbitzua aktibatzerakoan, telefonoak satelite-informazio erabilgarria jasotzen du laguntza-datuen zerbitzari batetik sare zelularraren bidez. Laguntza datuei esker telefonoak azkarrago lor dezake GPS kokapena.

Telefonoa Nokia A-GPS zerbitzua erabiltzeko aurrekonfiguratuta dago, hornitzailearen beste

ezarpen bereziak erabilgarri ez daudenean. Laguntza datuak Nokia A-GPS zerbitzaritik lortzen dira, beharrezkoak direnean soilik.

A-GPS zerbitzua desgaitzeko, aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak** eta **Aukerak** > **Posizionamendu-ezarp.** > **Kokatze-erak** > **Lagunduriko GPSa** > **Ezgaitu**.

Interneteko sargune bat zehaztu behar duzu datu-pakete-konexioaren bidez Nokia A-GPS zerbitzutik datu laguntzaileak jasotzeko. A-GPSrako sargunea posizionamendu ezarpenetan zehatz daiteke. Ezin da hari gabeko LAN (WLAN) sargune bat erabili zerbitzu honentzako.Datu-paketeen Interneteko sargune puntu bat bakarrik erabil daiteke. Telefonoak Interneteko sargunea aukeratzeko eskatuko dizu GPSa lehenengo aldiz erabiltzerakoan.

# Telefonoari behar bezala eutsi

GPS hartzailea telefonoaren atzeko aldean dago. Hartzailea erabiltzerakoan, egiaztatu ez duzula antena eskuarekin estaltzen.



GPS konexioa ezartzeak segundo edo minutu batzuk iraun ditzake. GPS konexioa ibilgailu baten barruan ezartzeak denbora gehiago iraun dezake.

GPS hartzailea telefonoko bateriaren energiaz hornitzen da. GPS hartzailea erabiltzean bateria azkarrago agor daiteke.

# GPS konexio bat sortzeko gomendioak

Telefonoak satelite seinalerik aurkitzen ez badu, ondorengoak kontutan izan:

- Leku estali batetan bazaude, zeru irekira joan seinale hobea jasotzeko.
- Kanpoaldean bazaude, leku zabalago batetara mugitu.
- Eskuek GPS antena estaltzen ez dutela egiaztatu.
- Eguraldi baldintzak txarrak badira, seinalearen indarrean eragin dezake.
- Ibilgailu batzuk leiho tindatuak (atermikoak) dituzte eta satelitearen seinalea blokea dezakete.

## Satelitearen seinalearen egoera egiaztatu

Zure gailuak zenbat satelite aurkitu duen jakiteko, eta gailuak satelite seinaleak jasotzen dituen jakiteko, hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak** eta **Aukerak** > **Satelitearen egoera**.




Gailuak sateliteak aurkitu baditu, satelite bakoitzeko barra bat agertuko da satelite informazioaren bistan. Zenbat eta barra luzeagoa izan, are eta indartsuagoa izango da satelite seinalea. Gailuak zure kokapenaren koordenak kalkulatzeko gai izateko datu adina jaso duenean satelite seinaletik, barraren kolorea aldatuko da.

Hasteko, gailuak seinaleak behintzat lau satelite ezberdinetatik jaso beharko ditu zure kokapenaren

koordenatuak kalkulatzeko gai izateko. Behin hasierako kalkulua eginda, baliteke posible izatea zure kokapenaren koordenatuak kalkulatzea hiru satelite soilik erabiliz. Hala ere, doitasuna normalean hobea izango da satelite gehiago aurkitzen denean.

# Posizio eskaerak

Baliteke sare zerbitzu batek zure kokapena eskatzea. Baliteke zerbitzu-hornitzaileek, telefonoaren kokapenean oinarrituta, zure kokapenari buruzko informazioa eskaintzea, eguraldia edo trafikoa, adibidez.

Kokapen eskaera bat jasotzen baduzu, eskaera egin duen zerbitzuaren mezu bat agertuko da. Aukeratu **Onartu** zure kokapen informazioa bidaltzea baimentzeko edo **Uko egin** eskaera ukatzeko.

# Mugarriak

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **Mugarriak**.

Mugarriekin, kokapen zehatzei buruzko informazioa gorde dezakezu telefonoan. Gordetako kokapenak talde desberdinetan sailka daitezke (dendak, esate baterako), eta bestelako informazioa gehitu, adibidez, helbideak. Gordetako mugarriak aplikazio bateragarrietan erabil daitezke, adibidez, GPS datuak.

GPS koordenatuak gradutan eta gradu hamartarretan adierazten dira eta nazioarteko WGS/84 koordenatu sisteman oinarrituta daude.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Mugarri berria** — Sortu mugarri berri bat. Uneko kokapenaren eskaera egiteko, **Oraingo kokapena** aukeratu. Kokapena mapatik aukeratzeko, aukeratu **Mapan aukeratu**. Kokapenari buruzko informazioa eskuz idazteko, **Eskuz sartu** aukeratu.
- **Editatu** — Editatu edo gehitu gordetako mugarri baten informazioa (adibidez, kaleko helbide bat).
- **Kategoriara gehitu** — Gehitu mugarri bat kategoria batean Mugarriak atalean. Aukeratu mugarria gehitu nahi duzun kategoria bakoitza.
- **Bidali** — Bidali mugarri bat edo gehiago gailu bateragarri batera. Jasotako mugarriak sarrera ontzian daude, Mezularitza atalean.

Mugarriak aurrez zehaztutako kategorietan sailka daitezke, baita kategoria berriak sortu ere. Mugarrien kategoria berriak sortzeko eta aldatzeko, ireki kategorien fitxa eta aukeratu **Aukerak** > **Editatu kategoriak**.

# GPS datuak

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak**.

GPS datuen aplikazioa, ibilbide baterako jarraibide zehatzak, uneko kokapenari buruzko informazioa, bidaiako informazioa, helmugarainoko gutxi gorabeherako distantzia eta bidaiaren iraupena eskaintzeko diseinatuta dago.

GPS koordenatuak gradutan eta gradu hamartarrean adierazten dira eta nazioarteko WGS/84 koordenatu sisteman oinarrituta daude.

GPS datuak erabiltzeko, hasieran telefonoko GPS hartzaileak gutxienez 4 sateliteren seinalea jaso behar

du kokapenaren koordenatuak kalkulatzeko. Hasierako kalkulua egin ondoren, baliteke ondorengo koordenatuak hiru sateliteen seinalearekin bakarrik kalkulatu ahal izatea. Halere, zenbat eta satelite gehiago aurkitu, orduan eta hobea izango da zehaztasuna.

## Ibilbideen gida

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak** eta **Nabigazioa**.

Ibilbideen gida zeru irekian abiarazi. Leku estali batean abiarazten baduzu, baliteke GPS hartzaileak sateliteetatik behar duen informazio guztia ez jasotzea.

Ibilbideen gidak iparrorratz biragarri bat erakusten du pantailan. Puntu gorri batek helmugarako norabidea adierazten du, eta gutxi gorabeherako distantzia erakutsiko da iparrorratzaren barnean.

Ibilbide gidaritzak ibilbide zuzenena eta motzena erakusten du, marra zuzen baten bidez neurtuta. Ez dira kontutan izango bideko eraikuntzak edo oztopo naturalak. Altitude ezberdintasunak ez dira kontutan izango distantzia kalkulatzerakoan. Ibilbide gidaritza mugitzen ari zarela soilik dago aktibo.

Ibilbidearen helmuga ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Helmuga ezarri** eta aukeratu mugarri bat helmuga gisa edo idatzi latitude eta longitude koordenatuak.

Bidaiarako jarritako helmuga ezabatzeko, aukeratu **Nabigazioa eten**.

## Posizio informazioa jaso

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak** eta **Kokapena**.

Posizio ikuspegian, zure uneko kokapenaren informazioa ikus dezakezu. Kokapenaren zehaztasunaren estimazio bat erakutsiko da.

Zure uneko kokapena mugarri gisa gorde nahi baduzu, aukeratu **Aukerak** > **Kokapena gorde**. Mugarriak informazio gehiago duten gordetako kokapenak dira, aplikazio bateragarriekin erabil daitezke eta gailu bateragarrietara transferitu.

## Bidaia neurgailua

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **GPS datuak** eta **Bidai. distantzia**.

Bidaietarako odometroak zehaztasun mugatua du, eta akats batzuk izan ditzake. Zehaztasuna, GPS seinaleen erabilgarritasuna eta kalitateari loturik egon daiteke.

Bidai distantziaren kalkulua pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Hasi** edo **Gelditu**. Kalkulatutako balioek pantailan jarraituko dute. Funtzio hau zeru irekian erabili GPS seinale hobea jasotzeko.

Bidaiaren iraupena, distantzia, gehienezko abiadura eta batezbestekoa berrezartzeko eta kalkulu berri bat abiarazteko, aukeratu **Aukerak** > **Berrezarri**. Bidaiaren kilometroak eta denbora guztira zeron ezartzeko, aukeratu **Berrabiarazi**.

# Mapak

## Mapak aplikazioari buruz

Mapak erabiliz, mapan zure uneko kokapena ikus dezakezu, hiri eta herrialde ezberdinetako mapak ikus ditzakezu, tokiak bilatu, kokapen batetikl besterako ibilbideak planifikatu, kokapenak gorde eta gailu bateragarriei bidali. Halaber, trafikoaren informazio eta nabigazio zerbitzuetarako lizentziak eros ditzakezu, zure lurralde edo herrialdean eskuragarri badaude.

Mapak aplikazioa lehenengoz erabiltzerakoan, Interneteko sargunea aukeratu beharko duzu mapak deskargatzeko.

Gailuan jadanik deskargatutako mapetan ez dagoen gune berri batean nabigatuz gero, gune horren mapa bat internetetik deskargatuko da automatikoki. Baliteke hainbat mapa gailuan edo memoria txartel batean eskuragarri izatea. Nokia Map Loader PC softwarea erabil dezakezu ere bai mapak deskargatzeko. Nokia Map Loader ordenagailu bateragarri batean instalatzeko, ikus www.nokia.com/maps.

**Aholkua:** Transferentzia kostuak saihesteko, Mapak aplikazioa Internet konexiorik gabe erabil dezakezu ere, eta telefonoan edo memoria txartelean gordeta dauden mapak araka ditzakezu.

**Oharra:** Mapak deskargatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Ia mapa digital gehienak neurri batean edo bestean zehaztu gabe edo osatu gabe daude. Ez oinarritu telefono honetan ematen diren mapetan soilik.

## Sare posizionamendua

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **Mapak**.

Sare mugikorra erabil dezakezu momentuko kokapena aurkitzeko, leku itxietan ere. GPS baino azkarragoa baino ez horren zehatza da, eta ezin duzu kokapena nabigazio abiapuntu erabili.

Sare mugikorra posizionamendurako erabiltzeko, aukeratu telefonoko ezarpenetan sarean oinarritutako posizionamendu metodoa. Mapak aplikazioa abiaratzen duzunean eta GPS konexioa prest dagoenean, GPSak sare mugikorra posizionamendu metodo bezala ordezkatzen du.

## Mapan zehar mugitu

GPS konexioa aktibatuta dagoenean, irudiak zure uneko kokapena adierazten du mapan.

Zure uneko kokapena edo azken kokapen ezaguna ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Nire kokap.**.

Mapan zehar mugitzeko, jo gora, behera, ezkerrera edo eskuinera gurpilarekin. Mapa iparraldera orientatuta egongo da besterik adierazi ezean.

Datu konexio aktibo bat daukazunean eta pantailako mapan nabigatzean, automatikoki mapa berri bat

deskargatuko da jadanik deskargatutako mapek ez duten gune batera joaten bazara. Mapak automatikoki gailuaren memorian gordetzen dira edo memoria txartel bateragarri batean, sartuta badago.

Mapatik zooma hurbildu edo urruntzeko, sakatu ***** eta **#**.

Mapa mota aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Mapa modua**.

## Pantailako adierazleak

GPS adierazleak  satelitearen seinalearen eskuragarritasuna adierazten du. Barra bat satelite bat da. Telefonoa satelite seinaleak bilatzen ari denean, barra horia da. Telefonoak GPSak zure kokapena kalkulatzeko beharrezkoa den informazioa jasotzen duenean, barra berde jartzen da. Hainbat eta barra gehiago, geroz eta fidagarriagoa da kokapen kalkulua.

Hasieran, telefonoak gutxienez lau sateliteren seinalea jaso behar du kokapena kalkulatu ahal izateko. Lehengo kalkuluaren ondoren, hiru sateliteren seinaleak nahiko izan daitezke.

Datu-transferentziaren adierazleak 

erabiltzen ari den Internet konexioa eta aplikazioa abiarazi zenetik transferitu den datu kopurua adierazten du.

## Kokapenak bilatu

Kokapenak bilatzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Arakatu**. Idazten hasi kokapenaren izena bilaketa eremuan. Gailuak bat datozen inguruneko kokapenak proposatuko ditu. Hautatu kokapena zerrendan edo idatzi kokapenaren izena bilaketa eremuan, eta hautatu **Bilatu**.

1. Helbide jakin bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea**.
2. Idazten hasi beharrezko informazioa. Izartxo (*) bat duten eremuak bete behar dituzu.
3. Hautatu helbidea proposatutako aukeren zerrendan.
4. Hautatu **Aukerak** > **Bilatu**.

Kontaktu zerrendan gordetako helbide bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea** > **Aukerak** > **Hautatu kontaktuetatik**.

Kokapenak koordenatuen arabera bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Bilatu helbidea** > **Aukerak** > **Bilatu koordenatuekin**. Kordenatu formatua hautatzeko, joan gora edo behera.

Kategoria jakinetako kokapenak bilatzeko, jatetxeak edo dendak esaterako, sakatu korritze tekla eta hautatu **Arakatu**. Hautatu kategoria bat eta idatzi bilaketa terminoak bilaketa eremuan.

## Ibilbide bat antolatu

Ibilbide bat planifikatzeko, joan irteerako puntura mapan, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gehitu ibilbidera**. Ibilbideari helmuga eta kokapen gehiago gehitzeko, hautatu **Gehitu puntu berria**.

Ibilbideko kokapenen ordena aldatzeko, joan kokapen batera, sakatu korritze tekla eta hautatu **Mugitu**. Joan

kokapena jarri nahi duzun toki berrira eta hautatu **Hautatu**.

Ibilbidea editatzeko, sakatu gurpila eta aukeratu **Editatu ibilbidea**.

Ibilbidea mapan erakusteko, aukeratu **Aukerak** > **Erakutsi**.

Helmugara automobilez edo oinez nabigatzeko, zerbitzu hauek erabiltzeko lizentzia bat erosi baduzu, hautatu **Aukerak** > **Hasi gidatzen** edo **Hasi oinez**.

Ibilbidea gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gorde ibilbidea**.

## Kokapenak gorde eta bidali

Kokapen bat gailuan gordetzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gorde**.

Gordetako kokapenak ikusteko, oinarrizko bistan, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak**.

Kokapen bat zure telefonoan gordetzeko, sakatu gurpila eta aukeratu **Bidali**. Kokapena testu mezu bidez bidaltzen bada, informazioa testu arrunt bihurtzen da.

## Gordetako elementuak ikusi

Gailuan gorde dituzun kokapenak eta ibilbideak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak**.

Gordetako kokapenak orden alfabetikoan edo distantziaren arabera sailkatzeko, hautatu **Tokiak** > **Aukerak** > **Sailkatu**.

Gordetako kokapenak Ovi Mapak web zerbitzuarekin sinkronizatzeko, hautatu **Sinkronizatu Ovi-rekin**. Sinkronizatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Mapan kokapena ikusteko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Erakutsi mapan**.

Kokapena ibilbide bati gehitzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gehitu ibilbidera**.

Zure gogoko lekuen bilduma bat sortzeko, hala nola jatetxeak edo museoak, aukeratu **Aukerak** > **Bilduma berria**.

## Zure kokapen faboritoak Ovi Mapak erabiliz sinkronizatzea

Ovi webguneak Nokiak eskeinitako internet zerbitzuak ditu. Ovi Mapak atalak Mapak aplikazioari lotutako zerbitzuak dauzka.

Ovi kontu bat sortzeko, ikus www.ovi.com.

Gailuan Ovi kontua erabiliz gorde dituzun kokapenak, bildumak eta ibilbideak sinkronizatzeko, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak** > **Sinkronizatu Ovi-rekin**.

Gailua ezartzeko Ovi kontuarekin gordetako kokapenak, bildumak eta ibilbideak automatikoki sinkroniza ditzan Mapak aplikazioa irekitzerakoan eta isterakoan, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** >

**Ezarpenak** > **Sinkronizazioa** > **Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Irikitzer. eta ister.**.

Sinkronizatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

# Bilaketa historia

Jadanik bilatu dituzun kokapenak ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Historia**.

Mapan hautatutako kokapena ikusteko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Erakutsi mapan**.

Kokapena gailu bateragarri bati bidaltzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Bidali**.

Kokapena ibilbide bati gehitzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gehitu ibilbidera**.

# Zure helmugaraino oinez joatea

Oinezko ibilbideak oinezko guneak eta parkeak ditu, espaloiei eta bide txikiei lehentasuna ematen die eta ez du autobiderik aipatzen.

Oinezko ibilbideek gehienez 50 kilometro (31 milia) dituzte eta gehienezko abiadura 30 kilometro ordukoa (18 mph) da. Abiadura muga gaindituz gero, nabigazioa geldituko da eta abiadura tarte onartuan berriz sartzean berrabiaraziko da.

Oinezko nabigazioak ez du ahozko gidarik, baina gailuak gidatuko zaitu tonu edo bibrazio bat erabiliz biratu edo bestelako maniobra bat burutu baino lehen 20 metrotara (22 yarda), gutxi gora-behera. Gidatze metodoa gailuan une horretan aktibo dagoen profilaren ezarpenen araberakoa da.

Oinezko nabigazio lizentzia bar erosteko, hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Aukerak** > **Denda gehiago** > **Eskualde guztiak** > **City Explorer**. Lizentzia kreditu txartel bat erabiliz edo telefono fakturaren bidez ordain dezakezu, zure zerbitzu hornitzaileak onartzen badu.

Lizentzia erostean, gailuan eguraldi zerbitzua eta bilaketa hobetua zerbitzua jasoko dituzu ere bai, zure herrialde edo lurraldean eskuragarri badaude. Bilaketa hobetua zerbitzua erabiliz, bilaketak burutzerakoan tokiko gertaerak eta bidaiari lotutako informazioa jasoko duzu.

Nabigatzen hasteko, joan kokapen batera, sakatu korritze tekla eta hautatu **Joan oinez**.

Helmuga autobiderik ez duen eremu batean badago, ibilbidea lerro gisa agertuko da oinezko norabidea adierazteko. Gailua ezartzeko beti lerro zuzeneko nabigazioa erabil dezan, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Ibilbidea** > **Ibilbide hobetsia** > **Marra zuzena**.

Ibilbidearen bista orokor bat ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ibilbidearen ikuspegia**.

Nabigatzen amaitzeko, hautatu **Gelditu**.

# Zure helmugaraino gidatzea

Oinezko eta automobilezko nabigazio lizentzia bar erosteko, hautatu **Aukerak** > **Denda eta**

**lizentziak** > **Denda** > **Gidarien gida %s**. Lizentzia lurraldeen araberakoa da eta hautatutako eremuan erabil daiteke soilik.

Lizentzia erostean, gailuan bide-laguntza eta abiadura mugari buruzko abisu zerbitzuak jasoko dituzu ere bai, zure herrialde edo lurraldean eskuragarri badaude.

Automobilez nabigatzen hasteko, joan kokapen batera, sakatu korritze tekla eta hautatu **Gidatu**. Automobilezko nabigazioa lehen aldiz erabiltzean, ahozko gidaren hizkuntza hautatzeko eta lotutako ahozko gidaren fitxategiak deskargatzeko eskatuko zaizu.

Ahozko gidaren fitxategiak deskargatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Nabigazioan zehar bista ezberdinen artean aldatzeko, sakatu korritze tekla eta hautatu **2D Ikuspegia**, **3D Ikuspegia**, **Gezi ikuspegia**, edo **Ibilbidearen ikuspegia**.

Beste ibilbide bat bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Beste bat**.

Ahozko gida errepikatzeko, hautatu **Aukerak** > **Errepikatu**.

Ahozko gidaren bolumena doitzeko, hautatu **Aukerak** > **Bolumena**.

Bidaiaren distantzia eta iraupenari buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Aginte-panel**.

Nabigatzen amaitzeko, hautatu **Gelditu**.

# Trafikoa eta segurtasuna

Denbora errealeko trafikoaren informazio zerbitzuak zure bidaiaren gainean eragina izan dezaketen trafiko gertaerei buruzko informazioa eskeintzen du. Trafiko informazio zerbitzua erosi eta gailuan deskargatu dezakezu, zure herrialdean edo lurraldean eskuragarri badago.

Trafiko informazio zerbitzua deskargatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Trafikoa, gidetako informazioa eta hauei erlazionatutako zerbitzuak Nokia konpainiarekiko independiente diren gainontzekoek eskaintzen dituzte. Baliteke informazio guztiz osatua eta zehazta ez izatea eta eskuragarritasunaren araberakoa da. Ez sekula informazio honetaz eta erlazionatutako zerbizuez soilik fida.

Trafikoaren informazio zerbitzuaren lizentzia bar erosteko, hautatu **Aukerak** > **Denda eta lizentziak** > **Denda** > **Trafikoa eta segurtasuna %s**.

Lizentzia erostean, abiadura kamerei buruzko zerbitzua jasoko duzu ere bai, zure herrialdean edo lurraldean eskuragarri badago.

Abiadura kameren kokapena ibilbidean ikus daiteke nabigatzerakoan, funtzio hau gaituta badago. Hainbat eskumenek abiadura kameren kokapenari buruzko informazio debekatu edo arautzen dute. Nokiak ez du erantzunkizunik abiadura kameren kokapenari

buruzko informazioaren doitasunarengan edo erabileraren ondorioengan.

Trafiko gertaerei buruzko informazioa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Traf. inform.**. Gertaerak triangelu edo lerro gisa agertzen dira mapan.

Gertaera baten xehetasunak ikusteko, beste ibilbide posibleak barne, hautatu **Aukerak** > **Ireki**.

Trafikoaren informazioa eguneratzeko, hautatu **Eguneratu trafikoa**.

Gailua ezartzeko ibilbide berri bat automatikoki planifika dezan trafiko gertaerak saihesteko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Nabigazioa** > **Berrantol. trafikoagatik**.

## Mapak iparrorratzarekin erabiltzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **Mapak**.

Gailuaren iparrorratza gaituta dagoenean, iparrorratzaren inguruko zirkulua berdea da eta maparen bista automatikoki biratzen da gailuaren goiko aldea begira dagoen norabidearen arabera.

Iparrorratza gaitzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Piztu iparrorratza**. Iparrorratza erabileran ez dagoenean, bere inguruko zirkulua zuria da eta maparen bista ez da automatikoki biratzen.

## Iparrorratza kalibratzea

Gailuak barneko iparrorratz bat dauka. Iparrorratza gaituta dagoenean, iparrorratzaren inguruko zirkulua berdea da eta maparen bista automatikoki biratzen da gailuaren goiko aldea begira dagoen norabidearen arabera.

Iparrorratzaren doitasuna mugatua da. Eremu elektromagnetikoek, metalezko objektu handiek eta bestelako kanpoko egoerek iparrorratzaren doitasunaren gainean eragina izan dezakete ere bai. Iparrorratza beti era egokian kalibratuta egon behar da. Iparrorratza kalibratzeko, egin hurrengoa:

1. Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **Mapak**.
2. Iparrorratza piztuta dago besterik adierazi ezean. Iparrorratza itzaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Itzali iparrorratza**. Iparrorratza itzalita dagoenean, bere inguruko zirkulua zuria da eta maparen bista ez da automatikoki biratzen. Iparrorratza uneko saiorako soilik itzali daiteke. Mapak hurrengoan berriz irekitzean, iparrorratza automatikoki piztuko da.

3. 

Biratu gailua ardatz guztien inguruan eta etengabean kalibrazioaren adierazlea berde bilakatu arte . Adierazlea horia bada, iparrorratzaren doitasuna baxua da. Adierazlea gorria bada, iparrorratza ez dago kalibratuta.

# Mapak aplikazio ezarpenak

Mapak aplikazioaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** eta hauetariko bat:

- **Internet** — Internet ezarpenak definitzea.
- **Nabigazioa** — Nabigazio ezarpenak definitzea.
- **Ibilbidea** — Bideraketa ezarpenak definitzea.
- **Mapa** — Mapa ezarpenak definitzea.
- **Sinkronizazioa** — Definitu ezarpenak Ovi web zerbitzuan gordetako elementuak sinkronizatzeko.

# Internet ezarpenak

Internet ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Internet** eta hauetariko bat:

- **Konektatu abiaraztean** — Ezarri gailua internet konexio bat irekitzeko Mapak aplikazioa irekitzerakoan.
- **Lehenetsitako sarbidea** edo **Sareko helbidea** — Hautatu interneti konektatzerakoan erabili beharreko sarbide puntua.
- **Roaming oharra** — Ezarri gailua etxeko sarea ez den beste sare batean erregistratzen denean abisatzeko.

# Nabigazio ezarpenak

Nabigazio ezarpenak definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Nabigazioa** eta hauetariko bat:

- **Ahots bidezko gidaritza** — Hautatu ahozko gidaren hizkuntza automobilezko nabigaziorako. Baliteke ahozko fitxategiak deskargatu nahi izatea hizkuntza hautatu baino lehen. Ahozko gidaren fitxategiak deskargatzean datu kantitate handiak igor daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.
- **Atzeko argia** — Atzeko argiaren ezarpena definitzea.
- **Zoom automatikoa** — Zoom automatikoa erabiltzea.

- **Eguneratu zirkulazioaren informazioa** — Trafikoaren gertaerei buruzko informazioa eguneratzea.
- **Berrantol. trafikoagatik** — Ibilbide berri bat planifikatzea trafikoaren gertaerak ekiditzeko.
- **Ordu adierazlea** — Pantailan bidaiaren iraupena edo helmugara iristeko ustezko ordua ikustea.
- **Abiadura mugaren abisua** — Gailua abiadura muga gainditzerakoan abisatzeko ezarri, abiadura mugaren informazioa eskuragarri badago ibilbidean.
- **Segur. guneen abisua** — Gailua abiadura kamera bati gerturatzerakoan abisatzeko ezarri, informazio hori eskuragarri badago ibilbidean.

Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

# Ibilbide ezarpenak

Ibilbide ezarpenak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Ibilbidea**.

Garraiobide mota hautatzeko, hautatu **Garraiobidea** > **Oinez** edo **Autoz**. **Oinez** hautatuz gero, bide bakarreko kaleak kale arruntak izango dira eta espaloiak erabil daitezke.

Ibilbide azkarrena erabiltzeko, hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Ibilbide azkarrena**. Aurkera hau eskuragarri dago soilik **Autoz** garraiobide gisa hautatu baduzu.

Ibilbide motzena erabiltzeko, hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Ibilbide laburrena**.

Ibilbide motzenaren eta azkarrenaren abantailak konbinatzen dituzten ibilbideak planifikatzeko, hautatu **Hautatu ibilbidea** > **Optimizatua**.

Halaber, autobideak, tunelak, ferryak eta ordainketa-autopistak erabiltzea edo saihestea hauta dezakezu.

# Mapa ezarpenak

Mapa ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Mapa** eta hauetariko bat:

- **Kategoriak** — Hautatu mapan ikusi nahi duzun puntu interesgarrien mota.
- **Koloreak** — Hobetu kolore eskema eguneko edo gaueko erabilerarako.
- **Erabilera memoria** — Hautatu mapa fitxategiak godetzeko kokaleku bat gailuan.
- **Geh. mem. erabilera** — Hautatu mapak biltegiratzeko erabili behar den memoria tamaina. Memoria mugara heltzean, mapa zaharrenak ezabatuko dira.
- **Neurketa sistema** — Hautatu sistema metriko edo inperiala.

# Sinkronizazio ezarpenak

Sinkronizazio ezarpenak definitzeko, hautatu **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Sinkronizazioa**.

Gailua ezartzeko Ovi kontuarekin gordetako elementuak automatikoki sinkroniza ditzan Mapak aplikazioa irekitzerakoan eta isterakoan, hautatu **Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Irikitzer. eta ister.**.

Ovi zerbitzuarekin gordetako elementuak eskuz sinkronizatzeko, hautatu **Sinkronizatu Ovi-rekin** > **Eskuz**. Elementuak sinkronizatzeko, oinarrizko bistan, hautatu **Aukerak** > **Gogokoak** > **Sinkronizatu Ovi-rekin**.

Zure Ovi kontuaren xehetasunak definitzeko, hautatu **Saioa hasteko info.**.

Ovi konturik ez baduzu, sortu bat hemen: www.ovi.com.

# Mapak eguneratu

Gailu bateragarrian mapak eta ahozko gidaren fitxategiak eguneratzeko, deskargatu Nokia Maps Updater ordenagailuan hemen: www.nokia.com/maps. Konektatu gailu ordenagailuari, ireki Nokia Maps Updater eta egin hurrengoa:

1. Hautatu zure hizkuntza zerrendan.
2. Ordenagailuari gailu bat baino gehiago konektatuz gero, hautatu gailua zerrendan.
3. Nokia Maps Updater eguneratzeak aurkitzen dituenean, deskargatu haiek gailuan.
4. Baimendu deskarga gailuan gailuaren pantailan eskatzen zaizunean.

# Nokia Bulego Tresnak

Nokia Bulego Tresnak enpresa mugikorra eta onartzen du eta komunikazio efektiboa posible egiten du lan taldeetan.

## Ohar aktiboak

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.**.

Ohar aktiboekin ohar mota ezberdinak sor, edita eta ikus ditzakezu, adibidez, bileren zirkularrak, zaletasunen oharrak edo erosketa zerrendak. Irudiak, bideoak eta soinuak txerta ditzakezu oharretan. Oharrak beste aplikazioetara lotu ditzakezu, hala nola Kontaktuak, eta besteei aharrak bidal diezazkiekezu.

## Oharrak sortu eta editatu

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.**.

Ohar bat sortzeko, hasi idazten.

Ohar bat editatzeko, aukeratu oharra eta **Aukerak** > **Editatze aukerak**.

Testuan letra lodia edo etzana erabiltzeko, edo testua azpimarratzeko edo letraren kolorea aldatzeko, eduki sakatuta # eta mugitu testua aukeratzeko. Ondoren, aukeratu **Aukerak** > **Testua**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Txertatu objektua** — Txertatu irudiak, soinu edo bideoklipak, bisita-txartelak, Interneteko laster-markak eta fitxategiak.
- **Txertatu berria** — Gehitu oharrean elementu berriak. Soinu eta bideoklipak grabatu eta argazkiak atera ditzakezu.
- **Bidali** — Bidali oharra.
- **Lotu oharra deiari** — Aukeratu **Gehitu kontaktuak** ohar bat kontaktu bati lotzeko. Dei bat egiterakoan edo kontaktuaren dei bat jasotzerakoan agertuko da oharra.

## Ohar aktiboen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Ohar aktib.** eta **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Oharrak non gorde nahi dituzun aukeratzeko, aukeratu **Erabilitako memoria** eta nahi duzun memoria.

Ohar aktiboen diseinua aldatzeko edo oharrak zerrenda gisa ikusteko, aukeratu **Aldatu ikuspegia** > **Sareta** edo **Zerrenda**.

Ohar bat atzealdean ikusteko deiak egiterakoan edo jasotzerakoan, aukeratu **Erak. oharra deian zehar** > **Bai**.

**Aholkua:** aldi baterako deietan zehar oharrak ikusi nahi ez badituzu, aukeratu **Erak. oharra deian zehar** > **Ez**. Modu honetan, ez dituzu

oharren eta kontaktu-txartelen arteko estekak ezabatu behar.

# Kalkulagailua

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Kalkulag.**.

Kalkulagailuaren doitasuna mugatua da, eta kalkulu errazak egiteko soilik balio du.

Eragiketa bat egiteko, eragiketaren lehenengo zenbakia idatzi. Funtzioen mapan egin nahi duzun eragiketa aukeratu, adibidez batuketa edo kenketa. Eragiketaren bigarren zenbakia aukeratu eta = sakatu. Kalkulagailuak eragiketak idazteko erabilitako ordena jarraitzen du. Eragiketaren emaitza edizio eremuan geldituko da eta hurrengo eragiketaren lehenengo zenbaki bezala erabil daiteke.

Telefonoak azken eragiketaren emaitza memorian gordetzen du. Kalkulagailutik ateratzeak edo gailua itzaltzeak ez du memoria ezabatzen. Kalkulagailua berriro irekitzen duzunean gordetako azken emaitza berreskuratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Azken emaitza**.

Eragiketa baten zenbakiak edo emaitzak gordetzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Gorde**.

Memorian gordetako emaitzak berreskuratzeko eta ondorengo eragiketan erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memoria** > **Berreskuratu**.

# Fitxategi kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

## Fitxategi kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Fitxategi kudeatzailearekin, fitxategiak araka, kudea eta ireki ditzakezu.

Aukerak aldatu egin daitezke.

Driverrak ezabatu edo agertarazteko, edo telefonora konektatuta dagoen kanpoko memoria bateragarriaren ezarpenak zehaztu edo unitateak antolatu edo ezabatzeko **Aukerak** > **Urruneko unitateak** aukeratu.

## Fitxategiak aurkitu eta antolatu

Hautatu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Fitxategi bat bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aurkitu**. Idatzi fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa-hitza.

Fitxategiak eta karpetak mugitzeko eta kopiatzeko edo karpeta berriak sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Antolatu**.

**Lasterbidea:** Ekintzak aldi berean hainbat elementurekin burutzeko, markatu elementuak.

Elementuak markatzeko eta desmarkatzeko, sakatu #.

## Memoria-txartelak kudeatu

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Aukera hauek gailuan memoria-txartel bateragarria sartu bada bakarrik daude eskuragarri.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Mem. txartel. aukerak** — Memoria-txartel bati izena aldatu edo formateatu.
- **Memor.-txart. pasahitza** — Memoria-txartela pasahitz batekin babestu.
- **Desblok. mem.-txartela** — Memoria-txartel bat desblokeatu.

## Memoria-txartel batean fitxategien babeskopiak egin

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Fitxategien babeskopiak memoria-txartel batean egiteko, aukeratu kopiatu nahi dituzun fitxategi motak eta **Aukerak** > **Tel. mem. segur. kopia**. Babeskopiak sortzeko aukeratu dituzun fitxategientzako zure txartel memorian memoria libre nahiko dagoela ziurtatu.

# Quickoffice

## Quickoffice buruz

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **#Quickoffice**.

Quickoffice Quickword-en datza Microsoft Word dokumentuak ikusteko, Quicksheet Microsoft Excel lan-orriak ikusteko, Quickpoint Microsoft PowerPoint aurkezpenetarako eta Quickmanager softwarea erosteko. Microsoft Office 2000, XP eta 2003 dokumentuak (DOC, XLS eta PPT fitxategi formatuak) Quickoffice-ekin ikus ditzakezu. Quickoffice-ren editore bertsioa baldin badaukazu, fitxategiak editatu ditzakezu.

Ez ditu edozein ezaugarri edo formatutako karpetak onartzen.

## Fitxategiekin lan egin

Fitxategi bat irekitzeko, bertaraino joan eta mugitzeko tekla sakatu.

Fitxategiak motaren arabera sailkatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sailkatze-irizpidea**.

Fitxategi baten xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Xehetasunak**. Xehetasunen barne, izena, tamaina eta fitxategiaren kokapena, eta azkenengoz aldatu zen data eta ordua daude.

Fitxategiak bateragarria den gailu batera bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bidali** eta bidalketa metodoa.

# Bihurgailua

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

Bihurgailuak zehaztasun mugatua du, eta biribiltze-erroreak izan ditzake.

## Neurriak bihurtu

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

1. Zoaz mota-eremura eta aukeratu **Aukerak** > **Bihurketa mota** neurrien zerrenda irekitzeko. Aukeratu erabili nahi duzun neurri-mota (moneta ez beste) eta **Ados**.
2. Zoaz lehenengo unitate-eremura eta aukeratu **Aukerak** > **Unitatea aukeratu**. Aukeratu bihurtu nahi duzun unitatea eta **Ados**. Zoaz hurrengo unitatearen eremura eta aukeratu zer unitate bihurtu nahi duzun.
3. Zoaz lehenengo kantitate eremura eta idatzi bihurtu nahi duzun balioa. Beste kopuru eremua automatikoki aldatuko da bihurtutako balioa adierazteko.

## Ezarri moneta eta truke-tasa

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Bihurgailua**.

Oinarrizko txanpona aldatuz gero, trukearen tasa berriak sartu behar dira, aurreko trukearen balio guztiak hutsean geratzen baitira.

Moneta bihurketak egin aurretik, oinarrizko moneta bat eta truke-tasak aukeratu behar dituzu. Jatorrizko monetaren balioa beti 1 izango da. Jatorrizko monetak zehaztuko du beste moneten kanbio-tasa.

1. Kanbio-tasa moneta unitaterako ezartzeko, zoaz mota eremura eta aukeratu **Aukerak** > **Trukeak**.
2. Zoaz moneta motara eta idatzi moneta honetarako unitateko nahi duzun kanbio-tasa.
3. Jatorrizko moneta aldatzeko, zoaz monetara eta aukeratu **Aukerak** > **Oinar. moneta gisa jarri**.
4. Aukeratu **Eginda** > **Bai** aldaketak gordetzeko.

Beharrezkoak diren kanbio-tasa guztiak ezarri eta gero, moneta bihurketa egin dezakezu.

# Zip kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Zip**.

Zip kudeatzailearekin, fitxategi berriak sor ditzakezu konprimitutako ZIP formatuko fitxategiak gordetzeko; fitxategi batera konprimitutako fitxategi edo direktorio bat baino gehiago gehitu; babestutako fitxategien pasahitza ezarri, ezabatu edo alda dezakezu; eta ezarpenak aldatu, adibidez konpresioaren xehetasunak eta fitxategien izenen kodeketa.

Fitxategi fitxategiak telefonoaren memorian edo memoria-txartel batean gorde ditzakezu.

# PDF reader

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Adobe PDF**.

PDF reader aplikazioarekin, PDF dokumentuak telefonoaren pantailan irakurri, dokumentuetan testua bilatu, ezarpenak aldatu (zooma, orrien ikuspegia, etab.) eta PDF fitxategiak mezu elektroniko bidez bidal ditzakezu.

# Inprimatu

Zure telefonotik dokumentuak inprima ditzakezu, hala nola fitxategiak, mezuak, irudiak edo web orriak. Baliteke dokumentu mota guztiak inprimatu ezin izatea.

# Fitxategiak inprimatu

## Fitxategiak inprimatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Inprimagailuak**.

Dokumentuak, esaterako, fitxategiak, mezuak edo web orriak, gailutik inprimatu, inprimaketa bat aurreikusi, orriaren aukerak zehaztu, inprimagailua aukeratu edo fitxategi batean inprimatu dezakezu. Baliteke dokumentu mota guztiak inprimatu ezin izatea.

Inprimatu aurretik, ziurtatu beharrezko konfigurazio guztiak ezarri direla telefonoa inprimagailuarekin konektatzearren.

Inprimatze aukerak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Inprimatze aukerak**. Adibidez, inprimagailu bat aukera edo paperaren tamaina eta orientazioa alda dezakezu.

Aukeratu **Aukerak** > **Inprimatze aukerak** eta honako hauetatik:

- **Inprimatu** — Inprimatu dokumentuak. Fitxategi batean inprimatzeko, aukeratu **Inprimatu fitxategian** eta zehaztu fitxategiaren kokapena.
- **Orri konfigurazioa** — Aldatu orriaren diseinua inprimatu aurretik. Paperaren tamaina eta orientazioa aldatu, marjinak zehaztu eta goiburua edo orri oina txertatu dezakezu. Goiburuak eta orri oinak 128 hizki izan ditzake gehienez.
- **Aurrebista** — Aurreikusi dokumentuak inprimatu aurretik.

## Inprimaketa aukerak

Dokumentu bat ireki, esaterako, fitxategi edo mezu bat, eta aukeratu **Aukerak** > **Inprimatze aukerak** > **Inprimatu**.

Zehaztu ondorengo aukerak:

- **Inprimagailua** — Zerrendatik eskuragarri dagoen inprimagailu bat aukeratu.
- **Inprimatu** — Aukeratu **Orri guztiak**, **Orri bikoitiak** edo **Orri bakoitiak** inprimaketa tarte bezala.
- **Inprimatze area** — Aukeratu **Orriak jarraian**, **Uneko orria** edo **Zehaztutako orriak** orri tarte bezala.
- **Kopia kopurua** — Inprimatu behar diren kopia kopurua aukeratu.
- **Inprimatu fitxategian** — Aukeratu fitxategia batean inprimatzeko eta fitxategiaren kokapena zehaztu.

Aukerak aldatu egin daitezke.

## Inprimagailuaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Inprimagailuak**.

Inprimagailu berri bat gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu**.

Zehaztu ondorengo guztia:

- **Inprimagailua** — Inprimagailuarentzako izen bat idatzi.
- **Kontrolatzailea** — Inprimagailuarentzako driver bat aukeratu.
- **Eramailea** — Inprimagailuarentzako eramaile bat aukeratu.
- **Sargunea** — Sarbidea aukeratu.
- **Ataka** — Portua aukeratu.
- **Ostalaria** — Ostalaria zehaztu.
- **Erabiltzailea** — Erabiltzailea sartu.
- **Ilara** — Inprimaketa ilara sartu.
- **Orientazioa** — Orientazioa aukeratu.
- **Paperaren tamaina** — Paper tamaina aukeratu.
- **Euskarri mota** — Multimedia mota aukeratu.
- **Kolore modua** — Kolore modua aukeratu.
- **Inprimagailu modeloa** — Inprimagailu modeloa aukeratu.

Aukerak aldatu egin daitezke.

# Irudiak inprimatzea

Telefonotik irudiak inprima ditzakezu inprimagailu bateragarri bat eta PictBridge erabiliz. JPEG formatuan dauden argazkiak soilik inprima ditzakezu.

Argazkiak ataleko, kamerako edo irudi ikustaileko irudiak inprimatzeko, markatu irudiak eta aukeratu **Aukerak** > **Inprimatu**.

## Inprimagailura konektatu

Konektatu zure telefonoa datu kable bateragarria duen inprimagailu bateragarri batera eta aukeratu **Irudi-transferentzia** USB konexio modu gisa.

Kablea konektatzen duzun bakoitzean telefonoak konexioaren helburua galde dezan ezartzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** eta **Konektibitat.** > **USB** > **Konektatzean gald.** > **Bai**.

## Inprimatze aurrebista

Inprimagailua aukeratu ondoren, aukeratutako argazkiak pantailan azalduko dira diseinu lehenetsiekin.

Argazkia ez bada orri bakar batetan sartzen, gora edo behera mugitu gainerako orriak ikusteko.

## Irudien inprimaketa ikuspegia

Inprimatu nahi dituzun irudiak eta inprimagailua aukeratu ondoren, zehaztu inprimagailuaren ezarpenak.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Diseinua** — Aukeratu irudien diseinua.
- **Paper tamaina** — Paper tamaina aukeratu.
- **Inprimaketa kalitatea** — Aukeratu irudiaren kalitatea.

# Erlojua

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **Erlojua**.

Erloju aplikazioan, zure tokiko ordua edo ordu eremuaren informazioa ikusi, alarmak ezarri edo editatu edota data zein ordu ezarpenak alda daitezke.

## Erlojuaren alarma

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **Erlojua**.

Alarma aktiboak eta ez aktiboak ikusteko, ireki alarmaen fitxa. Alarma berri bat ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Alarma berria**. Errepikapena zehaztu, nahi izanez gero. Alarma bat aktibatuta dagoenean, azaltzen da.

Alarma isilarazteko, **Gelditu** aukeratu. Alarma aldi batetarako gelditzeko, **Errepikatu** aukeratu. Alarmak jotzerakoan telefonoa itzalita badago, bere kasa piztuko da eta alarmaren tonua joko du.

**Aholkua:** errepikatu moduan ezarritako alarmaren errepikapen maiztasuna zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Alarma errepika. tartea**.

Alarma bertan behera uzteko, aukeratu **Aukerak** > **Alarma kendu**.

Ordua, data eta erloju motaren ezarpenak aldatzeko **Aukerak** > **Ezarpenak** aukeratu.

Zure mugikorraren ezarpenetan ordua, data eta ordu-zona automatikoki eguneratzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu**.

## Munduko erlojuak

Aukeratu **Menua** > **Aplikazioak** > **Erlojua**.

Kokapen ezberdinetako ordua ikusteko, ireki munduko orduen fitxa. Zerrendara kokapenak gehitzeko, **Aukerak** > **Kokapena gehitu** aukeratu. Gehienez 15 kokapen gehi ditzakezu zerrendara.

Zure oraingo kokapena zehazteko, kokapen batetara mugitu eta **Aukerak** > **Uneko kokap. gisa ezarri** aukeratu. Kokapena erlojuaren pantaila nagusian azalduko da, eta telefonoko ordua aukeratutako kokapenaren arabera aldatuko da. Ziurtatu ordua zuzen dagoela eta zure ordu-zonakoarekin bat datorrela.

## Erlojuaren ezarpenak

Aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Ordua edo data aldatzeko, aukeratu **Ordua** edo **Data**.

Hasiera pantailan agertzen den erlojua aldatzeko, aukeratu **Erloju mota** > **Analogikoa** edo **Digitala**.

Telefono mugikorraren sareak ordua, data eta ordu-zona eguneratzeko (sare zerbitzua), aukeratu **Ordu-eguneratze autom.** > **Aktibatu**.

Alarma tonua aldatzeko, aukeratu **Erlojuaren alarma-tonua**.

# Hiztegia

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Hiztegia**.

Hitzak hizkuntza batetik bestera itzultzeko, idatzi testua bilaketa eremuan. Testua sartzen duzun bitartean, hitz proposamenak agertuko dira. Hitz bat itzultzeko, aukeratu zerrendatik hitz bat.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Entzun** — Entzun aukeratutako hitza.
- **Historia** — Bilatu uneko saioan lehenago itzulitako hitzen bat.
- **Hizkuntzak** — Aldatu jatorrizko hizkuntza edo xede hizkuntza.
- **Hizkuntzak** — Deskargatu hizkuntzak Internetetik edo ezabatu hizkuntzaren bat hiztegitik. Ezin duzu ingelesa hiztegitik ezabatu. Ingelesaz gain beste bi hizkuntza instala ditzakezu.
- **Hizketa** — Editatu ahots funtzioen ezarpenak. Ahotsaren abiadura eta bolumena doi ditzakezu.

# Oharrak

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Oharrak**.

Oharrak sortu eta bateragarriak diren beste gailuetara bidali ditzakezu eta jasotako testu fitxategiak (TXT fitxategi formatua) Oharretan gorde ditzakezu.

Ohar bat sortzeko, testua idatzi. Oharren editorea automatikoki irekiko da.

Ohar bat irekitzeko, sakatu **Ireki**.

Gailu bateragarrietara ohar bat bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bidali**.

Ohar bat sinkronizatu edo sinkronizazio ezarpenak zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Sinkronizazioa**. **Hasi** aukeratu sinkronizazioa hasteko, edo **Ezarpenak** oharraren sinkronizazio ezarpenak zehazteko.

# Pertsonalizazioa

Gailua pertsonaliza dezakezu tonu ezberdinak, hondoko irudiak edota pantaila-babesleak ezarriz, esaterako.

## Profilak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Profilak**.

Tonuak doitu eta pertsonalizatu egin daitezke, deientzako, abisu tonuentzeko, eta gailuaren tonuak gertaera edo dei egile talde desberdinetarako. Profil aktiboa pantailaren goialdean agertzen da hasiera pantailan. Izan ere, profil aktiboa Orokorra bada, gaurko data bakarrik agertuko da.

Profil berri bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Berria sortu** eta ezarpenak zehaztu.

Profila pertsonalizatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu**.

Profila aldatzeko, profil bat aukeratu eta **Aukerak** > **Aktibatu**. Lineaz kanpoko profilak gailua piztea, mezuak jaso edo bidali, edo haririk gabeko LANa, Bluetooth konektibitatea, GPSa edo FM irratia ustekazbez erabiltzea saihesten du; honek profila aukeratzen denean aktibo dauden internet konexioak amaitzen ditu. Lineaz kanpoko profilak ez du geroago haririk gabeko LAN edo Bluetooth konexio bat ezartzea edo GPS edo FM irratia erabiltzea saihesten, horregatik erabili daitezkeen segurtasun neurriak bete hauetako ezaugarriren bat erabiltzerakoan.

Hurrengo 24 orduetako epe bat arte, profil bat aktibo izateko, profilera joan, aukeratu **Aukerak** > **Epea ezarrita** eta ordua zehaztu. Epea igarotakoan profila aurreko epe gabeko profilera itzultzen da. Profilak epe bat duenean, agertuko da hasiera pantailan. Lineaz kanpo profilari ezin zaio eperik ezarri.

Sortu duzun profil bat ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu profila**. Aurretik zehaztutako profilak ezin dira ezabatu.

# Dei-tonuak aukeratu

Profil batentzako dei-tonua ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Dei tonua**. Zerrendatik tonua aukeratu edo aukeratu **Soinuak deskargatu** arakatzailea erabiltzen dituen tonuak deskargatzeko laster-marka zerrenda bat duen lastermarka karpeta bat irekitzeko. Deskargatutako tonu guztiak Galerian gordetzen dira.

Aukeratutako kontaktu talde batentzako bakarrik dei-tonu bat aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Honakoa ohartarazi:**, eta nahi duzun taldea aukeratu. Talde honetan ez dauden kontaktuen deiak jakinarazpen isil bat izango dute.

Mezu tonua aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Mezuen abisu-tonua**.

# Profilak pertsonalizatzea

Hautatu **Aukerak** > **Pertsonalizatu**, eta definitu hurrengoa:

- **Dei tonua** — Hautatu dei-tonu bat zerrendatik, edo hautatu **Soinuak deskargatu** nabigatzailea erabiliz tonuak deskargatzeko liburu-marka zerrenda bat duen karpeta bat irekitzeko. Bi telefono linea ezberdin badituzu erabileran, bakoitzari dei-tonu ezberdin bat esleitu diezaiokezu.
- **Bideo-deiaren tonua** — Hautatu dei-tonu bat bideo deientzat.
- **Dei-egilearen izena esan** — Aukera hau hautatzean eta zure kontaktuetako batek deitzen dizunean, kontaktuaren izenaren eta hautatutako die-tonuaren konbinazioa den tonu bat entzungo da.
- **Dei tonu mota** — Hautatu nola nahi duzun dei-tonua entzutea.
- **Deiaren bolumena** — Hautatu dei-tonuaren bolumena.
- **Mezuen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat testu mezuentzat.
- **E-mailen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat jasotako mezu elektronikoentzat.
- **Bibrazio abisua** — Ezarri bibrazioa dei bat jasotzerakoan.
- **Teklatuaren tonuak** — Doitu gailuaren teklatuaren tonuen bolumena.
- **Abisu tonuak** — Piztu edo itzali abisu tonuak. Ezarpen honek eragina du hainbat joko eta Java aplikazioren tonuen gainean.
- **Honakoa ohartarazi:** — Ezarri gailua tonua emititzeko hautatutako kontaktu talde bateko telefono zenbakien deiak soilik jasotzerakoan. Talde horretan ez dauden zenbakien deiek alerta mutua izango dute.
- **Profilaren izena** — Profil berri bati izena eman diezaiokezu eta jadanik dagoen profil bati izena aldatu diezaiokezu ere bai. Orokorra eta Konexiorik gabe profilei ezin zaie izena aldatu.

# Hasiera pantaila pertsonalizatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Moduak**.

Uneko hasiera pantailako izena aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Modua berrizendatu**.

Hasiera pantailan ikusi nahi dituzun aplikazioak eta jakinarazpenak aukeratzeko, aukeratu **Hasiera pant. aplikazioak**.

Unean erabiltzen den hasiera pantailako gaia aldatzeko, aukeratu **Gai orokorra**.

Unean erabiltzen den atzealdeko irudia aldatzeko, aukeratu **Horma papera**.

Hasiera pantailatik beste batera aldatzeko, zoaz **Uneko modua** aukerara eta aukeratu **Aukerak** > **Aldatu**.

# Pantailaren gaia aldatu 

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak**.

Aplikazioetan erabiltzen den gaia aldatzeko, aukeratu **Orokorra**.

Menu nagusiaren gaia aldatzeko, aukeratu **Menu-ikusp.**.

Aplikazio baten gaia aldatzeko, aplikazioaren karpeta aukeratu.

Momentuko atzealdeko irudia aldatzeko, aukeratu **Horma-papera**.

Pantaila babeslearentzako irudi bat aukeratzeko, aukeratu **Bater. aurrezl.**.

Efektuak pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Orokorra** > **Aukerak** > **Gaiaren efektuak**.

# Gai bat deskargatzea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak**.

Gai bat deskargatzeko, hautatu **Orokorra** > **Deskargatu gaiak** > **Aukerak** > **Joan web helbidera**. Idatzi nahi duzun helbide elektronikoa, bertatik gaia deskargatzeko. Behin gaia deskargatuta, hura aurreikusi edo aktibatu dezakezu.

Gai bat aurreikusteko, hautatu **Aukerak** > **Aurrebista**.

Gai bat aktibatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri**.

# Audio gaiak aldatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Gaiak** eta **Audio-gaiak**.

Telefonoaren gertaera ezberdinetarako soinuak ezar ditzakezu. Soinuak tonuak zein ahotsa izan daitezke, edo bien konbinaketa bat.

Uneko audio-gaia aldatzeko, aukeratu **Aktibatu audio-gaia**.

Gertaera baten soinua ezartzeko, aukeratu gertaera talde bat, hala nola dei-tonuak, eta nahi duzun gertaera.

Gertaera-talde batean aurrez ezarritako soinuak erabiltzeko, hautatu taldea eta **Aukerak** > **Aktibatu soinuak**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Erreproduzitu ahotsa** — Erreproduzitu soinua aktibatu aurretik.
- **Gaia gorde** — Sortu audio-gai berriak.
- **3-D dei-tonuak** — Gehitu 3-D efektuak audio-gaiean.
- **Hizketa** — Aukeratu **Hizketa** hizketa gertaera baten soinu gisa ezartzeko. Idatzi nahi duzun testua testu eremuan. **Hizketa** aukera ez dago eskuragarri **Dei-egilearen izena esan** aukera uneko profilean aktibatu baduzu.
- **Desaktibatu soinuak** — Isilarazi gertaera talde baten soinu guztiak.

# 3-D dei-tonuak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **3-D tonuak**.

Dei-tonuetan hiru dimentsiotako (3-D) soinu efektuak gaitzeko, aukeratu **3-D dei-tonuen efektuak** > **Aktibatu**. Dei-tonu guztiek ez dituzte 3-D efektuak onartzen.

Dei tonuari ezarritako 3–D efektua aldatzeko, aukeratu **Soinuaren ibilbidea** eta nahi duzun efektua.

3–D efektua aldatzeko, aukeratu hurrengoetatik:

- **Ibilbide-abiadura** — Aukeratu soinuak zer abiaduratan mugitu behar duen alde batetik bestera. Ezarpen hau ez dago eskuragarri efektu guztietan.
- **Erreberberazioa** — Aukeratu oihartzun kantitatea egokitzeko nahi duzun efektua.
- **Doppler efektua** — Aukeratu **Aktibatu** dei-tonua ozenkiago entzun dadin ezartzeko gailutik gertu zaudenean eta baxuago entzun dadin urrunago zaudenean. Ezarpen hau ez dago eskuragarri efektu guztietan.

Tonua 3–D efektuarekin entzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Tonua erreproduzitu**.

Dei-tonuaren bolumena doitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Profilak** eta **Aukerak** > **Pertsonalizatu** > **Deiaren bolumena**.

# Multimedia

Gailuak lanean zein aisialdian erabiltzeko hainbat multimedia aplikazio dauka.

# Kamera

## Kamera aktibatzea

Kamera aktibatzeko, hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

**Aholkua:** Bestela, kamera aktibatzeko, sakatu eta eutsi sakatuta argazki tekla Kamera aplikazioa ireki arte.

## Fokatze osoa

Gailuaren kamerak Fokatze osoa aukera dauka. Fokatze osoari esker, lehen planoan eta hondoan objektuak fokatuta dituzten argazkiak atera ditzakezu.

## Argazki bat ateratzea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**, edo sakatu argazki tekla kamera aktibatzeko.

Zure telefonoak 2.048 x 1.536 pixel pixeleko bereizmena duten irudiak onartzen ditu. Gida honetan irudiaren bereizmena modu ezberdinean azal daiteke.

Argazki bat ateratzeko, erabili pantaila bisore gisa eta sakatu kamera tekla. Gailuak argazkia Galerian gordetzen du.

Argazkia atera baino lehen irudia gerturatzeko edo urruntzeko, erabili zoom teklak.

Tresna barraren bidez elementu eta funtzio ezberdinetara daramaten lasterbideak izango dituzu argazki bat atera edo bideo bat grabatu baino lehen eta ondoren. Hautatu tresna barraren elementu bat eta sakatu korritze tekla.

- Aldatu argazki modura.
- Aldatu bideo modura.
- Hautatu eszena.
- Bideo argia piztu edo itzali (bideo modua soilik)
- Hautatu flash modua (argazkiak soilik).
- Aktibatu autodenboragailua (argazkiak soilik).
- Aktibatu sekuentzia modua (argazkiak soilik).
- Hautatu kolore tonu bat.
- Doitu zuri-balantzea.
- Doitu esposizio konpentsazioa (argazkiak soilik).

Aukera eskuragarriak ezberdinak dira zein argazki moduan eta ikuspegian zauden arabera. Ezarpenak balio lehenetsietara bueltatuko dira kamera ixtean.

Kameraren tresna barra pertsonalizatzeko, aldatu argazki modura eta hautatu **Aukerak** > **Pertsonaliz. tresna-barra**.

Argazki bat atera edo bideoa grabatu baino lehen eta ondoren tresna barra ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erakutsi tresna barra**.

Tresna barra behar duzunean soilik ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Ezkutatu tresna barra**.

# Eszenak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Eszenak uneko ingurunerako egokienak diren kolore eta argiztapen ezarpenak aurkitzen lagunduko dizu. Eszena bakoitzaren ezarpenak estilo edo ingurune jakin baten arabera ezarri dira.

Eszena aldatzeko, hautatu **Eszena moduak** tresna barran.

Eszena bat sortzeko, joan Erabiltzaileak definitua atalera eta hautatu **Aukerak** > **Aldatu**.

Beste eszena baten ezarpenak kopiatzeko, hautatu **Eszen. gisa oinarr.** eta nahi duzun eszena.

Zuk sortutako eszena aktibatzeko, hautatu **Erabil. zehaz.** > **Aukeratu**.

# Argazkiak sekuentzian ateratzea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Hainbat argazki sekuentzian ateratzeko, memoria adina eskuragarri badago, hautatu **Sekuentzia modua** tresna barran eta sakatu argazki tekla.

Ateratako argazkiak sareta batean agertuko dira pantailan. Argazki bat ikusteko, joan hartara eta sakatu korritze tekla. Denbora tarte bat erabili baduzu, pantailan azken argazkia baino ez da agertuko, eta beste argazkiak Galerian egongo dira.

Argazkia bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali**.

Dei aktibo batean zehar argazkia deiaren egileari bidaltzeko, hautatu **Aukerak** > **Bidali dei egileari**.

Sekuentzia modua desaktibatzeko, hautatu **Sekuentzia modua** > **Hartze bakarra** tresna barran.

# Ateratako argazki bat ikustea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Ateratako argazkia automatikoki Galerian gordetzen da. Argazkia gorde nahi ez baduzu, hautatu **Ezabatu** tresna barran.

Hautatu tresna barraren hurrengo elementuen artean:

- **Bidali** — Argazkia gailu bateragarriei bidaltzea.
- **Bidali dei egileari** — Dei aktibo batean zehar argazkia deiaren egileari bidaltzea.
- **Kargatu:** — Argazkia lineako bilduma batera bidaltzea (sareko zerbitzua).

Argazkia pantailaren hondoko irudi gisa erabiltzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarri horma-paper gisa**.

Argazkia kontaktu bati gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Esleitu kontaktuari**.

# Grabatu bideoak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

1. Kamera argazki moduan badago, hautatu bideo modua tresna-barran.
2. Grabatzen hasteko, sakatu kamera-tekla.
3. Grabaketa eteteko, hautatu **Eten**. Hautatu **Jarraitu** grabatzen jarraitzeko.
4. Grabaketa eteteko, hautatu **Gelditu**. Bideoa automatikoki gordetzen da Galerian. Bideoaren gehienezko luzera memoria eskuragarriak mugatzen du.

# Bideo klip bat erreproduzitzea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Grabatutako bideo klip bat erreproduzitzeko, hautatu **Erreproduzitu** tresna barran.

Hautatu tresna barraren hurrengo elementuen artean:

- **Bidali** — Bideo klipa beste gailu bateragarriei bidaltzea.
- **Bidali dei egileari** — Dei aktibo batean zehar bideo klipa deiaren egileari bidaltzea.
- **Kargatu:** — Bideo klipa lineako bilduma batera bidaltzea (sareko zerbitzua).
- **Ezabatu** — Bideo klipa ezabatzea.

Bideo klipari izen berri bat emateko, hautatu **Aukerak** > **Berrizendatu bideoa**.

# Argazki ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Argazkien ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetariko bat:

- **Irudiaren kalitatea** — Ezarri argazkien kalitatea. Zenbat eta hobea izan argazkien kalitatea, orduan eta memoria gehiago kontsumituko du argazkiak.
- **Grabatu kokapena** — Ateratako argazkiaren kokapenari buruzko informazioa gehitzeko, eskuragarri badago, hautatu **Jarrita**.
- **Gehitu albumera** — Definitu zein bildumatan gorde nahi dituzun ateratako argazkiak.
- **Erakutsi hartutako irudia** — Argazkia atera ondoren ikusteko, hautatu **Jarrita**. Zuzenean argazki gehiago ateratzeko, hautatu **Kenduta**.
- **Lehenets. irudiaren izena** — Definitu ateratako argazkien izen lehenetsia.
- **Handit. zoom digit.** — **Jarrita (jarraitua)** aukera erabiliz, zoom gehikuntzak arinak eta jarraiak izango dira zoom digitala eta hedatutako zoom digitalaren arteko transizioan. **Kenduta** aukera erabiliz, zoom kantitatea murriztua izango da, baina argazkien bereizmena mantenduko da.
- **Jaso tonua** — Ezarri argazki bat ateratzerakoan entzungo den tonua.
- **Erabiltzen ari den mem.** — Hautatu argazkiak godetzeko kokapena.
- **Berrez. kameraren ezarp.** — Berrezarri kameraren ezarpenak balio lehenetsiak erabiliz.

## Bideo ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Kamera**.

Bideo moduaren ezarpenak aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetariko bat:

- **Bideoaren kalitatea** — Ezarri bideo kliparen kalitatea. Hautatu **Partekatzen**, bideo klipa multimedia mezu baten bidez bidali nahiez gero. Klipa QCIF bereizmena erabiliz grabatuta dago, 3GPP artxibategi formatuan, eta gehieneko tamaina 300 kB-koa da (20 segundu gutxi gora-behera). Baliteke multimedia mezu baten bidez MPEG-4 formatuan gordetako bideo klipak bidali ezin izatea.
- **Grabatu kokapena** — Grabatutako bideo kliparen kokapenari buruzko informazioa gehitzeko, eskuragarri badago, hautatu **Jarrita**.
- **Audio grabaketa** — Hautatu **Isilik** soinua grabatu nahi ez baduzu.
- **Gehitu albumera** — Definitu zein bildumatan gorde nahi dituzun grabatutako bideoak.
- **Erakutsi bideoa** — Ikusi grabatutako bideo kliparen lehenengo fotograma behin grabazioa geldituta. Bideo klip osoa ikusteko, hautatu **Erreproduzitu** tresna-barran.
- **Lehenets. bideo izena** — Ezarri izen lehenetsi bat grabatutako bideo klipentzat.
- **Erabiltzen ari den mem.** — Hautatu bideo klipak godetzeko kokapena.
- **Berrez. kameraren ezarp.** — Berrezarri kameraren ezarpenak balio lehenetsiak erabiliz.

# Galeria

## Galeriari buruz

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria**.

Galeria irudiak, bideo eta soinu klipak, abestiak eta estekak biltegiratzeko lekua da.

## Ikuspegi nagusia

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria**.

Hautatu hauetariko bat:

- **Irudiak** — Ikusi irudiak eta bideo klipak Argazkiak erabiliz.
- **Bideoklipak** — Ikusi bideo klipak Bid. zentr. erabiliz.
- **Abestiak** — Ireki Mus. errep..
- **Soinu klipak** — Entzun soinu klipak.
- **Stream. estek.** — Ikusi eta ireki estekak.
- **Aurkezpenak** — Ikusi aurkezpenak.

Karpetak arakatu eta ireki ditzakezu eta elementuak karpetetara kopiatu eta mugitu. Albumak ere sor ditzakezu, eta elementuak albumetara kopiatu eta gehitu.

Zure memoria-txartel bateragarrian (sartuta badago) gordetako fitxategiak bidez adierazita daude.

Fitxategi bat irekitzeko, hautatu fitxategia zerrendan. Bideo klipak eta estekak Bid. zentr. erabiliz ireki eta erreproduzitzen dira, eta musika eta bideo klipak Mus. errep. erabiliz.

Fitxategiak memoriaren beste kokapen batera kopiatzeko edo mugitzeko, hautatu fitxategi bat, **Aukerak** > **Mugitu eta kopiatu**, eta dagokion aukera.

## Soinu klipak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** eta **Soinu klipak**.

Karpeta honetan Internetetik deskargatutako soinu klip guztiak gordeta daude. Grabagailua aplikazioa erabiliz MMS hobetua edo kalitate arrunteko ezarpenen bidez sortutako soinu klipak karpeta honetan gordetzen dira ere bai, baina kalitate altuko ezarpenen bidez sortutako soinu klipal Musika erreproduzitzailea aplikazioan gordetzen dira.

Soinu fitxategi bat entzuteko, hautatu fitxategia zerrendan.

Atzera edo aurrera egiteko, joan ezkerretara ala eskuinetara.

Soinuak deskargatzeko, hautatu **Soinuak deskar.**.

## Zuzeneko erreprodukziorako estekak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** eta **Stream. estek.**.

Esteka bat irekitzeko, hautatu esteka zerrendan.

Esteka berri bat gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Esteka berria**.

## Aurkezpenak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria**.

Aurkezpenak erabiliz, bektore grafiko eskalagarriak (SVG) eta flash fitxategiak (SWF) ikus ditzakezu, marrazki bizidunak edota mapak, esaterako. SVG irudiek itxura bera dute behin inprimatuta edo beste pantaila tamaina edo bereizmena erabiliz ikusterakoan.

Fitxategiak ikusteko, hautatu **Aurkezpenak**. Joan irudi batera eta hautatu **Aukerak** > **Erreproduzitu**. Grabatzen gelditzeko, hautatu **Aukerak** > **Eten**.

Gerturatzeko, sakatu **5**. Urruntzeko, sakatu **0**.

Irudia 90 gradu biratzeko erlojuko orratzen norantzan edo kontrako norantzan, sakatu **1** ala **3**. Irudia 45 gradu biratzeko, sakatu **7** ala **9**.

Pantaila modu osoa eta normalaren artean aldatzeko, sakatu *****.

# Argazkiak

## Argazkiak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak** eta hurrengoetatik:

- **Hartutakoak** — Ikusi ateratako argazki eta bideo guztiak.
- **Hilabeteak** — Ikusi argazkiak eta bideoak ateratako hilabetearen arabera sailkatuta.
- **Albumak** — Ikusi album lehenetsiak eta zuk sortutakoak.

- **Etiketak** — Ikusi elementu bakoitzarentzat sortu dituzun etiketak.
- **Deskargak** — Ikusi saretik deskargatutako edo multimedia mezuetan eta mezu elektronikoetan jasotako elementuak eta bideoak.
- **Denak** — Ikusi elementu guztiak.
- **Par. on-line** — Igo argazkiak eta bideoak sarera.

Zure memoria-txartel bateragarrian (sartuta badago) gordetako fitxategiak bidez adierazita daude.

Fitxategiak beste toki batera kopiatzeko edo mugitzeko, fitxategia aukeratu eta **Aukerak** > **Mugitu eta kopiatu** sakatu.

## Argazkiak eta bideoak ikusi

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak** eta hurrengoen artean:

- **Denak** — Irudi eta bideo guztiak ikusi.
- **Hartutakoak** — Telefonoko kamerarekin ateratako irudiak eta grabatutako bideoak ikusi.
- **Deskargak** — Ikusi deskargatutako bideo klipak.




Irudiak eta bideo klipak gailu bateragarri batetik jaso ditzakezu ere bai. Argazkiak aplikazioan jasotako irudi bat edo bideo klip bat ikusi ahal izateko, aurretik hura gorde behar da.

Argazki eta bideoak data eta orduaren arabera antolatuta daude, etengabe erreproduzitzeko begizta gisa. Fitxategi kopurua adierazten da. Fitxategiak arakatzeko, gurpilarekin ezkerretara edo eskuinetara mugitu. Fitxategiak taldeka ikusteko, gora edo behera mugitu.

Fitxategi bat irekitzeko, hautatu fitxategia. Irudi bat irekitzean, irudia gerturatzeko, erabili zoom teklak. Zoom erlazioa ez da gordeko behin betirako.

Irudi bat edo bideo klip bat editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Editatu**.

marka duen argazki bat non atera zen ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Erakutsi mapan**.

Argazkiak inprimagailu bateragarri batetan inprimatu nahi badituzu, **Aukerak** > **Inprimatu** aukeratu.

Irudiak bilduma batera mugitzeko gero haiek inprimatzeko, hautatu **Aukerak** > **Gehitu albumera** > **Inprim. gero**.

## Fitxategiaren xehetasunak ikusi eta editatu

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak**. Joan elementu batera.

Argazkiaren edo bideoaren propietateak ikusi eta editatzeko, **Aukerak** > **Xehetasunak** > **Ikusi eta editatu** aukeratu eta hautetatik:

- **Etiketak** — Ikusi une honetan erabilitako etiketak. Uneko fitxategiari etiketa gehiago gehitzeko, hautatu **Geh.**.

- **Deskrib.** — Ikusi fitxategiaren formaturik gabeko deskribapen bat. Deskribapen bat gehitzeko, hautatu eremua.
- **Kokapena** — Ikusi GPS kokapenaren informazioa, eskuragarri badago.
- **Izenburua** — Ikusi fitxategiaren miniatura eta fitxategiaren izena. Fitxategiaren izena editatzeko, hautatu izenaren eremua.
- **Albumak** — Ikusi uneko fitxategia kokatuta dagoen bildumak zeintzuk diren.
- **Bereizmena** — Ikusi irudiaren tamaina pixeletan.
- **Iraupena** — Ikusi bideoaren iraupena.
- **Erab. eskub.** — Uneko fitxategiaren DRM eskubideak ikusteko, hautatu **Ikusi**.

# Argazkiak eta bideoak antolatu

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak**. Fitxategiak honela antola ditzakezu:

Elementuak etiketa-ikuspegian ikusteko, gehitu etiketak elementuetan.

Elementuak hilabetearen arabera ikusteko, **Hilabeteak** aukeratu.

Elementuak gordetzeko album bat sortzeko, **Albumak** > **Aukerak** > **Album berria** aukeratu.

Album batean irudi edo bideoklipak gehitzeko, hautatu elementua eta **Gehitu albumera** tresna-barra aktiboan.

Irudiak edo bideoklipak ezabatzeko, hautatu elementua eta **Ezabatu** tresna-barra aktiboan.

# Tresna barra aktiboa

Tresna barra aktiboa eskuragarri dago bakarrik bista batean irudi bat edo bideo klip bat hautatu duzunean.

Tresna barra aktiboan, joan elementu ezberdinetara eta hautatu nahi duzun aukera. Aukera eskuragarriak ezberdinak dira bistaren arabera eta hautatutako elementuaren izaeraren arabera, hots, irudia ala bideo klipa.

Tresna barra ezkutatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezkutatu ikonoak**. Tresna barra aktiboa aktibatzeko ezkutatuta dagoenean, sakatu korritze tekla.

Hautatu irudi bat edo bideo klip bat eta hurrengo aukeren artean:

Ikusi irudia modu horizontalean edo erretratu moduan.

Erreproduzitu bideo klipa.

Bidali irudia edo bideo klipa.

Kargatu irudia edo bideo klipa bilduma elektroniko bateragarri batean (eskuragarri album elektroniko bateragarri baten kontua konfiguratuta baduzu soilik).

Gehitu elementua bilduma bati.

Kudeatu etiketak eta elementuaren bestelako ezaugarriak.

# Albumak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak** eta **Albumak**.

Bildumak erabiliz, irudiak eta bideo klipak era erosoan kudea ditzakezu.

Bilduma berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Album berria**.

Bilduma bati irudi bat edo bideo klip bat gehitzeko, hautatu elementua eta **Aukerak** > **Gehitu albumera**. Bilduma zerrenda bat agertuko da. Hautatu irudia edo bideo klipa gehitu nahi diozun bilduma. Bildumari gehitutako elementua oraindik ere ikusgai egongo da hemen: Argazkiak.

Bilduma baten irudi bat edo bideo klip bat ezabatzeko, hautatu elementua eta **Aukerak** > **Albumetik kendu**.

# Fitxak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak**.

Erabili etiketak Argazkiak aplikazioaren media elementuak antolatzeko. Etiketak sortu eta ezaba ditzakezu Etiketa kudeatzailea erabiliz. Etiketa kudeatzailean une honetan erabiltzen ari diren etiketak eta etiketa bakoitzari lotutako elementu kopurua agertzen da.

Etiketa kudeatzailea irekitzeko, hautatu irudi bat edo bideo klip bat eta **Aukerak** > **Xehetasunak** > **Etiketa kudeatzailea**.

Etiketa bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Etiketa berria**.

Irudi bati etiketa bat esleitzeko, hautatu irudia eta **Aukerak** > **Gehitu etiketak**.

Sortu dituzun etiketak ikusteko, hautatu **Etiketak**. Etiketaren izenaren tamaina etiketari esleitutako elementu kopuruari dagokia. Etiketa bati lotutako irudi guztiak ikusteko, hautatu etiketa zerrendan.

Zerrenda orden alfabetikoan ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Alfabetikoki**.

Zerrenda erabilitakoenen ordenean ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Gehien erabilitakoak**.

Etiketa bati irudi bat ezabatzeko, hautatu etiketa eta irudia, eta hautatu **Aukerak** > **Ezabatu etiketatik**.

# Aurkezpena

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak**.

Irudiak diapositiba aurkezpen gisa ikusteko, hautatu irudi bat eta **Aukerak** > **Diaporama** > **Errepr. aurrerantz** edo **Errepr. atzerantz**. Diapositiba aurkezpena hautatutako fitxategitik hasiko da.

Hautatutako irudiak soilik diapositiba aurkezpen gisa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu** irudiak markatzeko. Diapositiba aurkezpena has dadin, hautatu **Aukerak** > **Diaporama** > **Errepr. aurrerantz** edo **Errepr. atzerantz**.

Gelditutako diapositiba aurkezpen bat berrabiarazteko, hautatu **Jarraitu**.

Diapositiba aurkezpena amaitzeko, hautatu **Amaitu**.

Argazkiak ikusteko ezkerretara edo eskuinetara mugitu.

Diapositiba aurkezpena hasi baino lehen ezarpenak doitzeko, hautatu **Aukerak** > **Diaporama** > **Ezarpenak** eta hurrengo aukeren artean:

- **Musika** — Gehitu soinua diapositiba aurkezpenari.
- **Abestia** — Hautatu musika fitxategi bat zerrendatik.
- **Diaposit. arteko tartea** — Doitu diapositiba aurkezpenaren erritmoa.
- **Trantsizioa** — Doitu diapositiba aurkezpena irudi batetik bestera leunki pasa dadin, eta gerturatu eta urrundu irudiak ausaz.

Diapositiba aurkezpena ikustean bolumena doitzeko, erabili bolumen tekla.

# Argazkiak editatu

## Argazki editorea

Argazkia atera ondoren editatzeko, edo Argazkiak atalean gordetako argazkiak editatzeko **Aukerak** > **Editatu** aukeratu. Argazki editorea irekiko da.

Ediziorako ikono txikien sareta irekitzeko, **Aukerak** > **Aplikatu efektua** aukeratu. Argazkien argitasuna, kolorea, kontrastea eta bereizmena egokitu ditzakezu; edo argazkian efektuak, Clip artak edo markoak gehitu; baita argazkiak moztu eta biratu ere.

## Argazkiak moztu

Argazki bat mozteko, **Aukerak** > **Aplikatu efektua** > **Moztu** aukeratu eta zerrendako aukera lehenetsi bat hautatu. Argazkia eskuz mozteko, **Eskuz** aukeratu.

**Eskuz** aukeratzen baduzu, gurutze bat azalduko da argazkiaren goiko ezkerreko ertzean. Gurpila erabili moztu nahi duzun eremua aukeratzeko, eta **Ezarri** aukeratu. Beste gurutze bat azalduko da beheko eskuineko ertzean. Moztu nahi duzun eremua aukeratu berriro. Lehendabizi aukeratutako eremua egokitzeko, **Atzera** aukeratu. Aukeratutako eremuek moztuko den irudiaren lauki zuzen bat osatzen dute .

Lehenetsitako eskala bat aukeratzen baduzu, moztuko den eremuaren goiko ezkerreko ertza aukeratu. Markatutako eremuaren tamaina aldatzeko, gurpila erabili. Markatutako eremua finkatzeko, gurpila sakatu. Argazkiaren barnean mugitzeko, gurpila erabili. Moztu nahi duzun eremua aukeratzeko, gurpila sakatu.

## Begi gorriak murriztu

Argazki batean begi gorriak murrizteko, **Aukerak** > **Aplikatu efektua** > **Begi gorr. gutxitz.** aukeratu.

Gurutzea begiaren gainean jarri eta gurpila sakatu. Begizta bat azalduko da pantailan. Begiztaren tamaina begiaren tamainara aldatzeko, gurpila erabili. Gorritasuna murrizteko, gurpila sakatu. Argazkia editatzez amaitutakoan, **Eginda** sakatu.

Aldaketak gorde eta aurreko ikuspegira itzultzeko, **Atzera** sakatu.

## Lasterbide erabilgarriak

Argazkiak editatzerakoan ondorengo lasterbideak erabil ditzakezu:

- Argazkia pantaila osoan ikusteko, ***** sakatu. Ikuspegi normalera itzultzeko, berriro ***** sakatu.
- Argazkia erloju-orratzen norabidean edo kontrakoan biratzeko, **3** edo **1** sakatu.

- Argazkia handitu edo txikitzeko, **5** edo **0** sakatu.
- Handitutako argazki batean zehar mugitzeko, gora, behera, ezkerrera edo eskuinera jo.

# Bideoak editatu

Bideo editoreak .3gp eta .mp4 bideo formatuak eta .aac, .amr, .mp3, eta .wav audio formatuak onartzen ditu. Baliteke fitxategi formatu baten ezaugarri guztiak edo aldaketak ez onartzea.

Argazkiak atalean bideoak editatzeko, bideo batera joan eta ondoren, aukeratu **Aukerak** > **Editatu** eta ondorengoetako bat:

- **Batu** — argazki bat edo bideo bat gehitzeko aukeratutako bideoaren hasiera edo bukaerara
- **Aldatu soinua** — soinu klip berri bat gehitzeko eta jatorrizko soinua bideoklipan ordezkatzeko.
- **Gehitu testua** — testua gehitzeko bideoaren hasiera edo bukaerara
- **Ebaki** — bideoa uzkurtu eta bideoklipan gorde nahi dituzun atalak markatzeko

Bideoklip batetik argazki bat atera nahi baduzu, bideoa mozteko ikuspegian, **Aukerak** > **Argazkia atera** aukeratu. Koadro txikiko ikuspegian, gurpila sakatu eta **Argazkia atera** aukeratu.

# Argazkiak inprimatu

## Argazkiak inprimatu

Argazkiak inprimatu aplikazioarekin argazkiak inprimatzeko, Argazkiak atalean, kameran, argazki editorean, edo argazki ikustailean nahi duzun argazkia eta inprimaketa aukerak hautatu.

Argazkiak inprimatu aplikazioa erabili argazkiak USB kable bateragarri baten edo Bluetooth konektibitatearen bidez inprimatzeko. Hari gabeko LAN sarea ere erabil dezakezu argazkiak inprimatzeko. Memoria txartel bateragarri bat sartzen baduzu, argazkiak memoria txartelean gorde eta, gero, inprimagailu bateragarri batetan inprima ditzakezu.

.jpeg formatuan dauden argazkiak bakarrik inprima ditzakezu. Kamerarekin ateratako irudiak .jpeg formatuan gordetzen dira automatikoki.

### Inprimagailua aukeratu

Irudiak Image print aplikazioarekin inprimatzeko, aukeratu irudia eta inprimatzeko aukera.

Argazkiak inprimatu aplikazioa lehenengo aldiz erabiltzerakoan, eskuragarri dauden inprimagailu bateragarrien zerrenda azalduko da. Inprimagailu bat aukeratu. Inprimagailua lehenetsi gisa ezarriko da.

PictBridge funtzioarekin bateragarria den inprimagailu bat erabiltzeko, inprimaketa aukera hautatu aurretik konektatu datu kable bateragarria eta baieztatu datu kablea **Irudi kopia** edo **Konektatzean gald.** moduan ezarrita dagoela. Inprimagailua automatikoki erakutsiko da inprimaketa aukera hautatzerakoan.

Inprimagailu lehenetsia eskuragarri ez badago, eskuragarri dauden inprimagailuen zerrenda azalduko da.

Inprimagailu lehenetsia aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Lehenets. inprimag.**.

### Inprimaketa aurrebista

Inprimagailua aukeratu ondoren, aukeratutako argazkiak pantailan azalduko dira diseinu lehenetsiekin.

Diseinua aldatzeko, gurpila ezkerrera edo eskuinera mugitu aukeratutako inprimagailuarentzako eskuragarri dauden diseinuak ikusteko. Argazkia ez bada orri bakar batetan sartzen, gora edo behera mugitu gainerako orriak ikusteko.

### Inprimaketa ezarpenak

Eskuragarri dauden aukerak desberdinak dira aukeratutako inprimagailuaren arabera.

Inprimagailu lehenetsi bat ezartzeko, **Aukerak** > **Lehenets. inprimag.** aukeratu.

Paperaren tamaina aukeratzeko, **Paperaren neurria** aukeartu eta, gero, zerrendan paperaren tamaina eta **Ados** aukeratu. **Utzi** aukeratu aurreko ikuspegira itzultzeko.

# Sarea partekatzea

## Lineako partzekatzeari buruz

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Lineako partekatzea erabiliz, irudiak, bideo klipak, eta soinu klipak bidal ditzakezu zure gailutik partekatzeko zerbitzu bateragarrietara, bildumak eta blogak, esaterako. Halaber, zerbitzu hauek jasotako elementuen iruzkinak ikus eta bidal ditzakezu, eta zure Nokia gailu bateragarrian edukia deskargatu ere bai.



Baliteke onartutako eduki motak eta Lineako partekatzea zerbitzuaren eskuragarritasuna ezberdina izatea.

## Zerbitzuetara harpidetu

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Sareko partekatze zerbitzuetara harpidetzeko, joan zerbitzu hornitzailearen webgunera eta egiaztatu zure Nokia telefonoa zerbitzuarekin bateragarria den ala ez. Sortu kontu bat webgunean adierazi bezala. Kontuarekin zure telefonoa konfiguratzeko beharrezkoak diren erabiltzaile izena eta pasahitza jasoko dituzu.

1. Zerbitzu bat aktibatzeko, zure telefonoan ireki Share online aplikazioa eta aukeratu zerbitzu bat eta **Aukerak** > **Aktibatu**.
2. Baimendu telefonoa sare konexio bat sor dezan. Internet sargune bat eskatzen bazaizu, aukeratu zerrendako bat.
3. Sartu zure kontuan zerbitzu hornitzailearen webgunean esaten dizuten bezala.

Lineako partekatze zerbitzuko Nokia zerbitzuak doakoak dira. Zure zerbitzu hornitzaileak sarearen bidez transferitutako edozein datugatik kobratu lezake. Hirugarrenek hornitutako zerbitzuen eskuragarritasun eta kostuei buruzko informaziorako, jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin edo hirugarrenekin.

# Zure kontuak kudeatu

Zure kontuak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Nire kontuak**.

Kontu bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu kontu berria**.

Kontu baten erabiltzailearen izena edo pasahitza aldatzeko, aukeratu kontua eta **Aukerak** > **Ireki**.

Telefonotik sarrerak bidaltzean kontua lehenetsi gisa ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarri lehenetsi gisa**.

Kontu bat ezabatzeko, aukeratu kontua eta **Aukerak** > **Ezabatu**.

# Sarrera bat sortu

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Zerbitzu bati multimedia fitxategiak bidaltzeko, hautatu zerbitzu bat eta **Aukerak** > **Karga berria**. Lineako partekatzearen zerbitzuak fitxategiak bidaltzeko kateak eskaintzen baditu, hautatu nahi duzun katea.

Irudiak, bideo klipak edo soinu klipak sarrerara gehitzeko, aukeatu **Aukerak** > **Sartu**.

Idatzi elementuaren titulua edo deskribapena, eskuragarri badago.

Sarrerara etiketak gehitzeko, aukeratu **Etiketak:**.

Fitxategiaren barneko kokapen informazioa bidaltzea posible egiteko, hautatu **Kokap.:**.

Fitxategi baten pribatutasun maila ezartzeko, aukeratu **Pribatut.:**. Guztiei zure fitxategia ikustea baimentzeko, aukeratu **Publikoa**. Besteek zure fitxategia ez ikusteko, aukeratu **Pribatua**. **Lehenetsia** ezarpena zerbitzu hornitzailearen webgunean zehaz dezakezu.

Sarrera zerbitzura bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kargatu**.

# Fitxategiak Argazkiak aplikaziotik bidaltzea

Zure fitxategiak Argazkiak aplikaziotik lineako partekatze zerbitzu batera bidal ditzakezu.

1. Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Galeria** > **Irudiak** eta bidali nahi dituzun fitxategiak.
2. Aukeratu **Aukerak** > **Bidali** > **Kargatu** eta nahi duzun kontua.
3. Editatu argitaratutakoa nahi duzunean.
4. Aukeratu **Aukerak** > **Kargatu**.

# Klik batean kargatu

Klik batekin kargaturekin argazki bat atera eta gero irudia jarraian lineako partekatze zerbitzu batean karga daiteke.

Klik batean kargatzeko funtzioa erabiltzeko, atera argazki bat telefonoaren kamerarekin eta aukeratu tresna-barran lineako partekatze ikonoa.

## Etiketa zerrenda

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Etiketek mezuaren edukia deskribatzen dute eta ikusleek edukia lineako zerbitzuetan aurki dezaten laguntzen dute.

Mezu bat sortzerakoan eskuragarri dauden etiketen zerrenda ikusteko, aukeratu **Etiketak:**.

Zure postari etiketak gehitzeko, aukeratu zerrendatik etiketa bat eta **Eginda**. Mezuan etiketa desberdinak gehitzeko, aukeratu etiketa bakoitza eta **Aukerak** > **Markatu/Marka kendu** > **Markatu**.

Etiketak bilatzeko, sartu bilaketa testua bilaketarako eremuan.

Zerrendan etiketa bat gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Etiketa berria**.

## Mezuak kudeatu Irteera ontzian.

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Irteera ontziak unean kargatzen ari zaren mezuak, kargatu ezin izan diren mezuak eta bidalitako mezuak erakusten ditu.

Irteera ontzia irekitzeko, aukeratu **Irteerako ontzia** > **Aukerak** > **Ireki**.

Mezua kargatzen hasteko, aukeratu mezua eta **Aukerak** > **Orain kargatu**.

Mezuaren kargatzea ezeztatzeko, aukeratu mezua eta **Aukerak** > **Ezeztatu**.

Mezu bat ezabatzeko, aukeratu mezua eta **Aukerak** > **Ezabatu**.

## Zerbitzuaren edukia ikustea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Zerbitzu baten edukia ikusteko, hautatu zerbitzua eta **Aukerak** > **Ireki**.

Informazio bat irekitzeko, hautatu informazioa. Informazioa nabigatzailean irekitzeko, hautatu zerbitzu hornitzailearen webgunea.

Fitxategi bati lotutako iruzkinak ikusteko, hautatu fitxategia eta **Aukerak** > **Ikus oharrak**.

Fitxategia pantaila osoko moduan ikusteko, hautatu fitxategia.

Informazio bat eguneratzeko, hautatu informazioa eta **Aukerak** > **Eguneratu orain**.

Fitxategi interesgarri bat ikusten baduzu eta zure gailuan informazio osoa deskargatu nahi baduzu, hautatu fitxategia eta **Aukerak** > **Harpidetu kontaktura**.

## Zerbitzu-hornitzailearen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Zerbitzu-hornitzaileen zerrenda ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Zerb hornitz.**.

Zerbitzu baten xehetasunak egiaztatzeko, zerrendatik aukeratu zerbitzua.

Aukeratutako zerbitzua ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

## Kontuaren ezarpenak editatzea

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Zure kontuak editatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Nire kontuak** eta kontu bat.

Kontuaren erabiltzaile izena aldatzeko, hautatu **Erabiltzaile izena**.

Kontuaren pasahitza aldatzeko, hautatu **Pasahitza**.

Kontuaren izena aldatzeko, hautatu **Kontu izena**.

Bidalitako irudien tamaina zehazteko, hautatu **Karg. irudiaren tamaina** > **Jatorrizkoa**, **Ertaina** (1024 x 768 pixel) edo **Txikia** (640 x 480 pixel).

## Ezarpen aurreratuak editatu

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Ezarpena aurreratuak editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Aurreratua**.

Elementuak partekatzeko hari gabeko LAN (WLAN) konexio bat soilik erabiltzeko, hautatu **Erabili zelularra** > **Desgaituta**. Pakete-datuen konexio bat baimentzeko ere, hautatu **Gaituta**.

Etxeko saretik kanpo zaudenean, elementuak partekatzea eta deskargatzea baimentzeko, hautatu **Baimendu ibiltaritza** > **Gaituta**.

Zerbitzutik automatikoki elementu berriak deskargatzeko, aukeratu **Deskarga tartea** eta deskargen arteko tartea. Elementua eskuz deskargatzeko, aukeratu **Eskuz**.

## Datu kontagailuak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Par. on-line**.

Kargatu edo deskargatu dituzun datuen kopurua jakiteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Datuak igorrita**.

Kontagailuak berrezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Garbitu bidalitakoak**, **Garbitu jasotakoak** edo **Garbitu denak**.

# Nokiaren Bideo Zentroa

Nokiaren Bideo Zentroarekin (sareko zerbitzua), bideoak deskargatu eta haiekin airetik lan egin dezakezu Interneteko bideo zerbitzu bateragarrietatik, datu-paketeak edo haririk gabeko LANa (WLAN) konexioa erabiliz. Halaber, bideoak ordenagailu bateragarri batetik telefonora transferi eta Bideo Zentroan ikus daitezke.

Bideoak deskargatzeko datu-paketeen sarguneak erabiltzeak zure zerbitzu-hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidaltzea esan nahiko luke. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Telefonoak zerbitzu lehenetsiak eduki ditzake.

Zerbitzu-hornitzaileek dohako edukiak eskein ditzakete baina baita gastuak kargatu ere. Prezioa zerbitzuan egiaztatu edo zerbitzari-hornitzaileagandik lortu.

# Bideoklipak ikusi eta deskargatu

## Bideo zerbitzuetara konektatu

1. Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Bid. zentr.**.
2. Bideo bat instalatzeko zerbitzu bati konektatzeko, aukeratu **Zerbitzu berriak gehitu** eta nahi duzun bideo zerbitzua aukeratu zerbitzu katalogotik.

## Bideoklip bat ikusi

Instalatutako bideo zerbitzuen edukiak arakatzeko, **Bideo jarioak** aukeratu.

Bideo zerbitzu batzuen edukia kategorietan sailkatuta dago. Bideoklipak arakatzeko, ketegoria bat aukeratu.

Zerbitzuan bideoklip bat bilatzeko, **Bideo bilaketa** aukeratu. Baliteke bilaketa eskuragarri ez egotea zerbitzu guztietan.

Bideo batzuk zuzenean erreproduzitu daitezke, baina beste batzuk lehenengo telefonora deskargatu behar dira. bideo bat deskargatzeko, **Aukerak** > **Deskargatu** aukeratu. Aplikazioa irekiz gero, deskargek atzeko planoan jarraitzen dute. Deskargatutako bideoklipak Nire Bideoetan gordetzen dira.

bideo batekin airetik lana egiteko edo deskargatutako bat ikusteko, **Aukerak** > **Erreproduzitu**. aukeratu.

Bideoklipa erreproduzitzerakoan erreproduzigailua kontrolatzeko, aukeraketa-teklak eta korritze-tekla erabili. Bolumena egokitzeko, bolumenaren tekla erabili.

**Abisua:** Musika neurrian entzun. Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Jarraitu deskarga** — Geldirik dagoen deskarga edo huts egin duena berrabiatu.
- **Ezeztatu deskarga** — Deskarga bat ezeztatu.
- **Aurrebista** — Aurreikusi bideoklip bat. Aukera hau zerbitzuak onartzen badu soilik dago eskuragarri.
- **Jario xehetasunak** — Bideoklip baten informazioa ikusi.
- **Freskatu zerrenda** — Bideoklipen zerrenda eguneratu.
- **Ireki esteka arakatz.** — Web arakatzailean esteka bat ireki.

## Deskargak antolatu

Bideoklipak automatikoki deskargatzeko aplikazioa ezartzeak zure zerbitzu-hornitzailearen saretik datu kantitate handiak bidaltzea eragin dezake. Datu transmisioen kostuei buruzko informazioa jasotzeko jo zure zerbitzu-hornitzailearengana. Zerbitzu batean bideoklipen deskarga automatiko baten ordutegia ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Jarri deskargak taulan**. Bideo Zentroak bideoklipak automatikoki deskargatzen ditu egunero bideo berriak zuk ezarritako orduan.

Antolatutako deskargak ezeztatzeko, aukeratu **Eskuzko deskarga** deskarga modu bezala.

# Bideo iturriak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Bid. zentr.**.

Instalatutako bideo zerbitzuen edukiak RSS iturrien bidez banatzen dira. Zure iturriak ikusteko eta kudeatzeko, aukeratu **Bideo jarioak**.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Jarioen harpidetzak** — Zure momentuko iturri harpidetzak egiaztatu.
- **Jario xehetasunak** — Bideo bati buruzko informazioa ikusi.
- **Gehitu jarioa** — Iturri berrietara harpidetu. Aukeratu **Bideo direktor. bidez** bideo direktorioko zerbitzuetatik iturri bat aukeratzeko.
- **Eguneratu jarioak** — Iturri guztien edukia eguneratu.
- **Kudeatu kontua** — Kudeatu iturri zehatz baten kontu aukerak, eskuragarri badaude.
- **Mugitu** — Nahi duzun lekura bideoklipak mugitu.

Iturri batean eskuragarri dauden bideoak ikusteko, zerrendatik iturri bat aukeratu.

# Nire bideoak

Nire bideoak Bideo-zentroko bideoak gordetzeko erabiltzen da. Ikuspegi desberdinetan zerrenda ditzakezu deskargatutako bideoak eta gailuaren kamerarekin grabatutakoak.

1. Karpeta bat ireki eta bideoklipak ikusteko gurpila erabili. Bideoklipa erreproduzitzen ari denean, gurpila eta funtzio-teklak erabili bideo erreproduzitzailea kontrolatzeko.
2. Bolumena egokitzeko, sakatu bolumenaren tekla.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Jarraitu deskarga** — Geldirik dagoen deskarga edo huts egin duena berrabiatu.
- **Ezeztatu deskarga** — Deskarga bat ezeztatu.
- **Bideo xehetasunak** — Bideoklip baten informazioa ikusi.
- **Aurkitu** — Bideoklip bat aurkitu. Idatzi fitxategiaren izenarekin bat datorren bilaketa-hitza.
- **Erak. etxeko sarea. bidez** — Erreproduzitu deskargatutako bideo bat tokiko sare bateragarri batean. Etxeko sarea aurretik konfiguratu behar da.
- **Memoria egoera** — Erabilgarri eta erabilita dagoen memoria ikusi.
- **Sailkatu honen arabera** — Bideoklipak sailkatu. Nahi duzun kategoria aukeratu.
- **Mugitu eta kopiatu** — Bideoklipak mugitu edo kopiatu. Aukeratu **Kopiatu** edo **Mugitu** eta nahi duzun kokapena.

# Bideoak zure ordenagailutik transferitu

Transferitu zure bideo klipak telefono bateragarrietatik Bideo zentrora USB datu kablea erabiliz. Bideo zentroak zure telefonoarekin

bateragarriak diren formatuak bakarrik erreproduzituko ditu.

1. Zure telefonoa ordenagailu batean memoria osagarri gisa ikusteko eta bertara edozein datu fitxategi transferitzeko, konektatu USB datu kable batekin.
2. Aukeratu **Masa biltegia** konexio modu gisa. Memoria txartel bateragarri bat sartu behar da telefonoan.
3. Aukeratu zure ordenagailutik kopiatu nahi dituzun bideo klipak.
4. Transferitu bideo klipak memoria txarteleko **E:\Nire bideoak** karpetara.

   Transferitutako bideo klipak Bideo zentroko Nire bideoak karpetan agertuko dira. Telefonoko beste karpetetako bideo fitxategiak ez dira agertzen.

# Bideo zentroaren ezarpenak

Bideo zentroko ikuspegi nagusian, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetatik:

- **Bideo zerb. hautaketa** — Aukeratu Bideo zentroko aplikazioan agertu beharreko zerbitzuak. Bideo zerbitzu baten xehetasunak gehi, ezaba, edita eta ikus ditzakezu ere. Aurretik instalatutako bideo zerbitzuak ezin dira editatu.
- **Konexio ezarpenak** — Sare konexiorako erabiltzen den sare helburua zehazteko, aukeratu **Sare konexioa**. Konexio bat eskuz aukeratzeko Bideo zentroa sare konexio bat irekitzen duen bakoitzean, aukeratu **Galdetu beti**.

  GPRS konexioa gaitu edo desgaitzeko, aukeratu **Baieztatu GPRS erabilera**.

  Ibiltaritza gaitu edo desgaitzeko, aukeratu **Baieztatu ibiltaritza**.
- **Gurasoen kontrola** — Ezarri bideoentzako adin muga. Behar den pasahitza telefonoaren blokeo kodearen berdina da. Lehenetsitako blokeo kodea **12345** da. Bideo eskaera zerbitzuetan, muga adina bereko edo handieneko bideoak, ezkutatzen dira.
- **Hobetsitako memoria** — Aukeratu deskargatutako bideoak telefonoaren memorian edo memoria txartel bateragarri batean gordeko diren.
- **Koadro txikiak** — Aukeratu bideo jarioetan miniaturak deskargatu eta ikusi nahi dituzun ala ez.

# Musika erreproduzitzailea

**Abisua:** Musika neurrian entzun. Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Mus. errep.**.

Musika erreproduzitzaileak AAC, AAC+, eAAC+, MP3 eta WMA fitxategi formatuak onartzen ditu. Baliteke musika erreproduzitzaileak fitxategi formatu baten funtzio guztiak edo aldaera guztiak ez onartzea.

Musika transferi dezakezu beste gailu bateragarrietatik zure gailura. Ikus "Ordenagailutik musika transferitzea"120.

## Abesti bat erreproduzitzea

Abesti eskuragarri guztiak musika liburutegira gehitzeko, hautatu **Aukerak** > **Freskatu liburutegia**.

Abesti bat erreproduzitzeko, hautatu nahi den kategoria eta abestia.

Erreprodukzioa eteteko, sakatu desplazamendu tekla; jarraitzeko, sakatu berriro desplazamendu tekla. Erreprodukzioa gelditzeko, desplazatu behera.

Azkar aurreratu edo atzeraratzeko, sakatuta mantendu desplazamendu tekla eskuinera edo ezkerrera.

Hurrengo elementuara saltatzeko, desplazatu eskuinera. Elementuaren hasierara itzultzeko, desplazatu ezkerrera. Aurreko elementura saltatzeko, desplazatu ezkerrera abestia hasi eta bi segundu baino lehenago.

Musika erreprodukzioaren tonua aldatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ekualizadorea**.

Balantzea eta irudi estereoa aldatzeko edo behe soinuak hobetzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Hasierako pantailara itzultzeko eta musika erreproduzitzailea atzeko planoan erreproduzitzen uzteko, sakatu amaitzeko tekla.

## Erreprodukzio zerrendak

Erreprodukzio zerrendak ikusteko eta kudeatzeko, hautatu **Abesti-bilduma** > **Erreprodukzio zerrendak**.

Erreprodukzio zerrenda berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Errep. zerrenda berria**.

Erreprodukzio zerrendari abestiak gehitzeko, hautatu abestia eta **Aukerak** > **Abestiak gehitu** > **Gordetako errep. zerr.** edo **Errep. zerrenda berria**.

Erreprodukzio zerrenda baten abestiak berrantolatzeko, joan mugitu nahi duzun abestira eta hautatu **Aukerak** > **Berrantolatu zerrenda**.

## Nokia Musika Denda

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Mus. denda**.

Nokia Musika Dendan (sareko zerbitzua) gailuan deskargatzeko musika bilatu, aurkitu eta eros dezakezu. Musika erosteko, lehenik zerbitzuan erregistratu behar da.

Nokiaren musika dendan sartzeko, gailuan interneteko sarbide zuzena zehaztuta egon behar da.

Nokia Musika denda ez dago eskuragarri herrialde edo eskualde guztietan.

Kategoria ezberdinetan musika gehiago bilatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bilatu Musika-dendan**.

Nokia Musika denda erabiltzeko sargunea aukeratzeko, aukeratu **Lehenetsitako sarbidea**.

# Ordenagailutik musika transferitzea

Ordenagailutik musika transferitzeko, konektatu gailua ordenagailura Bluetooth konektibitatea edo USB datu kable bateragarri bat erabiliz. USB kablea erabiliz gero, hautatu **Masa biltegia** konexio modu gisa. Ziurtatu gailuaren barruan memoria txartel bateragarri bat dagoela.

**PC Suite** konexio modu gisa hautatuz gero, Nokia Music erabil dezakezu zure gailu eta ordenagailuaren artean musika sinkronizatzeko.

# Ezarri aurrez frekuentzia ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Mus. errep.** eta **Aukerak** > **Joan 'Orain entzgai.'ra** > **Aukerak** > **Ekualizadorea**.

Musika erreproduzitzen ari zarenean aurrez ezarritako frekuentzia bat erabiltzeko, aukeratu erabili nahi duzun frekuentzia ezarpena eta **Aukerak** > **Aktibatu**.

Aurrez ezarritako ezarpen baten frekuentzia aldatu nahi baduzu, aukeratu **Aukerak** > **Editatu** eta frekuentzia banda, eta mugitu gora edo behera balioa zehazteko. Jarraian entzungo duzu frekuentzia aldaketa.

Jatorrizko frekuentzia bandak berrezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Lehene. balio. berrezarri**.

Zure frekuentzia ezarpena sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Aurre-doikuntza berria**. Idatzi frekuentzia ezarpenaren izena. Mugitu frekuentzia bandetan zehar gora edo behera eta ezarri banda bakoitzerako frekuentzia.

# RealPlayer

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **RealPlayer**.

RealPlayer-ek zure gailuan gordeta dauden, e-mail mezu edo bateragarria den ordenagailu baten bidez transferitutako edo web-aren bitartez gailuan streaming bidez bideo eta soinu klipak erreproduzitzen ditu. MPEG-4, MP4 (ez streaming), 3GP, RV, RA, AMR eta Midi dira onartzen diren fitxategi formatu batzuk. RealPlayer-ek ez ditu beti media formatu baten aldakuntza guztiak onartzen.

# Bideo klipak eta estekak erreproduzitzea

**Abisua:** Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

Bideo klip bat erreproduzitzeko, hautatu **Bideoklipak** eta klip bat.

Duela gutxi erreproduzitutako fitxategiak zerrenda batean ager daitezen, aplikazioaren oinarrizko ikuspegian, hautatu **Azkena errepr.**.

Edukia airean transmititzeko (sareko zerbitzua), hautatu **Stream. estek.** eta esteka bat. RealPlayer bi esteka mota detektatzen du: rtsp:// URL bat eta RAM fitxategi batera daramen http:// URL bat. Edukia transmititzen hasi baino lehen, gailua webgune bati konektatuta egon behar da edukia bufferrean prozesatzeko. Sarearen konexio arazo bat dela eta erroprozitzerakoan errorerik gertatzen bada, RealPlayer internet sarguneari berriz konektatzen saiatuko da automatikoki.

Webetik bideo klipak deskargatzeko, hautatu **Bideoak deskargatu**.

Erreproduzitzean bolumena doitzeko, erabili bolumen teklak.

Erreproduzitzean aurrera bizkor egiteko, joan eskuinetara eta eutsi sakatuta. Erreproduzitzean atzera egiteko, joan ezkerretara eta eutsi sakatuta.

Erreproduzitzeari edo transmititzeari uzteko, hautatu **Gelditu**. Bufferraren prozesamendua edo transmisio-gunearen konexioa etengo dira, kliparen erreprodukzioa geldituko da eta klipa hasieraraino bueltatuko da.

Bideo klipa pantaila arrunta moduan ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Jarraitu pantaila arrunt.**.

## Multimedia-klip baten informazioa ikusi

Bideo edo audio klip edo web esteka baten ezaugarriak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Kliparen xehetasunak**. Informazio hauen artean bit kopurua edo streaming fitxategi baten internet esteka egon daitezke.

## RealPlayerraren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **RealPlayer**.

RealPlayer aplikazioaren ezarpenak zure zerbitzu-hornitzailearen mezu batean jaso ditzakezu.

Eskuz ezarpenak zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Bideoa** edo **Streaming**.

# Grabagailua

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Grabagailua**.

Grabagailua aplikazioarekin, ahots-oharrak eta telefono-hizketaldiak graba daitezke.

Grabagailua ezin da erabili datuen dei bat edo GPRS konexio bat aktibatuta dauden bitartean.

Soinu klipa grabatzeko, aukeratu ●.

Soinu klipa grabatzen amaitzeko, aukeratu ■.

Soinu klipa entzuteko, aukeratu ▶.

Grabaketa kalitatea edo soinu klipak non gordetzeko aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezarpenak**.

Grabatutako soinu klipak Galeriako Soinuak karpetan gordetzen dira.

Telefonoko elkarrizketa bat grabatzeko, ireki grabagailua ahots-deian eta hautatu ●. Grabatzen ari den bitartean, bi aldeek tonu bat entzungo dute, noizean behin.

# Flash Playerra

Flash player aplikazioaren bidez, telefono mugikorretarako egindako flash fitxategiak ikusi, erreproduzitu eta erabil ditzakezu.

Flash player irekitzeko eta flash fitxategi bat erreproduzitzeko, fitxategia aukeratu.

Gailu bateragarrietara flash fitxategi bat bidaltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Bidali**. Baliteke copyright babesa flash fitxategi batzuen bidalketa ez baimentzea.

Telefonoaren memorian eta memoria-txartelean dauden flash fitxategien artean aldatzeko, zoaz dagozkien fitxetara.

Flash fitxategiaren kalitatea aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Kalitatea** flash fitxategia erreproduzitzen ari zarenean. **Handia** aukeratuz gero, flash fitxategi batzuen erreprodukzioa irregularra eta motela izan liteke jatorrizko ezarpenak direla eta. Fitxategi hauen kalitate ezarpenak **Arrunta** edo **Txikia** gisa ezar daitezke erreprodukzioa hobetzeko.

Zure flash fitxategiak antolatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Antolatu**.

# FM irratia

FM irratia entzuteko, gailuak haririk gabeko antena ez den beste antena bat erabiliko du. Aurikular edo osagarri bateragarria jarri behar zaio gailuari FM irratiak funtzionamendu egokia izan dezan.

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Irratia**.

Irratiaren difusioaren kalitatea irrati katea dagoen lekuaren estalduraren araberakoa dela.

## Irratia entzun

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Irratia**.

FM irratia entzuteko, gailuak haririk gabeko antena ez den beste antena bat erabiliko du. Aurikular edo osagarri bateragarria jarri behar zaio gailuari FM irratiak funtzionamendu egokia izan dezan.

**Abisua:** Musika neurrian entzun. Bolumen altuarekin jarraian denbora gehiegi egoteak zure entzumena kaltetu dezake. Ez ezazu gailua zure belarriarengandik hurbil jarri bozgorailua jarrita dagoen bitartean, bolumena altuegi egon baitaiteke.

Irratiaren difusioaren kalitatea irrati katea dagoen lekuaren estalduraren araberakoa dela.

Dei bat egin edo sarrerako dei bat erantzun dezakezu irratia entzuten ari zaren bitartean. Irratia dei aktibo bat dagoenean isiltzen da.

Irrati kate bat bilatzen hasteko, △ edo ▽ aukeratu.

Telefonoan irrati kateak gorde badituzu, gordetako aurreko edo hurrengo katera joateko, ⏭ edo ⏮ aukeratu.

Aukeratu **Aukerak** eta hurrengoak:

- **Aktibatu bozgorailua** — Entzun irratia bozgorailua erabiliz.
- **Eskuzko sintonizazioa** — Aldatu frekuentzia eskuz.

- **Kateen direktorioa** — Ikusi irrati kate eskuragarriak kokapenean oinarrituta (sare zerbitzua).
- **Gorde katea** — Gorde unean entzuten ari zaren irrati kateak.
- **Kateak** — Ireki gordetako irrati kateen zerrenda.
- **Erreproduzitu atzeald.** — Itzuli hasiera pantailara atzealdean FM irratia entzuten ari zaren bitartean.

## Gordetako irrati kateak

Aukeratu **Menua** > **Multimedia** > **Irratia**.

Gordetako irrati kateen zerrenda irekitzeko, **Aukerak** > **Kateak** aukeratu.

Gordetako irrati kate bat entzuteko, aukeratu **Aukerak** > **Katea** > **Entzun**.

Irrati katearen xehetasunak aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Katea** > **Editatu**.

## FM irratiaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Multimedia** > **Irratia**.

Harrera ahula denean, frekuentzia alternatiboak automatikoki bilatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Ordezko frekuentziak** > **Bilaketa auto. aktib.**.

Irratiaren sargune lehenetsia ezartzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Sarbidea**.

Zein eskualdetan zauden hautatzeko, hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Uneko eskualdea**.

Aplikazioa hasterakoan sare estaldurarik ez badago, ezarpena agertzen da.

# N-Gage

## N-Gageri buruz

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

N-Gagerekin doan jokoen probak deskarga ditzakezu, joko berriak probatzeko eta gustatzen zaizkizunak erosteko. Bakarrik edo lagunekin jolas dezakezu. N-Gagek beste jokalariekin harremana mantentzeko aukera eskaintzen dizu, bai eta zure kalifikazioak eta beste jokoetako lorpenak jarraitzeko eta partekatzeko aukera ere.

## Deskargatu jokoak

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

Deskargatzeko eskuragarri dauden jokoak ikusteko, dendaren fitxa ireki eta hautatu **See All Games**.

Denda automatikoki eguneratzen da internetera konektatzen zarenean. Eskuz eguneratzeko, hautatu **Options** > **Update Now**.

Joko baten xehetasunak ikusteko, hautatu **View Details**. Jokoari buruzko fitxak jokoaren deskribapena eta prezioari buruzko informazioa dauka. Media fitxak jokoaren fotogramak eta bideoklipak dauzka. Kritika fitxak kritikak eta ebaluazioak dauzka.

Joko bat probatzeko, hautatu **Options** > **Download Free Trial**.

Joko bat erosteko, hautatu jokoaren erosketa aukera.

Ordenagailu bateragarri batekin jokoak deskargatu eta erosi ditzakezu hemen: www.n-gage.com.

Joko baten deskarga eteteko, jokoen fitxa ireki eta hautatu deskarga eta **Options** > **Cancel Download**.

## Erreproduzitzaile izen bat sortu

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

N-Gage aplikazioa abiatzen denean eta N-Gage zerbitzura lehenengo aldiz konektatzen zarenean, erreproduzitzaile izen bat sortzeko eskatuko zaizu. Erreproduzitzaile izen batek N-Gage komunitatean parte hartzeko, beste erreproduzitzaileekin konektatzeko eta joko lorpenak, aholkuak eta kritikak partekatzeko aukera ematen dizu.

Erreproduzitzaile izen berri bat sortzeko, honakoa egin:

1. Hautatu **Register New Account**.
2. Zure jaioteguna sartu eta erreproduzitzaile izen eta pasahitz bat sortu. Erreproduzitzaile izena libre ez badago, N-Gagek eskuragarri dauden antzeko izenak iradokitzen ditu.
3. Xehetasunak sartu, irakurri eta onartu baldintzak eta kondizioak eta hautatu **Register**.

Erreproduzitzaile izen bat sor dezakezu ere hemen: www.n-gage.com.

Erreproduzitzaile izenik gabe, jokoak deskargatu, erosi eta hauetara jolas dezakezu.

## Lagunak bilatzea eta gehitzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

N-Gage jokalariak zure lagunen zerrendara gonbidatzeko, ireki lagunen fitxa eta sartu jokalarien izenak Add a Friend eremuan. Idatzi mezu bat eta hautatu **Send**. Hartzaileek gonbidapena onartzen badute, haien jokalari izenak zure lagun zerrendan gehitzen dira.

Beste jokalariak ezagutzeko, zoaz www.n-gage.com helbidera elkarrizketa geletan eta forumetan sartzeko.

Lagun baten profila ikusteko, hautatu laguna lagunen zerrendan. Zure lagunen lineako egoera ikusteko, N-Gage zerbitzura konektatuta egon behar duzu.

Lagunen zerrendatik lagun bat ezabatzeko, hautatu **Options** > **Remove from Friends List**.

Lagunak eskuragarritasunaren, jokalari izenaren edo guztirako puntuen arabera sailkatzeko, hautatu **Options** > **Sort Friends By**.

Jokalari bat puntuatzeko, hautatu **Options** > **Rate Player**.

## Jolastea eta jokoak kudeatzea

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

Jolasteko eta jokoak kudeatzeko, ireki jokoen fitxa.

Bost joko mota daude:

- Joko osoak, lizentzia osoarekin erositakoak.
- Probatzeko jokoak, denbora mugatu batean zehar erabil ditzakezunak edo eduki mugatua dutenak.
- Demo jokoak, hauek joko baten bertsio laburrak dira funtzio eta maila mugatuekin.
- Joko iraungiak, lizentzia mugatu batekin erositakoak eta iraungi direnak.
- Eskuragarri ez dauden jokoak, ezabatu edo guztiz instalatu ez dituzunak.

Joko bat instalatzeko, hautatu **Options** > **Install Game**.

Jolasteko, hautatu **Options** > **Start Game**. Etendako joko bat jarraitzeko, hautatu **Options** > **Resume Game**.

Joko bat puntuatzeko eta kritika bat egiteko, hautatu **Options** > **Rate Game**. Jokoa izar batetik bostera puntuatu eta honi buruzko kritika bat idatz dezakezu. Kritikak 60 hizki izan ditzake gehienez. Kritika bidaltzeko, N-Gage zerbitzuan zure jokalari izenarekin konektatuta egon behar duzu.

Joko bat N-Gageko lagun bati gomendatzeko, hautatu **Options** > **Send Recommendation**.

# Hasiera fitxa

Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **Games**.

N-Gage aplikazioa irekitzean, hasiera fitxa agertuko da.

Azken aldian erabilitako jokoan jolasten hasteko, hautatu **Start Game**. Gelditutako joko bat berrabiarazteko, hautatu **Options** > **Resume Game**.

Uneko N-Gage guztizko puntuak ikusteko, hautatu **Track My Progress**.

Zure profila ikusteko, hautatu **Options** > **View Profile**.

N-Gage jokalariekin konektatzeko eta joko batera gonbidatzeko, hautatu **Play With Friends**. N-Gage jolasteko lagunak proposatuko ditu zure joko-historiaren arabera eta zure N-Gage lagunen eskuragarritasunaren arabera.

Jolasteko beste lagun bat bilatzeko, hautatu **Options** > **View My Friends**.

Joko berriei buruz informazioa jasotzeko, hautatu **Get More Games**.

N-Gage aplikazioaren eguneratzeak dauden ikusteko, hautatu **Options** > **Check for updates**.

# Konektibitatea

Gailuak aukera ezberdinak ditu Interneti, enpresa baten intraneti edo beste gailu edo ordenagailu bati konektatzeko.

## Pakete datu azkarrak

Abiadura handiko pakete sarbidea (HSPA, 3.5G ere deitua, 3.5G sinboloaz adierazia) UMTS sareen sare-zerbitzu bat da eta abiadura handiko deskargak eta kargak eskeintzen ditu. Gailuan HSPA bateragarritasuna gaituta dagoenean eta gailua HSPA onartzen duen UMTS sare bati konektatuta dagoenean, baliteke azkarragoa izatea sare zelularraren bidez posta elektronikoa eta nabigatzailearen orriak deskargatzea eta kargatzea. HSPA konexio gaitua sinboloaren bidez adierazten da. Baliteke ikonoa lurraldearen arabera ezberdina izatea.

HSPA aktibatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Pakete-datuak** > **Abiad. hand. pak. sarbid.**. Hainbat sare zelularrek ez du sarrerako deirik onartzen HSPA gaituta dagoenean; kasu horretan, HSPA desgaitu behar duzu deiak jasotzeko. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Datu konexio zerbitzuei buruzko eskuragarritasuna eta harpidetzari buruz gehiago jakiteko jar zaitez harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin.

## Datu kablea

Datuak honda ez daitezen, ez kendu datu kablea datu transferentzia bat burutzen ari denean.

### Gailuaren eta ordenagailu baten artean datuak transferitzea

1. Sartu memoria txartel bat gailuan eta konektatu gailua ordenagailu bateragarri bati USB datu kablea erabiliz.
2. Gailuak erabili nahi duzun modua adierazteko eskatzen dizunean, hautatu **Masa biltegia**. Modu honetan, gailua disko gogor erauzgarri gisa ikus dezakezu ordenagailuan.
3. Itxi konexioa ordenagailutik (adibidez, Windows-en harwarea deskonektatzeko morroia erabiliz) memoria txartela honda ez dadin.

Nokia PC Suite gailuarekin erabiltzeko, instalatu Nokia PC Suite ordenagailuan, konektatu datu kablea eta hautatu **PC Suite**.

Gailua ordenagailua Interneti konektatzeko erabiltzeko, konektatu datu kablea eta hautatu **Konek. ord. web-era**.

Gailuan daukazun musika Nokia Music Player-ekin sinkronizatzeko, instalatu Nokia Music Player softwarea ordenagailuan, konektatu datu kablea eta hautatu **PC Suite**.

Inprimagailu bateragarri batean irudiak inprimatzeko, hautatu **Irudi-transferentzia**.

Datu kablearekin normalean erabiltzen duzun USB modua aldatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **USB** eta **USB konexio-modua**, eta hautatu nahi duzun aukera.

USB datu kablea gailuari konektatzen diozun bakoitzean honek erabili nahi duzun modua adierazteko eska dezan, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **USB** eta **Konektatzean gald.** > **Bai**.

# Bluetooth-a

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**.

## Bluetooth-ari buruz

Bluetooth teknologiak hari gabeko konexioak ahalbidetzen ditu 10 metrotara (33 oin) dauden gailu elektronikoen artean. Bluetooth konexioarekin irudiak, bideoak, testuak, enpresa-txartelak eta egutegiko oharrak bidal daitezke, edo hari gabe Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuetara konekta zaitezke.

Bluetooh teknologia erabiltzen duten gailuak irrati-uhinak erabiliz komunikatzen direnez, zure gailuak eta besteek ez dute ikuspen-lerro berean egon beharrik. Bi gailuak elkarrengandik gehienez 10 metrora egotea besterik ez da beharrezkoa. Halere, konexioan interferentziak egon daitezke hormengatik edo beste gailu elektronikoengatik.

Bluetooth konexio bat baino gehiago egon daitezke martxan aldi berean. Esaterako, gailua aurikularretara konektatuta badago, aldi berean fitxategiak beste gailu bateragarri batera alda ditzakezu.

Telefonoa Bluetooth zehaztapenarekin bateragarria da 2.0 + EDR, eta ondorengo profil hauek onartzen ditu: Audio banaketa hobetua, urruneko audio/bideo kontrola, oinarrizko irudiak, oinarrizko inprimatzea, telefonozko sareratzea, fitxategien transferentzia, sarbide orokorra, esku libreak, aurikularrak, gizaki interfaze gailua, tokiko posizionamendua, objektuen karga, gida sarbidea, SIM sarbidea, serie ataka, bideo banaketa . Bluetooth teknologia onartzen duten beste gailu batzuekiko operatibitatea ziurtatzeko, modelo honetarako Nokia konpainiak onartutako osagarri homologatuak erabili behar dira bakarrik. Beste gailuen fabrikatzaileekin egiaztatu gailu horiek telefono honekin bateragarriak ote diren.

Bluetooth teknologia darabilten funtzioek bateria indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute.

## Bluetooth-aren bidez datuak bidali eta jaso

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**.

1. Bluetooth konexioa lehenengo aldiz irekitzean, zure telefonoari izen bat emateko eskatuko zaizu.

Eman izen berezi bat, Bluetooth gailu gehiago ondoan badaude erraztasunez ezagutzeko.

2. Aukeratu **Bluetootha** > **Aktibatu**.
3. Aukeratu **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi** edo **Aldia zehaztu**. **Aldia zehaztu** aukeratuz gero, besteentzako ikusgai zauden denbora zehaztu behar duzu. Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuen erabiltzaileek zure gailua eta idatzi duzun izena ikus dezakete.
4. Bidali nahi den elementua gordeta dagoen aplikazioa ireki.
5. Aukeratu elementua eta **Aukerak** > **Bidali** > **Bluetooth bidez**. Telefonoak bere eskumenean Bluetooth teknologia erabiltzen duten beste gailuak bilatzen eta zerrendatzen ditu.

   **Aholkua:** Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, aukeratu **Gailu gehiago**.
6. Zein gailutara konektatu nahi duzun aukeratu. Datuak transferitu aurretik beste gailua uztartu behar bada, pasahitza eskatuko zaizu.

Konektatutakoan, **Datuak bidaltzen** agertzen da.

Mezularitza aplikazioko Bidalitakoak karpetak ez ditu Bluetooth konexioaren bidez bidalitako mezuak gordetzen.

Bluetooth konexioaren bidez datuak jasotzeko, aukeratu **Bluetootha** > **Aktibatu** eta **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Guztiei erakutsi** uztartu gabeko gailu batetik datuak jasotzeko edo **Ezkutatuta** uztarttutako gailuetatik bakarrik datuak jasotzeko. Datuak Bluetooth konexioaren bidez jasotzen dituzunean, profil aktiboaren ezarpenen arabera, tonu bat entzungo duzu eta datuak dauden mezua onartu nahi duzun galdetuko zaizu. Onartuz gero, mezua Mezularitzako aplikazioaren Sarrerako ontziaren karpetan gordeko da.

**Aholkua:** Telefonoko edo memoria-txarteleko fitxategietan sar zaitezke File Transfer Profile Client zerbitzua onartzen duen eta bateragarria den osagarri bat erabiliz (adibidez, ordenagailu eramangarri bat).

Bluetooth konexioa automatikoki deskonektatzen da datuak bidali edo jaso ondoren. Nokia PC Suite eta aurikularrak bezalako osagarriak bakarrik konexioa manten dezakete nahiz eta aktibo ez egon.

# Gailuak uztartu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**.

Ireki uztartutako gailuen fitxa.

Uztartu aurretik, erabaki zein izango den zure pasahitza (1-16 digitu) eta jarri ados beste gailuaren erabiltzailearekin kode bera erabiltzeko. Erabiltzailearen interfazea ez duten gailuek, pasahitz finkoa dute. Gailuak lehen aldiz konektatzean bakarrik beharko duzu pasahitza. Bikoteak egin ondoren, konexioa baimendu ahal izango duzu. Uztartzeak eta konexioa baimentzeak konexioa azkartzen eta errazten du, konexioa egiten duzun bakoitzean ez duzulako baimendu beharko.

SIMera urrutitik sartzeko pasahitzak 16 digitu izan beharko ditu.

1. Aukeratu **Aukerak** > **Gailu berria uztartu**. Gailuak inguruan bilatuko ditu Bluetooth gailuak. Aurrez Bluetooth konexioa erabiliz datuak bidali badituzu, aurreko emaitzen zerrenda agertuko zaizu. Bluetooth gailu gehiago bilatzeko, aukeratu **Gailu gehiago**.
2. Aukeratu konektatu nahi duzun gailua eta idatzi pasahitza. Beste gailuan pasahitz bera adierazi behar da.
3. Aukeratu **Bai** bi gailuak automatikoki konektatzeko edo **Ez** aldiro konexioa eskuz egin nahi baduzu. Bikotea sortu ondoren, beste gailua bikoteen orrira gehituko da.

Bikoteari ezizen bat emateko, aukeratu **Aukerak** > **Esleitu izen laburra**. Ezizena zure gailuan besterik ez da ikusiko.

Uztartze bat ezabatzeko, aukeratu ezabatu nahi duzun gailuaren uztartzea eta **Aukerak** > **Ezabatu**. Uztartze guztiak ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak**. Gailu batekin konektaturik bazaude eta gailu honekin uztartzea bertan behera uzten baduzu, uztartzea amaituko da eta konexioa etengo da.

Uztartutako gailu bati zure telefonora automatikoki konektatzen uzteko, aukeratu **Baimendutzat ezarri**. Zure gailuaren eta bestearen arteko konexioak zure ezagutzarik gabe egin daitezke. Ez da behar bakoitzaren onarpenik edo baimenik. Erabili aukera hori zure gailuekin, adibidez, aurikular edo ordenagailu bateragarriekin edo fidagarria den norbaiten gailuekin Beste gailuen konexio eskaerak aldiro onartu badituzu, aukeratu **Baimnd. gabetzat ezarri**.

Bluetooth bidezko audio osagarri bat erabiltzeko, adibidez Bluetooth eskulibrekoa edo aurikularrak, zure telefonoa eta osagarria uztartu behar dituzu. Pasahitza eta argibide gehiagorako, ikusi osagarrien erabiltzailearen gida. Audio osagarria konektatzeko, piztu osagarria. Zenbait audio osagarri automatikoki konektatzen dira. Bestela, ireki uztartutako gailuen fitxa, osagarria aukeratu eta **Aukerak** > **Konektatu audio gailura**.

# Gailuak blokeatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**.

Gailu batek zure telefonoarekin Bluetooth konexio bat ezartzea galarazteko, ireki uztartutako gailuen fitxa. Aukeratu blokeatu nahi duzun gailua eta **Aukerak** > **Blokeatu**.

Gailu bat desblokeatzeko, ireki blokeatutako gailuaren fitxa eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**. Blokeatutako gailu guztiak desblokeatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu guztiak**.

Partekatze eskaera bat ukatzen baduzu, etorkizunean gailu honek egindako konexio eskaerak blokeatu nahi dituzun galdetuko zaizu. Eskaera onartzen baduzu, urruneko gailua blokeatutako gailuen zerrendara gehituko da.

# Segurtasun gomendioak

Bluetooth konexioa erabiltzen ez duzunean, aukeratu **Bluetootha** > **Desaktibatu** edo **Nire telef. ikusgaitasuna** > **Ezkutatuta**.

Ez uztartu ezezaguna den gailu batekin.

# SIM sarbide profila

SIM sarbide profilarekin, gailuaren SIM txartelera sar zaitezke bateragarria den auto kit gailu batekin. Honela, ez duzu SIM txartel ezberdinak behar SIM txartel datuak erabiltzeko eta GSM sarera konektatzeko.

SIM sarbide profila erabiltzeko, hurrengoa behar duzu:

- Bateragarria den eta Bluetooth haririk gabeko teknologia onartzen duen kotxe kit bateragarria
- Baliozkoa den SIM txartel bat gailuan

Haririk gabeko telefonoa urruneko SIM moduan egonez gero, osagarri bateragarri bat bakarrik, autorako gailua esate baterako, erabil dezakezu deiak egin edo jasotzeko.

Modu horretan dagoen bitartean, telefonoak ezin izango du deirik egin, programatutako larrialdiko zenbakietara izan ezik.

Zure telefonotik deirik egiteko, urruneko SIM modutik atera behar duzu lehendabizi. Telefonoa blokeatuta egonez gero, blokeatzeko kodea sartu behar da lehendabizi.

Kotxe kit gailuei eta zure gailuarekiko bateragarritasunari buruzko informazio gehiagorako, Nokia web gunea eta zure kotxe kitaren erabiltzailearen gida ikusi.



## SIM sarbide profila erabili

1. Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha** eta **Urrutiko SIM modua** > **Aktibatu**.
2. Bluetooth konektibitatea kotxe kitan aktibatu
3. Kotxe kita erabili bateragarriak diren beste gailuak bilatzeko. Argibideetarako, kotxe kitaren erabiltzailearen gida ikusi
4. Bateragarriak diren gailuen zerrendatik zurea aukeratu.
5. Gailuak parekatzeko, kotxe kitaren pantailan agertzen den Bluetooth pasahitza sartu zure gailuan.

**Aholkua:** Kotxe kitetik profil aktiboarekin SIM txartelera sartu bazara, kotxe kita automatikoki SIM txartela duen gailu bat bilatzen du. Zure gailua aurkitzen du eta autorizazio automatikoa aktibatzen da, kotxe kita automatikoki GSM sarera konektatzen da kotxea abiarazten duzunean.

Urruneko SIM sarbide profila aktibatzen duzunean, gailuan sarea edo SIMa behar ez duten aplikazioak erabili ditzakezu.

Kotxe kita eta zure gailuaren arteko konexioak egiteko banakako onartze edo baimenik gabe, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha**, eta parekatutako gailuen etiketa ireki. Aukeratu kotxe kita eta **Baimendutzat ezarri**, eta erantzun **Bai** konfirmazio eskaerari. Kotxe kita ez badu baimenik eman, konexio eskaerak banaka onartu behar dira beti.

Urruneko SIM sarbide konexioa zure gailutik amaitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha** eta **Urrutiko SIM modua** > **Desaktibatu**.

# Hari gabeko LAN

Gailuak tokiko hari gabeko sare bat (WLAN) detekta dezake eta hari konektatu. LAN bat erabiltzeko, kokalekuan sare eskuragarri bat egon behar da eta gailua hari konektatuta egon behar da.

## WLANi buruz

LAN (WLAN) bat erabiltzeko, kokalekuan sare eskuragarri bat egon behar du eta gailua WLAN horri konektatuta egon behar du. WLAN batzuk babestuta daude eta zerbitzu hornitzaileak emandako sarbide gako bat beharko duzu haietara konektatzeko.

**Oharra:** Frantzian, WLAN sareak barruko tokietan baino ezin dira erabili.

WLAN erabiltzen duten funtzioek edo, beste funtzio batzuk erabiltzen diren bitartean, hondoan erabiltzeko aukera ematen dutenek, bateria kontsumoa handitzen dute eta bateriaren iraupena murrizten dute.

Zure gailuak honako WLAN funtzioak onartzen ditu:

- IEEE 802.11b/g estandarra
- 2.4 GHz-ko eragiketa
- Kableatuaren pareko pribatutasuna (WEP), Wi-Fiz babestutako sarbidea (WPA/WPA2) eta 802.1x autentifikazio metodoak. Sareak onartzen baditu soilik erabil daitezke funtzio horiek.

**Garrantzitsua:** Zure haririk gabeko LAN konexioaren segurtasuna hobetzeko, kodeketa-metodoren bat gaitu beti. Kodeketa-metodoren bat erabiltzeak inor zure datuetan baimenik gabe sartzeko arriskua murrizten du.

## WLAN konexioak

WLAN bat erabiltzeko, Internet sarbide puntu bat sortu behar duzu WLAN batean. Erabili sarbide puntua Internet konexioa behar duten aplikazioen kasuan. WLAN konexio bat ezartzen da WLAN sarbide puntu bat erabiliz data konexio bat sortzen duzunean. Data konexioa amaitzen duzunean, WLAN konexioa itxiko da. Konexioa eskuz ere itxi dezakezu.

WLAN bat dei bat egiten zaudenean edo pakete datu konexioa aktibo dagoenean erabil dezakezu. WLAN sarbide puntu gailu batera baino ezin zara konektatu aldi bakoitzean, baina aplikazio ezberdinek Internet sarbide puntu bera erabil dezakete.

Gailua Konexirik gabeko profilean dagoenean ere WLAN bat erabil dezakezu, eskuragarri badago. Ziurtatu segurtasun baldintza guztiak betetzen dituzula WLAN konexio bat ezartzean eta erabiltzean.

WLAN baten barruan eta WLAN sarbide puntu baten eremutik kanpo gailua mugitzean, roaming funtzioak gailua WLAN berari dagokion beste sarbide puntu bati automatikoki konekta diezaioke. Sare berari dagozkion sarbide eremuaren barruan zauden bitartean, gailua sareari konektatuta egon daiteke.

**Aholkua:** Gailua identifikatzen duen media sarbide kontrola (MAC) ikusteko, adibidez gailuaren MAC helbidea WLAN router batean konfiguratzeko, idatzi *#62209526# hasiera pantailan. MAC helbidea agertuko da.

# WLAN eskuragarritasuna ikusi

Telefonoa hari gabeko LAN (WLAN) eskuragarritasuna erakuts dezan ezartzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Hari gab. LANa** > **WLAN eskurag. erakutsi**.

WLAN bat eskuragarri badago, agertuko da.

# WLAN morroia

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **WLAN lagun.**.

WLAN morroiak hari gabeko LAN bat aurkitzen eta hari konektatzen lagunduko dizu. Aplikazioa irekitzean, gailuak WLAN eskuragarriak bilatuko ditu eta haiek zerrenda batean agertuko dira.

Hautatu **Aukerak** eta hauetariko bat:

- **Freskatu** — Eguneratu WLAN eskuragarrien zerrenda.
- **WLAN sareak filtratu** — Iragazi WLAN sareak aurkitutako sareen zerrendan. Hautatutako sareak aplikazioak WLAN sareak bilatzen dituen hurrengoan iragaziko dira.
- **Hasi nabigatzen** — Hasi internet nabigatzen WLAN sarearen sarbide puntua erabiliz.
- **Jarraitu nabigatzen** — Jarraitu interneten nabigatzen une honetan aktibo dagoen WLAN konexioa erabiliz.
- **WLAN deskonektatu** — Deskonektatu WLAN konexio aktiboa.
- **Xehetasunak** — Ikusi WLAN sarearen xehetasunak.

**Garrantzitsua:** Zure haririk gabeko LAN konexioaren segurtasuna hobetzeko, kodeketa-metodoren bat gaitu beti. Kodeketa-metodoren bat erabiltzeak inor zure datuetan baimenik gabe sartzeko arriskua murrizten du.

## Erabili WLAN morroia hasiera pantailan

Hasiera pantailan, WLAN morroiak zure WLAN konexioen eta sare bilaketen egoera adieraziko du. Aukera eskuragarriak ikusteko, hautatu egoera adierazten duen lerroa. Egoeraren arabera, WLAN konexio bat erabiliz web arakatzailea ireki dezakezu, sare dei zerbitzua konekta dezakezu, WLAN bat deskonekta dezakezu, WLAN sareak bila ditzakezu, edota sare bilaketa gaitu edo desgaitu dezakezu.

WLAN bilaketa desgaituta badago, ezin izango duzu WLAN sarerik konektatu eta hasiera pantailan **WLAN bilatzailea itzalita** agertuko da. WLAN bilaketa pizteko eta WLAN eskuragarriak bilatzeko, hautatu egoera adierazten duen lerroa.

WLAN eskuragarriak bilatzen hasteko, hautatu egoera adierazten duen lerroa eta **WLANen bila**.

WLAN bilaketa desgaitzeko, hautatu egoera adierazten duen lerroa eta **WLAN bilatzailea itzali**.

**Hasi nabigatzen** edo **Honetarako erabilia** hautatzean, WLAN morroiak automatikoki nahi duzun

WLAN sarearentzako sarbide puntu bat sortuko du. Halaber, sarbide puntua WLAN konexioa behar duten bestelako aplikazioekin erabil dezakezu.

WLAN babestu bat hautatuz gero, beharrezko kodeak eskatuko zaizkizu. Sare ezkutatu bati konektatzeko, zerbitzu multzoen adierazle (SSID) zuzena idatzi beharko duzu.

Aurkitutako WLAN sarea sare dei konexio batean erabiltzeko, hautatu egoera adierazten duen lerroa, **Honetarako erabilia**, nahi duzun sare dei zerbitzua eta erabili beharreko WLAN sarea.

# Konexioaren kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Konex. kud.**.

## Konexio aktiboak ikusi eta eten

Irekitako datu konexio guztiak ikusteko, aukeratu **Datu-konexio aktiboak**.

Sare konexioei buruzko informazio xehatua ikusteko, aukeratu zerrendatik konexio bat eta **Aukerak** > **Xehetasunak**. Agertzen den informazioa konexio motaren araberakoa da.

Aukeratutako sare konexioa eteteko, aukeratu **Aukerak** > **Deskonektatu**.

Sare konexio guztiak aldi berean eteteko, aukeratu **Aukerak** > **Dena deskonektatu**.

## WLAN bilatu

Barrutian eskuragarri dagoen WLANak bilatzeko, aukeratu **WLAN sare eskuragarriak**. Eskuragarri dauden WLANak hurrengo informazioa erakusten dute zerrendan: haien sare modua (azpiegitura edo ad-hoc), seinale indarra eta sare kodeketa adierazleak eta sarearekiko konexio aktiboak.

Sare baten xehetasunak ikusteko, mugitu bertara eta sakatu gurpila.

Sare baten Interneterako sargunea sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **Zehaztu sarbidea**.

# Segurtasuna eta datu kudeaketa

Gailuan gatuak eta softwarea kudeatu eta gailuaren eta honen edukien segurtasuna mantendu.

**Garrantzitsua:** Zure telefonoak birusen aurkako aplikazio bakarra onartzen du. Birusen aurkako aplikazio bat baino gehiago instalatuz gero, telefonoaren jarduna kaltetu liteke, eta telefonoak funtzionatzeari utz liezaioke.

## Gailua blokeatzea

Blokeo gakoak zure gailua zure baimenik gabe erabiltzea eragozten du. Gako lehenetsia 12345 da.

Gailua blokeatzeko, hasiera pantailan, sakatu pizteko tekla eta hautatu **Blokeatu telefonoa**.

Gailua desblokeatzeko, hautatu **Desblok.**, sartu blokeo gakoa eta hautatu **Ados**.

Blokeo gakoa aldatzeko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.**. Sartu aurreko gakoa eta ondoren sartu berria bi aldiz. Gako berriak 4-255 karaktere izan ditzake. Karaktereak zein digituak erabil daitezke eta maiuskulak eta minuskulak ere bai.

Gorde blokeo gako berria leku seguru batean eta gailutik urrun.

Blokeo gakoa galduz gero, gailua Nokiaren baimendutako zerbitzu gune batera eraman beharko duzu. Gailua desblokeatzeko, softwarea berriz kargatu behar da eta baliteke gailuan gordetako datuak galtzea.

Gailua urrutiko kokapen batetik blokea dezakezu ere bai, gailuari testu-mezu bat bidaliz. Urrutiko blokeoa gaitzeko, eta mezuaren testua zehazteko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Telefonoa eta SIM txart.** > **Urruneko tel.-blokeoa** > **Gaituta**. Idatzi urrutiko blokeoraen mezua eta berretsi mezua. Mezuak gutxienez 5 karaktere izan behar du.

## Memoria-txartela segurtasuna

Aukeratu **Menua** > **Bulegoa** > **Fitxat.-kud.**.

Memoria-txartela pasahitz batekin babestu dezakezu baimenik gabeko sarrera saihesteko. Pasahitza ezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memor.-txart. pasahitza** > **Ezarri**. Pasahitzak 8 karaktere izan ditzake gehienez eta letra larriak eta xeheak desberdintzen ditu. Pasahitza gailuan gordetzen da. Memoria-txartela gailu beran erabiltzen duzun bitartean ez duzu pasahitza berri sartu behar. Memoria-txartela beste gailu batean erabiltzen baduzu, pasahitza eskatuko zaizu. Memoria-txartel guztiek ez dute pasahitza babesa onartzen.

Memoria-txartelaren pasahitza kentzeko, aukeratu **Aukerak** > **Memor.-txart. pasahitza** > **Ezabatu**. Pasahitza kentzen duzunean, memoria-txarteleko datuak ez daude baimenik gabeko sarreratik babestuak.

Blokeatutako memoria-txartel bat irekitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Desblok. mem.-txartela**. Pasahitza idatzi.

Blokeatuta dagoen memoria desblokeatzeko pasahitza ez baduzu gogoratzen, baliteke txartela formateatu behar izatea, honela bada txartela desblokeatzen da eta pasahitza kentzen da. Memoria-txartela formateatuz gero, bertan gordetako datu guztiak ezabatuko dira.

# Enkriptazioa

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Enkript.**.

Enkriptatu telefonoa edo memoria-txartela eta saihestu ezezagunek informazio garrantzitsua lortzea.

## Enkriptatu telefonoaren memoria edo memoria-txartela

Telefonoaren memoria enkriptatzeko, aukeratu **Telefonoaren memoria**.

Memoria-txartela enkriptatzeko, aukeratu **Memoria txartela** eta hurrengoetatik:

- **Enkr. gakoa gorde gabe** — Enkriptatu memoria-txartela enkriptazio kodea gorde gabe. Aukera hau aukeratuz gero, ezingo duzu memoria-txartela beste telefonoetan erabili, eta fabrikazio ezarpenak berreskuratzen badituzu, ezingo duzu memoria-txartela desenkriptatu.
- **Enkrip. eta gorde gakoa** — Enkriptatu memoria-txartela eta gorde kodea eskuz karpeta lehenetsian. Segurtasunerako, gorde kodea leku seguru batean telefonotik kanpo. Adibidez, kodea ordenagailura bidal dezakezu. Idatzi kodearentzako pasahitza era kodearen fitxategiarentzako izen bat. Pasahitzak luzea eta konplexua izan behar du.
- **Enkr. gakoa berrez. gabe** — Enkriptatu memoria-txartela jaso duzun kode batekin. Aukeratu kodeen fitxategia eta idatzi pasahitza.

## Desenkriptatu telefonoaren memoria edo memoria-txartela

Gogoratu softwarea eguneratu aurretik beti telefonoaren memoria eta memoria-txartela desenkriptatu behar dituzula.

Telefonoaren memoria desenkriptatzeko, aukeratu **Telefonoaren memoria**.

Enkriptatze kodea hondatu gabe memoria-txartela desenkriptatzeko, aukeratu **Memoria txartela** > **Desenkriptatu**.

Enkriptatze kodea hondatuz memoria-txartela desenkriptatzeko, aukeratu **Memoria txartela** > **Desen. eta desak. enkript.**.

# Markatze finkoa

Hautatu **Menua** > **Kontaktuak** eta **Aukerak** > **SIM zenbakiak** > **Markak. finkoko kont.**.

Markatze finkoaren bidez, zure telefonotik zenbait telefono muga ditzakezu. Baliteke SIM txartel guztiek markaketa finkoko zerbitzua ez jasatea. Informazio gehiagorako jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Deiak murrizten dituzten segurtasun-aukerak gaituta egonda ere (deiak blokeatzea, erabiltzaile talde itxia eta markatze finkoa, adibidez), telefonoan programatutako larrialdiko zenbaki ofizialera deitzea dago.

Markatze finkoa aktibatu edo desaktibatzeko eta kontaktuak editatzeko PIN2 kodea beharko duzu. Zure PIN2 kodea lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu hornitzailearekin.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Aktibatu mark. finkoa** — Aktibatu markatze finkoa.
- **Desakt. markatze finkoa** — Desaktibatu markatze finkoa.
- **SIM kontaktu berria** — Idatzi Deiak baimenduta dituen kontaktuaren izena eta telefono zenbakia.
- **Kontaktuetatik hartu** — Kopiatu kontaktu bat kontaktuen zerrendatik markatze finkoaren zerrendara.

Markatze finkoa aktibatuta duzula, SIM kontaktuei mezuak bidaltzeko, markatze finkoko zerrendan mezularitza zentroaren zenbakia gehitu behar duzu.

# Ziurtagiri kudeatzailea

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Ziurtagirien kudeaketa**.

Ziurtagiri digitalak softwarearen iturria egiaztatzeko erabiltzen dira baina ez dute segurtasuna bermatzen. Lau ziurtagiri mota ezberdin daude: autoritate ziurtagiriak, ziurtagiri pertsonalak, gune fidagarrien ziurtagiriak eta gailu ziurtagiriak. Konexio seguru batean zehar, zerbitzari batek zerbitzari ziurtagiri bat bidali lezake telefonora. Jasotakoan, telefonoan gordeta dagoen autoritate ziurtagiriak egiaztatuko du. Zerbitzariaren identitatea egiazkoa ez dela edo zure telefonoan ziurtagiri egokia ez duzula jakinaraziko zaizu.

Webgune batetik ziurtagiri bat deskargatu edo ziurtagiria mezu gisa jaso dezakezu. Ziurtagiriak sareko banku batekin edo urruneko zerbitzari batekin konektatzen zarenean informazio konfidentziala transferitzeko erabili behar dira. Halaber, birus edo beste software kaltegarrien arriskua murrizteko eta gailuan deskargatutako eta instalatutako softwarearen egiazkotasuna ziurtatzeko ere erabiliko dira.

**Aholkua:** ziurtagiri berri bat gehitzen duzunean, ziurtatu honen egiazkotasunaz.

# Ziurtagiriaren xehetasunak ikustea

Zerbitzari baten nortasuna zuzena dela frogatzeko, zerbitzariaren ziurtagiriaren sinadura eta baliotasun epea begiratu behar dira.

Ziurtagiriaren xehetasunak ikusteko, ireki ziurtagiri karpeta bat, eta hautatu ziurtagiri bat eta **Aukerak** > **Ziurtagiriaren xehetas.**.

Hurrengo oharretariko bat ager daiteke:

- **Ziurtagiria ez da fidagarria** — Ez duzu ziurtagiria erabiltzeko aplikaziorik ezarri. Baliteke fidagarritasun ezarpenak aldatu nahi izatea.
- **Ziurtagiria iraungita** — Hautatutako ziurtagiriaren baliotasun epea iraungi da.
- **Ziurtagiriak oraindik ez du balio** — Hautatutako ziurtagiriaren baliotasun epea ez da oraindik hasi.
- **Ziurtagiri hondatuta** — Ezin da ziurtagiria erabili. Jarri harremanetan ziurtagiriaren igorlearekin.

# Ziurtagiri fidagarrien ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Ziurtagirien kudeaketa**.

Ziurtagiria segurua izateak web orriak, posta elektronikoko zerbitzariak, programa-paketeak eta bestelako datuak egiaztatzeko baimena ematen duzula adierazten du. Ziurtagiri fidagarriak soilik erabil daitezke zerbitzuak eta softwarea egiaztatzeko.

**Garrantzitsua:** Ziurtagiriak erabiltzeak urrutiko konexioa eta software instalazioarekin lotuta egon daitezkeen arriskuak ia nabarmen gutxitzen dituen arren, ziurtagiri horiek zuzentasunez erabili behar dira segurtasun gehigarri hori benetan aprobetxatu ahal izateko. Ziurtagiri bat izateak soilik, berez, ez du eskaintzen inolako babes motarik. Ziurtagirien administratzaileak ziurtagiri zuzenak, egiazkoak edo fidagarriak eduki behar ditu ziurtasun gehigarria erabilgarria izan dadin. Ziurtagiriek bizi iraupen mugatua izaten dute. "Ziurtagiri iraungia" edo "Ziurtagiri onartezina" oharrak agertzen badira, ziurtagiriak onargarria izan behar lukeen arren, egiazta ezazu telefonoko data eta ordua zuzenak direla.

Ziurtagiriaren ezarpen datutik aldatu baino lehen, ziurtagiriaren jabea konfidantzazkoa dela eta ziurtagiria benetan zerrendan dagoen jabearena dela egiazta ezazu.

Ziurtagiri fidagarrien ezarpenak aldatzeko, aukeratu ziurtagiria eta **Aukerak** > **Segurtasun ezarpenak**. Zoaz aplikazio eremu batera eta sakatu gurpila **Bai** edo **Ez** aukeratzeko. Ezin dituzu ziurtagiri pertsonal baten fidagarritasun ezarpenak aldatu.

Ziurtagiriaren arabera, ziurtagiria erabil dezaketen aplikazioen zerrenda bat erakusten da:

- **Symbian instalazioa** — Symbian sistema eragilerako aplikazio berria.
- **Internet** — Posta elektronikoa eta grafikoak.
- **Aplikazio instalazioa** — Java™ aplikazio berria.
- **Ziurtag. sareko egiazt.** — Lineako ziurtagiri egoeraren protokoloa.

# Segurtasun moduluak ikusi eta editatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna** > **Segurtasun-modulua**.

Segurtasun modulu bat ikusi edo editatzeko, zerrendatik modulu bat aukeratu.

Segurtasun modulu baten xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Segurtasun-xehetas.**.

Segurtasun moduluaren PIN kodeak editatzeko, ireki modulua eta aukeratu **Modulu PINa** moduluaren PIN kodea editatzeko edo **Sinadura PINa** sinadura digitalen PIN kodea editatzeko. Segurtasun modulu guztientzat kode hauek aldatzea ezinezko gerta dakizuke.

Gako biltegian segurtasun moduluaren edukiak daude. Kodeen biltegia ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**. Segurtasun modulu guztien gako biltegiak ezabatzea ezinezko gerta dakizuke.

# Urruneko konfigurazioa

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Gailu-kudtzl.**.

Gailu-kudeatzailea erabiliz, urrunetik gailuaren ezarpenak, datuak eta softwarea kudea ditzakezu.



Zerbitzari batera konekta zaitezke eta gailuaren konfigurazio-ezarpenak jaso. Baliteke zerbitzu hornitzaileek edo enpresaren informazioaren kudeaketa sailak zerbitzari profil eta konfigurazio ezarpen ezberdinak bidaltzea. Konfigurazio ezarpenak gailuaren aplikazio ezberdinek erabilitako konexio ezarpenak eta bestelakoak izan daitezke. Aukera eskuragarriak desberdinak izan daitezke.

Urruneko konfigurazioaren konexioa normalean zerbitzariak burutzen du gailuaren ezarpenak eguneratu behar direnean.

Zerbitzari profil berri bat sortzeko, hautatu **Aukerak** > **Zerbitzari-profilak** > **Aukerak** > **Zerbitzari-profil berria**.

Baliteke zure zerbitzu hornitzaileak ezarpen hauek konfigurazio-mezu baten bidez bidaltzea. Hala ez bada, definitu hurrengo hau:

- **Zerbitzariaren izena** — Idatzi izen bat konfigurazio zerbitzariarentzat.
- **Zerbitzariaren IDa** — Idatzi konfigurazio zerbitzaria identifikatzeko IDa.
- **Zerbitzariaren pasahitza** — Idatzi zure gailua zerbitzarian identifikatzeko pasahitza.
- **Saio-modua** — Hautatu nahiago duzun konexio mota.
- **Sarbidea** — Hautatu konexioan erabiltzeko sarbide puntua, edo sortu sarbide puntu berri bat. Nahiez gero, sarbide puntua galdetuko zaizu konexio bat hasten duzun bakoitzean. Ezarpen hau ezkuragarri dago euskarri mota gisa **Internet** hautatuz gero soilik.
- **Ostalariaren helbidea** — Idatzi konfigurazio zerbitzariaren helbide elektronikoa.

- **Ataka** — Idatzi zerbitzariaren ataka zenbakia.
- **Erabiltzailearen izena** eta . **Pasahitza** — Idatzi zure IDa eta pasahitza konfigurazio zerbitzarian.
- **Baimendu konfigurazioa** — Hautatu **Bai** zerbitzariak konfigurazio saio bat has dezan.
- **Onartu auto. esk. denak** — Hautatu **Bai** konfigurazio saio hastean, zerbitzariak berrespena eskatzea nahi ez baduzu.
- **Sare-autentifikazioa** — Hautatu http autentikazioa erabili nahi duzun.
- **Sare-erabiltzailearen iz.** eta . **Sare-pasahitza** — Idatzi zure IDa eta pasahitza http autentikazioarentzat. Ezarpen hau ezkuragarri dago **Sare-autentifikazioa** hautatuz gero soilik.

Zerbitzariari konektatzeko eta gailuaren konfigurazio ezarpenak jasotzeko, hautatu **Aukerak** > **Konfigurazioa hasi**.

Hautatutako profilaren konfigurazio erregistroa ikusteko, hautatu **Aukerak** > **Erregistroa ikusi**.

Gailua airean eguneratzeko, hautatu **Aukerak** > **Eguneratzeak bilatu**. Eguneratzeak ez ditu zure ezarpenak ezabatuko. Gailuan eguneratze paketea jasotzean, jarraitu pantailako argibideak. Instalazioa bukatzean, gailua berrabiaraziko da. Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana. Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

**Abisua:** Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da gailua erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa bukatu eta gailua berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu baino lehen.

# Aplikazio kudeatzailea

Aplikazio kudeatzailearekin, telefonoan instalatuta dauzkazun software paketeak ikusi ahal izango dituzu. Instalatutako aplikazioen xehetasunak ikusi, aplikazioak ezabatu eta instalazioaren ezarpenak zehaztu ahal izango dituzu.

Telefonoan bi motatako aplikazioak eta softwareak instala ditzakezu:

- .jad edo .jar luzapena duten Java teknologian oinarritutako J2ME aplikazioak.
- .sis edo .sisx luzapena duten eta Symbian sistema operatiboarekin bateragarriak diren beste aplikazioak.

Instalatu zure gailuarekin bateragarria den softwarea soilik.

## Aplikazioak instalatu

Instalazio fitxategiak telefonora bidal ditzakezu, ordenagailu bateragarri batetatik, arakatzen ari zarenean deskarga ditzakezu, multimedia mezu gisa jaso, mezu elektroniko batean eranskin gisa jaso, baita

bestelako konektibitate metodoak erabilita lortu ere, adibidez, Bluetooth bidez. Nokia Application Installer erabil dezakezu Nokia PC Suite programarekin telefonoan aplikazio bat instalatzeko.

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Aplik. kudtz.**.

Aplikazio kudeatzailearen aplikazioek ondorengoak adierazten dituzte:

SIS edo SISX aplikazioa

Java aplikazioa

widgetak

**Garrantzitsua:** Seguruak diren iturrietako aplikazio eta softwareak soilik instalatu eta erabili. Symbian Signed sinadura duten aplikazioak edo Java Verified™ proba gainditu dutenak, adibidez.

Instalatu aurretik, ondorengoak kontutan izan:

- Aplikazio mota, bertsio zenbakia eta hornitzaile edo egilea jakiteko, **Aukerak** > **Xehetasunak ikusi** aukeratu.

  Aplikazioaren segurtasun ziurtagirien xehetasunak ikusteko, Xehetasunak: atalean, zoaz Ziurtagiriak: aukerara eta aukeratu **Xehetasunak ikusi**.

- Dagoeneko instalatuta dagoen aplikazio baten eguneratze edo konponketa fitxategi bat instalatzen baduzu, jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, jatorrizko fitxategia edo ezabatutako software paketearen babeskopia izan beharko duzu. Jatorrizko aplikazioa berreskuratzeko, aplikazioa ezabatu eta aplikazioa berriro instalatu, jatorrizko instalazio fitxategia edo babeskopia erabilita.

  JAR fitxategia beharrezkoa da Java aplikazioak instalatzeko. Hau falta bada, baliteke gailuak deskargatzeko eskatzea. Aplikazioarentzako ez bada sargunerik zehaztu, bat aukeratzeko eskatuko zaizu. JAR fitxategia deskargatzean, baliteke erabiltzaile-izena eta pasahitza behar izatea zerbitzarian sartzeko. Hauek aplikazioaren hornitzaile edo fabrikatzaileak emango dizkizu.

Software edo aplikazio bat instalatzeko:

1. Instalazio fitxategi bat aurkitzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Aplik. kudtz.**. Bestela, fitxategi kudeatzailean instalazio fitxategiak bilatu edo **Mezularitza** > **Sarrera ontzia** karpetan instalazio fitxategia duen mezua ireki.
2. Aplikazio kudeatzailean, **Aukerak** > **Instalatu** aukeratu. Beste aplikazioetan, instalazioa abiatzeko, instalazio fitxategia aukeratu.

   Instalazioan zehar, telefonoak instalazio prozesuaren berri emango dizu. Sinadura edo ziurtagiri digitalik ez duen aplikazio bat instalatzen baduzu, telefonoak ohar bat erakutsiko dizu. Instalazioarekin jarraitu, aplikazioaren jatorria eta edukia seguruak direla dakizunean soilik.

Instalatutako aplikazio bat abiarazteko, kokatu aplikazioa menuan eta aukeratu ezazu.

**Aukerak** > **Erregistroa ikusi** aukerara joan instalatu edo ezabatu diren softwareak eta instalazio edo ezabatze datak ikusteko.

**Garrantzitsua:** Zure telefonoak birusen aurkako aplikazio bakarra onartzen du. Birusen aurkako aplikazio bat baino gehiago instalatuz gero, telefonoaren jarduna kaltetu liteke, eta telefonoak funtzionatzeari utz liezaioke.

Memoria-txartel bateragarri batean aplikazioak instalatu eta gero, instalazio-fitxategiak (.sis, .sisx) telefonoaren memorian geratzen dira. Fitxategiek memoria handia har dezakete, beste fitxategi batzuk gordetzea eragotziz. Behar adina memoria izateko, erabili Nokia PC Suite instalazio fitxategien babeskopia PC bateragarri batean gordetzeko eta ezabatu fitxaegiok telefonotik fitxategi kudeatzailea erabiliz. .sis fitxategia mezu baten eranskina bada, ezabatu mezua postontziko Mezularitza postontzitik.

## Aplikazioak eta softwarea ezabatu

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Aplik. kudtz.**.

Joan software-paketera eta hautatu **Aukerak** > **Desinstalatu**. Baieztatzeko, hautatu **Bai**.

Softwarea ezabatzen baduzu eta gero berriro instalatu nahi baduzu, jatorrizko instalazio fitxategia edo software paketearen babeskopia oso bat beharko duzu. Software pakete bat ezabatzen baduzu, ezin izango dituzu software horrekin sortutako dokumentuak ireki.

Software pakete baten bat ezabatu duzunaren menpe bazegoen, baliteke softwareak gehiago ez funtzionatzea. Informazio gehiagorako, irakurri instalatutako software-paketearen dokumentazioa.

## Aplikazio kudeatzailearen ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Aplik. kudtz.**.

Hautatu **Aukerak** > **Ezarpenak** eta hauetariko bat:

- **Softwarea instalatzea** — Egiaztatutako sinadura digitala ez duen Symbian softwarea instala daitekeen aukeratu.
- **Ziurtagir. sareko egiazt.** — Begiratu ziurtagiri elektronikoak aplikazioak instalatu baino lehen.
- **Lehenets. web helbidea** — Sareko ziurtagiriak egiaztatzerakoan erabiltzen den helbide lehenetsia ezarri.

Baliteke hainbat Java aplikazioen kasuan, mezu bat bidali behar izatea edo sarbide-puntu jakin bati sare-konexioa ezarri behar izatea datu gehiago edo osagaiak deskargatzeko.

# Software eguneraketak ordenagailua erabiliz

Software eguneraketak gailua erosterakoan eskuragarri ez zeuden hainbat funtzio eta funtzio hobetuak izan ditzake. Softwarea eguneratzeak gailuaren funtzionamendua hobetu dezake.

Nokia Software Updater gailuaren softwarea eguneratzea baimentzen duen ordenagailu aplikazio bat da. Telefonoaren softwarea eguneratzeko, ordenagailu bateragarri bat, banda zabaleko Interneta eta USB datu kable bateragarri bat telefonoa ordenagailura konektatzeko behar duzu.

Informazio gehiagorako, azken software bertsioak noiz atera diren ikusteko eta Nokia Software Updater aplikazioa deskargatzeko, ikus www.nokia.com/softwareupdate edo lekuko Nokia web orria.

Gailuaren softwarea eguneratzeko egin ondorengoa:

1. Nokia Software Updater aplikazioa deskargatu ordenagailuan.
2. Gailua ordenagailura konektatu USB datu kable bat erabiliz eta Nokia Software Updater aplikazioa abiatu. Nokia Software Updater aplikazioak fitxategien segurtasun kopia bat egiteko, softwarea eguneratzeko eta fitxategiak leheneratzen gidatzen zaitu.

# Sare bidezko software eguneratzeak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **SW-eguner.**.

Softwarearen eguneratzeekin (sareko zerbitzua), telefonoaren software edo aplikazioentzako eguneratze eskuragarriak dauden egiaztatu eta telefonora deskarga ditzakezu.

Software eguneratzeak deskargatzean datu kantitate handiak transferi daitezke zure zerbitzu hornitzailearen sarearen bidez. Datuak igortzeko tarifei buruzko informazioa jasotzeko, jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Eguneratzea hasi aurretik behar adina bateria duzula egiaztatu edo kargagailura konektatu.

**Abisua:** Softwarearen bertsio berriak instalatzerakoan, ezin da gailua erabili, ezta larrialdi deietarako ere, instalazioa bukatu eta gailua berrabiarazi arte. Egiaztatu datuen segurtasun kopiak egiten dituzula softwarea eguneratu baino lehen.

Telefonoaren softwarea edo aplikazioak Software update erabiliz eguneratu ondoren, baliteke eguneratutako aplikazioen argibideak erabiltzailearen gidan edo laguntzetan eguneratuta ez egotea.

Hautatu **Aukerak** eta hurrengoetatik:

- **Ekin eguneratzeari** — Deskargatu eskuragarri dauden eguneratzeak. Deskargatu nahi ez dituzun eguneratzeei marka kentzeko, hautatu eguneratzeak zerrendatik.
- **Eguner. ordenag. bidez** — Eguneratu telefonoa ordenagailu bat erabiliz.
- **Ikusi xehetasunak** — Ikusi eguneratze baten informazioa.
- **Ikusi eguneratz. historia** — Ikusi aurreko eguneratzeen egoera.
- **Ezarpenak** — Aldatu ezarpenak.
- **Ezespena** — Ikusi Nokia lizentzia-kontratua.

# Lizentziak

## Lizentziei buruz

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Lizentziak**.

Zenbait multimedia fitxategik, esaterako irudiak, musika edo bideoklipak, erabilera digitaleko legeekin babestuta daude. Fitxategi horien lizentziek erabilera baimendu edo muga dezakete. Adibidez, zenbait lizentziek abesti bat zenbat aldiz entzun daitekeen muga dezakete. Erreprodukzioan zehar birbobinatu, bizkor aurreratu edo abestia eten dezakezu baina gelditzen baduzu, baimendutako entzumen bat erabili duzu.

## Lizentziak erabili

Eskubide digitalen kudeaketak (DRM) babestutako edukiak, berari dagokion aktibazio-gako bat dauka edukia erabiltzeko zure eskubideak azalduz.

Telefonoak OMA DRM bidez babestutako edukia badu, aktibazio-gakoen eta edukiaren babeskopiak egiteko erabili Nokia PC Suiteko funtzioa. Beste transmisio metodo batzuek ez dute aktibazio-gakorik helarazten, baina hauek edukiarekin batera berrezarri behar dira telefonoaren memoria formateatu ondoren, OMA DRM bidez babestutako edukia erabiltzen jarraitu ahal izateko. Aktibazio-gakoa berrezartzea beharrezkoa izan daiteke zure gailuko fitxategiak hondatuz gero.

Zure gailuak WMDRM bidez babestutako edukia baldin badauka, aktibazio-gakoak eta edukia galduko dira gailuaren memoria formateatuz gero. Aktibazio-gakoak eta edukia gal ditzakezu zure gailuko fitxategiak hondatuz gero. Aktibazio-gakoak edo edukia galtzeak, zure gailuan berriz eduki bera erabiltzeko aukera muga dezake. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zenbait aktibazio-gako SIM txartel jakin bati lotuak egon daitezke, eta eduki babestua SIM hori telefonoan sartzen bada bakarrik ikusi ahal izango da.

Lizentziak motaren arabera ikusteko, aukeratu **Baliozko lizentz.**, **Baliogabeko liz.** edo **Erabili gabe**.

Kodeen xehetasunak ikusteko, aukeratu **Aukerak** > **Lizentziaren xehet.**.

Multimedia fitxategi bakoitzeko ondorengo xehetasunak agertzen dira:

- **Egoera** — Egoera **Lizentzia balioduna da**, **Lizentzia iraungi da** edo **Lizentzia baliogab. oraindik** da.
- **Edukiaren igorpena** — **Baimenduta** fitxategia beste telefono batera bidali dezakezula esan nahi du. **Ez dago baimenik** fitxategia beste telefono batera ezin dezakezula bidali esan nahi du.
- **Telefonoaren edukia** — **Bai** fitxategia telefonoan dagoela esan nahi du, eta fitxategiaren bidea agertzen da. **Ez** fitxategia telefonoan ez dagoela esan nahi du.

Kode bat aktibatzeko, lizentzien ikuspegi nagusian, aukeratu **Baliogabeko liz.** > **Aukerak** > **Lizentzia lortu**. Ezarri sare konexio bat mezua agertzean eta multimediarako eskubideak eros ditzakezun webgune batera eramango zaitu.

Fitxategien eskubideak ezabatzako, ireki Baliozko kodeen fitxa edo Erabiltzen ez diren kodeen fitxa, zoaz nahi duzun fitxategira eta aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**. Fitxategi baterako eskubide ezberdinak badaude, eskubide guztiak ezabatuko dira.

Taldeko kode ikuspegia talde eskubide batekin erlazionatutako fitxategi guztiak erakusten ditu. Eskubide berdinak dituzten hainbat multimedia fitxategi deskargatu badituzu, ikuspegi honetan guztiak agertuko dira. Talde ikuspegia Baliozko kodeak edo Kode baliogaben fitxetatik ireki dezakezu. Fitxategi hauetara joateko, ireki talde eskubideen karpeta.

# Sinkronizazioa

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Telefonoa** > **Sink.**.

Sinkronizazio aplikazioarekin oharrak, egutegi sarrerak, testu eta multimedia mezuak, arakatzailearen laster markak edo kontaktuak zenbait aplikazio bateragarrirekin sinkroniza daitezke ordenagailu bateragarri batean edo interneten.

Sinkronizazio ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen mezu bere batean jaso ditzakezu.

Sinkronizazio profil batek sinkronizaziorako beharrezkoak diren ezarpenak ditu.

Aplikazioa irekitzen duzunean, profil lehenetsia edo erabili berri den sinkronizazio profila bistaratzen da. Profila aldatzeko, zoaz sinkronizazio elementura eta aukeratu **Markatu** profilean sartzeko edo **Marka ken.** kanpoan uzteko.

Sinkronizazio profilak kudeatzeko, aukeratu **Aukerak** eta nahi duzun aukera.

Datuak sinkronizatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Sinkronizatu**. Sinkronizazioa bertan behera uzteko amaitu aurretik, aukeratu **Utzi**.

# VPN mugikorra

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **#Virtual Private Networking (VPN)**.

Nokia sare mugikor birtual pribatuko (VPN) bezeroak konexio seguruak lortzen ditu enpresako Intranet eta zerbitzu bateragarriekin, posta elektronikoarekin adibidez. Telefonoa sare mugikor batetik konektatzen da, Interneten bidez, bateragarria den enpresa sarearen ate nagusi bezala jarduten duen enpresa VPN ate-bide batekin. VPN bezeroak IP segurtasun (IPSec) teknologia erabiltzen du. IPSec estandar irekiko marko bat da eta IP sareko datu transferentziak seguruak onartzen ditu.

VPN politikak VPN bezeroak erabiltzen duen metodoa eta VPN bata bestea autentikatzeko ate-bide bat zehazten du eta erabiltzen dituzten enkriptazio algoritmoak datu konfidentzialtasuna mantentzen laguntzen du. VPN politikarako, jarri harremantan zure enpresako TI sailarekin.

VPN bezero, ziurtagiri eta politikak instalatzeko eta konfiguratzeko, jarri harremanetan zure erakundeko TI administratzailearekin.

# VPN kudeatu

Aukeratu **#VPN management**, eta hurrengoetatik:

- **VPN arautegiak** — VPN politikak instalatu, ikusi eta eguneratu.
- **VPN arautegi zerbitzari.** — VPN politika zerbitzarien konexio ezarpenak editatu, hemendik VPN politikak instalatu eta eguneratu ditzakezu. Politika zerbitzari batek Nokia Segurtasun Zerbitzu Kudeatzaileari (NSSM) dagokio, hau ez da guztiz beharrezkoa.
- **VPN erregistroa** — VPN politika instalazioen, eguneraketen eta sinkronizazioen eta beste VPN konexioen erregistroa ikusi.

# VPN sarguneak editatzea

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak**.

Sargune bat zure telefonoak sareari konektatzeko erabiltzen duen puntua da. Posta elektronikoa eta multimedia zerbitzuak erabiltzeko, edo webguneetan nabigatzeko, hasteko zerbitzu hauen sarguneak konfiguratu behar dituzu. Sare pribatu birtualen (VPN) sarguneek VPN politikak interneteko sargune arruntekin parekatzen dituzte konexio seguruak sortzeko.

Baliteke zure zerbitzu hornitzaileak gailuarentzako sargune batzuk edo guztiak aurretik ezarri izana, eta zu haiek sortzeko, editatzeko edota ezabatzeko gai ez izatea.

Hautatu helmuga bat eta **Aukerak** > **Editatu**, eta definitu hurrengoa:

- **Konexioaren izena** — Idatzi izen bat VPN sargunearentzat.
- **VPN arautegia** — Hautatu interneteko sargunearekin parekatuko den VPN politika.
- **Interneteko sarbidea** — Hautatu VPN politikarekin parekatu beharreko interneteko sargunea datu transferentziak burutzeko konexio seguruak sortzeko.
- **Proxy zerbitzar. helbidea** — Idatzi sare pribatuaren proxy zerbitzariaren helbidea.
- **Proxy atakaren zenbakia** — Idatzi proxy ataka zenbakia.
- **Sarbidea erabili** — Hautatu sargune hau erabiltzen duten konexioak automatikoki ezarri behar diren.

Baliteke ezarpen eskuragarriak ezberdinak izatea.

Ezarpen zuzenak ezagutzeko, jarri harremanetan zure enpresaren informatika sailarekin.

# VPN konexio bat erabili aplikazio batean.

Baliteke enpresa sarera konektatzerakoan zure identitatea frogatu behar izatea. Zure enpresaren IT departamentuarekin harremanetan jar zaitez egiaztagirietarako.

Aplikazioa batean VPN konexio bat erabiltzeko, aplikazioa VPN sarbide batera lotuta egon behar du.

**Aholkua:** Aplikazio konexio ezarpenak **Beti galdetu** bezala konfiguratu dezakezu, orduan konexio bat ezartzen denean VPN sarbidea aukeratu dezakezu konexio zerrenda batetatik.

1. VPN konexio sortu nahi duzun aplikazioan, VPN sarbidea aukeratu sarbide bezala.
2. Autentifikazio legala erabiltzen ari bazara, zure VPN erabiltzaile izena eta pasahitza sartu. SecurID txartela ACE/Server erlojuarekin sinkronizatuta ez badago, hurrengo pasahitza sartu. Ziurtagirietan oinarritutako autentifikazioa erabiltzen baduzu, baliteke gako-memoriaren pasahitza sartu behar izatea.

# Ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak**.

Zure telefonoko hainbat ezarpen zehaztu eta alda ditzakezu. Ezarpen horiek aldatzeak zure telefonoko hainbat aplikazioaren erabilerari eragiten die.

Zure gailuko ezarpen batzuk aurrez ezarritakoak izan daitezke edo zure zerbitzu-hornitzaileak mezu berezi batean bidali dizkizu. Baliteke ezarpen horiek ezin aldatu izatea.

Hautatu editatu nahi duzun ezarpena eta egin honakoa:

- Aldatu bi balioak, ezarri aktibatu desaktibaturen ordez, esaterako.
- Hautatu zerrendako balio bat.
- Ireki balio bat idazteko testu-editorea.
- Ireki graduatzailea eta desplazatu ezkerrera edo eskuinera, balioa doitzeko.

# Ezarpen orokorrak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra**.

Hautatu hauetariko bat:

- **Pertsonalizazioa** — Pantailaren ezarpenak eta gailua pertsonalizatzea.
- **Data eta ordua** — Data eta ordua aldatzea.
- **Osagarriak** — Zure osagarrien ezarpenak definitzea.
- **Sentsore-ezarp.** — Sentsorearen ezarpenak aldatzea.
- **Segurtasuna** — Segurtasun ezarpenak definitzea.
- **Fabrikako ezarp.** — Gailuaren jatorrizko ezarpenak berrezartzea.
- **Posizionamend.** — Kokapen metodoa eta zerbitzaria definitzea GPS aplikazioentzat.

# Pertsonalizazio ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa**.

## Ezarpenak bistaratzea

Gailuak atzeko argia piztu baino lehen behar duen argi maila zehazteko, aukeratu **Pantaila** > **Argi-sentsorea**.

Testuaren tamaina aldatzeko, aukeratu **Pantaila** > **Letra-tamaina**.

Pantailan ezer egin gabe pasa beharreko denbora doitzeko pantaila babesa martxan jarri aurretik, aukeratu **Pantaila** > **Energia aurrezl. iraup.**.

Pantailarako ongi-etorri ohar edo logo bat aukeratzeko, aukeratu **Pantaila** > **Ongietorri-oharra / logoa**. Lehenetsitako ongi-etorri oharra edo zure testua idatzi edo irudi bat aukeratu dezakezu.

Azkenengo tekla sakatu eta gero gailua ilundu baino lehen denbora tartea zehazteko, aukeratu **Pantaila** > **Argiaren iraupena**.

## Tonu ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak**.

Hautatu **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Tonuak** eta hurrengoetatik:.

- **Dei tonua** — Hautatu dei-tonu bat zerrendatik, edo hautatu **Soinuak deskargatu** nabigatzailea erabiliz tonuak deskargatzeko liburu-marka zerrenda bat duen karpeta bat irekitzeko. Bi telefono linea ezberdin badituzu erabileran, bakoitzari dei-tonu ezberdin bat esleitu diezaiokezu.
- **Bideo-deiaren tonua** — Hautatu dei-tonu bat bideo deientzat.
- **Dei-egilearen izena esan** — Aukera hau hautatzean eta zure kontaktuetako batek deitzen dizunean, kontaktuaren izenaren eta hautatutako die-tonuaren konbinazioa den tonu bat entzungo da.
- **Dei tonu mota** — Hautatu nola nahi duzun dei-tonua entzutea.
- **Deiaren bolumena** — Doitu dei-tonuaren bolumena.
- **Mezuen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat testu mezuentzat.
- **E-mailen abisu-tonua** — Hautatu tonu bat jasotako mezu elektronikoentzat.
- **Egutegiko alarma-tonua** — Hautatu tonu bat egutegi alertentzat.
- **Erlojuaren alarma-tonua** — Hautatu tonu bat erloju alarmentzat.
- **Bibrazio abisua** — Ezarri bibrazioa dei bat edo mezu bat jasotzerakoan.
- **Teklatuaren tonuak** — Doitu teklatuaren tonuen bolumena.
- **Abisu tonuak** — Piztu edo itzali abisu tonuak.

## Hizkuntza ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Hizkuntza**.

- **Telefonoaren hizkuntza** — Ezarri gailuaren hizkuntza.
- **Idazteko hizkuntza** — Hautatu oharrak eta mezuak idazteko erabiliko den hizkuntza.
- **Testu iragarlea** — Aktibatu testu input aurresalea.
- **Sarrera-aukerak** — Definitu testu input aurresalearen ezarpenak.

## Gurpilaren argiak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Jakinarazpen argiak**.

Dei bat galtzen duzunean edo mezu bat jasotzerakoan gurpila kliskatzen du gertakaria adierazteko. Zer gertaera jakinaraztea nahi duzun edo ñirñir egiteko epea aukeratzeko, aukeratu **Jakinarazpen argia**.

Gailua denbora batean zehar erabiltzen ez duzunean, gurpila arnasten egongo balitz bezala kliskatuko du. Arnasketa efektua pizteko edo itzaltzeko, aukeratu **Arnasketa argia**.

## Ukitu bakarreko teklen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Ukitu bak. tek.**.

Ukitu bakarreko tekla bat sakatzerakoan zein aplikazio edo egiteko irekiko den aukeratzeko, tekla aukeratu eta **Aukerak** > **Ireki**.

Lehenetsitako aplikazioak eta egitekoak berrezartzeko, aukeratu **Lehengoratu**.

## Data eta orduaren ezarpenak

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Data eta ordua**.

Hautatu hauetariko bat:

- **Data** eta **Ordua** — Uneko data eta ordua aldatzea.
- **Ordu eremua** — Zehaztu zure ordu-zona.
- **Data formatua** eta **Data banatzailea** — Zehaztu data formatua eta bereizlea.
- **Ordu formatua** eta **Ordu banatzailea** — Hautatu 12 orduko ala 24 orduko erloju sistema eta zein sinbolo erabili nahi duzun orduak eta minutuak bereizteko.
- **Erloju mota** — Zehaztu erloju mota.
- **Erlojuaren alarma-tonua** — Hautatu erloju alarmaren tonua.
- **Alarma errepika. tartea** — Zehaztu erloju alarmaren lo-kuluxka tartea.
- **Lanegunak** — Zehaztu zuretzat lan egunak diren astearen egunak.
- **Ordu-eguneratze autom.** — Eguneratu automatikoki ordua, data eta ordu-zonari buruzko informazioa (sareko zerbitzua).

## Osagarri arrunten ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Osagarriak**.

Osagarri gehienekin, honakoa egin dezakezu:

Gailura osagarri bat konektatzerakoan zein profil aktibatzen den zehazteko, osagarria aukeratu eta **Profil lehenetsia**.

Osagarri bat instalatuta dagoenean 5 segundo eta gero gailuak automatikoki telefono deiak erantzun ditzan, aukeratu **Erantzun automatikoa** > **Aktibatu**. Dei-tonu mota **Behin bip egin** edo **Isilik** bigarren profilean ezartzen bada, erantzun automatikoa ezgaitzen da.

Gailua osagarri bati konektatuta dagoen bitartean argitzeko, aukeratu **Argiak** > **Aktibatu**.

## Deiak edo alarmak isilarazteko telefonoari buelta ematea

Zure telefonoko sentsorea aktibatzen duzunean, hainbat funtzio kontrola ditzakezu telefonoari buelta emanda.

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Sentsore-ezarp.**.

Hautatu hauetariko bat:

- **Bistaratzearen biraketa** — Gailuaren orientazioaren arabera pantaila automatikoki biratzeko ezartzea.

- **Biratze kontrola** — Telefonoa buruz behera jarritakoan, jasotako deiak isilarazteko edo alarmak errepikatzeko ezartzea.

# Segurtasun ezarpenak

## Segurtasun ezarpenei buruz

Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Segurtasuna**.

Definitu hurrengo segurtasun ezarpenak:

- **Telefonoa eta SIM txart.** — Ezarri gailuaren eta SIM txartelaren segurtasun ezarpenak.
- **Ziurtagirien kudeaketa** — Kudeatu zure segurtasun ziurtagiriak.
- **Babestutako edukia** — Ezarri zure ezarpenak DRM babestutako edukiarentzat.
- **Segurtasun-modulua** — Kudeatu zure segurtasun modulua.

Ez erabili larrialdi-zenbakien antzekoa den gakorik, larrialdi-zenbakia nahi ez duzunean sakatzea ekiditzeko. Gakoak asterisko gisa agertzen dira. Gako bat aldatzerakoan, sartu uneko gakoa eta ondoren sartu gako berria bi aldiz.

## Gailu eta SIM txartel segurtasuna

PIN kodea aldatzeko, aukeratu **Telefonoa eta SIM txart.** > **PIN kodea**. Kode berriak 4-8 zenbaki izan behar ditu. PIN kodeak SIM txartela baimendu gabeko erabileratik babesten du eta SIM txartelarekin dator. PIN kodea hiru aldiz segidan gaizki idazten baduzu, kodea blokeatu egingo da eta PUK kodea erabili beharko duzu desblokeatzeko SIM txartela berriz erabili ahal izan aurretik.

Teklatua automatikoki blokeatzeko zehaztutako tarte baten ondoren, aukeratu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tekl. autoblokleo tartea**.

Gailua automatikoki blokeatzeko eta blokeo kodea sartu arte ezin erabili ahal izateko denbora tarte bat ezartzeko, aukeratu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Tel. autoblokeo tartea**. Denbora minutuak sartu, edo **Bat ere ez** aukeratu auto-blokeatze tartea abiatzeko. Gailua blokeatuta dagoenean, sarrera deiak erantzun ditzakezu eta gailuan programatutako larrialdi zenbaki ofizialera deitzerik badago.

Blokeo kode berri bat ezartzeko, aukeratu **Telefonoa eta SIM txart.** > **Blokeatzeko kodea**. Lehenetsitako blokeo kodea 12345 da. Momentuko kodea sartu eta gero berria bitan. Kode berriak 4-255 karaktere izan ditzake. Letrak eta zenbakiak erabili daitezke eta letra larriak zein xeheak erabili daitezke. Gailuak jakinaraziko dizu blokeo kodea ez bada behar bezala formateatu.

# Jatorrizko ezarpenak berrezartzea

Gailuaren jatorrizko ezarpenak berrezartzeko, aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Fabrikako ezarp.**. Honetarako, gailuaren blokeo kodea beharrezkoa da. Berrezarri ondoren, gailuak pizteko denbora gehiago beharko du. Honek ez du dokumentuetan, kontaktu informazioan, egutegi sarreretan eta beste fitxategietan eraginik.

## Posizionamendu ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Posizionamend.**.

Telefonoaren kokapena hautemateko kokapen-metodo zehatzen bat erabiltzeko, aukeratu **Kokatze-erak**.

Kokapen-zerbitzari bat aukeratzeko, aukeratu **Kokatze-zerbitzaria**.

Kokapen-lanen neurketa-sistema eta koordenatuen formatua zehazteko, aukeratu **Idazkeraren lehentas.**.

## E-mail tekla ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra**.

E-mail teklarekin zein postontzi irekitzeko aukeratzeko, aukeratu **E-mail-teklaren ezar.** > **E-mailen tekla** eta gurpila sakatu.

# Telefonoaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Deiak** — Dei ezarpen orokorrak zehaztu.
- **Dei-desbiderak.** — Dei desbideratzea ezarpenak zehaztu. Ikus "Deiak desbideratzea"60.
- **Dei-murrizketa** — Dei debekatze ezarpenak zehaztu. Ikus "Deiak blokeatzea"61.
- **Sarea** — Sare ezarpenak doitu.

## Deiaren ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Deiak**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Nire zenbakia bidali** — Erakutsi zure telefono zenbakia deitzen ari zaren pertsonari.
- **Nire Intern. dei. ID bidali** — Erakutsi zure sare deiaren helbidea sare deia erabiliz deitzen ari zaren pertsonari.
- **Deia zain** — Aukeratu telefonoa sarrerako deiak daudenean jakinaraztea nahi duzun ala ez dei batean zaudenean (sare zerbitzua).
- **Interneteko deiak zain** — Aukeratu telefonoa Interneteko sarrerako deiak daudenean jakinaraztea nahi duzun ala ez dei batean zaudenean.
- **Interneteko deien abisua** — Aukeratu **Aktibatu** Interneteko sarrerako deiak daudenean telefonoak zu jakinaraztea nahi baduzu. **Desaktibatu** aukeratzen baduzu, jakinarazpen bat soilik jasoko duzu deien bat galdu baduzu.
- **Ukatu mezudun deiak** — Ukatu dei bat eta bidali testu-mezua deitzaileari.
- **Mezuaren testua** — Idatzi deiak ukatzen dituzunean bidaliko den testu-mezu estandarra.
- **Neure bideoa dei jas.etan** — Baimendu edo ukatu bideoen bidalketa bideo-dei batean zehar zure telefonotik.

- **Irudia bideo-deian** — Erakutsi irudi geldoa bideoa bidaltzen ari ez bada bideo-deian zehar.
- **Auto. berriro markatu** — Ezarri zure telefonoa gehienez hamar bider saia dadin deia konektatzen dei batek arrakastarik izan ezean. Birmarkatze automatikoa geratzeko, Bukatu tekla sakatu.
- **Deiaren iraupena ikusi** — Erakutsi deiaren iraupena deian zehar.
- **Laburpena deiaren ond.** — Erakutsi deiaren iraupena deia amaitutakoan.
- **Markaketa bizkorra** — Aktibatu markaketa bizkorra.
- **Edozein teklak erantzun** — Aktibatu edozein teklarekin erantzuteko aukera.
- **Erabiltzen ari den linea** — Ezarpen hau (sare zerbitzua) SIM txartelak bi zenbaki harpidetu, hau da, bi telefono linea onartzen baditu soilik ikus daiteke. Aukeratu zer telefono linea erabili nahi duzun deiak egin eta testu-mezuak bidaltzeko. Bi lineetako deiak erantzun daitezke bakarra aukeratuta izan arren. **2. linea** aukeratzen baduzu eta sareko zerbitzu honetara harpidetu ez bazara, ezin izango duzu deirik egin. Bigarren linea aukeratzen bada, **2** ikusten da pantaila nagusian.
- **Linea aldaketa** — Eragotzi lineen aukeratzea (sare zerbitzua), zure SIM txartelak onartuz gero. Ezarpen hau aldatzeko, PIN2 kodea behar da.

## Sareko ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Telefonoa** > **Sarea**.

Sare modua aukeratzeko, aukeratu **Sare modua** eta **Modu duala**, **UMTS** edo **GSM**. Modu dualean, gailua automatikoki sare artean aldatzen du.

**Aholkua:** **UMTS** aukeratuz datu transferentzia azkarragoa baimentzen du, baina bateria energia gehiago erabili lezake honela, eta bateria iraupena murriztu UMTS eta GSM sare ondoan dauden eskualdeetan, **Modu duala** aukeratzen bada baliteke bi sareen arteko aldaketa konstantea eragin lezake, honek bateria energia eskaera handitzen du.

Operadorea aukeratzeko, aukeratu **Operadorea aukeratzea** eta **Eskuzkoa** eskuragarri dauden sareetatik aukeratzeko, edo **Automatikoa** gailua sarea automatikoki aukeratu dezan.

Sare mikrozelular (MCN) bat erabiltzen denean gailuak jakinarazi dezan, aukeratu **Inform.-zerb. pantaila** > **Aktibatu**.

## Konexiorako ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Bluetootha** — Editatu Bluetooth ezarpenak.
- **USB** — Editatu datu kablearen ezarpenak.
- **Helburuak** — Ezarri sargune berriak edo lehendik daudenak. Baliteke sargune batzuk edo guztiak zerbitzu-hornitzaileak aurrezarri izatea; horregatik, agian ezingo dituzu sortu, editatu edo ezabatu.

- **VPN** — Kudeatu sare pribatu birtualaren ezarpenak.
- **Pakete-datuak** — Zehaztu datu-paketeen sarea noiz erantsiko den eta idatzi datu transferentziarako sargune lehenetsiaren izena zure telefonoa ordenagailu baten modem gisa erabiltzen baduzu.
- **Hari gab. LANa** — Ezarri telefono hari gabeko LAN (WLAN) eskuragarri bat dagoenen adierazle bat erakusteko eta zehaztu telefonoak sareak bilatzea nahi duzun maiztasuna.
- **Bideo partek.** — Gaitu bideo partekatzea, aukeratu bideo partekatzerako SIP profila eta zehaztu bideoak gordetzeko ezarpenak.
- **SIP ezarpenak** — Ikusi edo sortu saio abiarazte protokolo (SIP) profilak.
- **XDM ezarpenak** — Sortu XDM profila. XDM profila komunikazio aplikazio askotarako beharrezkoa da, adibidez, presentzia.
- **Presentzia** — Editatu presentziaren ezarpenak (sare zerbitzua). Zerbitzuan izena emateko jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.
- **Urruneko unitateak** — Konektatu urruneko unitate batera.
- **Konfigurazioak** — Ikusi edo ezabatu zure telefonora konfigurazio ezarpenak bidal ditzaketen zerbitzari fidagarriak.
- **APN kontrola** — Mugatu datu-paketeen konexioak.

# Sarguneak

## Sargune berria sortu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak**.

Sargunearen ezarpenak zerbitzu-hornitzailearen mezu batean jaso ditzakezu. Baliteke sargune batzuk edo guztiak zerbitzu-hornitzaileak aurrezarri izatea; horregatik, agian ezingo dituzu aldatu, sortu, editatu edo ezabatu.

Sarguneen talde bat aukeratzean (, , , ), , sargune motak ikus ditzakezu:

Sargune babestua dela adierazten du.

Datu-paketeen sargunea dela adierazten du.

haririk gabeko LAN (WLAN) sargunea dela adierazten du

**Aholkua:** WLAN sare batean Interneterako sarguneak sor ditzakezu WLAN laguntzailearekin.

Sargune berri bat sortzeko, **Sarbidea** aukeratu. Telefonoak konexio eskuragarriak bilatzea eskatzen du. Bilaketaren ondoren, eskuragarri dauden konexioak erakusten dira eta sargune berri batekin parteka daitezke. Pauso hau burutzen ez bada, konexio metodo bat aukeratzeko eskatzen da eta beharrezko ezarpenak zehaztu behar izaten dira.

Sargune baten ezarpenak editatzeko, aukeratu sargune talde bat, zoaz sargunera eta aukeratu **Editatu**. Gailuarekin datozen zerbitzu-hornitzailearen argibideak erabili hurrengoa editatzeko:

- **Konexioaren izena** — Konexiorako izen bat idatzi.
- **Datu-eramailea** — Aukeratu datu-konexio mota.

Aukeratutako datu-konexio motaren arabera, ezarpen jakin batzuk egongo dira eskuragarri. Bete **Nahitaez zehaztu** adierazlea edo * gorri bat duten eremu

guztiak. Gainontzeko eremuak hutsak utzi daitezke, zerbitzu-hornitzaileak kontrakorik adierazi ezean.

Datu-konexioak erabiltzeko zerbitzua hornitzaileak eman behar dizu eta, beharko balitz, SIM txarteletik aktibatu beharko litzateke.

## Sarbide taldeak sortu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak**.

Zenbait aplikaziok sarera konektatzeko sargune taldeak erabiltzea ahalbidetzen dute.

Telefonoak sare batera konektatzen den bakoitzean zer sargune erabili nahi duzun aukeratu behar ez izateko, sargune ugari dituen taldea sor dezakezu eta sarera konektatzeko sarguneen ordena zehatz dezakezu.

Adibidez, WLAN eta datu-paketeetako sarguneak gehi ditzakezu Interneterako sargune talde batean, taldea sarea arakatzeko erabiltzeko. WLAN sarguneari lehentasuna ematen badiozu, telefonoa WLAN bidez konektatuko da Internetera eskuragarri dagoenean eta datu-pakete baten bidez eskuragarri ez dagoenean.

Sarbide talde berri bat sortzeko, **Aukerak** > **Kudeatu** > **Norako berria** aukeratu.

Sarguneak sargune talde batean gehitzeko, aukeratu taldea eta **Aukerak** > **Sarbide berria**. Dagoeneko dagoen talde bateko sargunea kopiatzeko, aukeratu taldea, zoaz dagoen sargunera eta aukeratu **Aukerak** > **Antolatu** > **Beste norako. kopiatu** aukeratu.

Talde baten barneko sarguneen lehentasuna aldatzeko, zoaz sarbidera eta aukeratu **Aukerak** > **Antolatu** > **Aldatu lehentasuna**.

## Datu-paketeen sarguneak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak** > **Sarbidea** eta jarraitu pantailako argibideak. Edo ireki sarguneen taldeetako bat, aukeratu ⇔ adierazlea duen sargune bat eta aukeratu **Editatu**.

Gailuarekin datozen zerbitzu-hornitzailearen argibideak erabili hurrengoa editatzeko:

- **Sarbidearen izena** — Sarbidearen izena zure zerbitzu-hornitzaileak ematen du.
- **Erabiltzailearen izena** — Baliteke erabiltzailea behar izatea datu-konexio bat zehazteko eta zure zerbitzu-hornitzaileak eman ohi du.
- **Eskatu pasahitza** — Zerbitzari batera sartzen zaren bakoitzean telefonoak pasahitza eskatzea nahi baduzu edo pasahitza telefonoan gorde nahi ez baduzu, aukeratu **Bai**.
- **Pasahitza** — Baliteke pasahitza behar izatea datu-konexio bat zehazteko eta zure zerbitzu-hornitzaileak eman ohi du.
- **Autentifikazioa** — Aukeratu **Segurua** pasahitza beti enkriptatuta bidaltzeko eta **Arrunta** pasahitza ahal denean enkriptatzeko.
- **Hasierako orria** — Ezartzen ari zaren sarbidearen motaren arabera, web helbidea edo multimedia mezularitzarako helbidea idatzi beharko dituzu.
- **Sarbidea erabili** — Aukeratu **Egiaztapen. ondoren** telefonoak sartu den sargunea erabiliz konektatu aurretik baimena eska dezan, edo

**Automatikoki** telefonoa sargunea erabiliz automatikoki konekta dadin.

**Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** aukeratu eta honako hauetatik:

- **Sare mota** — Datuak transferitzeko Interneteko protokolo mota aukeratu. Gainontzeko ezarpenak sare motaren araberakoak dira.
- **Telefonoaren IP helbidea** (IPV4 bakarrik). — Idatzi telefonoaren IPa.
- **DNS helbideak** — Idatzi IP helbidea eta DNS zerbitzari nagusia eta ordezkoa, zerbitzu-hornitzaileak hala eskatuz gero. Helbide hauek eskuratzeko, Internet-hornitzailera jo.
- **Proxy zerbitzar. helbidea** — Proxy zerbitzariaren helbidea idatzi.
- **Proxy atakaren zenbakia** — Proxy zerbitzariaren ataka idatzi.

## Interneteko WLAN sarguneak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak** > **Sarbidea** eta jarraitu pantailako argibideak. Edo ireki sarguneen taldeetako bat, aukeratu adierazlea duen sargune bat eta aukeratu **Editatu**.

Gailuarekin datozen zerbitzu-hornitzailearen argibideak erabili hurrengoa editatzeko:

- **WLAN sarearen izena** — Aukeratu **Eskuz sartu** edo **Bilatu sareak**. Dagoen sare bat aukeratuz gero, **WLAN sare modua** eta **WLAN segurtasun modua** sarguneko gailuaren ezarpenek zehazten dute.
- **Sarearen egoera** — Sarearen izena erakustea aukeratu.
- **WLAN sare modua** — Aukeratu **Ad-hoc** ad-hoc sare bat sortzeko eta bertako gailuei datuak zuzenean jasotzea baimentzeko; ez da WLAN sargunerik duen gailurik behar. Ad-hoc sarean, gailu guztiek WLAN sare izen bera erabili behar dute.
- **WLAN segurtasun modua** — Hautatu erabilitako kodeketa: **WEP**, **802.1x** edo **WPA/WPA2**. (802.1x eta WPA/WPA2 ez daude eskuragarri ad hoc saretarako.) **Sare irekia** hautatzen baduzu, ez da kodeketarik erabiltzen. WEP, 802.1x eta WPA funtzioak sareak onartzen baditu soilik erabil daitezke.
- **Sarbidea erabili** — Aukeratu **Egiaztapen. ondoren** telefonoak sartu den sargunea erabiliz konektatu aurretik baimena eska dezan edo **Automatikoki** telefonoa sargunea erabiliz automatikoki konekta dadin.

Aukeratutako segurtasun-moduaren ezarpenak zehazteko, aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.**.

### WLAN ezarpen aurreratuak

**Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** aukeratu eta honako hauetatik:

- **IPv4 ezarpenak** — Idatzi telefonoaren IPa, lehenetsitako ataka eta DNS zerbitzari nagusiaren eta ordezkoaren IP helbideak. Internet hornitzailera jo helbide hauek eskuratzeko.
- **IPv6 ezarpenak** — DNS helbide mota zehaztu.
- **Ad-hoc kanala** (ad-hoc sareetarako bakarrik) — Katea (1-11) eskuz idazteko, aukeratu **Erabiltzail. zehaztua**.
- **Proxy zerbitzar. helbidea** — Proxy zerbitzariaren helbidea idatzi.
- **Proxy atakaren zenbakia** — Idatzi proxy ataka.

# Datu-paketeen (GPRS) ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Pakete-datuak**.

Zure telefonoak datu-paketeen konexioak onartzen ditu, GSM sarean GPRS konexioa, esaterako. Gailua GSM eta UMTS sareetan erabiltzen duzunean, baliteke datu konexio bat baino gehiago aldi berean aktibo egotea; sargunea datu konexio bat partekatu dezake eta datu konexioa aktibo gelditzen da, adibidez ahots dei batean zehar.

Datu-paketeen ezarpenak zehazteko, aukeratu **Pakete datuen konexioa** eta aukeratu **Erabilg. dagoenean** telefonoa datu-pakete sarean erregistratzeko telefonoa onartutako sare batean pizten duzunean, edo **Behar denean** datu-pakete konexioa aplikazio edo ekintza batek behar duenean bakarrik ezartzeko. Ezarpen honek datu-paketeen konexioetako sarbide guztiei eragiten die. Aukeratu **Sargunea** telefonoa zure ordenagailuaren datu-paketeen modem gisa erabiltzeko eta idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako sargunearen izena. Abiadura handiko datu konexio bat erabiltzeko, aukeratu **Abiad. hand. pak. sarbid.** > **Gaitua**.

# WLAN ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Hari gab. LANa**.

Haririk gabeko LAN (WLAN) bat zauden lekuan eskuragarri dagoenean adierazgarri bat agertu dadin, aukeratu **WLAN eskurag. erakutsi** > **Bai**.

Gailuak WLANak bilatzeko tartea eta adierazgarria eguneratzeko aukeratzeko, aukeratu **Sareak bilatu**. Ezarpen hau ez da eskuragarri egongo ez baduzu aukeratzen **WLAN eskurag. erakutsi** > **Bai**.

Gailuak automatikoki aukeratutako WLANaren internet ahalmena aztertzeko, beti baimena eskatzeko edo konektibitate azterketa inoiz ez egiteko, aukeratu **Int. konektag. azterketa** > **Autom.i abiarazi**, **Beti galdetu** edo **Inoiz ez abiarazi**. **Autom.i abiarazi** aukeratzen baduzu edo gailuak galdetzen duenean azterketa egitea baimentzen baduzu eta konektibitate azterketa ondo ateratzen bada, sarbidea internet helmugetan gordetzen da.

Telefonoa identifikatzen duen multimedia sargunearen kontrol (MAC) helbide bakarra egiaztatzeko, sartu *#62209526# hasiera pantailan. MAC helbidea agertzen da.

# WLAN ezarpen aurreratuak

**Aukerak** > **Ezarpen aurreratuak** aukeratu. WLAN ezarpen aurreratuak normalean automatikoki zehazten dira eta ez da gomendatzen hauek aldatzea.

Ezarpenak eskuz editatzeko, aukeratu **Konfigurazio autom.** > **Ezgaituta** eta hauetatik:

- **Saialdi muga handia** — Ahalik eta transmisio saialdi gehien adierazi, zure gailuak ez badu saretik onespen seinalea jasotzen.
- **Saialdi muga txikia** — Ahalik eta transmisio saialdi gehien adierazi, zure gailuak ez badu saretik onespen bidaltzeko prest seinalea jasotzen.

- **RTS muga** — WLAN sarbidea gailua paketea bidaltzeko eskaera bidali baino lehen datu-pakete tamaina aukeratu.
- **TX energia maila** — Datuak bidaltzerakoan gailuaren energia maila aukeratu.
- **Irrati neurketak** — Irrati neurketak gaitu edo ezgaitu.
- **Energia aurrez.** — Gailuaren bateria aurrezteko WLAN energia aurrezpen mekanismo erabiltzea aukeratu. Energia aurrezpen mekanismoa erabiliz bateria funtzionamendua hobe daiteke, baina WLAN interoperabilitatea murritz liteke.

Ezarpen guztiak jatorrizko balioetan berrezartzeko, aukeratu **Aukerak** > **Lehengoratu**.

## WLAN segurtasun ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak** > **Sarbidea** eta jarraitu pantailako argibideak.

Haririk gabeko LAN (WLAN) sargune baten ezarpenak editatzeko, sargune talde bat ireki eta -rekin markatuta dagoen sarbide bat aukeratu.

Aukeratutako segurtasun moduaren ezarpenak zehazteko, aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.**.

## WEP segurtasun ezarpenak

Aukeratu **WEP** WLAN segurtasun modua bezala.

Hariko baliokidetasun pribatutasuna (WEP) enkriptazio metodoak datuak igorri baino lehen enkriptatzen ditu. Beharrezko WEP gakorik ez duten erabiltzaileek ezingo dute sarean sartu. WEP segurtasun modua erabiltzen duzunean eta gailuak WEP gakoekin enkriptatu gabeko datu-paketeak jasotzerakoan, datu hauek baztertzen dira.

Ad-hoc sarean, gailu guztiek WEP gako bera erabili behar dute.

Aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.** eta hurrengoak:

- **Erabil. ari den WEP gakoa** — Nahi duzun WEP gakoa aukeratu.
- **Benetakotze mota** — Aukeratu **Ireki** edo **Partekatua**.
- **WEP gakoaren ezarpen.** — WEP gakoaren ezarpenak editatu.

## WEP gakoen ezarpenak

Ad-hoc sarean, gailu guztiek WEP gako bera erabili behar dute.

**WLAN segurtasun ezarp.** > **WEP gakoaren ezarpen.** aukeratu eta honako hauetatik:

- **WEP kodeketa** — Aukeratu nahi duzun luzerako WEP gako zifratua.
- **WEP gakoaren formatua** — Aukeratu WEP gako datuak **ASCII**-n edo **Hexadezimala** formatuan sartu nahi dituzun.
- **WEP gakoa** — WEP gakoaren datuak adieraztea.

## 802.1x segurtasun ezarpenak

Aukeratu **802.1x** WLAN segurtasun modua bezala.

**802.1x** haririk gabeko sarean sartu ahal izateko gailuak egiaztatu eta baimendu egiten ditu eta egiaztapen prozesuak kale eginez gero sartzea galarazten die.

Aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.** eta hurrengoak:

- **WPA/WPA2** — Aukeratu **EAP** (Legeztapen Protokolo Hedagarria) edo **Aurrez partek. gakoa** (gailu identifikaziorako erabiltzen den kode sekretu bat)
- **EAP plug-in ezarpenak** — **WPA/WPA2** > **EAP** aukeratzen baduzu, zein EAP plug-in erabili sarbidea erabiltzeko.
- **Aurrez partekat. gakoa** — **WPA/WPA2** > **Aurrez partek. gakoa** aukeratu baduzu, konektatzen zaren WLANak zure gailua identifika dezan sarean partekatutako gako pribatua adierazi.

# WPA segurtasun ezarpenak

Aukeratu **WPA/WPA2** WLAN segurtasun modua bezala.

Aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.** eta hurrengoak:

- **WPA/WPA2** — Aukeratu **EAP** (Legeztapen Protokolo Hedagarria) edo **Aurrez partek. gakoa** (gailu identifikaziorako erabiltzen den kode sekretu bat)
- **EAP plug-in ezarpenak** — **WPA/WPA2** > **EAP** aukeratzen baduzu, zein EAP plug-in erabili sarbidea erabiltzeko.
- **Aurrez partekat. gakoa** — **WPA/WPA2** > **Aurrez partek. gakoa** aukeratzen baduzu, konektatzen zaren WLANak zure gailua identifika dezan sarean partekatutako gako pribatua adierazi.
- **WPA2 soilik modua** — TKIP eta AES (Enkriptazio Estandar Aurreratua) enkriptazioak baimentzeko, aukeratu **Desaktibatu**. AES bakarrik baimentzeko, aukeratu **Aktibatu**

# Haririk gabeko LAN plugin-ak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Helburuak** eta sarbide talde bat.

Autentifikazio protokolo hedagarria (EAP) plugin-ak haririk gabeko sareetan erabiltzen dira haririk gabeko gailuak eta zerbitzariak autentifikatzeko eta plugin-ek hainbat EAP metodoren erabilera posible egiten dute (sare zerbitzua).

Momentuan gailuan instalatuta dauden EAP plugin-ak ikus ditzakezu (sare zerbitzua).

## EAP plugin-ak

1. EAP plugin ezarpenak zehazteko, aukeratu **Aukerak** > **Sarbide berria** eta WLANak datu eramaile bezala erabiliko duen sarbidea zehaztu.
2. Aukeratu **802.1x** edo **WPA/WPA2** segurtasun modua bezala.
3. Aukeratu **WLAN segurtasun ezarp.** > **WPA/WPA2** > **EAP** > **EAP plug-in ezarpenak**.

## EAP plugin-ak erabili

EAP plugina erabiltzeko WLAN batera konektatzean sarbidea erabiliz, nahi duzun plugin-a aukeratu eta **Aukerak** > **Gaitu**. Sarbide honekin erabiltzeko onartutako EAP pluginek hauta-marka bat dute alboan.

Plug-in bat ez erabiltzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezgaitu**.

EAP plugin ezarpenak editatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Editatu**.

EAP plugin ezarpenen lehentasuna aldatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Lehentasuna igo** plugin-a beste plug-in batzuk baino lehen erabiltzen saiatzeko sarbide honekin sarera konektatzerakoan, edo **Aukerak** > **Lehentasuna jaitsi** plug-in hau sare autentifikazioarako erabiltzeko beste plug-in batzuk erabiltzen saiatu ondoren.

EAP plug-in buruzko informazio gehiagorako gailuren laguntza ikusi.

# Sesio abiarazte protokolo (SIP) ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **SIP ezarpenak**.

Sesio abiarazte protokoloa (SIP) parte-hartzaile bat edo bat baino gehiago duten komunikazio saioak sortzeko, aldatzeko eta bukatzeko erabiltzen da (sare zerbitzua). Bideo partekatzea eta sare deiak komunikazio sesio arruntak dira.SIP profilek saio hauen ezarpenak dituzte. Komunikazio saio batean erabiltzen den lehenetsitako SIP profila azpimarratuta agertzen da.

SIP profil bat sortzeko, aukeratu **Aukerak** > **SIP profil berria** > **Lehen. profila erabili** edo **Dagoen profila erabili**.

Komunikazio saioetan erabiltzeko lehenetsi nahi duzun SIP profila aukeratzeko, aukeratu **Aukerak** > **Profil lehenetsia**.

# SIP profilak editatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **SIP ezarpenak**.

**Aukerak** > **Editatu** aukeratu eta honako hauetatik:

- **Profilaren izena** — Idatzi SIP profil baten izena.
- **Zerbitzu-profila** — Aukeratu **IETF** edo **Nokia 3GPP**.
- **Helmuga lehenetsia** — Aukeratu Internet konexiorako erabili beharreko helmuga.
- **Lehenetsitako sarbidea** — Aukeratu Internet konexiorako erabili beharreko sargunea.
- **Erabiltzaile. iz. publikoa** — Idatzi zure zerbitzu-hornitzaileak emandako izena.
- **Erabili konpresioa** — Aukeratu konpresioa erabili nahi duzun ala ez.
- **Erregistratzea** — Aukeratu erregistro modua.
- **Erabili segurtasuna** — Aukeratu segurtasun negoziazioa erabili nahi duzun ala ez.
- **Proxy zerbitzaria** — Idatrzi SIP profil honentzat proxy zerbitzariaren ezarpenak.
- **Erregistratze-zerbitzaria** — Idatzi SIP profil honentzat erregistro zerbitzariaren ezarpenak.

## SIP proxy zerbitzariak editatu.

Aukeratu **Aukerak** > **SIP profil berria** edo **Editatu** > **Proxy zerbitzaria**.

Proxy zerbitzariak arakatzaile zerbitzuaren eta honen erabiltzaileen bitarteko zerbitzuak dira eta zerbitzu-hornitzaile batzuk erabiltzen dituzte. Zerbitzariek segurtasun handiagoa eta zerbitzura azkarrago iristeko aukera eskaintzen dute.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Proxy zerbitzar. helbidea** — Idatzi erabiltzen ari zaren proxy zerbitzariaren ostalari-izena edo IP helbidea.
- **Esparrua** — Idatzi proxy zerbitzariaren esparrua.
- **Erabiltzailearen izena** eta **Pasahitza** — Idatzi proxy zerbitzariarentzat zure erabiltzaile-izena eta pasahitza.
- **Baimendu bider. malgua** — Aukeratu bideratze malgua baimendu nahi duzun ala ez.
- **Garraio-mota** — Aukeratu **UDP**, **Automatikoa** edo **TCP**.
- **Ataka** — Proxy zerbitzariaren ataka idatzi.

## Erregistro zerbitzariak editatu

Aukeratu **Aukerak** > **SIP profil berria** edo **Editatu** > **Erregistratze-zerbitzaria**.

Aukeratu hurrengoen artetik:

- **Erregistratz. zerbitz. helb.** — Erabiltzen ari zaren erregistratze-zerbitzariaren ostalari-izena edo IP helbidea adieraztea.
- **Esparrua** — Erregistratze-zerbitzariaren esparrua adieraztea.
- **Erabiltzailearen izena** eta **Pasahitza** — Erregistratze-zerbitzariarentzat zure erabiltzaile-izena eta pasahitza adieraztea.
- **Garraio-mota** — Aukeratu **UDP**, **Automatikoa** edo **TCP**.
- **Ataka** — Erregistratze-zerbitzariaren atakaren zenbakia adieraztea.

## Konfigurazio ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Konfigurazioak**.

Zure zerbitzu-hornitzailearen edo informazio kudeaketa enpresa bateko zerbitzari fidagarrien konfigurazio ezarpenak dituzten mezuak jaso ditzakezu. Ezarpen hauek Konfigurazioetan gordetzen dira automatikoki. Baliteke besteak beste, konfigurazioen ezarpenak sarbidearentzat eta multimedia edo e-mail zerbitzuentzat eta instanteko mezularitza (IM) edo sinkronizazio ezarpenak zerbitzari fidagarriengandik jasotzea.

Zerbitzari fidagarri baten konfigurazioak ezabatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**. Zerbitzu honek beste aplikazio batzuentzat emandako konfigurazio ezarpenak ere ezabatu egiten dira.

## Datu-paketeak mugatu

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **APN kontrola**.

Sarbide kontrola zerbitzuarekin, datu-paketeen konexioak murriztu daitezke zure gailutik sarbide batzuetarako bakarrik. Baliteke zure SIM txartelak sargunearen kontrol zerbitzua ez jasatea. Informazio gehiago jasotzeko jo ezazu zure zerbitzu-hornitzailearengana.

Zure gailutik egin daitezkeen datu-pakete konexioak mugatzeko, aukeratu **Aukerak** > **Mugak aktibatu**. Norbere PIN2 kodea beharrezkoa da sarbideen kontrola abiarazteko eta desaktibatzeko edo kontrolatuen zerrendan sarbideak editatzeko.

Datu-pakete konexioetan erabili ahal izango diren sarbideak kontrol zerrendara gehitzeko, aukeratu **Aukerak** > **Gehitu izena eskuz**. Zerbitzariak emandako sarbidera konektatu ahal izateko, sarbide huts bat sortu behar duzu.

Zerrendatik sarbideak kentzeko, aukeratu **Aukerak** > **Ezabatu**.

# Aplikazioen ezarpenak

Aukeratu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Aplikazioak**.

Zerrendako aplikazio bat aukeratu ezarpenak doitzeko.

# Lasterbideak

Hauek dira zure gailuaren teklatuak dituen lasterbideetariko batzuk. Lasterbideak erabiliz, aplikazioen erabilera eraginkorragoa izan daiteke.

# Lasterbide orokorrak

**Lasterbide orokorrak**

| | |
|---|---|
| Itzaltze tekla | Sakatu eta eutsi sakatuta gailua pizteko eta itzaltzeko.<br>Sakatu behin profilak aldatzeko. |
| ***** | Sakatu eta eutsi sakatuta ***** Bluetooth konektibitatea gaitzeko eta desgaitzeko. |
| **#** | Sakatu eta eutsi sakatuta ***** Isileko profila gaitzeko eta desgaitzeko. |

**Hasierako pantaila**

| | |
|---|---|
| Ezkerreko hautatze tekla + eskuineko hautatze tekla | Blokeatu eta desblokeatu teklatua. |
| Deitze tekla | Ireki dei erregistroa. |
| **0** | Sakatu eta eutsi sakatuta hasiera pantaila web arakatzailean irekitzeko. |
| **1** | Sakatu eta eutsi sakatuta zure ahozko postontziari deitzeko. |
| Zenbaki tekla (2–9) | Deitu telefono zenbaki bati markatze bizkorra erabiliz. Aurretik markatze bizkorra aktibatu behar duzu **Menua** > **Aginte pan.** eta **Ezarpenak** > **Telefonoa** > **Deiak** > **Markaketa bizkorra**. |

# Glosarioa



**Glosarioa**

| | |
|---|---|
| 3G | 3. belaunaldiko komunikazio mugikorrak. Mundu osoan erabilia izan nahi duen eta banda zabalera handiagoa hornitzen duen sistema digitala. 3G oso zerbitzu ezberdinetarako sarrera ematen du, adibidez, multimedia. |
| Ad-hoc funtzionamendu modua | Bi gailu edo gehiago konektatzen diren WLAN sare modua da, WLAN zuzenean erabiliz eta WLAN sargunerik gabe. |
| Cookieak | Cookieak informazio zatitxoak dira eta zerbitzariak ematen dizkizu, bisitatzen dituzun web orriei buruzko informazioa biltzeko. Cookieak onartzen dituzunean, zerbitzariak web guneen zure erabilera azter dezake, zertan zauden interesatua, zer irakurri nahi duzun, eta honelakoak. |
| DNS | Domeinu-izenen sistema. Domeinu-izenak aldatzen dituen Interneteko zerbitzua, adibidez, www.nokia.com: domeinu izenak IP helbide bihurtzen ditu, 192.100.124.195, esaterako. Domeinu-izenak errazago gogoratzen dira baina beharrezkoa da itzulpena egitea, internet IP helbideetan oinarritzen baita. |
| DTMF tonuak | Tonu dual multifrekuentzia tonuak. DTMF sistema ukimen-tonuko telefonoek erabiltzen dute. DTMFk frekuentzia edo tonu jakin bat ematen dio tekla bakoitzari, mikroprozesatzaile batek erraz identifikatu ahal izateko. DTMF tonuari esker, ahots bidezko postontziekin, telefono sistema informatizatuekin, eta honelakoekin komunika zaitezke. |
| EAP | Egiaztatze protokolo hedagarria. EAP konexioak haririk gabeko sareetan erabiltzen dira, haririk gabeko gailuak eta egiaztatze zerbitzariak egiaztatzeko. |
| EGPRS | GPRS hobetua. EGPRS GPRSren antzekoa da, baina azkarrago konektatzea ahalbidetzen du. Eskuragarritasunari eta datu transferentzia abiadurari buruzko informazioa lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin. |

| | |
|---|---|
| GPRS | Pakete bidezko irrati-zerbitzu orokorra. GPRSrekin hari gabeko gailuek sareko datuak eskuratu dezakete (sare zerbitzua). GPRSak datu-paketeen teknologia erabiltzen du informazioa datu kantitate txikietan bidaltzen denean sare mugikorraren bidez. Datuak paketeetan bidaltzearen abantaila zera da: sarea datuak bidaltzerakoan edo jasotzerakoan bakarrik okupatzen da. GPRSak sarea eraginkortasunez erabiltzen duenez, aukera ematen du datuetara konexioa modu azkarrean egiteko eta datuak abiadura azkarrez bidaltzeko edo jasotzeko.<br><br>GPRS zerbitzura harpidetu behar duzu. GPRSa erabilgarri izateko eta harpidetzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.<br><br>Ahots-dei batean zehar, ezin duzu GPRS konexioa ezarri, eta GPRS konexiorik badago itxaroten jartzen da, sareak transmititzeko modu bikoitza izan ezean. |
| GPS | Kokatze sistema orokorra (GPS). GPSa mundu mailako irrati-nabigazio sistema da. |
| HSDPA | High-speed downlink packet access. HSDPA datu bidalketa azkarra eskaintzen die 3G terminaleei, honela multimedia ahalmen eraginkorrak behar dituzten erabiltzaileek salneurri baxuak aprobetxatzen dituzte, ez lehenago bezala irrati sarearen murrizketak zirela-eta. |
| HTTP | Hipertestua transferitzeko protokoloa. Webean dokumentuak transferitzeko erabiltzen den protokoloa. |
| HTTPS | HTTP konexio seguru batean. |
| IMAP4 | Interneteko posta sarbidearen protokoloa, 4. bertsioa. Protokolo hau urruneko postontzira sartzeko erabiltzen da. |
| Internet sargune | Sargunea gailua sarera konektatzen den puntua da. Posta elektronikoa eta multimedia zerbitzuak erabiltzeko edo Internetera konektatzeko eta web orrietan nabigatzeko, lehenik eta behin zerbitzu hauen Interneteko sarguneak zehaztu behar dituzu. |
| Azpiegituren operazio modua | Gailuak WLAN sargune bat erabiliz WLANera konektatzen diren WLAN sare modua. |
| PINa | Identitate zenbaki pertsonala. PIN kodeak gailua baimendu gabeko erabileratik babesten du. PIN kodea SIM txartelarekin dator. PIN eskaera aukeratzen baduzu, telefonoa pizten den bakoitzean kodea eskatuko du. PIN kodeak 4 eta 8 zenbaki inguru izan behar ditu. |

| | |
|---|---|
| PIN2 | PIN2 kodea SIM txartel batzuekin dator. PIN2 kodea SIM txartelak onartzen dituen funtzio batzuetarako beharrezkoa da. PIN2 kodeak 4 eta 8 zenbaki inguru izan behar ditu. |
| POP3 | Postetxeko protokoloa, 3. bertsioa. Posta protokolo arrunta: urruneko postontzira sartzeko erabil daiteke. |
| PUK eta PUK2 | Desblokeatzeko kode pertsonala. PUK eta PUK2 kodeak beharrezkoak dira blokeatutako PIN edo PIN2 kodeak aldatzeko, hurrenez hurren. Kodeak 8 zenbaki izan behar ditu. |
| SIP | Saioa Hasteko Protokoloa. SIPa partehartzaile bat edo gehiago dituzten komunikazio saioak sortzeko, aldatzeko eta amaitzeko erabiltzen da. |
| SSID | Zerbitzu-multzoen identifikatzailea. SSIDk WLAN identifikatzen duen izena da. |
| Korronte | Audio eta bideoak korronte bidez erreproduzitzeak esan nahi du zuzenean erreproduzitzen direla, hau da, webetik gailura deskargatu gabe. |
| UMTS | Telekomunikazio Mugikorren Sistema Unibertsala UMTS 3G komunikazio mugikorren sistema bat da. Ahots eta datuez gain, UMTSrekin audio eta bideo bidalketa egin daiteke beste hari gabeko gailuetara. |
| | Gailua GSM eta UMTS sareetan erabiltzen denean, aldi berean datu konexio asko egon daitezke aktibatuta eta sarguneek datu konexio bat parteka dezakete. UMTS sarean, datu konexioek aktibatuta jarraitzen dute ahots-deietan. Adibidez, lehen baino azkarrago araka dezakezu weba telefonoan hitz egiten ari zaren bitartean. |
| UPIN | UMTS sarean erabiltzen den PIN kodea. |
| UPUK | Desblokeatzeko UPIN kodea. UPUK blokeatutako UPIN edo PIN2 kodeak aldatzeko beharrezkoa da. Kodeak 8 zenbaki izan behar ditu. |
| USIM | UMTS sarean erabiltzen den SIM txartela. |
| USSD agindu | Zerbitzu eskaera bat, esaterako, aplikazio bat abiarazteko eskaera edo urrunetik ezarpen batzuk konfiguratzeko eskaera; telefonotik bertatik zure operadoreari edo zerbitzu-hornitzaileari bidaliz. |
| VoIP | IP ahots teknologia. VoIP, IP sarearen bidez (Internet, esaterako) telefono deiak egitea ahalbidetzen duen protokolo multzoa da. |
| VPN | Sare pribatu birtuala. VPNk konexio seguruak lortzen ditu enpresako intranet eta zerbitzu bateragarriekin, e-postarekin adibidez. |

| | |
|---|---|
| WAP | Hari gabeko aplikazio protokoloa. WAP hari gabeko komunikaziorako nazioarteko estandarra da. |
| WEP | Haririk gabeko pribatutasuna. WEP enkriptatze metodoak datuak zifratzen ditu WLANera bidali aurretik. |
| WLAN | Hari gabeko tokiko sarea. |
| WPA | Wi-Fi sarrera babestua. WLANrentzat segurtasun metodoa. |
| WPA2 | Wi-Fi sarrera babestua 2. WLANentzat segurtasun metodoa. |

# Arazo konponketa



Gailuari buruzko ohiko galderak ikusteko, ikus produktuaren laguntza orriak Nokiaren webgunean.

## G: Zein da nire blokeo kodea, PIN kodea edo PUK kodea?

E: Blokeo kode lehenetsia **12345** da. Blokeo kodea ahaztu edo galdu baduzu, jarri harremanetan gailuaren banatzailearekin. PIN kodea edo PUK kodea ahaztu edo galdu baduzu, edo ez baduzu halakorik jaso, jarri harremanetan zure sare zerbitzu hornitzailearekin.

## G: Nola itxi dezaket ez dabilen aplikazio bat?

E: Sakatu eta eutsi sakatuta hasiera tekla. Joan aplikaziora eta sakatu atzera tekla aplikazioa isteko.

## G: Zergatik ez dira ondo ikusten irudiak?

E: Ziurtatu kamera lentearen babes-leihoak garbituta daudela.

## G: Zergatik agertzen dira puntu zatarrak edo distiratsuak, edo puntuak falta dira, pantailan gailua pizterakoan?

E: Pantaila mota honen ezaugarri bat da hori. Baliteke hainbat pantailek pixel edo puntu gutxiago izatea. Normala da, ez da akats bat.

## G: Zergatik ez dut nire lagunaren gailua aurkitzen Bluetooth konektibitatea erabiliz?

E: Ziurtatu gailuak bateragarriak direla, Bluetooth konektibitatea gaituta daukatela eta ez daudela ezkutatuta. Halaber, ziurtatu gailuen arteko distantzia 10 metro (33 oin) baino luzeagoa ez dela eta gailuen artean hormarik edo oztoporik ez dagoela.

## G: Zergatik ezin dut Bluetooth konexioa itxi?

E: Zure gailuari beste gailu bat konektatuta badago, konexioa itxi dezakezu beste gailua erabiliz edo Bluetooth konektibitatea desgaituz. Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Bluetootha** eta **Bluetootha** > **Desaktibatu**.

## G: Zergatik ezin dut WLAN sarbide puntu bat ikusi haren eremuan kokatuta nagoela baldin badakit?

E: Ziurtatu gailuan ez daukazula Konexiorik gabe profila aktibatuta.

Baliteke WLAN sarbide puntuak zerbitzu multzoen adierazle (SSID) ezkutatu bat erabiltzea. Zerbitzu multzoen adierazle ezkutatuak dituzten sareak adierazlea jakinik soilik erabil ditzakezu, eta sare horretarako WLAN sarbide puntu bat sortu baduzu Nokia gailuan

Ziurtatu WLAN sarbide puntua 12-13 kateetan ez dagoela, haiei ezin zaie lotu eta.

## G: Nola itzal dezaketa WLAN konexioa nire Nokia gailuan?

E: WLAN konexioa konektatzen saiatzen ez zarenean, beste sarbide puntu bati konektatuta ez zaudenean edota sare eskuragarriak bilatzen ez zaudenean

itzaltzen da Nokia gailuan. Bateriaren kontsumoa gehiago murrizteko, Nokia gailuak sareak bila ez ditzan ezar dezakezu. WLAN konexioa bilaketen artean itzaltzen da.

Bilaketak burutzeari uzteko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Hari gab. LANa** > **WLAN eskurag. erakutsi** > **Inoiz ez**. Eskuz ere WLAN sareak bila ditzakezu eta WLAN sareei konektatu ere bai.

Bilaketak maizago burutzeko, hautatu **WLAN eskurag. erakutsi** > **Bai**, eta definitu denbora tarteak hemen: **Sareak bilatu**.

## G: Zerbatik ezin dut Interneten nabigatu WLAN konexioa baldin badabil eta IP ezarpenak zuzenak badira?

E: Ziurtatu HTTP/HTTPS proxy ezarpenak ondo definitu dituzula WLAN sarbide puntuaren ezarpen hobetuetan.

**G: Nola ikus dezaket nire WLAN konexioaren seinale kalitatea?** — Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Konex. kud.** eta **Datu-konexio aktiboak** > **Aukerak** > **Xehetasunak**. Seinale kalitatea ahula bada, baliteke konexio arazoak izatea. Saiatu berriz sarbide puntutik gertuago.

## G: Zergatik ditut arazoak segurtasun moduarekin?

E: Ziurtatu segurtasun modua ondo konfiguratu duzula eta modu honek sare bera erabiltzen duela. Sareak erabiltzen duen segurtasun modua ikusteko, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Konektibitat.** > **Konex. kud.** eta **Datu-konexio aktiboak** > **Aukerak** > **Xehetasunak**.

Ikusi hau ere bai: WPA modu zuzena daukazula (aurretik partekatutako gakoa edo EAP), behar ez diren EAO mota guztiak desgaitu dituzula, eta EAP mota ezarpenak zuzenak direla (pasahitzak, erabiltzaile izenak, ziurtagiriak).

## G: Zergatik ezin dut kontaktu bat hautatu mezu batentzat?

E: Kontaktuaren txartelak ez dauka telefono zenbakirik, helbiderik edo helbide elektronikorik. Hautatu **Menua** > **Kontaktuak**, eta editatu kontaktuaren txartela.

## G: Mezua berreskuratzen oharra agertzen da une batez. Zer gertatzen da?

E: Gailua multimedia mezu bat berreskuratzen saiatzen ari da multimedia mezuen zentrotik. Ohar hau agertuko da **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua** > **Multimedia berreskuratz.** > **Automatikoa beti** hautatu baduzu. Ziurtatu multimedia mezuen ezarpenak ondo definitu dituzula eta telefono zenbakiek edo helbideek akatsik ez dutela.

## G: Nola amaitu dezaket datu konexioa gailua behin eta berriz datu konexio bat ezartzen saiatzen denean?

E: Baliteke gailua multimedia mezu bat berreskuratzen saiatzen egotea multimedia mezuen zentrotik. Gailuak datu konexio bat ezar ez dezan, hautatu **Menua** > **Mezularitza** eta **Aukerak** > **Ezarpenak** > **Multimedia mezua** > **Multimedia berreskuratz.** >

**Eskuzkoa** multimedia mezuak geroago berreskuratzeko, edo hautatu **Desaktibatu** jasotako multimedia mezu guztiei uko egiteko. **Eskuzkoa** hautatuz gero, abisu bat jasoko duzu multimedia mezuen zentrotik berreskura dezakezun multimedia mezu bat jasotzen duzunean. **Desaktibatu** hautatuz gero, gailuak ez du multimedia mezuei lotutako sare konexiorik ezarriko.

Gailua ezartzeko datu konexioa erabil dadin soilik baldin eta hala behar duen aplikazio edo ekintza bat burutzen baduzu, hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Pakete-datuak** > **Pakete datuen konexioa** > **Behar denean**.

Honek laguntzen ez badizu, itzali gailua eta berriz piztu.

## G: Nola murriztu dezaket bateria kontsumoa?

E: Gailuaren funtzio askok bateria indar gehiago behar dute eta, beraz, bateriaren iraupena murrizten dute. Kontsumoa murrizteko, egin hurrengoa:

- Itzali Bluetooth konektibitatea behar ez duzunean.
- Gelditu WLAN sare bilaketak. Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Hari gab. LANa** > **WLAN eskurag. erakutsi** > **Inoiz ez**. Eskuz ere WLAN sareak bila ditzakezu eta WLAN sareei konektatu ere bai.
- Gailua ezarri datu konexioa erabil dadin soilik baldin eta hala behar duen aplikazio edo ekintza bat burutzen baduzu. Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Konexioa** > **Pakete-datuak** > **Pakete datuen konexioa** > **Behar denean**.
- Ezarri gailua automatikoki mapa berriak deskarga ez ditzan Mapak aplikazioan. Hautatu **Menua** > **Aplikazioak** > **GPS** > **Mapak** eta **Aukerak** > **Tresnak** > **Ezarpenak** > **Internet** > **Konektatu abiaraztean**.
- Aldatu atzeko argia itzaltzeko behar den denbora. Hautatu **Menua** > **Aginte pan.** > **Ezarpenak** eta **Orokorra** > **Pertsonalizazioa** > **Pantaila** > **Argiaren iraupena**.
- Itxi erabileran ez dauden aplikazioak. Sakatu eta eutsi sakatuta hasiera tekla. Joan aplikaziora eta sakatu atzera tekla aplikazioa isteko.

# Aholku ekologistak

Hona hemen ingurumena babesten laguntzeko aholku batzuk.

## Energia aurreztea

Bateria guztiz kargatu denean eta telefonoa kargagailutik deskonektatzerakoan, gogoratu kargagailua entxufetik deskonektatzen ere.

Honakoa egiten bada ez da bateria horren maiz kargatu behar:

- Itxi eta ezgaitu erabiltzen ari ez zaren aplikazioak, zerbitzuak eta konexioak.
- Murriztu pantailaren argitasuna.
- Ezarri telefonoa ekintzarik gabeko gutxieneko denbora-epearen ondoren, telefonoa energia aurrezteko modura pasa dadin, telefonoan eskuragarri badago.
- Ezgaitu beharrezkoak ez diren soinuak, hala nola, teklatuko tonuak. Ezarri telefonoaren bolumena bitarteko mailan, ez altuegi ez eta baxuegi ere.

## Birziklatzea

Telefono zaharra birziklatu duzu? Nokia telefono baten materialen %65-80a birzikla daiteke. Eraman erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatzeak beti bilketa gune berezietara. Honakoa eginez gero, kontrolik gabeko hondakinen ezabapenak saihesten eta materialen birziklapena sustatzen da. Ikusi nola birzikla ditzakezun Nokia produktuak www.nokia.com/werecycle edo www.nokia.mobi/werecycle helbideetan.

Paketatzearen eta erabiltzaileren gidan birziklatzea lekuko birziklamendu planaren arabera egin dezakezu.

## Papera aurreztea

Erabiltzailearen gida honek telefonoa erabiltzen hasten laguntzen du. Argibide gehiago lortzeko, ireki telefonoko laguntza funtzioa (aplikazio gehienetan, hautatu **Aukerak** > **Laguntza**). Erabiltzailearen gidak eta bestelako laguntza hurrengo helbideetan aurki dezakezu: www-nokia.com/support.

## Informazio gehiago

Telefonoaren funtzio ekologikoen informazio gehiago lortzeko, ikus www.nokia.com/ecodeclaration.

# Osagarriak



**Abisua:** Nokia konpainiak modelo zehatz honekin erabiltzeko homologatutako bateria, kargagailu eta osagarriak bakarrik erabili. Bestelakorik erabiliz gero, onarpen eta bermeak indargabetu litezke eta arriskutsua izan liteke.

Osagarri homologatuak non eskuratu daitezkeen jakiteko, jo ezazu zure banatzailearengana. Osagarriren baten kablea kentzeko, entxufetik eutsi eta tira, ez eutsi kabletik.

# Bateria

## Bateria eta kargagailuaren informazioa

Telefonoa bateria kargagarri batekin elikatzen da. Telefono honekin erabili beharreko bateria honakoa da: BP-4L. Baliteke Nokia konpainiak bateria modelo gehiago eskuragarri izatea telefono honentzat. Telefono hau ondorengo bateriek emandako energiarekin erabili behar da: AC-10 . Kargagailuaren modelo zenbakia ezberdina izan daiteke entxufe motaren arabera. Entxufe ezberdinak ondorengoen bidez identifikatzen dira: E, EB, X, AR, U, A, C edo UB.

Bateria behin eta berriro kargatu edo deskargatu daiteke, baina azkenerako agortu egiten da. Hitz egiteko eta egoneko tarteak ohi baino nabarmen laburragoak badira, bateria aldatu egin beharra dago. Nokia konpainiak homologatutako bateriak eta bateria kargatzeko Nokia konpainiak zure telefonorako diseinaturiko kargagailu homologatuak soilik erabili. Onartu gabeko kargagailu edo bateria bat erabiltzeak sute, leherketa, isurketa edo bestelako arriskuren bat suposa lezake.

Bateria lehenengo aldiz erabiltzeko, edo bateria luzaroan erabili ez baldin bada, beharbada kargagailua konektatu, deskonektatu eta berriz ere konektatu egin beharko da bateria kargatzen has dadin. Bateria guztiz deskargatuta baldin badago, kargagailuaren ikurra pantailan agertu arte edo deirik egin ahal izan arte minutu batzuk igaro litezke.

Bateria kendu aurretik, beti telefonoa itzali eta kargagailua deskonektatu.

Kargagailua erabiltzen ari ez bazara, desentxufatu eta telefonotik deskonektatu. Ez utzi guztiz kargatutako bateriarik kargagailura konektatuta, gehiegi kargatzeak bateriaren iraupena labur baitezake. Guztiz kargatutako bateria erabili gabe utziz gero, pixkanaka deskargatu egingo da.

Bateria 15º eta 25º artean gordetzen saiatu. Tenperatura oso altu edo baxuek bateriaren bizitza eta gaitasuna murrizten dituzte. Baliteke bateria beroa edo hotza duen telefonoak denboraldi batean ez funtzionatzea. Bateriaren errendimendua asko gutxitzen da zero azpiko tenperaturetan.

Ez zirkuitu-laburrik eragin bateriari. Nahi gabe zirkuitu-laburra sor daiteke, metalezko objekturen batek (txanpon bat, klip bat edo axota bat, adibidez) bateriaren terminal positibo (+) eta negatiboak (-) zuzenean konektatzen baditu (horiek banda metalikoen antza dute baterian). Sakelean edo poltsan ordezko bateria bat eramanez gero hori gerta liteke. Terminaletan zirkuitu-laburrik gertatuz gero, bateria edo konektatutako objektua hondatu egin litezke.

Bateriak ez sutara bota, lehertu egin daitezke eta. Hondatuta egon arren, lehertu egin daitezke. Bateriak botatzeko garaian, tokian tokiko arauak bete behar

dira. Ahal dela, birziklatu. Ez bota etxeko gainerako hondakinekin batera.

Telefono edo bateriak ez desmuntatu, moztu, ireki, bihurritu, deformatu, zulatu edo txikitu. Bateriak isuririk izanez gero, likidoa begietatik eta azaletik urrun mantendu. Likidoa begietan sartu edo azalera eroriz gero, berehala urarekin garbitu edo medikuarengana joan.

Ez ezazu bateria itxuraldatu eta ez iezaiozu objektu arrotzik sartu. Era berean, ez ezazu bateria ur edo beste likidoren batean murgildu edo busti.

Bateriaren erabilera okerrak sute, leherketa edo bestelako arriskuren bat eragin lezake. Telefonoa edo bateria eroriz gero, gainazal gogor batera bereziki, eta kaltetu egin dela iruditukoa balitzaizu, eraman ezazu zerbitzu zentroren batera erabiltzen jarraitu aurretik.

Bateria dagokion helbururako bakarrik erabili. Ez erabili hondatuta dagoen kargagailu edo bateriarik. Zure bateria umeen eskuetatik urrun mantendu.

# Nokia baterientzako autentikazio jarraibideak

Erabil itzazu beti Nokia bateria originalak zure segurtasunerako. Nokia konpainiaren jatorrizko bateria bat erabiltzen ari zarela egiaztatzeko, erosi bateria Nokia konpainiak baimendutako denda batean eta egiaztatu jatorrizko holograma duela ondorengo pausoak jarraituz:

Hurrengo urratsak zuzentasunez bete arren, ezin da bateria egiazkoa dela guztiz ziurtatu. Edozein arrazoirengatik bateria egiazkoa ez dela susmatuz gero, hau da, Nokia konpainiaren jatorrizko bateria bat ez dela, ez ezazu erabili eta eraman ezazu hurbilen duzun Nokia zerbitzu-gunera edo zerbitzu-hornitzailearengana laguntza eskatzeko. Egiazkotasuna aztertu ezingo balitz, bueltatu ezazu bateria erosi zenuen tokira.

## Hologramaren egiazkotasuna



1. Hologramaren etiketa begiratzerakoan, Nokia konpainiaren esku elkartuen ikurra ikusi beharko litzateke angelu batetik eta Nokia Original Enhancements logotipoa bestetik.




2. Holograma ezkerrera, eskuinera, gora eta behera okertzean, 1, 2, 3 eta 4 puntu ikusi beharko lirateke alde bakoitzean hurrenez hurren.

# Eta zure bateria egiazkoa ez baldin bada?

Etiketan Nokia holograma duen zure Nokia bateria egiazko bateria bat dela egiaztatu ezin badezakezu, mesedez ez ezazu bateria erabili. Eraman ezazu hurbilen duzun Nokia konpainiak baimendutako zerbitzu-gunera edo hornitzailearengana laguntza eskatzeko. Nokia konpainiak onartzen ez duen bateria bat erabiltzea arriskutsua izan daiteke; errendimendu gutxiago izateaz gain, telefonoa eta bere osagarriak honda baititzake. Gainera, gailuari ezartzen zaion edozein onarpen edo berme baliogabetu dezake.

Nokia bateriei buruz gehiago jakiteko, zoaz www.nokia.com/battery helbidera.

# Arreta eta mantenimendua



Zure telefonoa diseinu eta fabrikazio bikaineko produktu bat da, eta kontuz erabili behar da. Hurrengo proposamen hauek garantiaren estaldura babesten lagunduko dizute.

- Telefonoa lehor manten ezazu. Euriak, hezetasunak eta mota guztietako likidoek edo egoera bustiek, zirkuitu elektronikoak erdoil ditzaketen mineralak izan ditzakete. Zure gailua bustiz gero, atera bateria, eta utz iezaiozu guztiz lehortzen berriz jarri baino lehen.
- Erabili ezazu zapi leun, garbi eta lehor bat lenteak garbitzeko; kamera, hurbiltasun sentsore edo argi sentsore lenteak esaterako.
- Ez erabili edo gorde telefonoa toki zikin edo hautsez betetako tokietan. Atal higikorrak eta osagarri elektronikoak honda daitezke.
- Ez ezazu telefonoa toki beroetan gorde. Tenperatura altuek gailu elektronikoen iraupena laburtu, bateriak hondatu eta plastiko batzuk deformatu edo urtu ditzakete.
- Ez ezazu gorde gailua toki hotzetan. Gailua bere tenperatura normalera bueltatzen denean, barruan hezetasuna sor dakioke, eta horrek, zirkuitu elektronikoen plakak honda ditzake.
- Ez zaitez telefonoa gida honetan azaltzen ez den modu batean zabaltzen saiatu.
- Ez ezazu utzi telefonoa lurrera erortzen; ez kolpatu edo astindu telefonoa. Modu zakarrean erabiliz gero, barruko zirkuituen plakak eta atal hauskorrenak apur daitezke.
- Ez ezazu erabili produktu kimiko kaltegarririk, disolbatzailerik edo garbigarri gogorrik telefonoa garbitzeko.
- Ez ezazu telefonoa margotu. Margoak atal mugikorrak buxatu eta funtzionamendu egokia galarazi dezake.
- Telefonoarekin batera hornitu edo homologatutako ordezko antena soilik erabili. Baimenik gabeko antena, aldaketa edo atxikitako elementuek, gailua hondatu eta irrati tresnen araudien urratze bat suposa ditzakete.
- Kargagailua beti toki baten barruan erabili, ez aire librean.
- Sor ezazu beti gorde nahi duzun datuen segurtasun kopia bat, kontaktu eta agendako oharrak, esaterako.
- Noizean behin telefonoa berrezarri eta honen etekinik onena ateratzeko, itzal ezazu telefonoa eta ken iezaiozu bateria.

Gomendio hauek berdin balio dute telefono, bateria, kargagailu edo beste edozein osagarrirentzat. Telefonoren bat ongi ez badabil, eraman ezazu zure inguruan dagoen baimendutako zerbitzu-gunera.

# Birziklatu

Erabilitako produktu elektronikoak, bateriak eta paketatze materialak beti dagokien bilketa tokietara eraman. Honela kontrolik gabeko hondakinen erauzketa ekiditen lagunduko duzu eta birziklatzea bultzatu. Produktu hornitzaileak, tokiko zabortegi arduradunek, produkzio ardurako erakunde nazionalek eta tokiko Nokia konpainiaren ordezkariek xehetasun gehiago eskain diezazkizukete. Ikus Nokia produktuak birziklatzeko bideak www.nokia.com/werecycle helbidean edo, mugikor batekin arakatuz gero, www.nokia.mobi/werecycle helbidean.



Telefonoan, dokumentazioan edo kaxan agertzen den gurutze batez estalitako zaborrontziak produktu elektrikoak edo elektronikoak, bateriak eta metagailuak funtzionatzeari uzten diotenean biltegi berezietara eraman behar direla gogorarazten du. Eskakizun hau Europar Batasunean bete behar da. Produktu hauek ezin dira sailkatu gabeko udal-zabortegietan bota. Ingurumenari buruzko informazio gehiagorako, ikus produktuaren ekologia agiria www.nokia.com/environment helbidean.

# Segurtasunari buruzko informazio gehigarria

## Ume txikiak

Telefonoak eta osagarriek zati txikiak izan ditzakete. Haurren eskumenetik kanpo mantendu.

## Inguru eragilea

Telefono honek irrati frekuentzien aurrean jasan daitezkeen arriskuei buruzko arautegia betetzen du, betiere, belarriaren ondoan posizio normalean erabiltzen denean , edo gutxienez gorputzetik 2,2 zentimetro (7/8 hazbete)ko distantziara dagonean. Telefonoa gorputzarengandik hurbil zorro babesle batean, gerriko poltsatxo batean edo euskarri batekin erabiliz gero, honek ez luke metalik eraman behar eta telefonoa gorputzetik aurrez aipatutako distantziara eraman beharko zenuke.

Datu fitxategiak edo mezuak bidaltzeko, telefono honek kalitate honeko sare konexioa eskatzen du. Kasu batzuetan, datu fitxategi edo mezuen igorpenak atzeratu egin daitezke konexio egokia erabilgarria egon arte. Ziurta ezazu gorago aipatutako banatze distantzien jarraibideak betetzen direla igorpena bukatu arte.

Telefonoaren atal batzuk magnetikoak dira. Telefonoak material metalikoak erakar ditzake. Ez itzazu jarri kreditu txartelak edo beste biltegiratzeko modu magnetikorik gailuarengandik hurbil; bestela, gordetzen duen informazioa ezabatu daiteke.

## Aparatu medikoak

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono mugikorrak barne, modu ezegokian babestutako aparatu medikoen funtzionamenduan eragin dezakete. Jarri harremanetan medikuarekin edo gailu medikoaren egilearekin kanpoko irrati-frekuentziaren energiatik ondo babestuta daudela zehazteko. Itzali telefonoa argitaratutako arauak hori egitea eskatzen dizutenean. Ospitaleetan edo osasun zentroetan irrati-frekuentziaren energiarekiko sentikorra den ekipamendua erabil daiteke.

### Medikuntzako tresna inplantatuak

Medikuntzako tresnen egileek hari gabeko gailuaren eta inplantatutako mediku tresnaren artean, taupada-markagailu edo desfibriladoreak esaterako, gutxienez 15,3 zentimetroko (6 hazbeteko) tartea egotea gomendatzen dute medikuntza tresnarekiko egon

daitezkeen interferentziak ekiditeko. Tresna hauetakoren bat darabilten pertsonek:

- Eduki haririk gabeko gailua gailu medikotik 15,3 zentimetrotara (6 hazbetetara) baino gehiagotara
- Ez eraman telefonoa paparreko zorro batean.
- Eduki haririk gabeko gailua gailu medikoa dagoen kontrako belarrian.
- Interferentziaren bat dela susmatu bezain laster hari gabeko telefonoa itzali.
- Jarraitu egilearen argibideak inplantatutako gailu medikoari dagokionez.

Zure haririk gabeko telefonoa medikuntzako tresna batekin batera erabiltzeari buruzko zalantzarik izanez gero, jar zaitez zure sendagilearekin harremanetan.

## Entzuteko aparatuak

Gailu mugikor digital batzuek audiofono batzuetan eragina izan dezakete.

# Ibilgailuak

RF seinaleek ibilgailuetan gaizki instalatutako edo gaizki babestutako sistema elektronikoetan eragina izan dezakete, hala nola, erregaiaren injekzio sistema elektronikoetan, balazten blokeoa saihesteko sistema elektronikoetan, abiaduraren kontrol sistema elektronikoetan edo airbag sistemetan. Informazio gehiagorako, jo zure ibilgailuaren fabrikatzailearengana edo ordezkariarengana gehitutako osagarriak egiaztatzeko.

Langile kualifikatuek soilik ikuska ditzakete telefonoak eta ibilgailuetan instalatu. Instalazioa edo beste edozein zerbitzu gaizki burutzea arriskutsua izan daiteke eta telefonoaren bermea baliogabe dezake. Egiaztatu erregularki ibilgailuan instalatutako hari gabeko osagarriek behar bezala funtzionatzen dutela. Ez gorde edo eraman likido sukoiak, gasak edo material lehergarriak telefonoa, haren zatiak edo osagarriak daramatzazun toki berean. Airbagak dituzten ibilgailuetan, gogoan izan airbagak indar handiz puzten direla. Ez ezarri inolako objekturik, ez hari gabeko osagarri eramangarri edo instalaturik airbagaren inguruan edo airbaga irekitzen den lekuan. Ibilgailurako hari gabeko osagarriek, behar bezala kokatuta ez badaude eta airbaga puzten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Hegazkinez bidaiatzerakoan debekatua dago telefonoa erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinera igo aurretik. Hari gabeko gailuak hegazkinean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren funtzionamendurako, hari gabeko telefono sarea eten dezakeelako eta legez kanpokoa izan daitekeelako.

# Balizko ingurune leherkorrak.

Itzali telefonoa leherketa arriskua dagoen edozein ingurutan eta errespetatu argibide eta seinale guztiak. Ibilgailuaren motorra itzali beharreko guneak ere leherketa arriskudun ingurutzat hartzen dira. Inguru hauetan sor litezkeen txinpartek suteak edo leherketak eragin ditzakete eta, hauen ondorioz, zauriak edo

heriotza. Itzali telefonoa gasolindegietan, batez ere gasolina-hornigailuen inguruan. Errespetatu irrati uhinak darabiltzaten tresnei buruzko arauak, gasolindegietan, erregai biltegietan, fabrika kimikoetan edo leherketak gauzatzen diren inguruetan. Leherketa arriskuko inguruak ongi seinaleztatu egon ohi dira, baina ez beti. Inguru hauen artean aipagarriak dira itsasontzietako kubiertak, produktu kimikoen garraioak edo biltegiak, edo airean partikula kimikoak, adibidez, hautsa, granaila edo metal-hautsa dauden inguruak. Fabrikatzaileengana jo erregai likidoak (butanoa, propanoa etab.) darabiltzaten ibilgailuen edo tresnen inguruan telefonoa erabiltzea segurua den jakiteko.

# Larrialdi deiak

**Garrantzitsua:** Telefono mugikorrek, telefono hau barne, irrati-seinaleak, haririk gabeko eta lehorreko sareak eta erabiltzaileak programatutako funtzioak erabiliz funtzionatzen dute. Zure gailuak Internet bidezko ahots-deiak onartzen baditu (interneteko deiak), mugikorra eta interneteko telefonoa biak aktibatu. Honela, telefonoak larrialdi deiak egiteko mugikorraren sarea eta Internet-hornitzailea erabiliko ditu aktibatuta badaude. Ez da uneoro konektatzeko aukera izatea ziurtatzen. Ez zaitez inoiz egon telefono mugikor baten menpe komunikazio garrantzitsuetarako, adibidez, osasun larrialdi baterako.

Larrialdiko deiak egiteko:

1. Telefonoa itzalita baldin badago, piztu ezazu. Seinaleak behar besteko indarra daukan begiratu. Telefono motaren arabera, baliteke ondorengoak ere egin behar izatea:
   - SIM txartel bat sartu, telefonoak bat badarabil.
   - Aktibatu dituzun zenbait dei murrizketa ezgaitu.
   - Profila hegaldi edo lineaz kanpoko modutik modu aktibo batera aldatu.
2. Sakatu “Bukatu” (“End”) tekla behar bezain beste, bistaratutakoa ezabatu eta gailua deietarako prest jartzeko.
3. Sartu zauden tokiko larrialdi zenbaki ofiziala. Larrialdi zenbakiak tokiaren arabera alda daitezke.
4. Sakatu deitzeko tekla.

Larrialdi dei bat egitean, eman ezazu beharrezko informazio guztia ahalik eta zehatzen. Zure gailu mugikorra komunikatzeko modu bakarra izan daiteke istripu bat dagoen tokian. Deia ez bukatu hori egiteko baimenik ez den bitartean.

# Ziurtagiri informazioa (SAR)

**Telefono honek irrati uhinekiko arriskuari buruzko arauak betetzen ditu.**

Zure telefono mugikorra irrati-igorlea eta irrati-hargailua da. Araudi internazionalek gomendatzen duten irrati uhinekiko arrisku egoerara ez heltzeko diseinatua dago. Araudi hauek ICNIRP elkarte zientifiko independenteak garatu ditu eta pertsona guztiak

babesteko marjina daukate, adina edo osasuna kontutan izan gabe.

Telefono mugikorren arriskuen kontrako araudiak Berariazko Absortzio Tasa (Specific Absorption Rate) edo SAR moduan ezagutzen den neurri unitate bat erabiltzen du. ICNIRP araudian ezartzen den SAR limitea 2.0 watt/kilogramo (W/kg)-koa da, 10 gramoko ehunean erabilita batezbeste. SAR probak funtzionamendu posizio estandarretan egiten dira, telefonoak potentzia mailarik altuenean transmititzen duen bitartean probatutako frekuentzia banda guztietan. Funtzionatzen ari den telefono baten kasuan kasuko SAR maila, gehiengo balioaren azpitik egon daiteke, zeren telefonoa sarea atzitzeko behar duen indarra erabiltzeko bakarrik diseinatuta baitago. Kantitatea faktore batzuen arabera alda daiteke, adibidez, sare estazio gune batekiko zein hurbil zauden. SAR balio altuena ICNIRP araudien arabera gailua belarrian erabiltzeko honakoa da: 1,05 W/kg.

Telefonoaren osagarriak erabiltzeak SAR balio ezberdinak eman ditzake. SAR balioak proba eta informazio nazionalen eskakizunen eta sareko bandaren araberakoak izan daitezke. SAR-i buruzko informazio gehiago jasotzeko kontsultatu ezazu produktuari buruzko informazioa helbide honetan: www.nokia.com.

# Aurkibidea



## Ikurrak/Zenbakiak

**3-D dei tonuak 31, 101**
**802.1x**
segurtasun ezarpenak 157

## A

**abisu tonuak 148**
**adierazleak 23**
**ahots bidezko komandoak**
profilak aldatzen 64
**ahots funtzioak 59**
aktibatzea 60
**ahots komandoak**
aplikazio bat irekitzea 63
ezarpenak 64
**ahots laguntza**
Ikus *hizketa gaia*
**ahots-postontzia**
deitu 54
zenbakia aldatu 54
**aktibazio kodeak 143**
**albisteen jarioak 71**
**aldeetako teklak 14**
**alerta tonuak 148**
**antenak 19**
**aplikazio kudeatzailea 139**
**aplikazioak 139**
ohiko ekintzak 26
**aplikazioak instalatu 139**
**aplikazioen ezarpenak 161**
**arakatu**
intranet 74
**arakatzailea 70**
cache memoria 72
edukiak bilatu 72
ezarpenak 73
laster markak 72
orriak arakatu 70, 71
segurtasuna 73
widgetak 72
**arazo konponketa 167**
**argazkiak**
begi gorriak 110
editatu 110
etiketak 109
fitxategiak antolatu 108
fitxategiaren xehetasunak 107
ikusi 107
inprimatu 111
tresna barra 108
**Assisted GPS (A-GPS) 77**
**atzeko irudia 30, 100**
**audio fitxategiak**
xehetasunak 121
**audio gaiak 30, 100**
**audio mezuak 46**
**aurkezpena 109**
**aurkezpenak 48, 106**
**auto kita**
urruneko SIM sarbidea 130
**auto-blokeo tartea 150**

## B

**bateria**
karga maila 23
kargatzea 11
sartzea 10
**bateria kargatzea 11**
**begi gorriak konpondu 110**
**bibrazioa 148**
**bidali**
Bluetooth-a erabili 127
**bidaltzea**
fitxategiak 26
**bideo klipak**
erreproduzitzea 120
**Bideo Zentroa 115**
**bideo zentroa**
bideo iturriak 117
bideoak transferitu 117
deskarga 116
ikusi 116
nire bideoak 117
**bideo-deiak**
ahots-deira aldatu 55
dei bat egin 55
**bideoa**
erreproduzitzea 104
**bideoak partekatzen**
bideoklipak partekatu 57

gonbidapena onartu 57
zuzeneko bideoak partekatu 57
**bideoklipak**
partekatuak 55
xehetasunak 121
**bihurtu**
monetak 93
neurriak 93
**bilatu 26**
kontaktuak 38
WLAN eskuragarriak 133
**bilatzea 26**
**bildumak**
media 108
**bilera eskaerak**
jaso 42
**blogak 71**
**blokeatzea**
gailua 134
teklatua 15
**blokeatzen**
gailu auto-blokeoa 150
teklatua 150
**blokeo gakoa 134**
**blokeo kodea 150**
**Bluetooth konektibitatea**
gailuak blokeatu 129
**Bluetooth-a**
datuak bidali 127
datuak jaso 127
gailuak baimendu 128
pasahitza 128
segurtasuna 129
uztartu 128
**bolumena 27**
**bulegotik kanpo zaudenerako erantzuna 43**

## C

**cache memoria 72**

## D

**data**
ezarpenak 149
**datu-pakete**
ezarpenak 156
mugatu 161
**datu-paketeen konexioa**
sargunearen ezarpenak 154
**datuen konexioak**
sinkronizazioa 144
**datuen sinkronizazioa 144**
**dei tonuak**
profiletan 28, 98
**dei-tonuak 148**
3-D 31, 101
bibrazioa 148
kontaktuak 38
**deiak**
ahots komandoak 63
ahots markazioa 63
ahots-postontzia 54
dei-tonuak isilarazi 53
deia zain 151
deitzaile IDa 151
egin 53
erantzun 53
erregistrotik dei bat egin 69
ezarpenak 151
internet deiak 58
konferentzia-deia 54
markaketa bizkorra 60
mota aukeratu 151
mugatzea
Ikus *markatze finkoa*
sare dei abisua 151
sare deiak murriztu 61
ukatu 53
ukatu testu-mezu batekin 151
**deiak blokeatzea 61**
**deiak desbideratzea 60**
**deiak egin 53**
**deiak murriztu**
sare deiak 61
**deitzaile IDa 151**
**desenkriptatu**
telefonoaren memoria eta memoria-txartela 135
**Deskargatu!**
ezarpenak 76
ezarpenak bilatu 75
**Download!**
elementuak kudeatu 75
erosketen historia 75
harpidetzak 75
**DTMF tonuak 62**

## E

**e-mail tekla ezarpenak 151**
**EAP**
EAP plugin-ak erabili 158
plugin ezarpenak 158

**edukia**
sinkronizatu, bidali eta berreskuratu 17
**edukia transferitu 17**
**eguneraketak**
gailu softwarea 141
**eguneratu**
softwarea 142
**egutegi-tekla 34**
**egutegia 35**
bilera eskaerak 36
ikuspegiak 36
sarrerak sortzea 35
**ekualizadorea 120**
**enkriptatu**
telefonoaren memoria eta memoria-txartela 135
**entzungailua**
konektatu 16
**eranskinak**
multimedia mezuak 49
**Erlojua**
ezarpenak 96
**erlojuaren alarma 96**
**erregistroa 68**
dei bat egin 69
ezabatu 68
ezarpenak 69
Kontaktuetan zenbakiak gehitu 68
mezuen bidalketa 69
**erreproduzitzea**
bideoa eta audioa 120
mezuak 44
**estekak 106**
**eten**
sare konexioak 133
**ezarpen laguntzailea 22**
**ezarpenak**
ahots komandoak 64
aplikazioak 161
arakatzailea 73
berrezarri 150
bideo zentroa 118
bideoa partekatu 56
data 149
datu-pakete 156
datu-paketeen sarguneak 154
deiak 151
Deskargatu! aplikazioa 76
e-mail tekla 151
EAP plugin-ak 158
erlojua 96
erregistroa 69
FM irratia 123
GPRS 156
gurpilaren argiak 148
hizkuntza 148
inprimagailua 95
internet deiak 59
Interneteko WLAN sarguneak 155
kamera 104
kokapena 151
kontaktuak 38
mezuak 51
ohar aktiboak 90
ordua 149
osagarriak 149
pantaila 147
RealPlayer 121
sarbideak 154
sarea 152
sarguneak 153
SIP 159
teklatua blokeatu 150
testu-mezuak 50
tonuak 148
WEP segurtasuna 157
WLAN 155, 156
WLAN aurreratua 156
WLAN segurtasuna 157
zelula-difusioa 52
zerbitzu-mezuak 52
ziurtagiria 137

## F

**fitxak 26**
**fitxategi kudeatzailea 91**
**fitxategiak**
flash fitxategiak 122
**FM irratia 122**

## G

**gaiak**
aldatzen 30, 100
audioa 30, 100
deskargatzea 30, 100
**gailu-kudeatzailea 138**
**gailua piztea eta itzaltzea 12**
**gako biltegia 138**
**galeria 105**
aurkezpenak 106

estekak 106
soinu klipak 106
**gorde**
ezarpenak 26
fitxategiak 26
**GPRS**
ezarpenak 156
**GPS**
posizio eskaerak 79
**GPS (global positioning system) 77**
**gurpilaren argiak 148**

## H

**hasiera pantaila 33**
ezarpenak 29, 99
**hasiera-tekla 34**
**hizketa 45**
**hizketa gaia 62**
**hizkuntza**
ezarpenak 148
**hiztegia 96**
**hobekuntzak**
urruneko SIM sarbidea 130
**HSPA**
HSDPA, HSUPA 126

## I

**inprimagailuaren ezarpenak 95**
**inprimatu**
argazkiak 111
**inprimatzea 94**
**Internet bidezko dei zerbitzuak**
kudeatzen 59
**internet deiak 58**
aktibatzen 58
egiten 58
ezarpenak 59
kontaktuak blokeatzen 59
**internet konexioa 70**
Ikus, halaber, *nabigatzailea*
**intranet**
arakatu 74
**iparrorratza 86**
**irratia 122**
entzun 122
irrati kateak 123
**irratiaren**
ezarpenak 123

## J

**J2ME Java aplikazioaren laguntza 139**
**jarioak, albisteak 71**
**jatorrizko ezarpenak 150**
**jatorrizko ezarpenak berrezarri 150**
**Java aplikazioak 139**

## K

**kablea 126**
**kalkulagailua 91**
**kamera**
argazki ezarpenak 104
argazkiak ateratzea 102
argazkiak ikustea 103
bideoak 104
bideoak erreproduzitzea 104
eszenak 103
fokatze osoa 102
sekuentzia modua 103
tresna barra 102
**kameraren**
bideo ezarpenak 105
**kokapen informazioa 77**
**kokapena**
ezarpenak 151
**konektoreak 13**
**konexio metodoak**
Bluetooth-a 127
datu kablea 126
**konexioak**
eten 133
PC konexioa 76
**konferentzia-deiak 54**
**konfigurazio mezuak 160**
**kontaktuak 37**
bilatu 38
dei-tonuak gehitu 38
ezarpenak 38
kontatuen taldeak 37
sinkronizatu 144

## L

**laguntza aplikazioa 21**
**laguntza baliabideak 20**
**laster markak 72**
**lasterbideak 162**
**Lineako partekatzea**
kontuaren ezarpenak 115

zerbitzuaren edukia 114
**lizentziak 143**
**logoak**
ongi-etorri logoa 147

## M

**Mapak 81**
adierazleak 82
kokapenak bidali 83
kokapenak gorde 83
**mapak**
bildumak 83
eguneratzea 89
ezarpenak 87
faboritoak 83
gidatzea 84
gordetako elementuak 83
historia 84
ibilbide ezarpenak 88
ibilbideak 82
internet ezarpenak 87
iparrorratza 86
kokapenak bilatzea 82
mapa ezarpenak 88
nabigazio ezarpenak 87
nabigazioa 81
oinez joatea 84
Ovi sinkronizazioa 83
sare posizionamendua 81
sinkronizazio ezarpenak 88
trafikoa eta segurtasuna 85
**markaketa bizkorra 60**
**markatze finkoa 136**
**memoria**
ezabatzea 27
webaren cachea 72
**memoria txartela**
ateratzea 12
sartzea 11
**memoria-txartela**
blokeatzen 134
pasahitzak 134
**memoriaren babeskopia egin 91**
**menua 22**
**mezu irakurlea 44**
**mezu irakurtzailea**
ahotsa aukeratu 45
**mezuak 40**
bestelako ezarpenak 52
deiak ukatzeko mezuak 151
konfigurazio mezuak 160
testu-mezuen ezarpenak 50
zelula-difusioaren ezarpenak 52
zerbitzu-mezuak 49
**mezularitza**
karpetak 40
**Minimapa 71**
**MMS (multimedia mezularitza zerbitzua) 46**
**modema 76**
**moneta bihurketak 93**
**mugarriak 79**
**multiataza 39**
**multimedia 105**
irratia 122
**multimedia fitxategiak kargatzea 112**
**multimedia fitxategiak konektatuta partekatzea 112**
**multimedia mezuak 46, 51**
aurkezpenak sortzea 48
eranskinak 49
honi erantzuten 47
jasotzen 47
**munduko ordua 96**
**musika erreproduzitzailea**
erreprodukzio zerrendak 119
erreproduzitzen 119
musika transferitzea 120

## N

**N-Gage 123**
erreproduzitzaile izena 124
hasiera fitxa 125
jokoak deskargatzea 123
jolastu 124
lagunak 124
**nabigatzailea 70**
tresna barra 71
**nabigazio tresnak 77**
**neurriak**
bihurtu 93
**Nokia laguntza informazioa 20**
**Nokia Maps Updater 89**

## O

**ohar aktiboak 90**
ezarpenak 90
**oharrak 97**
**ongi etorri oharra 147**

**operadorea**
aukeratu 152
**ordu-zonen ezarpenak 96**
**ordua**
ezarpenak 149
**ordua eta data 96**
**ordua eta data automatikoki eguneratu 96**
**orriaren ikuspegi orokorra 71**
**osagarriak**
ezarpenak 149
**Ovi 39**
**Ovi Mapak 83**
**Ovi-ko fitxategiak 39**

## P

**pantaila**
aldatu itxura 30, 100
ezarpenak 147
**pantaila babesle animatua 30, 100**
**pantaila-babesa 30, 100, 147**
**pantailako**
adierazleak 23
**partekatutako bideoa 55**
**PDF reader 93**
**pertsonalizatzea**
hizkuntza aldatzea 148
tonuak 148
**pertsonalizazioa 30, 100**
pantaila 147
**PictBridge 111**
**PIN kodea**
aldatzen 150
**posta elektronikoa**
bidali 41
bilatu 43
bulegotik kanpo zaudenerako erantzuna 43
deskonektatu 43
eranskinak deskargatu 42
eranskinak gehitu 42
ezabatu 43
ezarpen orokorrak 44
irakurri 42
karpetak 43
konfiguratu 41
kontuak 43
**posta elektronikorako tekla 34**
**profilak**
dei-tonuak aukeratu 28, 98
pertsonalizatu 28, 98
pertsonalizatzea 29, 99
sortu 28, 98
**proxy ezarpenak 155**
**PTT**
Ikus *sakatu hizketarako*
**push to talk**
ezarpenak 68

## Q

**Quickoffice 92**

## R

**RealPlayer**
ezarpenak 121
klip xehetasunak ikusi 121
multimedia klipak erreproduzitzea 120

## S

**Sakatu hizketarako**
Kanal bat sortu 66
**sakatu hizketarako 64**
atzeradeiaren eskariak 66
banakako dei bat egin 65
erregistroa ikusi 67
hasi eta irten 65
kanal batekin hitz egin 67
kanal gonbidapen bati erantzun 67
kanalak 66
sare-taldeak 66
SH dei bat erantzun 66
talde dei bat egin 65
**sarbideak**
taldeak 154
**sare deiak**
abisu ezarpenak 151
murriztu 61
**sare pribatu birtuala**
aplikazioetan erabili 145
**sarea**
ezarpenak 152
**Sarea partekatzea**
datu kontagailuak 115
etiketak 114
ezarpen aurreratuak 115
Irteera ontzia 114
klik batean kargatu 113
zerbitzu-hornitzailearen ezarpenak 114

**Sarean partekatu 112**
argitaratu 113
kontuak 113
sarrerak sortu 113
**sarguneak 153**
VPN 145
**sartzea**
bateria 10
memoria txartela 11
SIM txartela 10
**segurtasun gakoa 134**
**segurtasun modulua 138**
**segurtasuna**
Bluetooth-a 129
gailua eta SIM txartela 150
memoria-txartela 134
web arakatzailea 73
**seinale indarra 23**
**Share online**
harpidetu 112
zerbitzuak aktibatu 112
**SIM sarbide profila 130**
**SIM txartela**
sartzea 10
testu-mezuak 47
**SIP**
erregistro zerbitzariak editatu 160
ezarpenak 159
profilak editatu 159
profilak sortu 159
proxy zerbitzariak editatu 160
**SMS (testu motz zerbitzua) 46**
**software aplikazioak 139**
**software eguneraketak 141**
**soinu klipak 106**
**Symbian aplikazioak 139**

## T

**teklak 13, 14**
WEP gakoak 157
**teklatua**
blokeatzea 15
ezarpenak blokeatu 150
tonuak 148
**telefono konfigurazioa 22**
**testu**
hizki modua 25
input aurresalea 25
input tradizionala 25
zenbaki modua 25
**testu input aurresalea 25, 148**
**testu input tradizionala 25**
**testu mezuak**
bidaltzea 46
**testu-mezuak**
ezarpenak 50
mezuak SIM txartelean 47
**testua**
tamaina aldatu 147
**tonuak 148**
ezarpenak 148
**tresna barra**
kamera 102
**tresna barra aktiboa**
Argazkietan 108

## U

**Ukitu bakarreko teklak 148**
**UPIN kodea**
aldatzen 150
**urruneko datu-base bilaketa 38**
**urruneko konfigurazioa 138**
**urrutiko blokeoa 134**
**USB datu kablea 126**
**uztartu**
gailuak 128
pasahitza 128

## V

**VPN**
aplikazioetan erabili 145
sarguneak 145

## W

**web konexioa 70**
**weben erregistroak 71**
**WEP**
segurtasun ezarpenak 157
teklak 157
**widgetak 72**
**WLAN**
802.1x segurtasun ezarpenak 157
eskuragarritasuna 132
ezarpen aurreratuak 156
ezarpenak 156
MAC helbidea 131, 156
sarbide puntuak 132
sareak bilatu 133

segurtasun ezarpenak 157
WEP gakoak 157
WPA segurtasun ezarpenak 158
**WLAN morroia 132**
**WPA segurtasun ezarpenak 158**

## Z

**zarata ezabatzea 53**
**zelula-difusioa 49**
ezarpenak 52
**zerbitzu-mezuak 49**
ezarpenak 52
**zerbitzuaren komandoak 49**
**Zip kudeatzailea 93**
**ziurtagiriak**
ezarpenak 137
xehetasunak 137
**zorroa 15**